

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



Argitarapenen Batzordea / Comisión de Publicaciones:

Burua: Jean Haritschelhar

Kideak: *Juan Mari Lekuona*
J. M. Satrustegi
Jose Antonio Arana Martija
Patxi Altuna
Pierre Charriton
Endrike Knörr
Pello Salaburu
Fr. Luis Villasante

Eragile eta Idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

Euskera XXXIV (2. aldia)
(1989, 2)

34

BILBO

EUSKALTZAINDIA

Elkano, 5 - 1. - 48011 Bilbo

Fotokonposaketa: Rali
Particular de Costa, 12-14
48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza
Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

© Euskaltzaindia
Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISSN. 0210-1564
Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua: BI-616-90

Maketazio eta orrazketak: R. B. U.

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.

Esta **Revista** se intercambia con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

IBON SARASOLAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

<i>Xabier Albistur Marin</i> , IBON SARASOLA EUSKALTZAIN BERRIARI, BERE OMENALDIAN	401
<i>Jean Haritschelhar</i> , IBON SARASOLA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA	403
<i>Ibon Sarasola</i> , EUSKAL HITZEZ	405
<i>Endrike Knörren</i> HARRERAKO ERANTZUNA	421

TXOMIN PEILLENEN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

<i>Henri Grenet</i> , TXOMIN PEILLEN EUSKALTZAIN BERRIA	429
<i>Jean Haritschelhar</i> Euskaltzainburuaren IHARDESPENA	433
<i>Txomin Peillen</i> , EUSKALDUN MAITEOK, AGUR!	435
<i>Alfonso Irigoien</i> , TXOMIN PEILLEN EUSKALTZAIN BERRIAREN HITZALDIARI	467
<i>Maite Idirin</i> , TXOMIN PEILLEN-EN SARRERA EGUNEAN KANTALDIA	481
<i>J. M. Bedaxagar</i> , TXOMIN PEILLEN-EN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA	483
TXOMIN PEILLEN-EK BAIONAN	485

JUAN ANTONIO UBILLOSEN II. MENDEURRENA

<i>Eduardo Laborde</i> , JUAN ANTONIO UBILLOSEN II. MENDEURRENA.	489
<i>Karmelo Iturria</i> , JUAN ANTONIO UBILLOSEN II. MENDEURRENA.	499
<i>Fr. Luis Villasante</i> , AITA UBILLOS-EN "CHRISTAU DOCTRIÑ BERRI- -ECARLEA". LIBURU HONEN BEREZITASUN BATZUEZ OHA- RRAK	517
<i>Patxi Altuna</i> , ZERGATIK EDIZIO KRITIKOA	533

BATZAR-TXOSTENAK

<i>Jose Antonio Arana Martija</i> , WENTWORTH WEBSTER-EN <i>BASQUE LEGENDS</i>	541
<i>Jean Haritschelhar</i> , EUSKAL HERRIA OIHENARTEN ATSOTITZ ETA ERREFRAUETAN	549
<i>Alfonso Irigoien</i> , OIHENART-EN ATSOTITZ ETA ERREFRAUEZ NOTA TIPIA	563

BESTELAKO TXOSTENAK

<i>Michel Morvan</i> , NOTE A PROPOS DE QUELQUES POINTS DE TYPO- LOGIE DES LIQUIDES ET VIBRANTES EN ALTAIQUE ...	569
<i>Abel Muniategi</i> , EUSKARA KONSTITUZIOTIK	573
<i>Martxel Ensunza</i> , ERDAL ADJEKTIBO ERREFERENTZIALETARAKO EUSKAL ORDAINAK	577
<i>Igone Zabala Unzalu eta Juan Carlos Odriozola Pereira</i> , COMO GAZTE- LERAZKO JUNTAGAILUAREKIKO INTERFERENTZIAN SAR- TURIKO ATRIBUZIOAREN ESPARRUKO EGITURAK	597
<i>Yu. Vl. Zytsar', Ts. G. Menabäe</i> , SOBRE EL REMA DEL VASCO ...	621

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK	631
MARRAZKI LANDUEN IZENAK	661
PROTOKOLO ETA ANTZEKO ARAZOAK ARAUTZEAZ	673

BERRIAK

EUSKALTZAINDIKO ZUZENDARITZA BERRIAREN KARGU-HARTZEA: Bilbo, 1989-I-19	677
<i>Fr. Luis Villasante, BILBON, KARGU-ALDATZEAK ZIRELA ETA, ESANDAKO HITZAK</i>	681
<i>Jean Haritschelhar, Euskaltzainburu Berria, EUSKALTZAINDIKO KARGU-ALDATZEAK</i>	683
<i>Jose Antonio Ardanza, Lehendakaria, EUSKALTZAINDIKO ZUZENDARITZAREN KARGUEN ALDAKETA</i>	689
JOSE MIGEL BARANDIARANI OMENALDIA: ATAUN, 1989-II-25	691
<i>Jean Haritschelhar, Euskaltzainburua, JOXE MIGEL BARANDIARAN JAUNARI EUSKALTZAINDIAK OMENALDIA</i>	693
<i>J. M. Barandiaran, JOXE MIGEL BARANDIARAN JAUNARI EUSKALTZAINDIAK OMENALDIA</i>	695
<i>J. L. Lizundia, Idazkariordea, OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN II. ALEAREN AURKEZPENA</i>	697
LATSIBI ELABERRIAREN AURKEZPENA: Bilbo 1989-V-16	699
<i>Mirari Alberdi, LATSIBI ELABERRIAREN AURKEZPENA</i>	701
<i>J. A. Arana Martija, LATSIBI-REN AURKEZPENA</i>	703

ONOMASTIKA

ONOMASTICON VASCONIAE 5 LIBURUAREN AURKEZPENA: GASTEIZ, 1989-VI-23	709
<i>Endrike Knörr, EN LA PRESENTACION DE TOPONIMIA ALAVESA, SEGUIDO DE MORTUORIOS O DESPOBLADOS Y PUEBLOS ALAVESSES</i>	711
<i>A. Irigoien, LOS ARCOS NAFARROAKO HIRIAREN IZENA EUSKARAZ URANTZIA?</i>	713
<i>Frantzisko Ondarra, LOS ARCOS-EN EUSKAL IZENA URANTZIA OTE?</i>	723

HILBERRIAK

JESUS MARIA LEIZAOLA SANCHEZ	727
EUGÈNE GOYHENECHÉ	731

EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA

EGOITZA / SEDE	737
“AZKUE BIBLIOTEKA”	737
GORDAILUA / ALMACEN	737
ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES	739
EUSKALTZAINBURUGOA / CARGOS ACADEMICOS Y EJECUTIVOS	741
BATZORDEEN ORGANIGRAMA / ORGANIGRAMA DE LAS COMISIONES	743
EUSKALTZAIN OSOAK / ACADEMICOS DE NUMERO	747
EUSKALTZAIN OHOREZKOAK / ACADEMICOS DE HONOR ...	749
EUSKALTZAIN URGAZLEAK / ACADEMICOS CORRESPONDIENTES	751
Aurkibidea 1989	757

**IBON SARASOLAREN
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Donostia, 1989-I-27

**IBON SARASOLA EUSKALTZAIN BERRIARI,
BERE OMENALDIAN**

Donostia, 1989-1-27

*Xabier Albistur Marin
Donostiako Alkatea*

Jaun andreok:

Ohore haundia da niretzat

Euskaltzaindiari etxe honetan harrera egitea.

Harrera, donostiar eta euskaltzale guztion izenean.

Euskara, etxean landu eta kanpoan zabaltzea

Helburu nagusitzat daukan udal hau

Egokiera honetaz baliatzen da

Euskaltzaindiaren erabakiekiko atxikimendua aitortzeko

Era berean, pozgarri zaigu euskaltzain berriari

Bere herriaren izenean ongi etorririk beroena eskaintzea:

Ongi etorri itxaropentsua, baita ere,

Euskaltzainburu hautatu berria den

Haritxelar jaunari.

Jarrai dezala, guztion onerako

Aurrekoen ildotik.

Eta bukatzeko, esan beharrik ez dago,

Euskaltzain gazte berri honen sarrerak

Bi esanahi dituela gutxienez:

Aldebatetik aurrekoek egin duten lan bikainaren emaitza,

Eta bestetik euskararen onartzearen seinalea, belaunaldi gazteengan.

Ekin bada, zuen lanari orain arte bezain kementsu.

Langintza horretan, bidaide izango gara.

IBON SARASOLA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Donostia, 1989-1-27

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburuaren sarrera hitzak

Xabier Albistur Alkate jaun agurgarria.
Imanol Murua Gipuzkoako Diputatu Nagusia.
Mari Karmen Garmendia Hizkuntz politikarako idazkari anderea.
Jaun Andreak.

Nere eskerrik beroenak nahi dizkitzut eskaini egin diguzun ongi etorri goxoarengatik. Hemen gaude beraz Donostiako udaletxe honetan, Euskaltzaindiarentzat bozkariozko eguna delarik.

Gehienetan udaletxeek eskaintzen diote Euskaltzaindiari beren areto nagusia euskaltzain berri batek egiten duelarik sarrera mintzaldia. Hala egin da berrikitan Leitzan Patxi Zabaleta-rentzat, Oiartzunen Juan Mari Lekuona-rentzat. Hala egingo da Baionako udaletxean Txomin Peillenentzat. Zuk ere alkate jauna, segitu nahi ukan duzu aspaldiko ohidura. Halere erran behar dizut ni sartuz gero Euskaltzaindian —eta badu orain 26 urte baino gehiago— ez garela sekulan bildu udaletxe honetan. Arrazoin bat gehiago egun ospetsu hau egon dadin gure oroitzapenetan.

Egun pozzagarria ere, euskaltzain berri bat sartzen delakotz Euskaltzaindian. Poza bai, holako tristura batez nahasia, euskaltzain zendu baten itxura gogoratuz. Denek dakiten bezala ez zen nor nahi Koldo Mitxelena euskaltzain zena. Mundu guzian ezagutua izan balinbada euskaldun erakasle eta ikertzaile bat, Koldo Mitxelena izan da. Ez ditut hemen aipatuko haren lan baliosak; erranen dut bakarrik euskararen eta euskal kulturaren arlo gehienetan, ez balinbada guzietan, sartu dela, gaiak beti sakonki aztertuz, iritzi argi eta zorrotzak emanez.

Jakitura haundiko gizonak ukan ditu Euskaltzaindiak hala nola Azkue eta Altube gerla aurrean. Geroztik norbaitek eman balinbadio Euskaltzaindiari orain daukan fama eta itzala Koldo Mitxelena-k eman dio eta azpimarratu nahi nuke bereziki hiztegitintzan hartu duen partea *Orotariko Euskal Hiztegia*, ongi asmatu-rik eta bideratu-rik utzi duela.

Eta hain zuzen, gaur gutartean sartzen den euskaltzain berria Koldo Mitxelenaren ikasle, dizipulu eta laguntzaile izana da. Hartzen du mai-

suaren aulkia eta denbora berean *Orotariko Euskal Hiztegiaren* zuzendari-tza. Horretarako ongi prestatua, maisuak ideki duen ildotik ibiliko da.

Nehork ez dezake uka *Orotariko Euskal Hiztegiaren* beharra. Lan haundia dudarik gabe, nekea, luzea, talde batek eremaiten duena, oraiko tresneria baliatuz. Badoa aurrera; lehen liburukia agertu da duela urtea, bigarrena irarkolan dago, hirugarrena egina da, laugarrenean ari dira. Ordenagailuari esker, euskal literaturak daukan hitz altxorra bildurik dago hiztegi horretan. Garai batean pentsatu zuen Euskaltzaindiak Azkue-ren hiztegia behar zela osatu eta gaurkotu. Baina, talde lanari esker eta ordenagailuaren bitartez, zabalago eta haundiago den zerbait sortzera doa.

Euskarak bere eremu guzietan eta menderen mendetan baliatu dituen hitzak bildu nahi ukan ditu. Hau zen Koldo Mitxelenaren ametsa, berak ziolarik: “Gogoz eta ustez, ahalik eta osoena nahi zen egin, bai aldiz eta bai alde. Ez genuen deus hartu gabe utzi nahi, ez zaharrik eta ez berririk. Ezta ere ez hangorik eta ez hemengorik”.

Erakustera emaiten zuen ere *Orotariko Euskal Hiztegiaren* helburua: “Zer esan eta neurri zabal batean zer esaten den, azaldu nahi litzateke, bada, hemen eta ez zer esan behar litzatekeen. Irakurleari eman nahi zaizkio aukera egiteko behar lituzkeen lanabesak, hautaketan hasi behar badu”.

Azkenean, *Orotariko Euskal Hiztegiak* eramaneen gaitu, daukan altxo-rrari esker, batasunerako bidean, beharrezkoa baita batasuna, inguratzen gaituzten bi erdaren aurrean. Urrats bat gehiago izanen da, bideratuko dituelarik gure egungo eta biharko idazleak.

Lan ederra, lan premiatsua, Euskaltzaindiaren helburu nagusietarik bat betetzen duena: “Hiztegia biltzea”. Eta, denbora berean, hiztegiariei eta gramatikalariei esker, betetzen du bertzeko helburu bat: “Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere literatur hizkera batura heltzeko lan egitea”.

Obra horren bururatzeko, gogo onez eta bihotzez, Ibon Sarasolaren gidaritzapean ari diren lan taldekoei, Iñaki Segurola, Eduardo Valencia, Elixabete Kruzeta, M.^a Jose Kerejeta, Blanca Urgell, Gabriel Fraile eta Arantza Egiari nahi dizkiet nere eskerrik bizienak eman, hala nola esker-ten ditudan emaiten diguten diru laguntzarengatik Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernu eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiru foru aldundiak.

Ibon Sarasola-ri egingen diogu orain ongi etorririk anaikorrena, Koldo Mitxelenaren oroitzapena daukagularik gogoan. Pozik hartzen dugu gutar-tean. Ukan beza kar, kemen eta iraupen, Koldo Mitxelenarekin hasi duen lanaren bururatzeko.

EUSKAL HITZEZ

Donostia, 1989-I-27

Ibon Sarasola

Martin Ugaldere *Hablando con los vascos* liburuan bada pasarte bat beti hunkitu nauena. Koldori bere amak, gerra, heriotze-zigor eta espe-txealdiaren ondoren, azken aldiz ikusi zuenetik sei urte pasa zirenean, egin zion harrera: *etorri altzea?* Bizpahiru hitz soil horiez adierazi zituen amak urte luze eta larri haietako bere bihotzeko gorabeherak. Eta pasarte berean suma daitekeenez, ez zuen semeak arazorik izan hitz -soiltasun horren azpian ezkutatzen zen guztiaz jabetzeko.

Ildo beretik, badakit Koldoren oroitzapenari iruzur egingo niokela bere pertsona eta obrari buruz aipamen luzeetan abiatuko banintz. Bego beraz gogoeta bakar bat nere biziko maisu eta Euskaltzaindian aurreko izan nuenari buruz. Koldo Mitxelena zela izan, inor izan bada, euskaltzaina; bera izan zela, inor izan bada, bere izate eta egiteetan, euskaltzainaren eredu konplitua.

* * *

Sarrera-hitzaldi honetan euskara euskaldunen komunikazio-tresna eraginkor, egoki eta eroso bihurtzeko euskaldungoa egiten ari den berebiziko ahaleginak sortzen dizkigun arazoez mintzatu nahi natzaizue, eta horien artean, bereziki hiztegiari dagozkion arazoez. Hots, euskal hitzez mintzatu nahi natzaizue.

Ez da hau gure hizkuntzak une honetan duen arazorik larriena. Denok bat gatoz euskararen arazorik larriena bere bizitza bera dela, hizkuntza bizi bezala duen etorkizuna.

Honi buruz, bide batezko iruzkin bat zilegi bazait, gure hizkuntzaren aldeko eginahalean lehentasunak atzekoz aurrera jarriak ditugula iruditzen zait. Gure arazo nagusia hau da: euskaldun askok ez dutela askotan beren artean euskaraz egiten. Hau da arazo lehena, oinarrizkoa. Hala ere euskararen aldeko mugimenduak euskarak pairatzen duen mendetasuneko egoera salatzeari ematen dio lehentasuna. Salaketa horiek bidez-

koak dira; baina lortu nahi den euskaldunak euskaldun prakticante bihurtzea baldin bada, lortu nahi dena euskaldunak euskaltzale bihurtzea baldin bada, ez da hori biderik zuzenena. Katalunian, non katalanak katalanez mintzatzen baitira beren artean, jokaera hori eraginkorra da, baina ez hemen. Salatze horiekin lortzen duguna euskaldunen kontzientzia politikoa indartzea da, ez kontzientzia linguistikoa biztea. Eta urtetako eskarmentuak erakusten digunez abertzale-kontzientziak, besterik gabe, ezer gutxi bizkortzen du gure artean hizkuntz kontzientzia. Gainera gure hizkuntzaren egoera larriaren errua besteei, kanpokoei boteaz, aitzakia bat ematen diogu euskaldungoari bere burua zuri dezan eta bertan goxo egin dezan. Auzi honetan errua batez ere euskaldunena dela, euskara bazterreratua, marjinatua dagoela, baina batez ere euskaldunek marjinatua dagoela ikuseraztea da kinka larri honetatik ateratzeko biderik zuzenena. Euskaldunak beren arte euskaraz mintza daitezen lortzea, hori izango litzateke euskaldungoaren benetako iraultza, eta orduan izango lirateke benetan eraginkorrak salaketa guztiak. Lehentasunak bere onetara ekartzea euskaltzaleei dagokigu, eta eraberritu behar dugun Jagon Sailak baluke hor zer esanik eta zer eginik.

Baina hizkuntza bizi bezala duen etorkizuna alde batera utzirik, aipatu berri dudan euskararen eguneratze eta gaitze hori da euskaldungoak esku artean duen arazorik larriena, eta Euskaltzaindiak, euskaldungoaren gidari eta bide-erakusle bezala, duen eginbiderik premiazkoena. Sortze-egunetatik bertatik erakutsi du kezka hori gure erakundeak (1). Baina une honetan, batasun-prozesuaren ildoan ortografia eta morfologia —hots, deklinabidea eta aditza— oro har aski finkatuak ditugunean, eta gramatika-arloan lan erabakigarria —edo erabakiorra— egiten ari garenean, beharrezkoa du Euskaltzaindiak euskal hiztegiari buruz ditugun ikuspuntu, jokaera eta jarrera kontrajarriei buruz gogoeta sakon bat egitea. Izan ere hiztegiaren aldetik nahaste eta sakabanatze izugarria nabari daiteke nonnahi. Aski dugu gure hirietako udaletxe edo bankuetatik itzuli bat egitea, ikusteko, adibidez, batean *bigarren solairuan* jartzen duen tokian besteetan *bigarren oinean*, edo *estaian*, edo *bizitzan*, edo *mailan*, edo *zoruan* ematen dutela, eta *bigarren pisuan* ipintzen duenik ere ez dela falta. Hau kaltegarria da hizkuntzarentzat, gure indar urrien sakabanatzea eta gure adierazpen-ahalmenen ahulezia dakarrelako.

Badut halako susmoa hiztegiari buruz ditugun eztabaida ugarien azpian ez dugula topikoz beteriko uste-multzo nahastu bat besterik.

(1) Hor ditugu, besteak beste, Altuberren edo Villasanteren sarrera-hitzaldiak, eta hiztegi-arazoari buruz Altuberren “Erderatiko-itzak, itz-barriak eta aintxiña-itzak” (*Euskera* 1920, 44-54) eta Azkueren “Erderatiko itzak, itz sorberriak eta beinolako itzak” (ib. 54-62) hasi eta gaur egunkoak arte, Mitxelenaen “Euskal-itzak zein diren” gogoangarri hura ahaztu gabe.

Premiazkoa dugu arlo horretan irizpideak finkatzea eta egituratzea; hots, gogoeta-lan teoriko sakon bati ekitea. Kondaira konkretu bat duen, eta gizarte eta kultur egoera konkretu batean aurkitzen den hizkuntza hau, nora eraman nahi dugu. Eta bereziki zer itxura eman behar diogu euskal hiztegiari, batez ere euskal hiztegi orokorrari edo orotarikoari. Hau da, noiz eta noraino hartu behar dugu literatur tradizioa gidaritzat, noiz eta zergatik onartu behar dira forma zaharkituak forma biziagoen kaltetan; zer egin behar dugu arkaismoekin; nola jokatu behar dugu hainbaten iritzi gaizki eraturik dauden neologismoekin; “euskara bizia” aipatzen denean, zertaz ari gara zehazki; eta “hitz hau herriak erabiltzen du” edo “hitz hori herriak ez du ulertzen” direlakoak noraino eta noiz izan behar ditugu kontutan; hitz arruntak eta hitz jasoak edo ikasiak —zenbaitek “kulto” hitz itxuragabeaz izendatzen dituzten horiek— berdin tratatu behar al ditugu; eta ororen gainetik, azken urteotan, irakaskuntzan, zientzia, teknika eta administrazio munduan euskara sartzeko, presaka eta itsu-mustuan prestatu ditugun hiztegi eta testuetan ohartuki eta askotan oharkabez etxeratu zaigun erdal uholdeari noraino eman behar diogu amore; noraino eta zergatik.

Horra, ene ustez, aztertu eta eztabaidatu beharko genituzkeen arazo nagusiak. Hurrengo lerroetan, horiei buruzko nere iritziak ahalik eta argien eta zehatzen adierazten saiatuko naiz. Iritziok eztabaida emankor baten akuilari gertatzen badira, mintzaldi honen helburua erabat bete gertatuko da.

LITERATUR TRADIZIOAZ

Abiapuntu bezala batasunarekiko txostenean dagoen lehen oinarria hartuko dut; hau da, batu eta gaitu nahi duguna euskara idatzia dela. Euskara idatziaren eta ahozkoaren arteko gorabeherak larriak dira, baina horretaz, zeharka bederen, beherago mintzatuko naiz (2).

Euskara idatziaren batasun eta gaitze bidean, gure literatur tradizioa hartu behar dugu erreferentzi puntu nagusitzat. Hiztegiari dagokionez, tradizio horretan ondu den hitz-ondarea izan behar dugu gidari halabe-harrezkoa. Horretarako alde zuretik literatur tradizio hori, zaharra eta berria, ezagutu egin behar dugu. Nere ustez orain, lehen ez bezala, badugu tresna bat ohizko hitz-ondare hori gutxieneko oreka eta zehaztasunez eta bere osotasunean ezagutzeko. Tresna hori Koldo Mitxelena

(2) Dena dela honetaz ene iritzia *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*-ren hitzaurrean, 25-26 orr.-etan ematen dut. Bestalde, delako hiztegi hori hemen adierazten saiatuko naizen irizpideen aplikazio praktikoa da.

hilburuko bezala utzi zigun *Orotatiko Euskal Hiztegia* da. Hiztegi horretan eskaintzen zaigun altxorraz jabetzea eta hura kontuan hartzea da eman behar dugun lehen pausoa.

Dena dela badakigu tradizio hori askotarikoa dela, eta euskalkika ez ezik garaika eta are mailaka bereizten dela. Tradizio horretatik zen hartu behar dugun gerorako utziz, hartu behar duguna nola, zein eratan, zein itxuratan hartu behar dugun aipatu nahi nuke lehenik. Honi buruz nere irizpidea hau da: batasunak *egungo euskara* batzea du helburutzat, ez azken 500 urteetako euskara batzea. Ez dezagun ahaztu egungo euskara idatzia baturik balego ez genukeela batasun-auzi larririk. Hortaz, hitz bat gaur egun idazle guztiek berdin erabiltzen badute, hitz horri buruz batasuna egina dago eta forma hori onartu beharko genuke, iragana gorabehera. Ildo beretik, gaur egungo idazle gehien gehienek forma jakin bat erabiltzen badute hori hartu behar genuke, baldin eta gehiengo hori alde guztietako gehiengoak, bereziki Ipar eta Hegoaldekoen gehiengoak osatzen badu.

Gogoan dut batasunaren txostenean, euskalkiak elkarrengandik bereziz doazela eta, iraganari begiratzeko gomendioa eman zela (3). Baina gomendio hori estrategia hutsezkoa zen eta ez da lege orokortzat hartu behar. Are gehiago, ez du zilegiztatzen batasunaren aitzakiarekin antzina-ko euskara jatorren bat birreraiki nahi izatea. Batasuna dela eta, sustrai bila ibiltzeak ez du, oro har, zentzurik. Izan ere, hizkuntza-mota zaharrak ez dira inon berriak baino hobeak, igoaleko onak dira denak. Euskararen kasuan, begien bistakoa da erdararen eragina dela eta, gure hizkuntzaren ahultze nabaria gertatu dela zenbait alorretan. Baina ez dut uste, inola ere, hiztegiaren alorrean hori gertatzen denik.

Hitz bat forma desberdinetan banatua agertzen bada, orduan bat hautatu beharrean aurkitzen gara. Oro har gaur egungo formen artean

(3) Horrekin batean eta hori dela eta gure artean askotan aipatu izen den italiarren kasuaz zerbait argitu beharra dago. Egia da egungo italiarren *oinarria* toskanoa dela, baina ez da egia duela ehunen bat urte Italia politikoki batu zenean italiara batu bezala toskanoa *hautatu* zenik. Hautaketa erdi aroan bertan egin zen: harrez gero italiara toskanoa zen. Duela ehun urte egin zena italiara hori Italia guztira hedatzea izan zen. Bestalde italiara Italia guztiko hizkuntza bihurtu zen heinean Erromaren pisua nabaritzen hasi zen. Eta gauza jakina da aspaldi honetan Erromako hizkera dela italiarren burua, eta Florentzia dela Erromaren eragina pairatzen duena, eta ez alderantziz. Ik., adibidez, Tulio de Mauroren *Storia linguistica dell'Italia unita* (Roma 1979). Beste horrenbeste esan daiteke katalanaren kasuan, non batasuna Barcelonako mende hasierako hizkera biziaren gain eratu baitzuen Fabrak, M. Segarra-ren *Historia de la ortografía catalana*-n ikus daitekeenez, besteak beste. Kontrako muturrean friuliera dugu, non P. P. Pasolini-k Erdi Aroko eredu-
tan erabat onarriturik eta egungo friuliera bizia ezertarako kontuan izan gabe literatur friuliera zoragarri bat eratu baitzuen. Hain zoragarria non inork ere (ezta Pasolinik berak ere) ez baitzuen erabili.

egino nuke nik hautaketa, bi muturretakoei —muturrok aski hedatuak direnean— lehentasuna emanaz, baina bestela erdialdeko formen alde makurtuaz, batez ere erdialdeko formok bizkaierazko tradiziokoekin bat datozenean, edo oso berriak ez direnean. Forma-aniztasun horren aurrean, gaur egun inork edo ia inork erabiltzen ez duen forma zaharkitu bat proposatzea arriskutsua iruditzen zait, arazoa konpondu beharrean oke-rragotu egin dezakegulako, lehian forma bat gehiago sartzen baita. Bata-suna ezartzeko ditugun baliabideak mugatuak dira, eta hortaz batasuna-ren prozesuan kostu-kontuak ere kontuan izan behar ditugu. Eta erraza-goia eta merkeagoa gertatuko zaigu gutxien direnak gehienek formara ohitzea, denok forma ezezagun batera ohitzea baino. Aldamenekoarena baino, inorena ez den forma erabili nahiago duena ez dago batasunaren izpirituan. Honek guztiak ez du esan nahi forma zaharkituak besterik gabe baztertu behar ditugunik. Une honetan gure hizkuntza batzeaz gainera eta batera, hura areago trebatzeko eta maila jaso eta landuetara hedatzeko premia dugu. Egiteko horretan forma zaharkituok hainbat hutsune betetzeko bidea eman dezakete. Guzti honei buruzko adibide



bat ipintzeko, *herts*i/*hets*i/*itxi*-ren arazoan, hizkuntzaren maila arrunterako *itxi* eta *hets*i hartuko nituzke, *itxi*-ri lehentasuna emanez, baina *hets*i-k, sinonimo gisa eta batez ere Iparraldeari begira egiten diren testuetan tokia duelarik. Gaur egun inon-edo bizirik ez dagoen *herts*i aldiz, zeregin jasoagoetarako utziko nuke. Beraz nik ez nuke *ate bat hertsiko*, *itxiko* baizik, baina *Jainkoari eman behar zaion kontu hertsiaz* mintzatuko nintzateke.

EUSKARA BIZIAZ

“Euskara bizia” delakoa da, agian, gure eguneroko eztabaitetan erabiltzen ditugun adigaien artean nahasiena eta nahasgarriena. Askok euskara batuaren aurkako arma bezala erabiltzen dute, eta gehienek erdal eraginaren aurrean errazkeriari amore emateko aitzakiatzat.

Neretzat euskara bizia zera da, hizkuntzaren *berezko* bilakaeraren ondorioz gaur egun *Ipar eta Hegoaldeko* euskaldunik gehienak, erabiltzen ditugun hitz eta joskeren multzoa. Eta ni bederen euskara bizi horren aldeko naiz. Are gehiago, Iparrean edo Hegoaldean soilik erabiltzen diren erderatikako formak eta joskerak, herri-literaturan ongi finkatuak badin badaude, hots, atzo goizeko berrikeriak ez badira, ontzat emango nituzke euskara idatzian, maila herrikoi edo apalenean bederen. Ezin onartuzkoak iruditzen zaizkit, ordea, gaztelaniaren eta frantsesaren azken bolada honetako eraginez etxeratu zaizkigun berrikeriak. Eta arrazoa argi dago: berrikeria horiek hesirik, mugarik gogorrena eraikitzen ari direlako euskaldunon artean, Hego eta Iparraldeko euskaldunen artean.

Puntu honetara helduz gero, “euskara bizia”, “herriak erabiltzen duen euskara” eta horrelakoetan inplizito edo esplizitoki onarriturik, azken urteotan plazaratzen ari zaigun joera arriskutsua salatu behar dut: zabarkeriaganako joera. Egungo euskaldungoaren zenbait alderdientzat, badirudi, euskaraz —ortografia eta morfologia batua errespetatuez gero— gainerakoan edozein moduz idatz daitekeela, edozein hitz, eta edozein eratan eta edozein modutan erabil daitekeela. Ildo honetatik, eta hau da arazoaren alderdirik larriena, badirudi gaztelaniazko —joera hau ia Hegoaldean soilik ematen baita— ia edozein hitz erabil daitekeela euskaraz. Eta are okerrago dena, badirudi kontu honek ez duela inolako axolarik, huskeria bat dela, eta zabarkeria galgarri hau salatzeak ez duela zentzurik. Izan ere kontua euskaraz idaztea omen da, gainerako guztia libre da, berdin da. Eta harrigarriena hau da: “Euskadi berejabe eta batu bat” aldarrikatzen dutenen artekoak direla, hain zuzen, Iparraldeko gure anaiak kontuan hartu gabe espainolarekiko mendetasun ikaragarri horrenganako zaletasun gehien agertzen dutenak, chicanoenaren pareko hizkuntza kolonial hori, hizkuntza *bananero* hori praktikan lotsagabekien erabiltzen

dutenak, kontutan hartu gabe, antza denez, politikoki hain lehiatsu salatzten duten diglosiaren ondorio zuzena dela beren euskara diglosikoa (4).

Zabarkeria honen oinarrian herriaren ikuspegi nahasgarri bat dugu. Adibidez *derrota*, *jeringilla* edo *frakaso* herriak erabiltzen dituela esaten dugunean, zein herriz ari gara? Hasteko, Iparraldeko euskaldunak sartzen ez diren herri batez, noski. Bestalde, hegoaldekoak konturatzen gara horrelakoak erabiltzen ditugunean erdal hitzak erabiltzen ari garela, eta pairatzen dugun hizkuntz-mendetasunezko egoerak hartaraturik erabiltzen ditugula. Eta harrigarria da herriak arrotz-tzat hartzen dituen hitzak, herriaren izenean euskal hitz-tzat ezartzeko zenbaitek agertzen duen nahia.

Arazoa benetan larria da dagoeneko, eta nere ustez adierazpenen bat egin beharko genuke Euskaltzaindikook honi buruz. Eta kontu honetan Euskaltzaindia Euskal Herri osoari begira baizik ezin da jokatu. Zilegi du Euskaltzaindia euskalki batean edo alderdi batean ongi sustraiturik dagoen hitz bat, batez ere hoberik ez denean, erabat gomendatzea; baina bere izateko arrazoiari uko egingo lioke hemengo edo hango soilik diren erdal hitz heldu berriei atea zabalduko balie.

“GAIZKI ERATURIKO” HITZEZ

Egia esan, ez dut ulertzen nola izan duen gure artean hainbesteko eraginkortasuna eta arrakasta hitz bat baztertu nahi izateko, “gaizki” eraturik dagoelako irizpide honek. Eta etsita nago hizkuntzaz kanpoko arrazoiak izan direla, eta direla, arrakasta honen sustrai nagusia. Auzi honetan hainbat gaiza argitu behar dira.

Lehenik, gure artean hitz bat gaizki eratutzat jotzeko erabiltzen diren irizpideak beste hizkuntzetako hitzei ezarriko bagenizkie, ezin konta ahalakoa izango litzateke horietan ere gaizki eraturik aterako litzaizkiguke-nak. Adibidez *autobús* edo *electrón* hitzak, *abestu* edo *sendi* bezain gaizki eratuak daude. Eta *laspel* itxuragabeki eratua dagoelako baztertzen dutenek gogoan eduki beharko lukete *gas* delakoa Van Helmont-ek latinezko *chaos*-etik gogoak eman zion bezala eratorriz sortua izan zela, eta beraz,

(4) Katalunian ere bada halako eztabaida bat gai honi buruz. Baina gurearekiko aldeak nabariak dira. Lehenik, espero zitekeen bezala nazionalista ez direnak dira *català* *light* delakoari, katalan erdaldunduagoari, nolabait esan, amore ematearen aldekoak. Bigarrenik, gure artean txukunen direnek baino txukunago idazten dute *light*-zaleek, eta guk begitandu ere ezin dugun begirunea agertzen dute literatur tradizioaren aldera. Bestalde, eztabaidaren maila benetan garaia da, zertan ari diren dakitenei dagokiena. Ik. adibidez X. Pericay eta F. Toutain-en *Verinosa llengua* (Barcelona, 1987) edo *Diari de Barcelona*-ren *Llibre d'estil* delakoa (Barcelona, 1987).

irizpide horren arabera, bestea bezain baztergarria dela. Orobat, ez litza-teke zaila frogatzen *araudi* hitza *arautegi* bezain ongi edo gaizki eratur dagoela (5); gainera *araudi*-k abantaila bat du gutxienez *arautegi*-ren aldean: sustraituagoa dagoela gure literaturan.

Bigarrenik, badirudi irizpide hori gogoak ematen digunean edo kome-ni zaigunean soilik erabiltzen dugula. Adibidez, eta milaren artean hiru soilik aipatzeko, *irriti*, *argazki* eta *idatzi*, baztergarritzat jotzen direnak bezain oker edo okerrago sortuak daude, eta hala ere ez dute-besteiei egozten zaien *san benitoa* jaso. Are gehiago, “hitz gaizki eratu” irizpi-de honen aldekoek berek sortzen eta bultzatzen ari dira *monastegi* edo *ministrari* bezalakoak, berentzat erabat arbuigarri izan beharko luketenak.

Eta hirugarrenik, “gaizki eraturako hitz” adigaiak berak ez du zen-tzurik inongo hizkuntzatan, besteak beste “analogia” deritzan gertakari bat badelako, nonnahi eta noiznahi etengabe ari dena. Azken batean, sabindarren neologismo gehienak analogi bidekoak dira. “Obispo”-ren ordeztatu zen hitzak *gogazain* behar zukeen ohizko elkarketa-erregelak aplikatu izan balira, baina ezin daiteke uka *gotzain* analogi bidez eratur dagoenik. Beste adibide bat jartzeko *argitalpen* analogikotzat hartu behar da, *ugaritu*-ren ondoan *ugaldu* dugunez gero. Eta nor ausartuko da analogiaren bidea gaitzestera? Zer dira, bada, lehen aipatu ditudan *monas-tegi* eta *ministrari* analogikoak baizik? (6) Honek ez du esan nahi, noski, gure artean asmatu eta proposatu diren hitz guztiak onartu behar ditugu-nik. Ezinezkoa litzateke gainera (7). Esan nahi dudana hau da, eratzemoduaren irizpidea ez dela irizpide eraginkorra, eta horrelako hitzetan, besteetan bezala, erabileraren irizpidea erabili behar dela. Hortaz *gazteria gaztedi* baino egokiagoa iruditzen bazait, ez da *gaztedi* gaizki eratur dagoelako, baizik eta *gazteria*-k tradizio luze eta zabalagoa duelako, beste-rik gabe. Baina ildo beretik, ez genuke ahaztu behar *aldundi*-k *diputazio*-k baino tradizio zabalagoa duela euskara idatzian (8); eta zer esanik ez, *ministro*-k *ministrari*-k baino.

(5) Ik. -di atzizkiari buruz I. Sarasola “Larramendiren eraginaz eta” *ASJU* 1986, 206 Sgn oharra. Atzizkien ezartze-eremu nola doan aldatuz hizkuntza baten historian zehar J. Dubois eta Cl. Dubois-en *Introduction à la lexicographie: le dictionnaire* (Paris, 1971) liburuan ikus daiteke, 133-198 orr.-etan.

(6) Bestela, zer da *tegi* erasten zaion *monas* hori, edo non da *ministrari* zilegiztatuko lukeen *ministratu*?

(7) Badirudi ahaztu egin zaigula munduko literatur historiako autore gailen gehienak —bereziki hizkuntzaren eraberritzeren batek hartu dituenak— hitz-asmatzaile porrokatuak izan direla, eta hitz horietako gehienek ez dutela gerora inongo arrakastarik izan. Shakespeare-ren kasurako, esaterako, ik. Albert C. Baugh *A History of the English Language* (London, 1959), 281 hh. Bestalde Paul Bacquet-ek (*Le vocabulaire anglais*, Paris 1974, 78) dioen bezala “il est souvent impossible de savoir pour quoi tel mot a été adopté et tel autre écarté”.

(8) Ik. *aldundi* sarrera *Orotariko Euskal Hiztegi*an. Bestalde Lizundia adiskideak behin baino gehiagotan adierazi du *a(ha)ldundi* hori ez dela “diputación”, “conjunto de apodera-

Dena dela ez nuke ukatuko hitz berriak eratzeke, oro har eta salbuespenak salbuespen, ohizko elkarketa-erregelez baliatzea gomendagarriago denik, eta hau arrazoi soil bategatik: horrelako hitzek onartuak izateko probabilitate handiagoa bide dutelako, besterik gabe. Baina guztiz arriskugarria iruditzen zait aski sustraitua dagoen hitz analogiko bat baztertzeko haren kide “ongi” eratua proposatzea, batasuna egina edo ia egina genuen formetan bitasuna sortu besterik ez baitugu egiten horrekin.

Bestalde, badira bi arrazoi hitz berri horienganako orain askok duten ezinikusizko jarreraren ordezkari halako onginahitasunezko bat agertzeko, batez ere erdal hitzak ordezkatzeko sortu ziren neologismoenganako. Lehengoa, horiek baztertuz gero geratzen zaigun hautabide bakarra, gehienetan, gaztelaniazkoa onartzea delako. Bigarren arrazoiak axola handiagoa du. 90 urte daramatzagu iritzi ideologikoak eta alderdikeriak bultzaturik, eta arrazoi linguistikoak aitzakiatzat erabilirik, aurreko belaunaldiaren lana zapuzten eta hankazgoratzen: hala jokatu ziren sabindarrak larra-menditarrekin eta hala jokatzaren ari gara gu sabindarrekin. Jokaera horrekin euskaldungoa nahastea eta gure indar urriak alferrik barreiatzea besterik ez dugu lortu. Gure belaunaldiari, *batasuna* bideratu duen belaunaldiari dagokio azken 90 urteotako dinamika galgarri hau haustea eta hurrengo belaunaldiei jokabide ereduizkoagoa erakustea. Azken buruan eskatzen dudana gauza bakarra amnistia osoa besterik ez da, gure aurretik gu bezala borondaterik hoberenarekin euskalgintzan aritu ziren gizonen eta emakumeen lanaren alderako amnistia orokorra (9).

dos” edo horrelako zerbait baizik, zerbait izatekotan. Nere ustez bi gauza nahasten dira baieztatze horretan: hitzaren esannahi “etimologiko”a —hitzak “izan beharko lukeen” esannahia— eta testuetan agertzen duen egiazko esannahia. Argi dago, testuetara jotzea asko, *a(ha)ldundi* erabili duten guztiek gaztelaniazko *diputación*-en adiera jakin baten ordain bezala erabili dutela, eta beraz hori dela *a(ha)ldundi*-ren esannahia, eta ez besterik. Badirudi ahaztu egin dugula edozein hizkuntzatan hitzen esannahia erabakitzeke irizpide etimologikora joko bagenu kea bezala haizatuko liratekeela hizkuntzotako hiztegiak. Ildo beretik, eta hainbatetan aditza eman den beste kontu bat aipatzeko: *enparantza* euskaraz “babesgarria, toki babestua” edo dela esaten denean, zer esan nahi du hor “euskaraz” horrek? Berez, Gipuzkoako zenbait alderditako herri-euskara. Azken ehun urteotako euskara idatzian —eta ez gutxiren ahozko euskaran—, aldiz, “plaza” esan nahi du *enparantza*-k, hots plaza-ren baliokidetzak erabili izan da, salbuespenik gabe. Eta bigarren hau ere ez al da “euskara”? Bestalde, *aldundi*-rekin jarraituz, argi dago gaztelaniazko *diputación*-ek adiera bat baino gehiago duela. Hiru, M. Moliner-en hiztegiaren arabera. Eta hain zuzen hiruretatik nazioartekoa ez den bakarraren ordaina da euskarazko *aldundi* delakoa.

(9) Horregatik nahiago dut nik *eleberri*, *elaberri* baino, hura izan baitzen aurreko belaunaldiak erabili zuen forma bakarra. Gero, bat baino gehiago, “jatorragoa” zelakoan eta Axularren lekukotasuna aipatuz *elaberri* erabiltzen hasi zen, batasunari arazo bat gehiago sortuz. Euskal literatur tradizioa gidaritzat hartuz ezin daiteke baieztatu *ela- ele-* baino jatorragoa denik. Toponimia hartuz ez dakit, baina literatur tradizioa hartuz ez. Pouvreaux *eleberri* erabiltzen du —hiru aldiz gutxienez—, eta bestetan hain gogoko dugun Leizarragak *elhe zar* (ez *zahar*!). Hitz baten forma-batasuna hautsi baino lehen kontuzago ibili beharko genukeela uste dut.

ERABILERAREN IRIZPIDEAZ

Bidezko zen bezala irizpide honetaz baliatu zen Euskaltzaindia euskal hitzak zein ziren zehazteko 1959-an aditzera eman zuen agirian. Hala behar zuen, erabilera baita, berez, hitz bat onartzeko hizkuntza guztietan aintzat hartzen den irizpide nagusia. Dena dela, gure hizkuntzari dagokionez beharrezkoa da zenbait zehaztapen egitea.

Kultur hizkuntza guztietan —eta euskara kultur hizkuntza bihurtu nahi dugu— hizkuntza idatzia hartzen da erreferentzi puntu nagusitzat. Idatziz erabiltzen ez diren hitzak ez dira hizkuntzakotzak hartzen eta ez dira hiztegi orokorretan jasotzen, edo jasotzen direnean halako marka berezi batez jasotzen dira. Euskaraz ere horretara ohitu beharko genuke. Azken 90 urteetan ez dira falta izan gure tradizio idatzia aintzakotzat ez hartzeko, hura ez balego bezala aritzeko jokaerak. Eta bi aldeetatik gertatu da hori: literatur tradizio hori erdaldunduegia aurkitzen zutenen aldetik, eta ahozko hizkuntza erdaldundutik urrunduegia aurkitzen dutenen aldetik. Jokaera horiek guztiz arriskutsuak iruditzen zaizkit. Gure literatur tradizioa exkaxa da eta ahula, eta ez da euskal bizitza osoaren oihartzun bete. Baina ez dugu, ezin izan dezakegu oinarri hoberik euskara kultur hizkuntza bihurtzeko. Horrela jokatu dira munduko kultur hizkuntza guztietan eta gu ez gara, ezin gaitzeko izan bestelakoak. Gure kasu berezian tradizio idatzia osatzeko ahozko euskarara jo beharko dugu, baina hura osatzeko, ez hari kontra egiteko (10). Gainera ahozko hizkuntzako ekarpen horiek erabilera idatziaren arragoan frogatu beharko dute bere gaitasuna euskal hitz betetzat hartuak izan aurretik.

Erabilera idatziaren irizpidean alde koantitatiboak adina edo gehiago alde koalitativoak izan behar ditugu kontuan. Hots, edonon eta edonoiz bezala idazle onen usadioa izan behar dugu gidari. Hiztegi-arazoetan, lehen aipatu ditudan arrazoiakgatik, tradizio berria izan behar dugu batez ere kontuan. Hots, mende honetako euskal idazle gailenen obra izan beharko genuke gidari nagusia euskara batuaren hiztegi orokorra eratze-ko orduan. Eta eskola edo joera nabarmen bateko idazleek, adibidez sabindar amorratuek, sortutako hitzak onartzeko ala ez onartzeko, gainerako idazleen artean eta bereziki idazle ereduizkoetan izan duten harrera aztertu beharko genuke. Baina berdin jokatu beharko genuke azken urteotan asmatuekin, eta erdaratik gordin gordinik edo euskal itxura apur

(10) Alde honetatik aski interesgarria eta aintzat hartzekoa iruditzen zait G. Garatek atera berri duen *Erderakadak* lan mardula. Dena dela, zorrotzegia da, ene ustez literatur tradizioan aski sustraituak dauden zenbait joskera epaitzean. Esaterako *-tik gelditu* delakoan agertzen bide dituen zalantzak ez dira bidezkoak: bestetan aipatzen dituen Leizarraga eta Axularrengan aurki daitezke horren lekukotasunak, eta orobat iparraldeko tradizioko autorerik gehienetan.

batekin etxeratu zaizkigunekin. Badaezpadako neurri hau hartzea beharrezkoa iruditzen zait, gerra aurrean bezala hiztegi edo joera nabarmen baten jarraitzaile itsuen lanari egiatan dagokion pisua emateko.

Bada beste arazo bat gure hizkuntzaren ibilbideagatik garrantzi berezia duena. Aho hizkera eta euskara idatziaren arteko gorabeherena da. Mendetako marjinazioaren ondorioz euskara idatzia ez da gauza izan kultur hizkuntza guztietan nahitaezko den maila jasoa eratzeko. Gure literaturaren problema nagusia herri-moldeei lotuegia egon dela da. Eta maila landu hori osatzeko behar ditugun gure tradiziozko zenbait hitz zahar, berri edo asmatu ontzat ez hartzeko aipatzen den harako “herriak ez du erabiltzen” hura ez da berez bidezkoa. Salamankako nekazariak ez ditu egungo gaztelaniaren hainbat eta hainbat hitz eta esapide jaso ezagutzen, eta hala ere ez ditut horiek gaztelaniatik baztertuak ikusten (11). Hain zuzen ere euskara kultur hizkuntza bihurtzeko dugun egitekorik garrantzizkoena hau da: hiri-giroan sortzen ari den euskaldungo ikasia bizkortzea, eta euskararen berreskuratzean duen lehen mailako erantzukizuna ikuseraztea. Izan ere, nonnahi bezala hizkuntza onaren eredua klase hiritar ikasiena izan behar du gure artean ere. Hori lortzen ez dugun arte euskararen egoera kultur hizkuntza bezala kolokan egongo da (12).

Euskara zailaren eta errazaren auzi honetan, ezertara ez datozen alferrikako zailtasunak bezain kaltegarriak gerta daitezke errazkeriak. Dena dela “euskara erraza”-ren kontzeptua bera nahasgarria iruditzen zait, zeren badirudi “euskara erraza”-ren bide horretatik gure komunikatze-premia guztiak betetzen ahal ditugula adierazi nahi dela, eta hori faltsua da. Zeren Iñaki Segurolak idazten zuen bezala (13), euskaraz ez dakitenei erakusteko eta bidenabar dakitenei ahantzterazteko asmatua dirudien zori-oreko “euskara erraz” hori ez da zail ez dena, zaildu gabe dagoena baizik, “oinarrizko” lerroan baizik higi ezin daitekeena.

ERDAL HITZEZ

Inork ez du zalantzan jartzen euskaraz ongi sustraituak dauden erdaratiko hitzez gainera, erdal hitzen premian gaudela. Lehen aipatu

(11) Oraindik gogoratzen dut duela zenbait urte egunkarietan agertu zen berri bat, Espainiako nekazari-eskualdetako biztanleen erdiak edo TV-ko publizitate-hizkera ulertzen ez zuela zioena.

(12) Honetaz, beste hainbat gauzez bezala, gure artean konturatu zen lehena Etxeberri Sarakoa izan zen: “Eguiaz alde guztiz hunen (euskararen) çorthea içan da haguiz diferente bertce lengoayetarie: cembatenaz-ere hauc edertzen eta hazten baitira guehiago gende letradunen artean, eta gaizcoatzen nekhaçalenetan, hambatenaz Eskuara contrarago da tratatua” (*RIEVe*ko argitaraldiko 192 h.).

(13) Ik. Nikolas Ormaetxea, *Quito-n arrebarekin* (Donostia, 1987), hitzaurreko 32 gn orr.

dudan 1959-ko agirian esaten du ere Euskaltzaindiak hizkuntza berezien gainetik zabaldurik dauden kultur hitzak ontzat hartzea eta erabiltzea begi onez ikusten duela. Arazoa ordea, atea noiz eta noraino zabaldu behar dugun zehaztea da, horretaz iritziak finkatzea.

Lehenik hau esan behar da: alde guztietan bezala gure artean ere beti izango direla kontu honetan garbizaleak eta ez hain garbizaleak, eta gehiegikeriak mugatzen badira hori ez dela kaltegarria. Bide mehar bat baino areago, ikusmolde eta joera desberdinak leku izan dezaten bitarte eroso eta zabalagoa taxutu behar genuke. Hala ere arazoa bere hartan dirau, gehiegikeriak zehazten ez ditugun bitartean.

Dena dela, gurea bezalako hizkuntza txiki eta menderatuek garbiza-leak izan behar dute. Hori da munduan zehar legea. Horrela, adibidez, eta Txillardegik behinola gogoratzen zigan bezala, txekoak garbizaletasunaren ildotik jo zuen alemanaren eta errusoaren aurrean kultur hizkuntza bihurtu zenean, eta zer esanik ez hungaroak, alemanaren aurrean. Orobat, Kanadako frantsesa garbizaleagoa da Frantziakoa baino, ingelesaren eraso bortizkiago pairatzen duelako, hain zuzen. Izan ere liberalismoa aldarrikatzea, ekonomian bezala hizkuntz arazoetan, indarra eta aginpidea dutenei dagokie. Txikiak, indargabeak ezin dugu eskuzabalki jokatu, nahikoa lan izango baitugu bestela ere gure nortasuna erabat desitxuratua gerta ez dadin, haindiagoen erasoaren azpian.

Bigarrenik, nazioarteko hitzak ez dira hainbatek uste duten bezain ugariak, are Europako kultur hizkuntzak soilik hartzen baditugu kontuan. Izan ere, hiztegi orokorrari dagokionez, nazioartekotzak jotzen ditugun hitz gehienak latin-hizkuntzetan eta ingelesez bakarrik erabiltzen dira. Eta askotan ezta hori ere; eta ez dira, ez, gutxi, espainolezkoak soil soilik direnak. Are gehiago, ez dira falta *rotulador* bezalakoak, espainolaren eremu osokoak ez, baizik Espainiakoak besterik ez direnak. Ikusten denez nazioarteko hitzena ez da zenbaitek uste duen bezain alor eroso.

Bada beste arazo bat ohartzen zailago delako larriagoa gertatzen dena. Nazioartekotzat jotzen ditugun hainbat bereizkuntza ere ez dira hain hedatuak, eta askotan espainolarenak besterik ez dira. Askotan entzun ditugu, administrazio edo zientzia edo teknika testu edo hiztegiez ari garela, horrelako baieztapenak: “baina gauza bat da *indulto* eta beste bat *barkamena*”, esaterako. Ez dut nik hori ukatzen, baina *non* diren gauza desberdinak jakin nahiko nuke. Zeren ingelesez, urrutirago joan gabe, “pardon” erabiltzen baita bientzat, arazo larririk gabe, antza denez. Eta zer esan *osasun/osasunketa* bereizkuntza itxuragabe horretaz, noraino garen gaztelaniaren morroi besterik erakusten ez duena? Horrelako adibi-deak, salbuespenak baino areago, erregela dira.

Hala ere, gure artean, euskararen eguneratze eta mailaz altxatzea dela eta, gaztelaniaren adigai-egitura gure hizkuntzara aldatzen ari gara, besterik gabe. Oharkabez edo ohartuki, gaztelania dugu erreferentzi puntua. Hortaz, gaztelaniazko hitzak gordin gordinean hartzen ez ditugunean ia sistematikoki egiten ari garena hau da: hegoaldeko herri-euskara erdaldunduena ontzat harturik hitzon gaztelaniazko funtsa onartu eta axalari euskal itxura apur bat eman. Horrela sortu ditugu beste milaren artean *karteldeg*i, *enpresari* (edo *entrepresari* berdin zait) edo *aparkaleku* (14). Jokaera hau guztiz galgarria iruditzen zait, zeren hitzon axaleko euskal itxura horrek berorien errotiko espainolasuna ezkututzen baitute, eta gaizki ezarri den arazo baten irtenbide faltsoa besterik ez direla ahanzte-raz bait iezaiguke (15).

Beste alde batetik badirudi ez garela konturatzen mendean gauzkatzen hizkuntzak, munduko bi hizkuntza *pedanteen*ak direla une honetan. Eta hizkera tekniko eta jasoaren izenean gureganatzen ari garena espainolaren eta frantsesaren pedanteria dela. Hortaz *egun lektiboa* nazioartekoa eta jaso iruditzen zaigu, eta *eskola-eguna* aldiz sukalde-kutsukoa eta apala. Gure iritzia aldatuko litzateke beharbada ingelesez eta Europako hizkuntza gehienetan *eskola-eguna*, besterik gabe, esaten dela jabetuko bagina. Eta *Galaxietako gerra* delakoaren ordez inork *izarretako gerra* proposatuko balu “horra garbizalekeria hizkuntza pobretzen” entzungo luke. Gure ezjakinean ez dakigu jatorrizkoa, ingelesa, *izarretako gerra* dela, eta halaber dela frantsesez, zeren honetan, beste askotan bezala, egungo gaztelaniak, ikasle bipil agertu nahi duenez gero, are frantsesari hartu baitio gaina pedanterian.

(14) “Cartelera”-ren kiderik ez dago ez frantsesez (cf. “rubrique des spectacles”), ez ingelesez (cf. “entertainments”) ez beste hizkuntzetan, eta ez dakit zer premia betetzen duen euskaraz. Euskal Herri osoari begira egokiago dirudi *ikuskizunak* edo horrelako zerbait. Dena dela *espektakuloak* bera ez da *karteldeg*i bezain gaztelaniara makurtua eta besterik ez bada, euskaldun guztiontzat balio du. Ingelese, frantsesez eta abarrez eta dago “empresario”-rik, *lan-emaile* edo *enplegu-emaileak* baizik. Zegatik *aparkaleku* eta ez *estazio-naleku* (cf. frantsesez *stationner*)? Eta zer bekatu egin du *parkin* nazioartekoak?

(15) Ildo beretik, gure premiak zein diren aldeaz aurretik aztertu gabe, gaztelaniazko hiztegia *doblutzen* ari gara, ia sistematikoki erdal baliabideen *calco*-aren bidez eta gure tradizioa askotan bestelakoa dela kontuan hartu gabe. Horrela gaztelaniazko *-mente* guztiak *-ki* atzizkiaren bidez ematen ditugu beti, beste bide guztiei atea itxirik, eta orobat, *reguztiak ber-* edo *bir-*en bidez, bide jatorragoak eta egokiagoak egon daitezkeela burutik pasatzen ere ez zaigularik. Esaterako, duela gutxi Euskaltzaindiaren sari bat irabazi duen lan baten izenburuko *bergaitzen* hori. Kontua ez da hitza, baizik eta sortu duenari ez zaiola burutik pasa ere egin beste bideren bat, *gaiberritzen* adibidez, egokiago eta ulerterrezago izan daitekeenik. Orobat, erdaratiko hitzei, bere esannahi jatorraz ahazturik, gaztelaniaz dutena egotzen hasiak gara. Horrela HIES zorioko horretan eta abarretan, *eskasia*, euskal literatur tradizioan *falta*-ren sinonimo izan dena, *escasez*-en eraginpean “urritasun” esanahiaz erabiltzen hasiak gara. Eta telebistan eta, loratu berri den *emendakin* itxuragabea, euskal tradizioaren arabera “gehikin”-en kide edo izan beharko zukeena, baina *enmienda*-ren eraginez “zuzenkizun”-en ahaide bitxia gertatu dena.

AMAITZEKO

Nere ustez auzi honetan garrantzizkoena, galdu dugun euskararen duintasunarenganako sentiberatasuna berreskuratzea da. Euskal hitzak, Euskaltzaindiak 1959an gogoratu zuenez, euskara bizian sustraituak daudenak dira, eta euskara idatziaren hitzak gure literatur tradizioak landu dituenak dira. Hots euskal hitzak ez dira erdal hitzak. Hitz arrotz bat etxekotzat hartu baino lehen gorabehera guztiak asko pentsatu eta ongi pisatu behar dira. Horrela jokatzan dute beste baten erabat mende erori nahi ez duten hizkuntza guztiek.

Euskaldungoari ikuserazi beharko genioke euskararen galtzeak bi alderdi dituela: bat erabatekoa, gehien nabarmentzen dena, bere nazio hizkuntza ahazten edo erabiltzen ez duenarena. Baina euskararen erdal-duntzea prozesu berberaren beste aldea besterik ez da. Eta honetan gogor egitea bestean gogor egitea bezain garrantzizkoa da, eta ez da, ez, zailagoa.

Batek baino gehiagok ezinezkotzak joko du euskara egungo euskaldunen komunikazio-premia guztietarako gai bihurtzea gaztelaniazko hitz asko eta asko onartu gabe. Nik, egia esan, ez dut hori uste. Dena dela nerretzat euskararen batasuna euskararen gaitzea baino garrantzizkoagoa da. Hots, euskararen gaitzearen prezioa bi euskara, bat frantsesaren mendekoa, bestea espainolaren mendekoa, sortzea baldin bada, ni bederen euskararen gaitzearen aurka nago, bidea helburutzat hartzea izango bailitzateke hori, hots galbidea aukeratzea.

Baina lehen esan dudan bezala, nik ez dut uste euskararen gaitzea eta batasuna elkarrren etsai izan behar dutenik. Batez ere buruz jokatzan badakigu. Lehenik zehaztu behar duguna helburua da, hau da, zer itxurako hiztegia nahi dugun euskara batu eta eguneratu horretarako. Hori finkatzea bete betean Euskaltzaindiari dagokio. Gero helburu horretara euskalgintzan ari garenon indarrak biltzea eta hura iristeko pausoak, hots, plangintza bat burutzea etorriko litzateke. Bide horretan, nik uste, esku-zabaltasunez jokatu beharko genuke egungo egoerari behar adina amore emateko, erdarez eta erderakadez behar adina baliatzeko, baina kontuan izanik behinbehineko amore ematea dela eta helburu baten ildotik ematen dena.

Beste alde batetik konturatu beharko genuke euskararen egoera nabarmenki aldatu dela azken urteotan, eskuan ditugun baliabide eta tresnen aldetik. Besteak beste eskola eta komunikabideak ditugu gure eskuetan inoiz ez bezalako neurri batean. Problema zera da, orain arte ezer gutxi—katalanek ez bezala (16)—erabili ditugula bide horiek euskara txukun-

(16) Katalanak lortzen ari dira azken urteotan, batez ere komunikabideen bidez, ia erabat galduak ziren hainbat hitz, hirietako hiztun ikasiek ahozko hizkeran berriro erabil

tzeko. Eta hori, iritsi nahi dugun helburua batere argi ez dugulako gertatzen ari da (17).

Lerro hauetatik kontrako irudia atera badaiteke ere, uste dut lan gaitza eta oro har aski baliozkoa egiten ari garela euskara idatziaren batze eta gaitze prozesu honetan, are hiztegiari dagokionez. Borondate ona ere ez zaio falta ahalegin honetan ari garenotik inori. Helburua eta bideak finkatzen baditugu eta nork bere setakeriak alde batera uzten baditugu, hiztegiarekiko auziak zailtasun handirik gabe bidera ditzakegu. Gogora ditzagun duela hogeiturotako egunak, batasunaren lehen urratsetakoak, eta ikusiko dugu gauza izan gaitezkeela orduko izpiritua berreskuratzeko, hots, asmoz eta jakitez aritzeko.

ditzaten. Esaterako *bustia* edo *farcit*, erderazko *buzón* eta *relleno*-ren orde. Eta *entrepà*-k (hots, gure artean hainbesteri irrigarri iruditzen zaion *ogibitarteko*-k!) baztertzea lortu du *bocadillo* zorionekoa.

(17) Bada beste alor bat euskal hitzak ezaguterazteko erabat egokia gerta daitekeena: izkribu elebidunena. Hala ere ez dut inoiz bide hori erabilia ikusi. Adibidez euskararen normaltzearen alde lan benetan goresgarria egiten ari den EROSKI-ren produktu batean *lentejak* adierazten du *lentejas*-en ondoan. Zergatik ez *tilistak*? “Herriak jadanik ulertzen ez duelako”? Baina ez al da hain zuzen, etiketa elebidunen bide hori euskal hitz jator bat berreskuratzeko biderik egokiena?

ENDRIKE KNÖRREN HARRERAKO ERANTZUNA

Donostia, 1989-I-27

Gogo onez hartu nuen egun Euskaltzaindian sartu denagandik hitzaldi hau egiteko agindua. Eta gogo onez, ez, damurik, mihi onez, mintzatuko natzaizue hemen laburkiro.

Ezaguna da ohitura: sar berriaren merezimenduak aipatuz eta gorai-patuz hasten da; gainerakoan, askatasun osoa ematen du Euskaltzaindiak.

Ohitura hau, etxe honetako aztura hau, ez zait zama itogarria gertatzen. Batetik, Ibon Sarasolaren merezimenduak agerian dira, bibliografi liburukietan eta curricula orrietan ez ezik, guztion begietan eta oroime-nean dira. Aitzitik, halako *embarras de choix* genuke, ez gehiegi aspertzeko hau bai eta hura ez lerrokadan sar ibili beharko genuke. Eta, bestetik, *ex abundantia cordis* hitz egiteak, adiskide batez jarduteak, lana errazten du.

Donostian sortu zen Ibon Sarasola, Uztailak 11, 1946. Batxillergoa San Inazio ikastetxean egin zuen. Ondoren, beste askok bezala, ingeniari-tza ikasketak egin zituen, berton, bukatu arte. Filologiara, hortaz, geroago etorri zen, lanbide agian ez, baina titulubide bereko beste zenbait bezala. Ez, ordea, letretara. Ezen, utzirik alde batera haur- eta gaztaroan erakutsi zuen irakurtzaletasuna, Sarasolak oso goiz ekin zion idazteari. Hogeitau urte bete berritan *Egan*-ek olerki batzu argitaratu zizkion (ikus 26:1-6, 1967, 36-39), eta bi urte geroago *Poemagintza* liburua plazaratu zen, euskal literatur mundua (eta euskal mundua soilik) argitu nahi zuen Kriselu-n. Ez zen orduan, ez eta gero ere, olerkari hutsa izan. Besteren emaitzaz idaztea laket zitzaion: horra *Euskal literaturaren historia* (1971), urte batzu geroago gaztelaniazko itzulpenean ere arrakasta handia lortuko zuena. Edo Díaz Plaja-k gidatzen zuen *Tesoro breve de las letras hispánicas* liburuan 17. mendean Sarasolaren ekoizpena. Eta nola ez aipa, labur beharrez ari bagara ere, *Euskal literatura numerotan* (1975) azterketa beharrezkoa eta gure artean bederen ordurarte ia landu gabeko soroa?

Norbait, edo norbaitzu, *Euskal literaturaren historia* liburuaren kritikan, agurka bai, baina egurka ere ibili ziren. *Anaitasunean* (edota nahiago

baduzue, nahiz gogortxoak egiten zaidan, *Anaitasunan*) agian lehenbiziko kritikarialiak, Eibarkoak, iragartzen zituen trumoiak, berriz, ez ziren horrenbesterako (“Bere biziko hautsak jasoko ditu liburu honek”). Ezin esan daiteke, egia zor bait dugu, kritika horietan arrazoi zipitzik ez zela. Garaiazen kumea, gizakiak oro legez, isuriegi eta emanegi zegokeen Ibon orduan Hauser, Lukacs eta bestelakoen iritzietara, alde batetik, eta Trierko semearen mezu bortitza (menturaz gehienbat Cohn-Bendit-en bitartez) iritsia zitzaion, bestetik. Nola ez ikus testu horietan geure askoren behialako ispilua, gazteago, edo gazte gineneko geure pentsamoldea? Aro horretakoxe fruitua da, hain zuzen ere, argitaletxe berak plazaraturiko literaturaz landako Sarasolaren itzulpen lana, Fanon-en *Pour la révolution africaine* tartean, Arantxa Urretabizkaiaekin batera (bidenabar, ez da ageri hor Sartreren hitzaurrea, honek gero ahortzi nahi zuena eta Raymond Aronek literatura faxistakoiaren antologian sartuko zukeena, ikus *Mémoires*, 714). Isuriak isuri, ordea, Ibonek atseginago zituen beste itzulpenak: estreina, oker ez banaiz, Voltaire-ren *Candide* (1972), eta berriena Gideren *Teseu* (1987), hots, zeinen gutunak argitaratu berri dira, jakin-min gaixtoa zuena gosez utzi duten gutunen egilea. Katalanez *lletraferit*, eta euskaraz *harjoa* eta dugunez (ergatibo markarik gabe, beste zenbait hitz bezalaxe) *letrajoa* esan zitekeena genuen eta dugu, izan ere, Sarasola. Haizu bekik, hutsartean larria arintzeko, Ibonek egindako antologia aipatzea, *Gerraondoko euskal poesiaren antologia (1945-1964)* (1973). Hautatzeak, hautatu beharrak, beste batzuk izu zitzaizkeen eta ditzake, baina Ibon ez. Diogun, bestalde, antologia horren interesa ez dela geroztik izpi batez gutitu. Bere laburrean, batere lotsarik gabe ibil daiteke oraindik jendartearen kopeta gora.

Sarasolak zuen letretarako jaidura, haatik, ez zuen irakurtzeak eta idazteak asebetetzen. Eta hara non Barcelonan Filosofia eta Letretako (orduko hizkeraz esateko) ikasle. Ikasle eta irakasle, ezen Urquinaona plazako etxe eder hartan euskara irakatsi zuen zenbait urtez. Desagun, bide batez, Kataluniaganako begirunea agertu duela betidanik. Baina haren begirunea obretakoa izan da: ostataturik zegoen etxean haste-hastetik eskatu zuen otoi katalan hutsez mintza zekiola.

Barcelonako ikasketa-aroa bukatu ahala, lizentziago lana aurkeztu zuen bertan, *Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes* (ikus *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* XI, 1977, 51-90). Sintaxi arazoa, bada, trebeki tratatua eta axolako puntu horretaz idatzirikoa ongi galbahetua.

Handik Salamancara joan zen, Mitxelenaren gerizapean euskal filologia eta hizkuntzalaritza alorretan zuen egarria berdindu asmoz. Eta orduantxe ikusi nuen nik lehenbizikoz Sarasola, laster hamar urte, 1979ko Otsailean, oker ez banaiz. Gran Vía kalean bizi zen Mitxelena eta Gasteiztik joan nintzaion, aurreko Urrian abiatua zen Fakultate eta Euskal

Filologia karreraren berri ematera. Ibon hantxe bizi zen, arkupetako etxe hartan. Zoriaren handia: Koldo arkupe horietan beretan ikusi nuen lehen aldiz, 1967an, izenaz ikastetxe baina izanaz egoitza zen "Hernán Cortes"-aren aurrean, euskaldun ikasle talde batekin berriketan, ni ikasle eta Mitxelena indoeuropar bere kadirarako lehiaketan.

Orduko, hori bai, postazko harremana izan genuen Ibonek eta biok. 1977an bere *Euskal hiztegi arauemailea*-ren lehen prestaera (horrela zeri-tzan), zirriborro gisakoa, euskaltzainei eta zenbait hilkizuni helarazi zien, iritzi eske, hiztegiileen artean bakan-bakana den apaltasunarekin. Eta nik oharrak bidali, eskuratu zitzaizkigun bi aletariko batean idatziak.

Harez geroko urteetan, Gasteizen irakaslekide eta adiskide (batetik ez da segitzen bestea, jakina denez) bihurtu ginen. Urratsez urrats, hazten ari zen belaunaldi askok amesturiko eta agintari eta bestelako askok ukaturiko Herri Unibertsitatea, eta bertan, Koldo buru genuelarik, Euskal Filologia handitzen, irakasle eta ikerle berriak bereganatuz. "Euskal filologiaren antzeko zerbait sortu da", esaten zuen irribarretsu harrokeria higuin zuen erreteriarrrak, eta nik isildu beharko nuke arrazoi berberetatik. Baina beste irakasguneak eta beste aldizkariak ezertan ere gutietsi gabe, nola ez aitor Gasteizko Fakultateari berea, nola ez ezagut Fakultateari atxikia dagoen *Anuario*-aren aitzinamendua eta egokitasuna?

Eskergabetasun gaitza litzateke, halaber, Sarasolari zor zaiona ez aitortzea. Itzala, hein handi batean, hark eman dio Euskal Filologi Sailari. Habe eta gapirio sendoa izan da han. Ikasle anitzengan irazeki den autore zaharrenganako interesa haren eragina da, menturaz beste inorena baino areago. Era berean, itzala zekarten Ibonen argitarapenek: horra, esaterako, Arestiren olerkigintzari buruzko artikulua, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak* liburuan (1981), eta Bilboko poetaren olerki guztien argitarapenerako sarrera mamitsua. Eta Aresti ahotara etorri denez gero, aukera dugu hemen esateko, "Nire aitaren etxea"-ren egilearen defenditzaile (edota beste baten erasotzaile) sutsua gertatu zela Ibon, hots handia atera zuen mahai inguru batean, 1980ko Martxoan, Gasteizen bertan. Javier Atienzak aterea zuen Madrilén *Maldan behera* eta *Harri eta herri* poemén edizioa, itzulpena eta guzti, gehi sarrera bat. Atienzarenak izana zuen aldeko kritika, non eta *El País*-en, nahiz kritikariak, berak aitortu bezala, euskararik ez jakin (ikus *El País*, Urtarrilak, 27, 1980). Cátedra zuen eta du argitaletxeak izena, baina Iraileko deialdian ere ez zukeen liburu hark nahikoa lortuko (gure artean, dakidala, Alfonso Irigoien eta Lourdes Oñederrak epaitu zuten liburua behar bezala, *Ere* aldizkarian). Antolatu nuen mahai-ingurua, bada: han ginen Atienza, Mitxelena, Sarasola eta laurok. Mitxelenak, bide batez, harritua (eta kezkatua) ninduen zeharo: deia luzatu nionean, liburua oso ongi zegoela esan zidan. Baina gero argitu zen gaizkiulertua: aurreko astean utzi nion Javier Corcuera *Atienza*-ren *Orígenes, ideología y organización del nacio-*

nalismo vasco-z ari zen. Zaparraldi galanta, Atienzak han hartu behar izan zuena, baina galantena Sarasolagandik. Beldur naiz Atienzak, zenbait iritzi onartu arren, Sarasolari geroztik ez diola barkatu, batez ere harako *gainordokioa* (Orixek bezala esateko, hau da, “mesetario”) deitzea. Izaera, azken finean, nahi baduzue. Ez pentsa, ordea, zakarra eta mukerra zenik ez denik Sarasola. Itxurak gorabehera, gizartekoitasuna, xalotasuna hazta dezakezue berehala Ibonengan.

Ez pentsa ere arratsalde honetan omentzen duguna Euskaltzaindian arrotza denik. 1966az gero urgazlea izateaz gainera, asko eta handiak dira Euskaltzaindiarentzat egin dituen lanak. Arantzazuko eta Bergarako biltzarreen ondoren irizpideak finkatu behar ziren eta erabakiak hartu. Kontsonante bustien batzordekidea izan zen Sarasola eta, nori berea da zuzenbidea, zenbait *hatxetegia* izendatu duena Ibonek Akademiaren aginduz denbora laburrean eta guztiz argiro eta trebeki prestatu lerrokada duzue funtsean (ikus *Euskera* 24:2, 1979). Hau ere bide batez esana, Sarasolak ez zuen denen gainetik logika zerutiarra (beste izenez etimologia) ezarri. Eta arrazoi osoz proposatu zuen, batzuen atsekaberako, *ertzain*, ez *hertzain*. Azken finean, horren nabarmena ez zaio populuari iturria: ez ahal zuen esan Arantzazuko fraide batek izen egokia zela *ertzaina*, ertzak zaintzeko sortuak izanik? Eta ez ahal dugu *Prohibido verter basuras* iragarkian batean *v-a* eta bestean *b-a*, biak jatorri berekoak direlarik?

Lerrokada luzeagoak eta trinkoagoak zetozkion Sarasolari, ordea. 1983an argitaratu zuen *Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegia*, anitz aurreiritzi eta liluraren ezabatzailea, eta 1984an plazaratu zen *Hautalanerako euskal hiztegia* ren lehen liburukia, Mitxelenaren hitzaurre gogoangarri batekin. Ez zen, beraz, *arauemaile* izenaz, zirriborroan bezala, baina bai izanaz. Hots, Sarasolak esaten zigun, batez ere, inongo euskal hiztegi esaten ez ziguna: hitz bakoitza zer den, zer hizkuntz-mailari dagokion (*interclasista* ez denean) eta noiz ageri den lehenbizikoz, adibide ugari erantsiz. Irakasle-senaren ispilu, jakina, baina horrekin batera langile neka-gaitzaren fruitu, langile adoretuarena, eta egungo euskararen premiez ongi ohartuarena. Hiru liburuki atera dira jadanik, zein baino zein miragarriagoa.

Urte horretan bertan gauzatzen hasi zena, halaber, ezaguna da. Euskal Herriko aginteen eskutik Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean eta Sarasola eragile zelarik, lanari ekin zion talde batek (denak Koldoren ikasle ohiak) azkenean *Orotariko Euskal Hiztegia* deituko zena ateratzeko. Adorea, berriz ere, Ibonengan, eta orobat Koldoganako leialtasuna eta nik, Mitxelenaz niharduela, *abertzaletasun barea* deitu dudana, hau da, euskal baratzea espantu eta zalaparta gabe jorratzen eta txukuntzen dakitenena. Ongi atzematen zion Ibonek lanaren tainari, zer esanik ez. Errenterian, saskigilearen etxe zahar hartan, erakutsi zizkion behin Koldok zapata-toxa guztiak, liburu, izkribu eta ezpainetatik jasotako esaldi,

perpau, hitz soil eta abarrez lehertzeraino beteak. “Hau da asuntua?”, galdegin omen zion Sarasolak Mitxelenari. Eta “Ez, hau da kontua”, erantzun saskigilearen semeak. Geroztik ez du Ibonek *asuntu* hitza erabili. Eta, bere aldetik, Mitxelenak ongi zekien donostiarraren informatika-trebetasunik gabe sekula ez zela hura guztia (eta toxetan ez zen puska handia) libururatuko.

Baina guk ez genekien Koldo hain laster galduko genuenik. Hizlari, solaskide, gutun-idazle genuenean, are inoiz baino itxura hobeagoarekin, nola pentsa hura zela

*Bizitzaren hondar-aleak
larrainean eultzen ari!*

Lehendik sail gogorra bazen, are gogorragoa, 1987ko Urriaren 11garren egun hits harez gero. Segur gaude, haatik, euskaltzain berriaren adoreak ez diola huts egingo eta, bestetik, aspaldiko esaera dugu hasiak egina dirudiela, poliki poliki, hala behar, urre gorria helduko zaigularik.

Presa omen da bazterretan. Etapak erre bakarrik ez, kiskaldu ere nahiko lituzkete zenbaitek. Egia da premiak larriak direla, irakaskuntzan, administraritzan, irrati-urrutikuskinetan, literaturan bertan. Baina nola ez ekarri gogora *Il est urgent d'attendre* hura? Zerbait, zerbait baino gehixeago, aurreratu bada ere, aitor dezagun ez garela Urquijo kezkatzen zuen egoeratik hain urruti. Hots, autore zaharren ondarea ezagutu eta galbahe-tu ezik nekez proposa daitezke, hiztegiari gagozkiola batez ere, behin-behinekoak ez diren neurriak. Baina zer diot, autore zaharrak! Arduratu gara benetan eta zinetan hain zaharrak ez diren autoreek eta anonimoe-k zerabiltena aztertzeaz? Kirikiñok, esaterako, *salataria* idatzi zuen *Euzkadi* egunkarian, “fiscal” itzultzeko (ikus Apirilak 23, 1919). Kontutan hartu dute gure presatiek hitz hori, onartzeko zein gaitzesteko? Eta ohartu gara egunkari horrek berorrek kopetan zuela “franqueo concertado”ren euskarazko ordaina? Ez gaitzezen desenkusaka eta estakuruka ibil. Lizardi gogoratuko dut berriz:

*Bildu dezagun nun-nahi
asaben lorea*

Behin-behinekoak ditugu, horregatik, proposamen asko, batzu txalogarriak nahi baduzue. Baina ez bedi espero agian bizitza luzerik, edo gizakiok dugun bizitza baino laburragoa espero bedi, esaterako, *Agintaritzazaldizkarietatikako hitz-bilduma* gisakoarentzat. Jakina, *papera pazientziatsua da* (Alemanian esaten duten bezala esateko), eta dena du eramaten. Baita hormek ere, eta maiz *Sorteorik ez*, *Despidorik ez* eta antzekoak erakutsi behar dituzte lotsaturik, lotsagabeko batzuengatik.

Odon Apraizek eskatzen zuen jarraipenaren senik eza, noski, eta luze joko luke ezaren arrazoia aztertzeak. Eta horren aldamenean, galde-

ra bat: euskaltzalea da Euskal Herria? Sarasolak badu, aspaldisko, eran-tzun biribila: ez. Zeren hemen, euskara higuin duten saldo handia alde batera utzirik, epeltasuna dugu guztiz nagusi, euskarari dagokionez, bero-tasuna urtean pare bat aldiz agertzen dugularik, kilometroak eginez eta beste, eta norbaitek *indignation sélective* hura azalduz.

Bukatuko dut, soberaska mintzaturik. Filologoz beteriko Akademia legegizonez beteriko Parlamentuaren pare litzatekeela diote batzuk. Filo-logo gehiegi omen ditu Euskaltzaindiak, eta idazle guti, gaineratzen dute. Horra, bada, bere gorputzean bi alderdiak dituen kide berria, denen kontentagarri. Zorion agiankatu nahi diot adiskide eta euskaltzainkideari, eta urte askotako.

E. Knörr

**TXOMIN PEILLENEN
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Baiona, 1989-IV-1

TXOMIN PEILLEN EUSKALTZAIN BERRIA

Baiona, 1989-IV-1

BAIONAN 1989-IV-lean, herriko-etxean Henri Grenet jaun auzapezak egin hitzaldia.

Mesdames et Messieurs,

Lorsque Monsieur Haritschelhar m'a demandé où pourrait se tenir à Bayonne cette réunion de l'Académie Royale de La Langue Basque, je lui ai dit que ce serait à la mairie, et dans le Salon principal de la mairie, parce qu'il convenait que nous recevions l'Académie de La Langue Basque dans les conditions les meilleures. Tel était mon point de vue et je suis très heureux de vous recevoir aujourd'hui les uns et les autres et de vous dire combien nous sommes heureux que vous ayez choisi notre ville et que vous soyez venus pour introniser Monsieur Peillen, un bascophone français qui enseigne à l'Université de Pau, mais que je n'ai pas eu l'occasion de saluer, puisque je crois que la coutume veut qu'il n'intervienne dans cette réunion qu'au moment même où il sera intronisé.

J'ai reçu dans mon bureau le Bureau de l'Académie Royale, qui est venu m'exposer toutes les opérations qui sont en cours pour maintenir la langue basque, pour en coordonner tous les aspects, pour donner un caractère scientifique à cette étude, de telle sorte que la langue basque —surtout la langue basque littéraire—, ait une unité qui représente véritablement l'unité du Pays où l'on parle cette langue. Je vous dirai que pour ma part, en ce qui concerne la culture et la langue basque, je suis disposé, comme je l'ai déjà fait, à faire des efforts pour que l'on puisse parler, apprendre à parler basque en cette partie de notre France. Ceci étant, tous les problèmes politiques sont évacués, en ce qui nous concerne, et si j'ai demandé, dans les jours derniers, une entrevue avec le gouvernement autonome du Pays Basque, à Vitoria, c'est parce que je sais l'importance qu'ont les relations entre des provinces de même type, même si elles appartiennent à un régime politique différent, mais que l'on doit pouvoir travailler dans des conditions favorables, à une relation

pas seulement politique, mais surtout amicale entre des gens qui se connaissent et qui n'ont qu'un désir, celui de se retrouver.

Nous avons déjà établi des relations avec la Navarre: J'ai eu le plaisir de signer, à ma demande, avec la Députation de Navarre et son président, Monsieur Urralburu, un protocole d'accord qui porte certes sur des problèmes routiers, mais qui était le premier aspect d'une collaboration entre le département des Pyrénées Atlantiques et la province de Navarre, en dehors même de l'aval des Etats. Ceci n'a pas été considéré à priori comme une bonne démarche, mais on a estimé qu'avec la décentralisation que nous avons ébauchée en France, on avait la possibilité de laisser aux départements et à leurs voisins frontaliers, le moyen de traiter des questions qui les intéressent directement, tout au moins en matière de voirie, questions qui sont de leur compétence et non de celle des Etats.

Nous avons également reçu le Président de la Députation d'Aragon, pour des problèmes de communication, puisque ce sont ceux qu'il est le plus urgent de régler; mais là il s'agit de problèmes d'Etat à Etat, Etat espagnol et Etat français, puisqu'il s'agit —vous le savez— de la route 134 et du passage du Somport par un tunnel, à quoi nous travaillons beaucoup, car pour bien se connaître il faut surtout avoir la possibilité de se rencontrer et les liaisons routières représentent un des éléments les plus favorables pour la rencontre des gens voisins.

De tout cela, demain, je vous le répète, nous aurons l'occasion avec le gouvernement autonome du Pays Basque d'établir des relations, qui seront, j'espère profitables pour les populations de notre département et celles du Guipuzcoa, qui est notre plus proche voisin. Je pense qu'en dehors même des problèmes ponctuels qui seront traités, se dégagera une relation d'amitié, à laquelle je suis personnellement très attaché. On a perdu l'habitude de se rencontrer, pour des raisons que nous n'allons pas développer ici; je pense que l'évolution des esprits et des faits sera telle que nous pourrions demain nous rencontrer davantage et que ce sera profitable pas seulement pour l'Europe —un mot dont on abuse, à mon sens— mais surtout pour les relations locales, car les relations européennes seront des relations d'affaires, essentiellement commerciales, avant qu'elles ne deviennent culturelles. L'horizon 1992-93 dont on nous bassine les oreilles paraît beaucoup plus long à réaliser, si l'on veut envisager tout ce qui est prévu dans le cadre de la libre circulation des biens, des personnes. L'unification ne pourra se faire que dans le cours des années et non à la date précise du 31 décembre 1992. Mais ceci est une idée personnelle. Dans l'immédiat, les choses à développer, ce sont les relations entre voisins et, demain, entre amis.

Que nous recevions aujourd'hui l'Académie et le Bureau de l'Académie Royale de la Langue Basque, c'est une chose toute simple, qui

n'engendre aucune conséquence politique; dans ma liste électorale, j'ai présenté récemment une bascophone très distinguée, qui a été élue; elle est de plus médecin et elle a été mon anesthésiste pendant vingt ans et nous avons lié des relations amicales qui ne se sont jamais démenties; elle a beaucoup travaillé pour la langue basque et pour qu'on parle basque dans notre pays; je lui dis que dans nos futures délibérations et nos décisions cet enseignement ne sera pas négligé et qu'il prendra la place qui convient dans notre région du Pays Basque français. Voilà ce que je tenais à vous dire. Je vais vous laisser maintenant pour la cérémonie officielle d'intronisation de Monsieur Peillen. Je vous souhaite à tous, les uns et les autres, de passer une bonne journée à Bayonne. Moi-même je serai lundi à Guetaria et prochainement à Vitoria et je souhaite que cette rencontre que nous avons aujourd'hui à Bayonne se répercute dans le temps et dans les pays voisins qui sont les nôtres et que cesse cet ostracisme que l'on ressentait, peut-être chez vous davantage, ici un peu moins, et qui existait cependant. Je vous dis: Vive la Paix, d'abord, et Vive l'Amitié!

JEAN HARITSCHELHAR EUSKALTZAINBURUAREN IHARDESPENA

Monsieur le Maire, Monsieur le Président du Conseil Général.

Je voudrais, aujourd'hui, vous remercier doublement, en tant que maire de cette cité d'abord, pour nous avoir ouvert les portes de l'hôtel de ville de Bayonne, afin que nous célébrions ici l'intronisation de Dominique Peillen. Je voudrais vous remercier aussi de nous avoir reçu en tant que président du Conseil Général, ce matin, afin que nous vous exposions quels étaient les travaux que faisait l'Académie, ce qu'elle était. Or justement dans les paroles que vous venez de prononcer, où vous parlez d'amitié entre voisins, de cordialité entre les uns et les autres, j'oserai dire que de ce point de vue, l'Académie s'est montrée véritablement à la pointe, car il y a maintenant soixante dix ans qu'a été créée cette institution, et à partir du moment même où elle a été créée, dans les douze premiers académiciens —car à ce moment ils étaient douze— on a tenu à ce que tous les dialectes de la langue basque soient représentés et que par conséquent, sur les douze académiciens il y eût trois représentants de la partie du Pays Basque de France. Voilà donc soixante dix ans que cela se réalise dans une unité linguistique et culturelle qui marque bien l'originalité de notre peuple. Cette unité linguistique et culturelle se fait en dehors et au dessus de la frontière, car ce qui fait notre unité c'est l'unité de cette culture et l'unité de cette langue à laquelle l'Académie travaille très régulièrement.

L'Académie de la Langue Basque est en effet une institution reconnue par le gouvernement espagnol, et aussi par le gouvernement autonome d'Euskadi, par le gouvernement de Navarre, ainsi que par les trois députations basques. De ce point de vue l'Académie est donc l'entité qui, sur le plan de la langue, est le recours auquel chacun de ces gouvernements pourra toujours se référer. Encore dernièrement c'est avec le gouvernement de Navarre que nous avons pu mettre sur pied le projet intéressant la toponymie de l'ensemble de la Navarre, sur le plan de la langue basque; ce qui signifie que ce gouvernement se réfère à nous comme le gouvernement de Vitoria ou les Députations.

Cet exemple d'unité se retrouve pour les travaux du Dictionnaire, de la Grammaire, de l'Atlas Linguistique que nous avons tout à l'heure exposés.

Je voudrais en rester là, mais vous dire aussi que c'est avec un très grand plaisir que nous sommes aujourd'hui dans cet hôtel de ville de Bayonne et nous vous en remercions, au double titre, je le répète, de Maire de Bayonne et de Président du Conseil Général.

EUSKALDUN MAITEOK, AGUR!

Baiona, 1989-IV-1

Txomin Peillen

*Galdu dutenekin elkartuko naiz
baina ez
sekulan ez
jokatu ez duenarekin*

Halaxe dio Hartzabal usurbildar poetak hemen inguruan zaudeten, euskaltzain adiskide askok, nekeaz, zentsuraz, isiltasunaz, herbestez, lan galtzez ez bada behin edo beste, Euskal Herriaren maitatzeegia ordaindu duzue. Bai ...hementxe zaudete urte beltzetako nere lagun ta adiskide zaharrok Euskaltzaindian eta horregatik onartu dut Akademia honetan sartzea, bai, baldin lehenago adiskidantza apur bat izan ez bazen, gure iritzi deberdintasunak ahaztu ez bagenitu, nola iraungo genuen euskararen itxas-untzi kulunkari honetan, kanpotik inarrosiak barnetik elkar joka ibili bagina. Orain, askeago garelarik, ekaitza pittin bat baretu delarik, ez ditzagun lokarri horiek baztert.

Zuekin nago baina duela berrogei urteetako lagun ta adiskide miñ asko ez daude gure artean, ez Gabriel Aresti ta ez Jon Mirande gure olerkari haundiak, ez René Lafon, ez Luis Mitxelena ez - nonbait dauden beste euskaltzale lagunak.

Parise hartan, duela berrogei urte euskararen ikasten ta idazten hasi nintzenean ez nekien Euskaltzaindi-rik bazegoenik, baina errabiaz, amorruz beterik ikusten nuen nola hainbeste euskaldun izanki herrian, iñork gutxi idazten zuen euskaraz. Bai frantses mintzairaren edertasunak ukatuz, euskara berde ta latz horren maitatzen hasi nintzen, arbasoen begirunez, gure herriaren ohorea gatik eta lotsaz gorriturik, baitzioten euskara hilgo zela literatura onik eman gabe: ez fama onik, ez dirurik, irakurle gutxi horixe zen gure geroa, bai idazleok jokatu gara bidegabekeria ta ezaxolaren aurka, gezurtarazi nahiz gure ingurumenak ziona “euskararen ikasten denbora galtzen duzue”. Ez dut garbairik, orain atseginez idazten eta irakurtzen baitut, maiz, gure hizkuntza berrituan. Bai euskarak bizi-

tzen lagundu nau, zeren, haren estuxa gogorraren barruan, gure gisako kultura, guregisako gizartea, guregisako Aberria baitugu. Jokatu bai askotan, galdu batzutan, baina ez dugu oraindikan garaitu... geure buruaren ezaxola, elkarren arteko ezinikusiak garaitu behar ditugu ez baigara aski taldetxoetan ibiltzeko.

Egun Baionatar gisa, baita atzerritar bezala, hemen nago Ohore zaizkit deiturak ohore, gorago esan moduan Baionaz mintzatzean, baina ederrago "atzerritar" izendatzen nauten euskal literaturaren historiek, Jon Mirande euskal idazle handiarekin batean jartzen bainaute ta estrandjeren artean René Lafon-ekin batean gertatzen naizelako Lagunarte ederra, zeren biekin ez bainaiz sekulan euskaraz baizik mintzatu eta Arkaxondarrak, René Lafon jaun maitagarriak, tesis baten idaztera bultzatu baininduen Gora holako gaskoin atzerritarrak Ondokoak badituzte hala nola, gure artean den J. Allières.

Parisen sortu nintzen, Montmartre gain hartan; halabeharrez Pariseratu senar emazte emigratuen semea naiz; eta han Parise aldean, halere, euskera ta euskaldunak topatu nituen langabezia gatik edo errepublikazale zirelako herbesteratu euskotarrak eta haien haurrak Agur, beraz, hemen dauden eta ez dauden atzerritar euskaldunoi Ohore zuei Hernandorena, Etxart, Domecq Oiharzabal aiakoak baita Pariseko Adrien zaharra, Allande, Arantxa, Benat, Iñaki Erruper ere; ohore zuei Billancourt -eko Ixabela, Versailles-eko Olivier ta Talence-ko Mayi, Londres-eko, Maite. Zorionez euskera ikasi duzute eta lauek idazten ez famarik ez ohorerik, ez dirurik ekartzen ez zuelarik Herriak goiz edo berandu zuen beharra izan edo izango du. Hor zaudete zorionez, denbora berean, arbasoen herriko baserritar hurrek eta gazteek euskararik ez dakitelarik gehiago; bai, Ligiko karriketan gure mintzaira entzuten bada, Baionako ta Angeluko hirur haurren ezpafiñetan da, bakantzaz datozenean Hau ironia mingatza euskara udatiarren hizkuntza!

Gure paristar euskaldun katea ez da eteiten Behin ezagutu nuen Adrien Maury, mende hastapenean euskara Parisen ikasia: ez ginen sekulan elgarrekin euskaraz baizik mintzatu Aurten, hamazortzi urteak izango ditu behin Eiheralarreko ikastaldi batera etorri zitzaigun neska. Parisen sortua: ta nik niolarik euskara ongi zekiala, harek hobetu nahi zuela "euskal idazle" izateko Ez dugu ordea geuk atzerritarrok euskara salbatuko, ez gara aski baina euskotarrek, euskaldun zaharrek, herrian bizi direnek, ez badute hitzegiten beren artean, gure ahaleginak alferrak izango dira.

Orain goraipa dezadan, lekua utzi didan Euskaltzaina

Piarres Larzabal -en bizitza ta obra garbiki ulertzeko, historian bidaia-txoa egin behar dugu ta eliza gizonen lekua, euskal gizarte zaharrean, zein zen oroitarazi. Bai, apezek ez zuten lehen politikan sartu behar, ez

eta nahi ere foruek debekatzen zietelako. Lehen urrats batean elizagizon ez zirenen ezaxolaz, haien zabarkeriaz mende luzeetan euskal liburugin-tzan apezak izango dira gehienik, *lehen potere berezia irabaziz*, hola.

Elizagizonek ez zuten biltzar berezirik, XVII. mendetik goiti Zube-roan ikusten ditugu nobleekin batean Korte Haundian; eta Euskal Herri gehienean ez zuten politikan eskurik sartzen: hola iraungo zuen baldin gure zokoan ahantzirik utzi baginduzten, gure frantses ta espanol nau-siek; beretu beharrez hasi ez balira.

Zer zioten laiko horiek, liberal horiek Iparraldean “La grande Révo-lution française” horrekin *beren iduriko* askatasun xedea hartu zuten, *euskaratik askatu behar ginduztela*, gero handik goiti berrehun urteez, hurbil, Errektore edo Prefetek gogorazten zieten eskola errejenteri beren lana zela bearnes ta euskararen galeraztea. Halere apezek katixima eus-karaz irakurtzen eta idazten irakasten jarraiki zuten. Bestalde liberal horiek Elizaren aurka agertu ziren bai Iraultza Handiko frantses armadak, bai Napoleonenak eta lehen aldikotz hortakotz apezak politikan sartu ziren, Iparraldean errepublikaren kontra idatziz, Hegoaldean armak har-tuz ta predikatuz; geroztik eliza gizonek beren egiteko hori ez dute galduko, gehienetan *flakuen alde jarritz apezak*, ez *hala apezpikuak beti* Hortako euskara ikasten genbiltzanean erraiten ziguten “eüskara apez-en mintzajia dük” eta arte hortan *ezkerreko gizon argituak*, aprobetxategiak, frantsesez edo espanolez idazten ari ziren.

Hirurogeita hamahirur urteetan, Piarres Larzabal, apez, abertzale ta idazleak bere azken hatsa eman du. Mende honetako 15.ean sorturik igaz, laurogeitazortzian joan zaigu. Lapurdin, Azkaine herrian ta Ixabele-nean etxean jaio zen. Apeztu baino lehen hasia zen idazten, ezen bere *Irri ta Nigar*, lehenbiziko teatro lana hemeretzi urteetan egin baitzuen; gero gazterik ere apezteko gogoia harturik, hogeitalau urteetan Hazparneko bikari izendatu zuten. Apezgeitegiak, eta sortherriaz bestelako herria zen orduan Hazparnen, mila zapata egileez goiti bazegoen eta gazte langille ainitz; heiekin langileriaren egoera zein zen ikasten zuen: bizi xuhurreko, biharamun eskazeko fabrika jende haiek, bere antzerkiko pertsonaiak izango baitira. Hazparnen bidegabekerien aurkako abotsa ametssezko jus-tiziaren eskaera, bere antzerkietan agertzen da, *Okilomendi* jaun mera iduriko obrekin. Bai ordudanik garaiko giroa, Iparraldean, hauxe genuen: eskola guttikoei erraten zieten zuek ixilik egon, gaizki ikusiak ez izateko (ez du aspaldi ezkerreko norbaiti entzun diogula berdin); gero eskoladu-nei “zoazte Parisera han baita ‘la réussite’”.

* * *

Bai Larzabal bezalako buru gogor batzu ez bagenitu izan, gauden baino gaizkiago ginатеke; batzu bihurtu gara, itzuli gara ta ustekeria hori,

gure indar guztiz, gezurtarazi beharrez, bai orain, orobat zaigu Pariseko harroputzen artean izateko orde, herri latz honetan baldin bagara. Holako gizonei zor diegu.

Bigarren gerlarekin Armadan erizain hatzemaiten dugu Aita Larzabal eta horregatik ez da luzaroegi han egoten, berriz Hazparnen dugu, jendeari erakasten bere nortasunaren balioa eta arbasoen hizkuntzaren ohoratzea; denbora berean, errez fedea galtzen duen mundu batean, bere apez lana egiten du.

Hazparneko egonaldi hortatik Benafatar kutsua hartzen du, erran nahi baita aditzarekin nahasketa batzuk egiten dituela idaztean, zeren gure gizonaren xedea antzerkiak egitean gazteen gogoakernetzea baita, eta hortarako tai gabe idazten du, ehun bat obra; erdiak galtzen ditu. Bai ez du astirik izan bere obren txukuntzeko ta pertsonaia berdinak, behin *zarete*, gero *zaizte*, *zarezte* errango du, *zira* ta *zare* nahasten ditu. Haren obrak agitaratzearan holako ezdeuskeriak zuzendu behar litezke.

Bai ez da harrigarri Piarres Larzabal baten hatzemaitea euskaraz idazten ari, baldin eliza gizonak, apezgeiek hori ikasten baitzuten Gero Larzabal zerk eroango duen bere euskera harma baten gisa erabiltzera? Hor bere merezimendua, ezen apez izanki ezin zuen tirozko armarik erabili Piarres Larzabalen utzi dizkigun 50 antzerkiak oihuak dira. Zer da obra haren ikasbidea, zertaz oihu egiten du? Injustizien salatzeke, bidegabekerien erakusteko, bai hor mintzo zaigu, flakuez, harrokeriaz edo hiltzaile bilakatu Etxahunez, zuzen kontra kondenatu Hazpandar Bordaxuri-z, Arrantzaleen bizi garratzaz, arrain lantegietakoen lan galtzea, gazteen herritik joan beharraz, etxaldean husteaz eta “résidence secondaire”, bigarren egoitza bilakatzeaz, lurren kanpotar ta hiritarrek erosteaz, hots gure egunoroko mixeriez, eta horrekin orokein, inguruan eramaiten diren politika komediez.

Daniel Landart ta Junes Casenave agertu arte, Larzabal hasarretua da Pariseko nausiek eta hemengo mutilek egin okerkeriak salatzeke idazle bakarra. Naski guztiek dauzkagun objektibitate mugak ditu, baina Historialari bati eskatzen ez zaiona nola egin Teatrolariari? Gehienek euskaraz irakurtzen ez dakitelarik, zer da euskal antzertia baino hobe jendeen hukitzeko. Gero teatro hortan ez dela hainbeste irri egiten diotenei inardetsiko diet, sabela beterik eta sakelak diruz hanturik daudenentzat egokia dela Pariseko “Le Théâtre de boulevard” baina hemen bulebarrik ez dago, Euskal Herrian itxaropenaren bideak hertsu ta etsipenarenak zabal baitira. Gure herria udako-etxe ta zahartetxe bilakatzen delarik eta hiltzen ari gure irrifarra beti mingatz, ozipintsua da.

Piarres Larzabal, zorionez, eliz gizona zen, holako askatasun apur bat gordetzen zuelarik, baina goi mailetan dauden haremanekin, herria ez baldin bazuen berekin izan, parropiaz aldatu beharra zen. Hazparneko

nausiez gaizki ikusirik, JOC edo Giristino langile gazteen taldea sortu baitzuen.

Mintzairaz lapurtar den Zokoara gerla ondoan izendatuko dutenean berdin jarraikiko du hizkuntza auzi hori ezin garbituz, batean nafartar bestean lapurtar, baina ez zuten hortara igorri Piarres Larzabal erretor: herrixka hartan ez zen ez artzainik, ez ardirik ez arditegirik, hola parropia bat zutik ezarri zuen. Azken hogeitertan, hor ere, txipien alde dabil ez bakarrik hitzez eta idatziz, baina egiazko laguntzaz, zeuzkan apurkak emanaz.

Gero garai beltza etorriko da, iheslari ta herbesteratuena. Beren ideiak osoki kontutan hartu gabe haien alde Anai-Artea taldearen antolatzaille ta laguntzaleetan sartu zen eta indarrak galdu arteraino zuzentasunaren alde saiaturiko da. Otsaila honetan beste Azkaindar batek zion bezala

“Ez naiz osoki zuen ideia ta metodoekin ados, baina odola emango nuke askerik mintza ahal zaitezten.”

Bai, holako giro hitsean, antzerki goibel batzu idatzi ditu, hala nola *Nork hil du Oyanalde?* edo *Etxahun* edo *Bordaxuri*, baina bere lehen antzerkiaren izenburua jarraituz *Irri ta Nigar* parre egiten bazekien, eta irri antzerkien artean, hasierako *Merkatutik*, *Kontrabandistak*, *Lau Donadoak* Jean Barbier-en eskolako antzerki arinak dira, baina Euskal Herria gainbehera doalarik ere, geroko *Portu Xoko*, *Mugari tiro*, *Herriko bozak* delakoetan gure buruhaustea humore onez troxatzen jakingo du; irri mingatza bai, gure egoeraren antzekoa. Tomas Murua gure zizelkari adiskideak, behin, Kastillano bati erantzun ziona kondatuko dizuet:

— Zuek Espanolek ez duzue ulertzen zergatik gu beti kantu ta irriz gabiltzan euskaldunok?

— Ezen zuen alderantziz guk egiazko problema latzak baititugu.

Gero *Matalas*, *Mugari tiro* ta *Orreaga* antzerkietan abertzaletasuna ere antzerkigai da. Beraz azkenean P. Larzabale-k gure antzertian sartu berritasuna gaitan dago, ez hizkuntzan beti, ez eta antzerki egituran klasisismua jarraitzen baitu.

Zergatik kausitu zuen teatro on baten egitea? Nere ustez ez baitzuen edertasunaren aldetik mintzaira landuegi. Bigabostetan gertatzen da antzerki baten irakurri nahia eta ezinez uztea eta denbora berean badakigu jendeek hobeki aditzen eta entzuten dituztela komeria horiek ezi ez ederki idatziak, irakurgarriak, baina gure jokularientzako ulergaitzak eta ezin ahoskatuz tratatzen ikusten ditugu teatro gizonak. Antzerkia entzuteko egina da, ez irakurtzeko, eta bertsoetan ez bada, edertasuna baztertu behar da; prosa hautsia, puskakatua, luzelaburduna erabili, mintzaira

horrek biziaren iduriko behar da, eta hori da Larzabelen bigarren ikasbi-dea bere lan hoberenetan bederen.

Gazteentzat, komedia egilentzat ari zen Larzabal eta Etxahun Iruriren gisa ez zuen bere burua idazle handi baten gisa ikusten, eta bere obraren begiratzeari ez zuen axolik emaiten, hala bere esku ezbiribu hainitz galdu dira. Halere teatroak duen gizarte xedea bete zuen, gure Herri esteiari ta borrokari hunen irudi bizia komedietan sartuz, geroztik pastoralzale guztiek Zuberoan jarraikiko dute. Bai euskaraz irakurtzen ez dakian euskaldun herri honi bere kultura eman behar zaio, baina bere burua altxatzen erakutsi ta erakatsi ere.

Azkenik esan dezaket antzerti gizon baten ohoratzeko bide egokienak direla, bere obren bere komedien ematea, bigarrenik obra guzien biltzea ta liburutan ematea, badakit azken lan hortan dabilzala lagunak, eta noizpeinka Euskal herri Barneko talde bat oroitzen dela Larzabalez.

* * *

Hemen nere "lehen peredikü" hau eginik, entzun dezagun Euskaltzaindiari zor diodan ikerlanaren laburpena. Gaia izanen da, duela 40 urteko euskaldungoa Orduko, literatura bizitzaren jakile paper zenbait, bildu ditut, sekulan aipatu ez direnak, sekulan imprimitu ez direnak, eta hola euskaltzale izatera ekarri nauten bi gizonen aipatzera noa? Duela berrogei urte bi euskaltzale suhar ez banitu ezagutu Parisen, ez nengoke hemen. Lehena Andima Ibinagabeitia, bizkaitarra, elantxobetarra; erakutsi zidan, guretzat euskara ezin zela, ez latina bezala izan, ez bigarren hizkuntza izan, baina gure pentsamenduen, gure liburu jakintsuenen mintzaira. Gero irakatsi zigun ez zela deus ahalgegarriagorik nola euskaldunekin gertatzean erdaraz aritzea. Iparraldeko euskaltzale batzuk hau behar lukete ausnartu.

Bigarren gizona Jon Mirande paristar eta euskaldun idazlea izan zen, harek erakatsi zidan eta zigun, euskaraz idazteko asko ikasi ta landu behar zela, eta Europako kultura bat ginenaz geroz, Europako literaturak behintzat ezagutu, gurea, kanpoko jakitatez aberasteko Hortan Zaitegi ta Krutwig-ekin bat zetorren, bagenuen zerikasiaz greko ta latinoen gandik.

Bi gizon horien aipatzeko Andimaren letra bat eta Jon Miranderen bizpahirur erabiliko ditut Euskaraz dira, naski, baina gerla aurrean ez ote ziren euskaltzaleak ibiltzen elkarri frantsesez izkiritzen. Gero Jon Miranderen lehenbiziko poema ikertuko dut, lehena baina jadanik hoberenetan sartzekoa da haren *Sonetua* sekulan argitaratu ez dena eta galdutzat zeukana idazleak berak laburzki bukatuko dugu, haren itzulpen bat aipatuz, ez bakarrik Imanol-ek kantatzen duelako - Bi Belek izenekoa baina erakusteko nolako lana den itzulpen baten hobetzea. Ez dut aipatu-ko ordea **Euskera** aldizkarian agertuko den Miranderen kantu bat, ez luzatzearen.

I. ANDIMA IBIÑAGABETTIA, ABERTZALE TA EUSKARAREN MAITALE SUTSUA

Andimak erakutsi zigun euskararen etsairik handienak euskaldunak berak zirela ta batzutan ere nazionalistek zirela; abertzale izenaren irabazteko harentzat euskara ikasi behar zen lehen bai lehen, eta zekitenen artean beti erabili, ez bakarrik etxeko zereginetan, esne ta porru saltzaileekin, zakurrekin ta humeekin, baina intelektuaren bizi guztian: huna zer hitz garratzekin zer bihotz minduarekin idazten dion Andimak, Txomin Peillen-i Caracas-etik 1957.an.

“Egia esan aspaldi ontan antzu nabilkizu, euskal alorrean: ez dut ezertxo ere ondu. Eta lotsagarria da au benetan ni bezalako euskaltzale batentzat, besteak, euskal idazketara zirikatzen ibili naizen onentzat. Eta zeri dagokio nere antzualdi au? Ondo dakizunez Txomin idazleak ere akullua behar du eta emen ez daukagu iñolako akullurik idazleok. Ez da errialde au bainon elkorragorik ikusi idazlanerako, euskerazkorako batez ere. Emengo eusko ospetsuak ez dira begiko zakarraz baino geiago arduratzen gure hizkeraz.

Bost ajola emengoei euskeragatik. Eta orrexek ematen dit neri behintzat minik handiena. Eta abertzaleak omen dira? Zer nolako abertzaletasun da ori geurea den hizkerari kasurik, ere egiten ez diona? Gainez egina nauka zorioneko abertzaletasun ergel orrek, gure izate guztia erdel ujolean ondatzen ari zaiguna nazionalismu zital orrek. Ez dut nai ario ortako abertzaletasunik.”

Gauzak ez dira, zoritzarrez honekin bukatzen: Andimaren gutunean bezala, noiz jakingo dugu euskaldunok euskara lehen hizkuntza bezala erabiltzen? Bai, gure nortasunaren ta kulturaren galerazi beharrez Ortega y Gasset Sanchez Albornoiz ta Iparraldeko zenbait frantsesek iparraldean, konplizeak, gaizkikideak ez balituzke, borrokak baluke beste itxura bat; gure egoera ez bada ona, komeni zen hitz horien eta borrokari horien oroitzea, horiek izan ez balira oraindik gaizkiago baiginateke.

Caracas'en Bagilak 25-1957

Peillen'dar Txomin'i

Paris'era

Txomin adiskide,

Ustegabeko zure gutunak ezin esan besteko atsegiña eman dit zuri eta zure etxadi maiteari buruz berri-enez gañezka datorkidalako batez ere. Are pozgarriago izan zait aspaldidanik nenbillelako kezkatan zurekin eta Robert-ekin zorretan nindagoelako. Eta zure gutun politak kezka guziak erauzteko almena izan du, eta ni makinara iartzeko ere, zenbait lerroño zuri idazteko.

Egia esan, aspaldi ontan antzu nabilkizu euskal alorrean; ez dut ia ezertxo ere ondu. Eta lotsagarria da au benetan, ni bezelako euskaltzale batentzat, besteak euskalidazketara zirikatzan ibili naizen onentzat. Eta zeri dagokio ene antzualdi au? Ondo dakizunez, Txomin, idazleak ere akullua bear du eta emen ez daukagu iñolako akullurik idazleok. Ez dut lurralde au bañon elkorragorik ikusi idaz-lanerako, euskerazkorako batez ere. Emengo eusko ospatuek, ez dira begiko zakarratz baino geiago arduratzen gure izkeraz. Bost ajola emengori euskeragatik. Eta orrexek ematen dit, neri beintzat, miñik aundiena. Eta abertzaleak omen dira... Zer nolako abertzaletasuna da ori geure geurea dan izkerari kasurik ere egiten ez diona? Gañez eginda nauka zorioneko abertzaletasun ergel orrek, gure izate guztia erdel ujolean ondatzen ari zaigun nazionalismu zitel orrek. Ez dut nai ario ortako abertzaletasunik.

Lotsaz gorrituko ziñake, Txomin, emengo eusko-etxeara igante batez urbilduko ba'ziñake. Lentez beterik, maitxo guziak iokolariz, edalez ta esalez gañezka... eta danak erderaz, gaztelaraz barra-barra. Ezta Gaztela-etxea balitz ere. Eta orrek niri, naska ematen dit, izugarritzko naska eman ere. Eta orretxegatik ez naiz urbildu ere egiten etxe artara ezin-bertzean baizik. Ba'dira ia iru-ilabete etxe artako solairurik ene oñez ikutu ez dudala. Naiago dut bakarrean nere etxe barnean ari, ez ango abertzale ergelen artean erderaz jardun. Zarrak eta gazteak danak berdiñak. Emen sortutako gaztedia ta bei-gorotza berdiñ-berdiñak. Okerrago oraindik. Gorotzak balio du zerbaiterko, ongarriztat baño ezpadare, eta ez da gutxi.

Emengo gaztediak aldiz, ezertarako ere ez du balio zimaurretarako ere ez... Eta au benetan da deitoragarria. Esan bearrik ez, giltzetatik ateratako ezur bat bezalaxe nagoela emen, beti nere zuloan noiz sartuko ote naizen zai... Nun da gure Europa ederra? paregabeko Europa? Ez dago lurralde ori bezelakorik mundu zabalean. Alaper dukete esan Amerike-lurralde ori bezelakorik mundu zabalean. Alper dukete esan Ameriketak, Ameriketak... Naiago dut mila bidar gure Europa zaharra bere aje ta eritasun guziekin... Bada oraindik mundu ontan dirua baiño garaiago dan zerbait, Ispiritua alegia... Eta emen gaindi ez duzu orko ispiriturik arkituko, eta dirua ere nekez...

Ala ere etsituta zakust, Txomin, orko abertzaleekin... Eta etsitzekoa da izan ere... euskeraz baiño ezin ulertuzko prantzes parregari batean beren konperentziak eman naiago dituten ergel oriekin... Noiz ikasiko ote dugu gere jabetasuna bear bezela guzien aitzinean erakusten, itsukeri ta berokeritan ibiltzeke? Polita iokoa, egin diezuna, Txomin, zeure euskal itzaldi orrekin. Ar itzatzu ene zorionik kartsuenak eta iarraik aurrerant zean ere bide ortatik... Ikus dezatela gure izkera ere zerbaiteko badala, eta oitu ditezela euskera entzutera...

2. Jon Miranderen kultura ametsak eta beste

Loustau-Daudine jaunak eman dizkidan gutun guztiak osorik eta fotokopiaz, beharbada, Euskera-n emango direlakoan, euskera ta idazkin-zari buruzko iritziak hartuko ditut.

2.1. Lehenik 1948.ko otsailaren 19 an idatzitakoan huna zer dion gure hizkuntzaz:

“Orai duela bi urte arteo, euskaraz fitsik ez nekien, zuberoera poxiño bat baizik Ordutik lotu natzaio euskararen ikasteari Oraino ez naiz trebe-trebea eta huts asko egiten, haatik ikasi nahi gorria naiz.

Letra hau laburdieraz dago (ene gisako laburdieraz bederen orai ikasten ari naizen hizkelgia Jaz (1947.an) ikasi nuen gipuzkera pixka bat, beharbada, “manexa” baino hobeki derabilat Burhasoekin, aldiz nakien zuberoera aphurra ontzen eta abe-rasten ari naiz.”

Letra honetan, guhaurk Parisen ezagutu mundua ikusten da; alegia bizpalau urteez Euskal Herrira itzuli gabe egon zirenen jendeena, euskaldun familietan, Parisen, aitetamak beren artean beti euskaraz ari ziren, baina haurrek hortik kanpo ez baitzuten euskararik entzuten, eta euskaldunak ez baitziren elkarretarutzen, gehienek zertxobait bazekiten Mirandek ez diona da, Zuberoan bereziki, euskara bizi-bizia zela orduan eta bakantzetara, hara joaiten zenak, euskara hobe zuela ikasirik baldin ez bazen debeatu eta aspertu nahi.

Hona zer dion aitzinaxeago, euskara idatziaz mintzo:

“Ene iritziz euskaldun guziek behar ginuke *euskera bat bakarra* hizkelgi guzietako euskal hitz jatorrenak elgar bilduz egin ditekena edo bertzela lau euskalki nausietan bat hautatu eta gero hari atxiki (giputzera zait iduritzen egokiena harek bai’du elherti ederrena ta joriena) Baina bego hori linguista jakintsuagoeri...”

.....

Gero bere xedeez eta ametsez xehetasun gehiago ematen digu, bere buruaz mintzo:

“Ni ere nahi nintzateke bertsolari izan, bertze letra batean igorriko daukitzut, menturaz, euskeraz idatzi nituen bertso batzu. Eresia ere maite dut. Ezagutzen ahal duzu Guridi euskotar ereslari aipatua? Duela denbora zonbait Pariseko antzoki batean ikusi nituen “Amaya” haren operako zati batzu (Ezpata dantza eta eta...) eta xoratua utzi ninduten.”

Hola musika aipatzean Mirande-k ez zekien bere olerkiak Imanol-ek, Beñat Axiari-k, Oskorri ta Rock taldeek kantatuak izango zirela, gure gizona jazz-zalea zen eta Jazzaindi bat izaten baldin bazen, han sartuko zela zion, agian, pozik legoke bizirik eta Kortatu, Hertzainak eta besteren Rockzaindian bere burua ikusiz.

2.2. Huna zer dion Euskal Herriko politika geroaz hitzegile: *harma borrokaz*.

“Erranen dauzut Aberriaren etorkizunaz ditudan asmoak.”

Eta urte bereko Martxoaren 9.ko gutunean zehazten digu, olerkietan ta hitz lauz geroago idatziko dituenaren eskemak “Euskal Gudari zalduntzaren beharkiaz” *Gernika*, aldizkarian, bai, izanen da haren azken deia borroka bidetik, armaz sartzeko, iñork ez baitu jarraikiko eta Loustau-Daudine-ri egiten dio eskaintza, honek baztertuko diona, demokrazian sinesten baitu, huna Mirande-ren hitzak:

“Ene ustez, Frantsesek ez dute sekulan onhartuko Euzkadiren askatasuna: zer egin dezakegu beraz? Ene iritziz indarrez behar-ko dugu berjabetzea lortu! Zer deritzaizu adixkidea? Soldado-goatik askatua ziratekenean, *biek elgarrekin* zerbait egiten ahal-ko dugulakotan nago, nahi onezko Euskotar guziak gureganatuz.”

Jon Mirande-k soldautzarik ez zuen egin ta deitoratzen zuen, oztopo edo eragozpen baitzuen berak amestu harma borroka hortarako ta euskaldunen artean gogaidetik ez aurkituz, kultura borrokara jo zuen bestea utzirik ta gutun berean alde hortatik zituen asmoak Hegoaldean bederen aski obratu dira, huna haren hitzak, Iparraldea gogoan:

“Eusko gaiez axola poxi bat dutenetan ere gehienek ikusten dute Euzkadi folklore museum bat bezala.

2.3. Urruntxeago dio harentzat zer den abertzaletasunaren izaera: *euskal kulturaz*

“Nik maite dut neure herria Angles edo Frantses batek berea maite duen bezala”... baina geroari beha bizi behar genuke deritzait. Nere ametsa hauxe da: egun batez Euzkadi izan dadin lurreko herrialde argituenetarik bat Iphar Europako erre-suma ttipi zenbait diren bezala (gogoan ditut Holanda, Dinamarka, Finlandia).

Zer den abertzaletasunaren ta euskal nortasunaren ezaugarria?

“Guk aldiz ez dituguia maizegi ahanzten Arana Goiri’tar Sabinen hitz horiek Euskadi da Euzkotarren aberria eta EUSKERA EUZKOTARREN HIZKUNTZA?

Azken hitz horiek idazleak berritan azpimarratzen ditu. Geroago idazten du nola euskara horren ikasten ibiltzen den, zer egin duen 1946-etik 1948.raino.

“Nik ere pozik idatz nezake irakurgai edo edestizun bat euskaraz ba bainan oraino ez bai derabilat aski ondo, ez naiz ausartzen; itzulpen labur batzu egiten ditut, noiztenka, nere mintzairaren trebatzeko. Duela denbora poxi bat mamu ipuin bat euskeratu nuen ingeleratik eta orai nahi nuke Edgar Poe-ren hitz lauzko olerki luzexka bat itzuli, baina zail da zail.”

Handik urtebete Peillendarrek Miranderen ta Ibinagabeitiaren ezagutzak egiten genituen eta oroitzen naiz, ordurako Edgar Poe-ren *Belea* itzuli zuela; nere euskera hain zen berria ta motza, bere itzulpena itzuli behar izan baitzidan, handik urtebete Euzko-Gogoan argitaratu zuten.

Paris'tik

1948'ko otsailaren 19an

Jean Loustau Jaunari

Ene lagun eta aberkide maitea.

Atzo goizean zait heldu 16an igorri zinautan letra. Poz-pozik irakurri dut: ez dut zure ausartziaren barkatzerik, aitzitik atsegin handia dut elgarri idazteaz. Aspaldi huntan muga hunaindiko, zinezko eusko aber-tzale bat ezagutu nahi nuen eta egia erraiteko etsitzen hasia nintzan. Gipuzkoar eta Bizkaitar zintzo kartsu horien eretzean, guk bethi arrotzen uztarria onhartuko ginuenetz geure aberrian!

Pentsa zer atseginā zaitan ikustea zu ere ene iritzikoa zarela ber asmoetan zabiltzala.

Gudarostean zara, beraz, mementoan? Segur bihotz-bihotzetik deito-ratzen zaitut! Nik hogeita-bi urthe ditudalakoz ez dut gudari joaiterik eta eskerrak diozkat zeruari. Diozu ez duzula frantses armada maite: nik biguin dut. Herra sentimendu ahalgegarri bat diteke, ba, bainan ikusten delarik arrotz guziak —frantses izan ditezen ala español— nola erabili duten geure aberri gaixoa, bere ohidurak eta hizkera hiltzerainokoan, nola ez gaitzes debru beharri-motzak?

Monzon-Olaso jaunak erran izan daukezun bezala ni “Euskaldun berri” bat naiz. Orai duela bi urthe arteo, euskera fitsik ez nakien, zuberuera poxiño bat baizik. Ordutik lotu natzaio euskeraren ikasteari. Oraino ez naiz trebe-trebea eta huts asko egiten, haatik ikasi nahi gorria naiz.

Letra hau laburdieraz dago (ene gisako laburdieraz bederen) orai ikasten ari naizen hizkelgia. Jaz ikasi nuen giputzera pixka bat; beharbada “manexa” baino hobeki derabilat. Burhasoekin, aldiz, nakien zuberuera aphurra ontzen eta aberasten ari naiz. Ene iritziz, euskaldun guziek behar ginuke euskera bat bakarra, hizkelgi guzietako euskal hitz jatorre-nak elgar-bilduz egin ditekena edo bertzalde lau euskalkietan bat hautatu eta gero hari atxiki (giputzera zait iduritzen egokiena, harek bai'du elherti ederrena ta joriena). Bainan bego hori linguista jakintsuagoeri.

Ni lanean ari naiz “Ministère des Finances” delakoan. Ez dut ene lana arras maite; zerbait egin behar halere. Haatik ikaskintzeri jarraikitzen natzaio: bereziki hizkuntz-ikasteari eta filosofiari. Olertia maite dut, nik ere (ingles ta euskal olerkariak ororen gaiñetik). Galdatzen dautazu Monzon'en neurtitzetan zoin ditudan maiteenak; orra atseginenak zaizkidanak: “Ostoak bidean”, “Katalin” “Erreka alboko zurginola” “Tropikotik” (oso pollita) “Txoria ta belatza” “Bergara” “Pizkunde” “Adixkide bi”.

Ni ere nahi nintzateke bertsolari izan - bertze letra batean igorriko daukitzut menturaz euskeraz idatzi nituen bertso batzu. Eresia ere maite dut. Ezagutzen ahal duzu Guridi euskotar ereslari aipatua? Duela denbora zonbait, Paris'ko antzerki batean ikusi nituen “Amaya” haren operako zati batzu (“ezpata dantza eta eta...”) eta xoratua utzi ninduten.

Bainan tokia xuhurtzen ari bai'zait, behar dut ene eskutitz hau bururatu; bigarrenean gehiago hitz eginen dautzut gai horietaz oro, bai eta erranen aberriaren etorkizunaz ditudan asmoak.

Ene adixkidea: sekulan Paris'en iragaiten ba'zara (permisionez edo hola) jin zakizkit ikustera, ez ahantz gero!

Anartean, har itzazu bidaltzen daukitzudan agur eta zorionak.

Gora bethi Euzkadì!

Jean Mirande

Paris 9-3-48

Loustau'tar Jon Jaunari

Adixkide maitea,

Joan den asteen hartu nuen zure bigarren eskutitza eta lehenbizikoa bezala, oso pozik irakurri ere.

Nahi ba duzu, aldi huntan emanen dauzkitzut xehetasun gehixeago, nundik naizen, zer asmoak ditudan, zer egin nahi nukeen, eta abar.

Jadanik erran nauzun bezala, Xuberotarra naiz ethorkiz, bainan Paris'en sortu ta hazia, Aitaren sor-lekua, Garindaiñe, Maule'tik Baxe-Nabarrerako bidean dagon herrixka txipi bat. Ama, Sohütarra dut. Ezagutzen dukezu Sohüta; lehenago koblari ta dantzari askoren kabia izan da. Orain aldiz, kaskointzen hasia da.

Ba dut arreba bat, bi urthez ni baino zaharragoa. Ezkontzekotan da, bainan, damurik, ez Euskotar batekin!

Burhasoak eskualdunak ditut erran gabe doa - bainan ez dezaket erran abertzale direla funtsean; Xuberozale, ba, zuk zinion bezala.

Hortan bai gare, bortxatu naiz aithortzera guti direla muga hunaindiko Eskualdunetan ezagutzen ditudan egiazko abertzaleak. Eusko gaiez axola poxi bat dutenetan ere, gehienek ikusten dute Euzkadi folk-lore museum bat bezala. Heientzat gure gizonik haundienak André Dassarry, Luis Mariano, Rudy Hirigoyen dira!

Nik maite dut neure herria Angles edo Frantses batek berea maite duen bezala. Euskal-herri'ko dantza ta abesti herkoiak laket zaizkit naski; eusko edestia ikasten ari naiz; bainan geroari beha bizi behar ginukela deritzait. Nere ametxa, hauxe da: egun batez, Euzkadi izan dadien ludiko herrialde argituenetarik bat — Iphar-Europa'ko erresuma ttipi zenbait diren bezala (gogoan ditut Holanda, Dinamarka, Finlandia...).

Ni ere kristotarra naiz - bai eta demokrata ere. Bainan izena baino nahiago dut izana (erraiten ohi den bezala) eta ezin ahantz dezaket

gehiegi aldiz arrotzek atzipetuak izan garela iragan denboran, Eliza edo Demokratagoa zaintzeko aitzakian — 1789'ko erkaldarrak “demokratak” othe ziren geure lege-zaharra kendu zaukutenean? “demokratak” ordutik hunat, ikusi ditugun frantses jaurlaritzak, nahiz beren buruak hola deitzen?

Bertzalde, orhoit naiz Nabarra'ko bakalderri eskualdunarekin nola jokatu ziren lehenago Erroma eta Kastilla'ko errege katolikoak — eta naiz Girixtinoa izan, bihotza samintzen zait. Egiari zor bai zaion ezin ukha oraiko egunetan (eta bereziki Hego-Euzkadi'n) aphez hainitz direla aber-tzaletasunaren adixkideak, bai ete geure mintzaian zaintzallerik sutsuenak.

Ororen gaiñetik maite dut azkatasuna. Sekulan emaitze eder hori jin ba lekio geure aberriari, oi nere poza! Bañan gogoia ilhun ta aphal daukat, dakuskidanean gure herritarren zabarkerri ta nagikeriak.

Hemen Paris'en bretoin abertzale gazteekin ibiltzen naiz. Ezagutzen ahal dituzu, izenez bederen “Breizh atao” (Bretaña bethi) eta P-N-B'a (bretoina abertzale alderdia)? Nahi nuke ikhus ba gineza gazte horien kharra! Askok ez zakiten; haurretik beren abendako hizkuntza, berriz ikasi dute, eta beren artean, bretoineraz ari dira bethi. Guk, aldiz, ez dituguia maizegi ahanzten Arana-Goiri'tar Sabiñ'en hitz horiek: Euzkadi da Euzkotarren aberria eta EUSKERA EUZKOTARREN HIZKUNTZA?

Ene ustez, Frantses'ek ez dute sekulan onhartuko Euzkadi'ren askatasuna: zer egin dezakegu beraz? Ene iritziz indarrez beharko dugu berjabetzea lortu! Zer deritzaizu adixkidea? Soldadogoatik askatua zirate-kenean, biek elgarrekin zerbait egiten ahalko dugulakotan nago, nahi onezko Euskotar guziak gureganatuaz.”

Toki pixka bat gelditzen bai zait oraino edertiz mintzatuko natzaizu. Nik ere maite ditut aipatzen zinauzkidan ereslariak bai eta Wagner ere. “Tannhäuser ” “Parsifal” osoki atsegingarri zaizkit.

Euskal idazleetan maiteenak ditudanak horiexek dira: muga haindi-koetan ezagutzen ditut Monzon-Olaso, Arrese, Irazusta'tar J. it, Zaitegi'tar jokin (ingelaratik ta grekoeratik, itzulpen ederrak egin ditu horrek bainan, zoritxarrez ez ditezke oraino Frantzia'n kausi) eta muga hunaindiko autoreetan: Joanes Etxepare, Oxobi ta Iratzeder bi olerkariak, Leon apheza (haren “Ebanjelio saindua” eskuratu berria naiz: eskuara oso poliki derabila liburu hortan) P. Laffitte.

Zure ihardespenean erran zaidazu zoin dira irakurri ta gehienik maitatu ditutuzen euskal ta erdal liburuak, baita zuhaurek idatzi nahi zinituzkenak. Nik ere pozik idatz nezake irakurgai edo edestizun bat-euskeraz, ba, bainan erdira ez bai derabilat aski ondo, ez naiz ausartzen. Itzulpen labur batzu egiten ditut noiztenka ene mintzaiaren trebatzeko. Duela denbora poxi bat mamu-ipuin bat euskeraratu nuen ingelera-tik,

eta orai nahi nuke Edgar A. Poe'ren itz-lauzko olerki luzexka bat itzuli, bainan zail da, zail!

Adixkide Jon, utzi behar zaitut aldi hontako. Zure erantzunaren beha nago, eta anartean, onets itzazu ene agur hoberrenak.

Jainkoak zaiñt dezala Euzkadi!

P.S. Ba ahal duzue ... irrati bat zuen gudaletxean? Praga'ko radioak ematen ditu berriak euskeraz ta españeraz, ostegun guziez 8 1/2 orene-tan (gauaz), 9 metrako onda laburrean.

J. Mirande



1948, Jorrailaren 18ean

Paris'etik

Adixkide Jon,

Aspaldiska ba du idatzi nauzula eta geroztik zure erantzunaren zai nago. Eskutitz bat galdu datekea? Ba diteke; dena den, gaur luma hartzen dut lerro batzuen zuri bialtzeko.

Gauzak nola doatzi Alemania'n? Oraino ez dautazu erran noiz libratuko zaituzten soldadogoatik. Paris'en iragan ba zinte, jin zakizkit ikhus-tera... Bainan behar bada heldu den udan Euzkadi'n elgar ikusiko dugu, Maule'ra balin ba noa opor denboran. Atsegin bizia ba nuke zurekin ahomihiz mintzatzeaz. Bazko-egunean gertatu naiz Paris'ko Euzko Jaur-laritzak eratutako jaietan, Aberri eguna zala-ta. Goizean meza ixila. St. Pierre de Chaillot'ko elizan Eguerditsutan, Ordezkaritzako aretoan, Agi-rre Lendakariak hitza hartu du, ez ginuela itxaropena galdu behar, eta azkatasuna hurbiltzen ari zitzaigula.

Beste eskualtzale ospetsu baten ezaguera egin dut: erran nahi dut Lafitte Aba. Galdetu daut ea nahi nukenetz "Herria" izperringian idatzi. Nik baietz.

Gutun horrekin batean igortzen dauzkitzut orain bi urthe moldatu nituen bertso batzu: itzulpen bat da, ingeleratik, edo hobeki erraiteko, eskozeratik.

Aldi huntako ez dautzut besterik idatziko menturaz zure letra bidean baita. Eskuratzen dudanean, orduan luzaz ihardetsiko dautzut.

Haren esperantzan, baratzen naiz lagun maitea.

Bethi zure adixkide leiala.

Jon Mirande

JON MIRANDEREN OLERKIGINTZA LANAZ aurkikuntza berriak

Hona, 1947an idatzi ta Loustau-Daudine-i igorri zizkion bertsoak, bai hau da Miranderen lehen poema, Gipuzkoako euskaran.

3.a. Jon Miranderen soneto ezezagun batekin

Egilleak *Sonetu* izenburua ezarri zion ta Jon Loustau-Daudine Benafatar euskaltzaleari Alemaniara igorri, azken gazte hau, han bere soldadoka egiten ari zelarik. Argitaragabeko soneto horren hartzaile jaunak, Miranderen beste kantu ta gutun ta paper oso jakingarriekin batean eman dit. Jakingarri, bai, hor ikasten baitugu 1946 ta 1948. urteetan gure olerkariak idatzi zituela, handik bizpahirur urte beranduago argitaratuko zirenak. Olerki hau da Jon Mirande-k herioaz, hiltzeaz, egin lehena, beste biak ezagunak dira, 1947.an frantsesez bakarrik gorde zen, *Merry Christmas* eta 1952.an idatzitako *Nil igitur mors est*, euskarazkoa.

Olerki hunen “gaia” da *Herio sena*; argumentua berriz hau: Lehen ahapaldian “hiltzez utz dezadan neke ta negarrezko bizitza; bigarren ahapaldian” jendeek eta Jainkoak utzi naute; hirugarrena “nere erorzketa ez egin otoitzik apaizak, ez ukan garbairik anaiak” Azken ta laugarren ahapaldian “nere gorputza pozik izango da lurpean.”

3.b. Tematikaz oharrak

Olerki honetan, beste geroagokoetan garatuko dituen gaiak agertzen dirade, hemen neurtitz batetan errana —gaitzaldiaren gaitzez— luzeago kondatuko digu. Ordudanik nabarmentzen da fedetik urruntzea, handik urtebete 1949.an galduko zuena eta *Sonetu*, *Ohizko jainkoari* poemarekin erkatuz ageri dago.

Sonetu	Ohizko jainkoari
Alperretan diet egin Zeruei otoitza	Jesus Bar Joseph badut othoi egin gauerdiz
.....	
Ez abesti latiniñ, ez ur deunik, apaiz!	Eta zuk utzi nauzu. Zergatik arren?

Sineste galtze horretaz, Jose Azurmendi-k ziur pozik izango zen aurkitu balu Jon Mirandek 1948.an nola Hervé Glemaec Nietzschezalea ta Goulwenn Pennaod nazia ezagutu baino lehen, idazleak, oraindik girstino zela aitortzen baitzuen urte bat lehenago.

SONETU

*Aspertuaz urturik, txo! neure biotza,
Bizi ontako neke ta negarrak aztu.
Eriotz samurrak danak eramango ditu.
Oetzat izango det biar buztin otza.*

*Gizonak, zuen artean nenbillen arrotza.
Maitatu nituenak ez naute maitatu,
Adixkide onenak egon dira mutu,
Alperretan diet egin Zeruai otoitza...*

*Ez abesti latiñik, ur deunik ez, apaiz!
Ez garbairik, anaiak, naizenean ilko:
Anaiaren garbaia gezurra bai da maiz.*

*Lurraren magalean sartu aizeneko
Poztu, neure gorputza! Bertan egongo aiz,
Naiz udara, naiz negu, bakean betiko...*

(J. M.-ek idazkindua)

Halaz ere, oraindik kristau dela dion gutunean “Euskaldungoaren etsaiak” saioan agertzen diren kritikak daude, zeren jadanik berak kristau-fazsista izendatzen dituen frankisten politika ikusita ez baitu ulertzen nola euskaldunek elizaren seme on jarraitzen duten eta kondairako zuzen-gabekeriak ere hor azaltzen dira, Loustau-Daudineri 1948. Martxoaren 9an idatzitako gutunean.

“Bertzalde orhoit naiz Nabarrako bakalderri eskualdunarekin nola jokatu ziren lehenago Erroma eta Kastillako errege kato-likoak eta nahiz girixtinoa izan, bihotza samintzen zait.”

Lurra prestik zegoen handik urte pare batean, Kristoren aurkako poema idazteko.

Lehen olerki hortan zerbait interesgarria badago bere olerkari hizkuntzan nola bereizten dituen gogaideak “anaiak” eta adiskideak, zeren azken horien artean ez baitu bere abertzalekiderik hatzemango, aurkituko Iparraldean, ez eskuin muturreko euskaldunik non nahi: hau da bigarren ahalpaldian agertuko den bakartasuna, baina, handik lau urte Nietzsche-ren olerki batean, bere kez karen garapen oso bat aurkituko du. Ikus dezagun 1948.ko sonettoa ta Nietzsche-ren itzulpena.

Soneto

Aus Hohen Bergen

Adixkide onenak egon dira mutu!

**Adixkide zaharrok, Ikus! Orain so
zaituztet zurbil**

3.c. Prosodiazko oharrak

Testua sakonki aztertzeko, mintzaldi hau baino gehiago behar liteke. Sonetoak hizkuntza baten heldutasuna, olerkigintza baten buruzagitasuna erakusten dizkigu. Gipuzkera osotuan idatzia dago, urrunago idazleak gutun batean azalduko dituen zioen gatik. Behin ta berriz irakurrita berealaxe barru-errimaren, barne errimaren garrantziaz jabetzen gara, ikus dezagun ahapaldiz ahapaldi, hau bederen.

Lehen ahapaldian “t” kontsonantearen errepikapenaz eta igurzkari batzuez baliatzen da, bizitzaren astuna, bizitzaren latza adierazteko. Hona silabaka emanaz ahapaldian nabarmentzen diren soinuak:

tu./tu/txo/tza.
ta/ta/tu
tz/na/ma/tu
tza/za/zti/tza

Bigarren ahapaldian era berdinean, jendeen ta jainkoaren utzikeriak bere eretzean, gogorki salatzeko:

te/tza
ta/tu/te/tatu
xk/tu.
te/et/to/tza.

Hirugarren ahapaldian, igurzkariak galtzen dira, zeren idazleak bere erorzketa nola nahi lukean erraiten baitu, bere agiantzak ezagutarazten.

Ez abesti latiñik, ez ur deunik apaiz!

Ez garbairik...

Hor bokaleen ta diptongoen jokuaz ditu idatz baliapide

-i (abesti), i (latiñik) i (deunik), hasieran

-ai 1. *apaiz*

2. *garbai, anaiak*

3. *naizenean, anaiaren*

4. *anaiaren garbaia, bai, maiz*

Ironia mingatz batekin dabil gure olerkari mindua “ai” errepikatzen eta ahapaldi hau erran zahar baten gisa bukatuz.

Anaiaren garbaia, gezurra bai da maiz.

Azken ahapaldian silaba edo hobeki esan diptongo hau oiartzun entzuten da: aizeneko, aiz, naiz (berritan). Soneto hortan bi oihu leher-tzen dira, zarta eginez lehen ahapaldian, ukapen gisa: *Aspertuaz urturik*

txo! eta azkenean, heriotzaz alaitzeko: *Poztu neure gorputza!* Berriz leherkari ta igurtzkariak agertzen dira, lehenean *tu/tu/txo*, bigarrenean, *ztu/pu/tza*.

Ez uste hala zegiala ustegabea, olerkigintza hori jakinaren gainean dago, argi ta garbi dago berak diogularik, *Nil igitur mors est* poemaren giltza ematean:

“Lehen hirur ahapaldiek eroria —tan— duate: zarta hots egite hortaz gogoratu nahi izan dut bizidunaren antsia mundu lazgarri hontan galdurik izatez, heriorako hor izatez.”

Jon Mirande-ren ohar hau, beste olerkia aztertu ezkeru ediren dut, baina nonbait nere oroimenearen zokotik irten zait bai eta Josean Artze-k txalaparta ihakinduz egin olerkiak aztertu berri baititugu ikasleekin, testu azterketak hortaratu nau, bai Hartzabal-en “Zetaren maitasun kantua” eta “Zugan zegoen sua” gogoan nituen laguntzaile.

Egia da euskal olerkigintzan eta aintziñako bertsogintzan aliterazioak, barne-errimak erabiltzen zirela, Miranderen olerkietan nabarmenago da Anglo-saxon literatura ta Germaniar olerkigintzak ezagutzen baitzituen Bestelan bertsogintzan ez da berritasunik 7/6 ebakitako pondutan egin zortziko txikia bait da.

4.1. Olerkigintzaren urratsak, eta hobekuntzak itzulpen batean

Jon Miranderen hirur olerki bildumetan (Orhoituz, Ene jainko eidol! ta Poemak) delakoetan Two Corbies-en itzulpena badago. Xabier Olarrak bigarren bilduman *Ene Jainko eidol!* en ondo aztiatu zuen olerki hunen azpian Euzko-Deya-koek zutela jarri “Ingelan olerkia Mirande-tar Jonek euzkeratua (sic)”, zeren idazleak berak igorri baitzion lehenbiziko itzulpena *Bi beleak*, Loustau-Daudine euskaltzale ta abertzaleari hitz horiekin:

“Gutun horrekin batean igortzen dauzkitzut orain bi urthe moldatu nituen bertso batzu itzulpen bat da ingeleratik edo *hobeki erraiteko eskozeratik*.”

Nahaspilik ez sortzeko Eskozera, hizkera bat da, baina Gaelikoaren galtzetik sortua, eta literatura mailara iritxi dena Robert Burnes-erekin.

Jaun horrek 1948.an jasotako 1946.ko itzulpena J. Miranderen lehen euskal lana izango da, gero hobetua izango dena zeren Euzko-Deya-n 1949.an agertzen delarik bitartean gure gizonak Olerkigintzaren planteamendura igaro du, lehenik euskararen ikasteko egin zuena, hobekuntza horren azterketa bat eta olerkari lanaren nekea erakutsi nahi nizukete. (Ik. testua, Jonen eskuz).

3.1. Lehen ahapaldia

Lehen neurtitza, itzulpen hutsaz, luzeegi gertatzen da, 1946.an “zuaitz” hitzarekin, bigarren ekoizpenean “altz” ipintzen du, zortzi piko izateko. Bostgarren neurtitza, “*Itxas-bazterrean ala*, desorekatua da eta lasaitasuna adierazteko, hitz luze/labur/luze ematen du *Itxaso gazi aldean*, gazi pleonastiko horrekin *Itxas-bazter* hitzaren arruntasuna aldikatuz. Berdin erritmoarentzat hobeki ateratzen da bigarren itzulpeneko, *zurgaizti berde, oianean izango da* neurtitzaren ordezt, zurgaizti hitz arradoa egokiago dago, egoera ta giro bitxiaren sortzeko. Askoz hobe da.

*Altz baten puntaren puntan
Bi bele zeuden hizketan.
Gaua bezin beltz bele bi:
“Bazkaria gaur non aurki?
Itxaso gazi aldean
ala zurgaizti berdean?”*

3.2. Bigarren ahapaldia

Ahapaldi hori ainitz landuko du Mirande-k, hirur urteren arte hortan, alde batetik euskara hobetzen baitzaio ta bestetik olerkigintza ere.

Lehen ekoizpena (1946)

*Ondatutzen ikusi dut
zetorren ontzi eder bat
baita oi u entzun ere...
Orduan ni joan airez aire!
Iru gorputz'tuk etzanik
Ondartzean: an jango nik!”*

Bigarren ekoizpena (1949)

*Ondartzatik ikusi dut
ondatzen ontzi eder bat
t'iru oi u entzun ere
Aruntz joan nauk airez aire!
Iru ilotz han etzanik
ondartzean diat jango nik!”*

Laugarren neurtitzean hikako hizketak indar gehiago ematen dio ta neutraltasuna kentzen, beleen larru ta lumapean sartzen gara, gainera lehen itzulpenean bederatzi piko ta ebakidura txarra dago.

Lehen itzulpena

Orduan ni joan airez aire.

Bigarren itzulpena

Aruntz joan nauk airez aire.

Orduan, hitza kentzea ez da gaizki, hitz higatu ta betegarri bezala gertatzen baita, askotan.

Bostgarren neurtitzean *gorputz* hitz arruntaren ordeztatik sartzen du, barne errima gordetzen duena eta “hotz” etimona argi baitu.

Lehen itzulpena

Iru gorputz'tuk etzanik

Bigarren itzulpena

Iru ilotz han etzanik

Seigarren neurtitzean berdin, lehen aldian neurtitzean ez du “han” erabili nahi, bigarrenean laguntzailea sartuz zortzi pikotara irixten da, berdin.

Lehen itzulpena

Ondartzean an jango nik

Bigarren itzulpena

Ondartzean diat jango nik

4.3. Hirugarren ahapaldia

Barne errimaren gatik eta gipuzkoartzen duelako bigarren itzulpena *oian* kentzen du, eta neurtitza orekatzenago silabatan 4/2/2 ordeztatik 3/3/3.

Lehen itzulpena

Oianean odol bero

Bigarren itzulpena

Basoan ilik baitago

(Adibidez *oian* hobeki legoke lehen pertsonan, *Oianean lo bainago*).

Gero neurtitzak zatitzen ditu eta puzzle gisa birantolatzen, barne errima gaineratuz: ,za/zpa.ren ordeztatik za/zte/zpa....:

Lehen itzulpena

Zaldun bat ilik ezpata (1946)

Bigarren itzulpena

Zaldun gazte bat ezpata (1949)

Azkeneko errima hobetzeko, ra, ordeztu -da, ematen du, *ezpata*-rekin asonantzian.

Lehen itzulpena

Zorrotik erdi atera (1946)

Bigarren itzulpena

Zorrotik erdi irtenda (1949)

Hobeturi:

*“Ona zerbait goxoago:
basoan ilik bai’dago
zaldun gazte bat, ezpata
zorrotik erdi-irtenda,
il dala inork ez zakik
zakurrak t’andreak baizik.*

4.4. Laugarren ahapaldia

Lehen ekoizpena (1946)

*Eizara joan da zakurra
erbiak arrapatza.
Andrea? Beste batekin...
Guk bear diagu ler-egin
janaz, gaur, kerizpe artan!
Aitor oianera guazan!*

Bigarren ekoizpena (1949)

*Eizara joan dek zakurra
et’andre ezti ederra
beste maitale batekin...
Eskerrak guda onari
badiagu jaki ugari!
Aitor lagun! Egan ekin!*

Lehen neurtitzean hikako laguntzailea sartu behar du “dek”. Bigarren neurtitzean —agian zakurrak lasterkaturik— erbiaren aipamena desa-

gertzen da, eta hirugarren neurtitzean zegoen *andere* hitza luzapen batekin, *andre ezti ederra* bilakatzen da, pertsonaia moduan hobeki agertuz; hirugarren neurtitza ez motz gelditzeko, ez labur geratzeko “maitale” hitzarekin luzatua da. Gero handik behera ahapaldia osoki aldatzen du, laugarren neurtitzaren arruntasuna ta nabastarria kenduz

Guk bear diagu ler-egin (1946).

Badiagu jaki ugari (1949)

eta bostgarrenean beleen arteko gogamen pollita aurtikiz

“*Eskerrak guda onari*”

Azken neurtitza osoki aldatu egin digu itzulpenetik sorkuntzara igaroaz, alde batetik barne-errimak agertaraziz 1949.koan: *gun/-gan/-kin* eta besteetik L. Mitxelenak Egan-en idazteko egin zion deiari humoreez erantzunaz “guazan” ordez, *Egan ekin!* idatziz bi adierazitan uler ditekena.

4.5. Bostgarren ahapaldia

Lehen hirur neurtitzak ez ditu aldatzen eta ez ditugu ematen, fotokopian daude ta, huna hirur azkenak:

Eta urrezko illekin
—*Negua datorrela ta—*
egin dezaket kabia (1946)

Eta bero izan dedin
neguan ire kabia,
ar bere ille oria. (1949)

Errima hobetzeko aldatuxe ditu hitzak: *-ta/-ia/ren* ordez, *ia/-ia*, idatziz, eta hortarako “*oria*” “*urre*” ren lekuan erabiliz ta hikako formak jarritz.

4.6. Seigarren ahapaldia

Lehen neurtitzean

I. *Bai, oe otz bat arek du* (1946)

I. *Gaixoak oe otza du* (1949)

Lehen itzulpenean, *bai* betegarri dirudi, eta *arek* ez beharrezkoa, hortaz “*gaixoa*” hitza hartzen du, Villon-ek “*gaixo urkatuak*” esaten zuen moduan, gainera hizkuntzaldetik hitz laburrez egindako neurtitza ez dago-

kio olerkiaren egiturari silaba aldetik, 1/2/1/1/2/1 bitxia da beste ahapaldiak ikusita eta azken itzulpena egokiago 3/2/2/1.

Azken bi neurtitzak osoki aldatzen ditu, bosgarrena laburregi baita

*Azeriak ezur zurien
inguruan dira biltzen (1946)*

*Azeriak ta zakurrak
sakabanatzen ezurak (1949)*

Hor adieraziaren aldetik azken itzulpenean *zakurrak* agertzen dira, nondik? eta *biltzen* ordez *sakabanatzen* aditza, naski ez subiektu berdinarekin.

Guzti horrek erakusten digu, klasikoen bertsogintza ez dela bakarrik kaiola bat, baina molde bat hobeki erran eta horren erabiltzeak, ardiespen, lorpen, hobespen ederrik eman lezakeala, zeren olerkigintza ez da bakarrik sendimenduekin egiten ta nola nahi hitzak botatuz Olerkigintzak, erritmoaren lantzea, hitzen indarrak baliatzea eskatzen du.; gero lan honek erakusten digu zein zaila den itzulpena, bereiziki hitz neurtuetan eman nahi delarik olerkia, bai arrazoin zuen J. Mirande euskararen ikasle zegoelarik zionean itzulpenak on zirela trebatzeko. Eta L. M. Mujika-k idatzi bezala, ezin da hobeki erran: *Gaurkotasuna ta diziplina ez dira etsaiak. Diziplinak eta besteek egin duena sakonki begiratzeak, gaindi dezake euskaldun herriak duen errurik handiena, hots, inprobisaketa ta azalkeria* “*Mirandek honetan ere ikasbide bat ematen digu, dizziplinazko bide bat jarraituz*” (ik. Miranderen *poesigintza* II.alea, Haranburu Donostia, 1984, 55. orrialdean).

5. POLITIKAZKO EUSKAL KANTU EZEZAGUNA: GUDURA DEI

Askotan esan da euskal bertsogintza komprometitua Gabriel Aresti-rekin hasi dela, zeren betaurreko gorriko jente batzuek uste baitute engaiamendu bakarra marxista dela, baina abertzale aitortpena ere hola-koa da. Miranderen kasuan baita beste politika kantu egille gehienekin ere ikusten da, egiaz, poesia egiteko propagandekin, beti, urruntasun haundiak hartu behar direla, eta hain zuzen, Joan Mirande-k bi ekoizpen motak eskaintzen dizkigu, abertzale bertsoak eta aberriari zuzendu olerki ederrena *Eresi* izenez ezagutua ta geroztik bigabostek kantatua.

Gudura deia, ez zuen argitaratu; agian baitzekien ez zela goi poesia baina mintzaira bakun ta motz batean, ideia ximplegiekin egina baizik, geroago Urko-k egingo dituen moduan. Holako kantuek gizarte eginkizun bat daukate, jende oste bat kantaraztea. Jon Mirande-k Gudura dei hortan Sabino Arana Goiri-ren hitzak eta ideiak darabiltza, geroago iker-tuko ditugunak. Bai, baldin badirudi emeki jaisten ari garela, sorkuntza-

tik, itzulpenera, azkenik kantura, ez zaigu ahaztu behar orduko euskaltzale basamortu hartan, denetarik egin behar zela, jendeen iratzartzeko, euskaldunen esnatzeko.

Mirande-k holako kantu aberkoia, abertzalerik egin zuen, ez baitira oraino kantatzen, nahiz haien musika ezagun izan, hala nola *Euskal Herriari* kantua, Eskoziako *Auld Lang Syne*-n doinuan egina eta hasten dena *Leenago bizi zen Euskadi askatasunean/orain dago kateez lotua etsaien artean*. Beste bat ere *Jeiki*, *Jeiki*-ren ahairean eman zuen *Jeiki Jeiki Eüskaldünak* ziberotarrez, eta hor Marseillaise-aren parodia, gure itsas lapurrena egin duen bezain beste delarik.

*Qu'un sang impur
abreuve nos sillons!*

*Hen odolak
gure lürrak orai dü gizontüko!*

Kantu horiek ezagunak dira, argitaratuak, ondoko hau ez. Loustau-Daudine-k bere idazkietan ediren du.

GUDARAKO DEI

*Noiz arte, Aitor'en abenda
jopu zaitut ikusiko?
Gizon makala bizi bedi
maketoen eskupeko-
Nik eskatzen diot Jainkoari
lapurrak ezerezteko.*

*Iparraldetik Prantzestarra
egotikan Españarra,
Euskadi beretu bearrez
alegintzen ari dira
euskaldungoa zapaltzea da
betidanik orien gura.*

*Bizkai-itxasoko ertzean
bakean bizi giñala
arerioak ziran etorri
bele goseak bezala.
Mendeak zitun Legezarra
kendu ziguten bereala.*

*Askatasuna galdu ezker
 zer balio du bizitzak?
 Anaiak zutitu gaitezen
 aserrez bete biotzak,
 Aberri lastanetik kanpo
 bota ditzagun arrotzak!*

*Esnai zaudete gudariok
 elurrez dauden goietan
 Aiten lur deuna askatzeko
 suizkillua eskutan.
 Entzun! Osoak gaban dabilta
 gure eusko bazterretan.*

*Odol gazteak gizenduko
 ditu biar gure soroak.
 Iges ba dijoazkigu, iges
 leengo nausi arroak!
 Odol gorri, su ta karraxi
 entzun otsoen orroak!...*

Beste kantuetan guti edo anitz borrokarako deia baldin bazen, azken huntan argumentua jarraikiz Sabin Arana Goiriren topikoak agertzen zaizkigu: menpeko izatea, jopu izatea, askatasuna galdu baita, maketoak kanpora botatzea, aintziñako askatasun, bake ta lege zaharren goraipamena. Errepikatzen da *Jeiki Jeiki euskaldünak* delakoan bezala odol isurtzearen deia.

*Odol gazteak gizenduko
 ditu biar gure soroak!*

Horrez kanpo gudu olerkietan, Jon Mirande-k ohi duen bezala, otsoen, odolaren ta elurraren aipamenak badaude, Aranismotik urrun-tzen gaituztenak.

Teknikaren aldetik bertsolariena erabiltzen du, gutti edo aski, sei lerrotan idatziz, hirur neurtitz asonantzia berdindunak, eta ebakidura honekin

9 + 8 / 9 + 8 / 9 + 8

Bestalde L. M. Mujikaren analisiaren jarraitzeko, neurtitz bakoitzean, ideia elementu bat sartzen du, hots egitura lineala darabil. Bertsogintza horien mugak bazekizkin Jon Mirande-k eta bere Olerki bildumatik baztertu zituen holako propaganda hutsezko kantuak, eta hain zuzen 1953.an euskaldunen zentsuraren gatik argitaratu ez zen olerki bildumari hitzaurre bat egin zionean argi ta garbi esaten digu, hitzaurre ta Olerki-gintza ikasbide labur hori Xabier Olarrari zor diogu, harek Miangolarra

eskuidazkietan aurkitu baitzuen huna zer dion Mirande-k, Bertsolaria ta Olerkaria bereizteko.

“Egia dateke: beharbada euskaldunago agertuko zen erraiterako ene *Jauregi Hotzean* hunelako laukoetan eman ukhan banu.

*Oi zer bihotz min eta zer zorthe tristea
Ezkon berri batentzat senharra galtzea
Nigarretan hurtzen da oi! andre gaztea
Urrikal zakiola Jainko Jaun maitea! eta abar...*

Egia esan nahiago dugu

*Jauregi hotzean
aitorren alhabak
negar dagi...*

*Goizetik joana du
zalduna gudaratz
noiz datorke?*

*Mendietan elhur,
haizeak urduri,
zeru goibel*

*Elhurte zurian
zenbat odol istil,
odol urdin...?*

.....

*Nasaiki jan dute
hilbeltzeko zakhur,
gosetuek.*

*Nafar jauregian
andere gazte bat
beltzez jantzi*

(J. M. 1950)

Bai, kantu horietarik goiti Joaiten jakin zuen Mirande-k Davant-ek egin duen bezala eta gure paristarrak, gure Jon Mirande-k gai berdinarekin olerki eder-ederra eman zigun *Eresi* izenekoa, ondotik emango duguna

*Aineza gal bizi goiz batez
iskilludun ixil eta zutik,
guduan lur zahar hunen maitez
mendietan etsaien eskutik.*

*Ainendi hil gazterikan nihaur
ikurrin t'ikurrik gabe,
ezpainetan othoitzik, ez, burhau
itzalik ez, baikor, ez herabe.*

*Ainitza gal hats, arima, odol
hiretako ene Jainko-eidol
zaharra Lur! mendi gudu baten.*

*Eguzkiek inguruz inguru
nere soin haur sor haiduru
hiretan lo, garrez jo lezaten*

(J. M. 1951)

Konpromezuaren frutu eder ta bakan honetan, ez dago gehiago ez *Euskadi*-rik, baina *Lur*, ez *maketorik* baina *etsai*; ez dira gehiago ez lege zaharra, ez eta aintziñako bakea ere aipatzen Bai. Telesforo Monzon-ekin batean gerla ostean Joan Mirande izan genduen gure lehen idazle konprometitua, nahiz konpromezu hori ez marxista izan.

Lehen bi ikerketek bi ikasbide ekarri dizkigute gure mendeko olerkari haundienetarik batek zenbat lantzen zituen bere obrak, bai lanik gabe nekez aurreratzen da; gero lana ez da aski, eta bereziki euskal kulturen, ez baitzen orduan ez ohore, ez dirurik, ez fama onik hola irabazten eta gainera euskal pasio horrek erdal bizian oztopo baitzen. Bai, Jon Mirande bere lanetik kanpo aurtiki nahi ukan zutelarik, frantses komunista batek zuen aldea hartuz salbatu, holako gorabeheren berri badakite, bai, beren jakintza obrak ere euskaraz eman dituzten idazle batzuek, beren abertzale ideien gatik herbesteratu ziren Krutwig ta Txillardegi, euskaldun berriak, zentsura Jon Mirande bezala, eta euskaldun zahar Ibinagabeitia ta Davant-eren gisa.

Euskal Herrian zerua laister goibelzten, odeizutzen da, airean marmutx burrunbariak dabilta, oihanetan txakurrak. Euskal herri honetan ez da nere ogena mintzaldian galernaren oihartzun hitzak entzuten badi-ra ta nere hitzaldi hau ez bada, bakezko't akademiko izan. Bi agiantzarekin burutu nahi nuke, bururatu zaizkidan bi asmorekin, gure Zaindi hau zabal dadin, hizkuntzalari ta literatura egiletik kanpo, Elhuyaren holako Jakintza mintzaira ederra erabiltzen diguten idazleri, baita lehen bai lehen ez ditzagun ez begirunez, baina egin duten eta egiten duten lanaren gatik ez ahantz andereak. Noiz izanen dugu Euskaltzaintsa oso bat? Liburugintzaren sail guztietan dabiltzan berrogei bat emaztekie artean haukera badago. Egun hori hel dadila gure begiak zerratu baino lehen Halabiz!

TXOMIN PEILLEN EUSKALTZAIN BERRIAREN HITZALDIARI

Alfonso Irigoien

EUSKALTZAINAREN ERANTZUNA (*)

Ospakizun hau irekitzerakoan agur egin digun Henri Grenet Baiona hiriko Alkate eta Kontseilu Generaleko Presidente jaunari agur, agur Argitxu Noblia zinegotzi Andreari, Claude Harluchet zinegotzi jaunari, M.^a Karmen Garmendia Eusko-Jaurlaritzako Hizkuntza Politikaren Idazkari Andreari, Pabeko Unibersitatetik etorri den dekanok jaunari, agur Euskaltzain orori eta gainerako entzule bihotzekooi, emakume ta gizon:

Agur Zuberoa! Agur Zuberoa, Etxahun-ek eginikoa, kantatzen genduen Bilbon berrogei ta hamargarren hamarkadako urteen hatsarrean, Agur Zuberoa, bazter guzietako zokorik edderrena. Parisera joan ondoko zuberotarraren nigarrak aipatzen dira delako kantan: “Bortzetan geroztik nigar egiten düt Züberoagatik”. Hamarkada horretan berean ezagutu nuen ezagutu ere Txomin Peillen guraso zuberotarrenganik Parisen jaioarikoa, eta, izan ere, azkenean, urteen buruan jatorrizko Zuberoa herri-
ra etorririk da bizi izaitera, eta etorri ere etorri izan da kantak hedaturiko hasperenaren eragina atzerriratuen ondorengoetaraino bermaturik. Baina itzuli izan dena ez da herriko pertsona arrunta, jakituriatzko eleaz hornitu eta buruz jantzi eta aberasturikoa baizen, literaturaren kreatzaile batez ere, Europako *polis* garai agian handiegi baten jaio eta bizi izan den kreatzailea, eta izan ere Euskal Herriko mundu georgikoa urritzen doan unean, nagusiki hiritar bilakatze-prozesuaren erdi erdian gaudenean, Euskal Herria hiri nagusi pentapoliko bihurtzeko bidean sarturik dagoenean. Gure laguna ez ailitz alferrik itzuli izan, eta historiaren butz dialektikoak ailiotsa Euskal Herria orainartekoa baino bide hobean abiatu-
turik lizen. Hala biz.

Euskal Akademiako sarrera-hitzaldia, *Euskal idazleen giroa duela berrogei bat urte* titulua duena, oraintxe eginik duzu eta ondoren eni dagokit

(*) Baionako Udaletxean 1989-garren apirilaren 1-ean.

ongi etorrizko erantzuna demazudan. Eta zer egin hori egin ere pozik daidit. Eta halako ekintza bati dagokionez ez albailedi dotorezia gabe gerta.

Parise hartan duela berrogei urte euskararen ikasten eta idazten hasi zinela diozu, arbasoen begirunez eta gure herriaren ohoreagatik eta lotsaz gorriturik euskara berde ta latz horren maitatzen, fama onik eta dirurik bildu ezarren, eta irakurle guti baizen ezin izanarren, eta gainera bidegabekeria eta axolakabekeriaren aurka. Diozuna egia biribila denaren lekuko zahar nauzu, aspaldidanik ondo baitakit zure berri. Baina oraindikan garaitu ez badugu ere etorkizuna baikor ikusten duzu taldekeriak gainditu bezain laster.

Piarres Larzabal apez, abertzale, eta euskal-idazlearen lekuan sartzen zara eta haren irudi ederra goستن duzu, eta batez ere apezak, ez hala apezpikuak beti, euskararen galeraztearen kontra altxatu zirela aitortu, eta euskara ikasten zenbiltzatenean “uskara apezzen mintzajia dük” entzuten zenduen bitartean ezkerreko gizon argituak frantsesez edo espainolez ari omen ziren. Larzabal teatro sortzailea, alabaina, zuzentasunaren alde, tipien alde jaiki zen eta garai beltzean iheslari eta erbesteratuen alde.

Zeure hitzaldi luzean, oster, ezin geldi zintezkeen zeurorren Pariseko egoitza luzeagoaz mintzatu gabe, han eman baitituzu zeure bizitzako urterik gehienak Euskal Herrian biziten kokatu baino lehen. Garai hartan Parise euskaldunen eta abertzaleen abarogune izan zen, abertzaleentzat ezinbesteko exiliogune. Eta horrela sortu zen Pariseko euskal eskola diasporagunekoa deituko dudana. Eta nik neurorrek ere Parise handi hartara inoiz hurbildurik bertan jaso izan nuen irudia bademazut zurearen osatzeko gaizki ez datorrela uste dut, eta holaxe derautzut egun hemen.

Hor agertzen da Andima Ibinagabeitia bizkaitarra, diozun bezala “abertzale ta euskararen maitale sutsua” zena, bereziki lehen garaiean zuen baitan eragin nabarmena izan zuena zirikatzaile eta akulari modura. Eta baita Jon Mirande zena ere, zure luzaroko lagun izana, bestela ezin baitzen. 1953-garren urteko irailaren azkenaldean ezagutu zintuztedan hirurok Parisen. Ni hogeit ta hirugarren urtean nenbilen eta zuk nik baino hiru urte gutiago zenituen, eta Mirande-k baino zazpi gutiago, eta zuei ezer erran ez banizuen ere Ekin talde politiko abertzalearen izenean joan nintzen, zeharo klandestino zela (1), eta, dakizun bezala, aste bete

(1) Talde horretakoak ziren orduan, niaz gainera: Jose Manuel Agirre, Jose Luis Alvarez Enparantza (Txillardegi), Mikel Barandiaran, Jose Mari Benito del Valle, Julien Madariaga, eta abar. Inguruan zebiltzan Gurutz Ansola eta Iñaki Gainzarain ere. Ikus ene *Sorterriaren alde*, Donostia 1976, 32 orr. eta abar, eta “Jon Mirande-ren literaturazko hizkuntzaz”, *De re philologica linguae uasconicae*, Bilbao 1985, 187 orr. eta abar, eta “Gabriel Aresti eta bere inguruaz”, *De re philologica linguae uasconicae*, II, Bilbao 1987, 267 orr. eta abar.

inguru egin nuen han. Beste batzu ere bisitatu nituen. Orduan ezinbestekoa zen barrutik, —gaztelaniaz *del interior* erraiten zen—, barrutik Parisera joanez gero Jose Antonio Agirre lehendakariarekin *avenue Marceau*-n kokaturik zegoen Delegazioan elkarrizketa izaita, eta izan ere luzea izan nuen, zeren etorkizuneko esperantza, orduan ikertze ta propaganda mailan zabaltzen hasirik zegoen Europako batasunaren proiektuan ipinirik zuenez gero ez baitzen aspertzen bide horretarik ikusten zuen egokitasuna markatzen eta goraiatzzen.

Izan ere munduko gerra katastrophikoa 1945-garrenean amaitu ondoan herrien Europa sortzea defendatzen zuten Schuman, Adenauer, De Gasperi, eta abarrek, eta Agirre ere hor kokatzen zen. Hainbat gauza argitaratzen ziren arazo hori sakon ikerturik. Beste joera batzuetakoen artean Pariseko *rue de Lille*-n bazen sozialisten arteko mugimendu bat ere Europako Estatu Batuak eraiki nahi zituen. Geroago De Gaulle-k asmoa nabarmenki desbideratuko zuen *L'Europe des patries* defendatzerakoan, hau da, Frantziak lehengo arauera eraikiriko estatu-kontzeptua nazioarenekin nahasten jarraikirik, eta *l'Europe des peuples* delakoaren kaltetan. Orduan epe laburreko asmoa ezin izan bazitekeen ere orain etorkizuna bide horretan zehar doala dakusagu Erromako tratatua 1957-garren urtean oraingo hamabietarik sei Estatuk sinatu zuten z geroztik, izan ere Madril mendeko edo Parisen mendeko hain hestu ez egoiteko multzo bat baizen egin behar ez lukeen Euskal Herriak bertako kokagunerik egokiena oraindik erdietsi gabe, herrien batasunezko lehen asmo nagusia hain argi eta indartsu ageri ez baita, zeharo suntsitu ez bada ere. Alabaina azken gudua jokatzeko da oraindik, eta gauza jakina da zuhur ibili behar dugula tren desegokia hartu nahi ez baldin badugu hartan parte hartzeko. Eta geure guduka-barruka-agonian ez dugu etsi behar, etorkizuneko begia asmoz eta jakitez erne dugula beti. Orain Jose Antonio Agirre-ren izena bazterretan erdi ahantzirik ikusten bada ere halako begiz behako bat emanez gero gizon zuhur baten pareko irudia deraugula ezin dudarik egin daiteke.

Zortzi urte inguru iraganik ziren Europa-n hasi ondoan munduko gerra izaitera heldu izan zen kalamitate bortitza amaitu zenez geroztik, eta irabazleek Espainiako diktatura galeraziko zuten esperantza urritzen ari zen jadanik, zeren handik laster Eisenhower iparramerikar ahaltsua Madrilera joango baitzen Franco-rekin adiskide erara jokatzeko bideak ezartzera. Erromako Elizak are gutiago arbuia zuen diktatorea. Izan ere, Franco ohean hil da duela hamabi bat urte, orduko optimista guztien prognostikoen kontra. Ni ez bezala zu orain *EA*-ren baitan politikan zuzen zuzenean sarturik zaudenez gero, hauteskunde garaiean Euskal Herriko hegoaldean ere, muga guztiak apurturik, mitin egile moduan gainera, barkadazu ene txango hau, bide hain zabalean zango izaitera ere heltzen ez baita.

Jose Antonio Agirre-z gainera Federiko Krutwig ere bisitatu nuen, orduan han atzerriraturik baitzegoen Aita Villasante-ren Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldiari Bizkaiko Diputazioaren Jauregian aurreko urtean egin zion erantzunaren kausaz. Krutwig-ek Parisen, literatura-euskararen ereduari dagokiola, ez bestelako ideietan, bere eragina izan zuen Jon Mirandere-ren baitan, harekin harremanak baitzituen, eta izan ere bigarren hau garai horretan abiatu zen Lapurdiko euskara klasikoaren bidetik, inoiz kultura-hitzak ere, Krutwig-en antzera, grekotik zuzenean, latinetik iragan gabe, harturik, hala nola: *eidolo* eta ez *idolo*. Nik artean Krutwig ezaguna nuen, atzerrira baino lehen Bilbon bizi zelarik Euskaltzaindiaz gainera Bilboko kultura-arazoetan ere oso sarturik ibili zenez gero elkarren berri ondo baikenekien, eta guzti horrezaz landa Villasante-ren sarrera-hitzaldi Lapurdiko euskara klasikoaren eredura eginikoa eta haren erantzun fama-tua entzuten ere Bizkaiko Diputazioko Jauregian, bizi zen etxetik ez urrunegi, publikoaren artean izan bainintzen. Krutwig-en bidetik zebile-nik bazen Bilbon: Erkiaga-k atzerrian agertzen zen *Gernika* aldizkarian emaiten zituen bere poemak Erkiagarre izengoitiaren azpian. Mikel Arruza Bilboko Ateneo sortu berrian hasi zen *h* ta guzti Lapurdiko euskara klasikoaren irakasten, neuror ere hurbildu bainintzen bere klaseetara, orduko gora beherakatik laster mozturik gelditu beharrean aurkitu bazi-ren ere. Inguru horretan zebilen sarturik Ibinagabeitia-ren herri berekoa zen Aita Berriatua frantziskotarra ere, eta beste batzu ere bai. Erran dudanez ni garaitsu hartan hasirik nengoen euskal apendizkoa neketsua egiten, eta orduko zenbait zimentarrik denboraren buruan tinko eta bermu iraun du ene baitan, harrezkero gauza asko ta asko ikasi eta arlo berriak ikerturik aldatzen aldatzen joan banaiz ere. Zuri, *mutatis mutan-dis*, beste horrenbeste gertatu zaizula erranen nuke, ordukoetan irauten baituzu azaleko itxurak aldatu badira ere, Euskal Herria bera baita gehien eta sakonen aldatu dena, oraindik oztoporik asko gaintitu beharra argi eta klaru ageri denarren. Jokabide laikoak ere lehenagoko denboretan ez bezalako hedadura handia hartu du.

Zertan erranik ez dago Andima Ibinagabeitia-rekin ere izan nintzela. Ondo gogoan dut nola jai egun batez hura ta biok joan ginen metroan Boulevard Davout-eko Jon Mirandere-ren etxera harekin luzaz mintzatze-ra, jai egunetan Parisen ohi den modura. Hainbat eta hainbat poema orduan argitara gabe zeudenak irakurri zizkigun. Gabriel Aresti oraindik ez zen ezaguna gure artean.

Andoni Urrestarazu gasteiztarra ere Delegazioan kokaturik zegoen, Gasteiz-etik hilabete batzu lehenago alde egin beharrean aurkitu baitzen, eta hura ere ikusi nuen. Ezaguna nuen elkarren artean izaniko harremanakatik, Gasteiz-en soldaduska egin nuenean hasirik. Han mintzatu nintzen Jesus M.^a Leizaola-rekin ere eta haren kezka karlistadako kanta zaharrak bil litezen bidea egitea zen orduan. Dirudienez bere garaiko

politikaz baino arduratuago zebilen gerra zaharretako herri-literatura arruntaren iker-lanez. Geroago, ezaguna denez, Jose Antonio Agirre-ren ondorengo izango zen. Duela guti hil berri da eta egunkariak horren berri zehatza eman dute. Neure azkenengo liburuko kapitulu baten, “El verso político griego (στίχος πολιτικός) y la métrica vasca” haren *Estudios sobre la poesía vasca* ere aipatzen dut, Buenos Aires-en 1951-garrenean argitara emana, beraz ni harekin mintzatu baino urte bi lehenago (2).

Baina bereziki tratatu izan nuena Juan Jose Rekondo izan zen, harengana joan bainintzen batez ere. EIA taldekoa zenez gero harekin mintzatzera nindoan eta ikasleen alkartasun horretan zegoen giroaz jabetu nintzen. Garai hartan eztabaida-burrukak izanik ziren abertzale exiliatuen seme ziren ikasle batzuren artean sorturiko joera marxistak zirela kausa. Halako joerak heldu gabe zeuden barrukoen artera, geroagoko problematika ezaguna bada ere. Marxismoa garai baten modan izan zen, bereziki Pariseko 1968-garreneko maiatzerarte, han putza galdu baitzuen. Euskal Herrian, gerra aurrekoaz landa, beranduago indar hartu bazuen ere nolabait gehiago irauten duela dirudi zenbait arrazoi berezigatik. Honekin ez dut erran nahi kapitalismoaren systema nagusi den herrietan ere sozialismoaren eragina handia izan ez denik, eta oraindik gero ere ezin izan daitekeenik, baina izaitekotan kritika eta dialektika baten barruan izango da, ez lehengo zentzu dogmatikoan, munduan egin diren aurrerakuntzak espero ez ziren erakoak baitira.

Zurekin ere izan nintzen orduan, baina Mirande-ren adiskidea bazen ere haren etxeko bisitan ez zintudan ezagutu, bestela baizen, eta Pariseko zenbait bazter ikusi genituen elkarrekin. Harrezkero beti izan ditugu elkarren artean harremanak. Geroago Bilbotik ere behin baino sarriago agertuko zinen eta han ezagutuko zenduen Gabriel Aresti ere hark bere burua gure artean ezaguterazi ondoan.

Urte batzu geroago 1961-garreneko Ekainaren 3-an berriz agertu nintzen Pariser politika arazoetarik landa. Harakoan Krutwig bisitatu nuen Miarritzen, Alemania-tik itzulirik baitzegoen jadanik. Hark Villasanteari hilabete bereko 12-an eginiko karta ene eskuetan amaitu zuenean diotsa: “Orain egun batzu direla Irigoientar Alpontxo hemen Biarritzen egonik da eta Akademiari buruzko berri batzu kontatu derauzkit”. Gero Parisen zurekin izan nintzen. Eta behin Mirande-rekin ere bazkaldu nuen jatetxe greko baten. Inguru baten beltz batzu bazkaltzen zeuden. Eta Mirande-k eni: —Hara hor tximuak. Eta nik: —Beltzak zuriak baino atzeratuago daudeke, baina agian posible da denboraren buruan aurreratzeta. Mirande-k: —Edo gehiago atzeratzea eta desberdintasunak nabarmenago egitea. Mirande-k bere burua nazi moduan agertzen zuenez gero

(2) ALFONSO IRIGOYEN, *De re philologica linguae uasconicae*, II, Bilbao 1987, 209-217 orr.

arrazista zen eta bere bizitzako azkenengo garaiean ere *Anaitasuna* aldizkarian ideologia horretan bermatu zen. Zer eritzi zuen Hitler-ez galde egin nionean erantzun zidan: —Hitler-ek nazismoa traditu zuen. Mirande gazteago zela nazien aldeko bretoiekin ibili omen zen eta haien hizkuntzan ere mintzatzen zen eta izkribatzen zuen, euskal munduan hasi baino lehen. Kornikoz ere bai. Galesa ere ikasi zuen, eta gaelikoa, hizkuntza zeltikoen artean, eta gainera neerlandesa, alemana, italianoa eta gaztelania, frantsesaz gainera. Blas de Otero eta Ibarrola ere ostera hartan bisitatu nituen eta egun baten haien etxean afaldu nuen. Hernandorena, Parisen dentista moduan ari zen bertsolarizalea ere ikusi nuen. Eta harrezkero noizean behin joaten izan nintzen hamar bat eguneko egotaldiak egitera, eta halakoetan zurekin izanik naiz, eta behin baino sarriago itzultzeko trena hartzeko egunean zure etxean afaldu izan dut 15, Boulevard Saint-Germain-en gurasoekin batera ezkondu baino lehen bizi zinenean. Han ezagutu nituen zure anaiea eta koinata ere. Gero Vincennes-era aldatu zinen. Hori dela-ta baditugu Museoren batzu ere elkarrekin ikusirik. Egoiteko etxea, dakizunez, Drancy-n nuen, Pariseko ateetarik kanpo. Zu, besteok bezala, literaturarako euskara zabalago baten atzetik ibili bazara ere beti interesatu zaizu Zuberoako euskara, Miranderi bezala, eta zurekin eta inoiz zure etxekoekin hasi nintzen nolabait ohitzen haren doinu eta ñabardurez, geroago beste bide batzuetarik sakontzen ahalegindu banaiz ere.

Krutwig handik laster Mirande euskaltzain egitearen alde mugitu zen. Mitxelena-k ere, hori jakin zuenean, berak bere aldetik ondo zeritzala Mirande izendatzeari erran zuen. Gero beste batzurekin batera aurkeztatu zuten, Arrue, Irigarai eta Villasante-k ere sinatu baitzuten haren eskabidea, denbora berean berberak Iratzeder ere, egun euskaltzain dena, proposaturik. Handik laster beste hautagai batzu aurkeztatu ziren Dassance, Eppherre eta Lafitte-ren aldetik. Gogoan dut geroago Mirande-k urgazle-titulua itzuli zuela, baina betiko dela behin egiten den izendape-na bermaturik gelditu zen, izendatu baino lehen irabaziriko merituak ez baitira suntsitzen.

Igela euskaldun heterodoxoen errebista satirikoa zuk Mirande-rekin batera atera zenduenean ere neurorrek diseinatu nizun tinta txinoz aldizkariaren ataburuko azalean agertzen den mostraburua, igel bat irribarre zabalez ispiluairen aitzinean bere buruari begira, eta *a* letraren azpiko aldetik ere beste igel tipi irribarretsu bat agertzen dela (3). 1962-garreneko

(3) 1961-IX-8-an eginiko kartan bidali nizun zure erreguz sortu nuen *Igela*-ren mostraburua. “Ementxe —erraiten zenidan zeure eskabidean— igel bat aua zabal-zabalik barrez, bere arpegia ur-ixtil batean edo espillu batean ikusten duela”. Neurean, beste alde batetik, gehigarri bat jartzen nizun zioena: “Euskaltzaindiak urgazle izendatu zaitu”. Hala ere originala neurorrek dut, zeren tipiago egin nezan itzuli baitzenidan eta nik orduan zure gogoko neurriaren arauera zinkezkox klixtea egitea enkargaturik hura igorri bainizun.

otsailean agertu zen lehenengo numeroa eta 1964-garrenean azkena. Zabaldu ziren guztiak geroago Hordago-k liburu modura argitarako zituen hegoaldean mostraburu eta guzti (4). Lehen eta azken artikulua frantsesez delakoan diozuenez: “Le puritanisme et la fausse gravité des basques censurent, mieux ou plus que les gouvernements, les fruits trop pimentés de la littérature écrite (Docteur Etchepare, Axular), expurgent la littérature orale (cancioneros), afin que les étrangers n’aient pas de nous une image différente de celle du basque honnête, travailleur, fier, etc. Les tabous et fanatismes de droite et de gauche ont une grande force chez nous. Sous le règne d’un esprit identique Sean O’Ceasy a du quitter sa patrie irlandaise pour avoir trop bien décrit les défauts de sa nation. Pensons-y”.

Grezia zaharrean philosopho ezagun batzu zakurzale baziren ere, hurrengo erran zuhur zakurrezkoa adieraztera abiatu zenik ere falta izan ez zela, Diogenes-ek erraiten baitzuen: οἱ μὲν ἄλλοι κύνες τοὺς ἐχθροὺς δάκνουσιν, ἐγὼ δὲ τοὺς φίλους, ‘beste zakurrek etsaiak ausikitzen dituzte, nik adiskideak’, zuk, ordea, Igelegiko gerizpetako irribarrean kokatu izan duzu zeure burua. Oraintsuago, alabaina, Urdaegira aldatu zara aintza txerriari! oihi egitera, abere kente hori elaberriko protagonista ironiaz beteriko bihurtu baituzu, gizaiendearen juzkatzaile zorrotz bilakaerazirik (5). Satira zaharreko sustrai sakonenetan barrena ari izan zara, era askotako tabuen aurka jokaturik.

Ez da, ordea, hori bakarrik egin duzuna, hainbat eta hainbat prosazko lan idatzi izan baituzu, elaberri, saio eta iker-lan. Hemen ez dut horren katalogo osorik eginen, zenbait aipamen baizen, bestela luzeegia bailitzateke, eta gainera nahi duenak erraz jakin baitezake. 1964-garren urtean Domingo Agirre saria, Bizkaiko Ahorro-Kaxak Euskaltzaindiarekin bat eginik ipinirikoa, irabazi zenduen, *Gauaz ibiltzen dana...* elaberriarekin, eta Kuliska sortan Zarautz-en argitara zen 1967-garrenean. Eta badi-tuzu elaberri gehiago ere argitaraturik, *Itzal gorria*, Zarautz 1972, *Gatu beltza*, Bilbao 1973, eta abar. Oraintsu Zuberoako itzal-argiak (*Eüskarazko jakilegoak*), Donostia-Baiona 1988, atera duzu, Zuberoako euskaraz egini-ko iker-lana. Oraintxe bertan ere Zuberoako herri-medikuntzaz lan bat prestazen ari zara. Eta aldizkari askotara bidali izan dituzu zeure izkribuak: *Euzko Gogo*, *Gernika*, *Gure Herria*, *Euskera*, *Egan*, *Elhuyar*, *Bulletin du Musée Basque*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, eta abar.

Eta gainera Mirande-k bere burua hil ondoren *Jon Mirande-ren lan hautatuak* liburu argitara eman zenduen 1976-garren urtean, harzaz

(4) JON MIRANDE, TXOMIN PEILLEN, *Igela, euskaldun heterodoxoen errebista*, Donostia 1979.

(5) TXOMIN PEILLEN, *Aintza txerriari*, elaberria, Donostia 1986.

zeure lan bat itsasten diozula hainbat gauza jakingarri argitu beharreko adierazirik. Oraingo sarrera-hitzaldian ere Mirande-z gauza berriak aipatzen dituzu, oraindik kristautasunaren barruan zegoela eginiko poema eta abar. Mirande-z Andolin Eguzkitza eta Txema Larrea ere arduratu izan dira (6), eta ez dugu dudarik egin behar hura bezalako pertsona berezi bat zehatz ikertu beharrekoa dela euskal letretan izan duen eraginagatik. Agian egunen baten norbaitek tesi modura ikerketa sakonen bat egin lezake gai horrezaz, baina behar bada batek baino gehiagok parte hartu beharko luke lan horretan, mundu zeltikoa eta mundu euskalduna biak batera, Mirande-k ezagutzen zituen bezala, pertsona bakarrak menderatzen ez balitu.

Orain Pabeko Unibersitatean irakasten duzu Euskal Sailean kokaturik, eta hori dela-ta Deustuko Unibersitatearekin harremanak izan dituzu neurorren bidez, eta etorkizunerako prestatzen ari gara *Erasmus* programaren barruan formalki senda daitezen.

Aipatu den garaiko jokabide zabal bat nabarmen utzi beharra ikusten dut: Euskal hizkuntza eta letren garapenaren alde genbiltzanen artean hizkuntza bera edozein ideologia baino bateragileago gertatzen zela neurri handian. Hala posible izan zen Ibinagabeitia bat, formazioa Jesusen Konpainian egin bazuen ere, nazi zela zioen Mirande bezalako buru-langile baten adiskide min eta eragile lizen, edota *Egan*-eko Arrue, Mitxelena eta Irigarai haren lanen bultzatzaile liren, edota Aresti bat, ezkerreara lerratu zelarik, haren elaberri ta abar bere balio literarioakatik argitaratzen saiatu lizen —*Haur besoetakoa* esaterako—, edota *Igela* argitaratzeko Hordago-k egin zuen ahalegina, eta abar, eta abar. Jon Etxaide bera ere Jon Mirande-ren adiskide mina izan zen azken unerarte bien artean erlijiozko eritzietan zegoen desberdintasunaren leza sakona gora behera, hura kristau zintzo eta fidel moduan agertu izan baita beti. Joera hori denboraren buruan zabalago izaitera makurtu izan da euskararen inguruko buru-langileen artean, naiz eta talde politiko abertzaleen artean, haie-tan euskaldun eta erdaldun nahasirik baita, elkar ulertu ezina den nagusi. Baina horrek ere ezinbestez egunen baten bere senera etorri beharko du, egunoroko egiak beti bide egiten baitu aldapa malkarrenetan zehar izanik ere. Horretarako *Igela*-ren irriñoaren indarrez tabu eta fanatismoak baztertuturik elkar-hizketaren bidez kritika emankorra sortu beharrean aurkitzen gara, azken finean Europako kulturak berak filosofo grekoek sorturiko izpiritu dialektikoan baitu zimentarria, ethnikoa izaiteaz gainera,

(6) JON MIRANDE, *Orhoituz*, Donostia 1976, Andolin Eguzkitzak prestaturiko argitaraldia.

JON MIRANDE, (*H*)*aur besoetakoa*, Iruñea 1987, Andolin Eguzkitza argitaraldiaren apailatzaile.

JON MIRANDE, *Poemak 1950-1966*, Donostia 1984, Txema Larreak apailatutako edizioa.

eta kulturak libro egiten baikaitu. Ez dago libertaterik kulturarik gabe, miseria gorrian ez bata ta ez bestea ezin egon daitezkeen bezalatsu, menpekotasuna baizen.

Ez dakit, beste alde batetik, Igelegin ez ote den igel nagusiaren ahoan irriño zabal bat diseinatu zu *immortel* delakoen artera sartzerakoan, eta halaber ez dakit Urdaegi Urdal Herrikoan zerriek asmaturiko literaturdearen eta kulturdearen kausaz ez ote duten Euskaltzaindurdea ere asmatuko satiraz beterik gure lepora egozteko. Badakite, alabaina, zeure buruari, ispiluan begiraturik, barre egiten ikasirik zaudela eta irakatsirik diguzula, zeure begitarte itsusiaz trufatzen badakizula. Zeuror zaituzte, gainera, aita, eta zeure erranetara makurturik dirateke nolabait, semeek maiz, nortasun berezia hartzen dutenean, aitaren bideetarik saihesten badakite ere, orainarte bederen zeure fruituok altxatu baitzaituzte zu, oasi bihurturik desert eginik zegoena, horrenbeste igel eta txerri irritsuz horniturik une honetan ez baita hain handi desertua, eta munduko eta bereziki Euskal Herriko aldakuntza nabarmenaren lekuko harritu izan baitira.

Zer ere izkriba baitadi euskal letren barrutian biz asmoz eta jakitez, biz etorkizunerako kreazio aberasgarri. Eta zer ere egin baitadi Euskal Herriaren etorkizunaz biz asmoz eta jakitez, biz herritarren zorion. Historiaren haize higitzaileak ailiotsa hala lizen.

Agur Zuberoa, bazter guzietako zokorik edderrena, Agur Parise, agur, agur, agur.

Erran dut.

ERANTZUNAREN EPISTOLA-ERANSKINA

1

(F. Krutwig-ek neurorri, A. Irigoien-i, egina. Datarik gabe. Edozein modutan ere 1953-garren urtekoa da argi eta garbi, eta ni Parisen izan baino lehenagokoa, Mirande-k geroago egin zidan erantzuna bezala. Atera nahi duen errebista batez mintzatzen da eta hain zuzen ere ene eskuetan dut *Société Parisienne d'Impression*, 4, rue Saulnier, Paris IX^e, delakoak Monsieur F. Krutwig-i, 10, Avenue Foch, Paris XVI, 1952-garreneko abenduaren 1-ean eginiko aitzin-kontua: "Veuillez trouver ci-bas nos meilleures prix pour la confection d'une brochure des mêmes caractéristiques de 'Euzko-Jakintza': Composition, mise, tirage, papier et brochage. Couverture en dossier bulle. Prix pour 1.000 ex.: 196.102.—Frs.

Toutes taxes comprises. Nous vous prions de croire, Monsieur, à nos sentiments très distingués”. Nik Labaien eta semeari karta bat egiten diet 1953-garreneko urtarrilaren 29-an errebistaz hitz eginik, haren seme Matxini aurretik hitzez erran bainion. Beste bat dut lehenagokoa, Fernando Etxebarria-k 1952-garreneko Abenduaren 15-ean London-etik Krutwig-en errebistaz luze hitz eginik bidali zidana. Proiektutan gelditu zen dena).

“Irigoientarr Alfontsa Iaunari

“Lagun mina:

“Parisetik Alemaniarat ioan baino lehen zuri ere guthuntto bat izkiriari nahi ukhan derautzut. Orain Alemanian bi hilabete egon gogo dut eta bitartean zuek revistari buruz zerbait egiten baldin baduzue izkiria iezadazu nire gurasoek emanen derautzuten adressera.

“Uste dudanez, «h»dun hitzen lista bat Bilbaon nengoelarik eman nerautzun. Mirandetarr Ion euskal poetak haren kopia bat eduki nahi luke, bai eta Andimak ere. Nik eztut Parisen nirekin hunelakorik eta nire etxeokoe horr ediren eztezaketela diostate. Beraz anhitz eskarr emanen nerautzuke haren kopi bat athera nahi baldin ba zendu eta Mirande tarr Ioni igorriko ba zeneraukeo. Hunen zuzenbidea Jean de Mirande, 106, Boulevard Davout, Paris XX, da. Nire izenez izkiriartzen deraukozula erran iezozu. Hunek ere orain laburdaraz baizik izkiriartzen eztu, eta gure asmoen iarraitzaile sutsu bilhakatu da.

“Zuk aipatu lista hunen alerik ezpa zenu, eska iezozu edo Otxoluari, edo Aita Linori, haukiek baitute.

“Anartean zuek horr egiten duzenari buruz pozik ezer entzunen nuke. Etxebarriatarrak zerbait ba zerautan kontatu, bainan ez asko.

“On harr itzazu nire agurrik beroenak,

“Krutwigtar F.k.”

2

(A. Irigoien-ek Jon Mirande-ri. Ez du datarik eta Euskal Akademian orduko idaz-makinan kalkoz aterariko kopia sinatu gabekoa da, baina Mirande-k 1953-garreneko Ekainaren 19-an erantzuten dio).

“Mirande’tar Ion’i

“Agur begiko jauna:

“Aspaldian Krutwig jaunak idatzi zidan berak egindako «h»dun itzen lista bat bidali dezaizudala. Eta asti urri izan baitut orainarte ezin egin

izan dizut kopia eta beraz igorri ere ez. Azkenez, gauza orori eltzen zaie garaia eta or dijoakizu gutun onekin batera.

“Maiz irakurri ditut zure artikulua eta olerkiak atsegiñez beterik zure trebetasuna ikustean. Lan ederra da euskara literaturarako gaitzen egiten dan lan guztia. Zorionak.

“Emen ere badago euskaramina, baina ia zearo beaztopaturik. Ala ere zerbait egiten da euskararen alde eta eginago euskaldunak gure nortasuna galdu nai ezpaldin badugu. Saiatu gaitezen, bada, euskarari bide berriak urratzen arnari ugari eman dezan, almen andiko izkuntza baitugu. Baldin onela egiten badugu geroak erakutsiko digu eraindako aziaren frutua.

“Zerbaitetarako bear banauzu ona emen ene zuzenbidea: Alfonso Irigoyen, Barrio Santiago, 21, BILBAO.

“Eta geiago gabe goraintziak Krutwig’ri eta zuk ar itzazu agurrik beroenak.”

3

(Jon Mirande-k A. Irigoien-i).

“Parisen, 1953gneko Ekainaren 19-an.

“Aberrkide maitea! (7)

“Eskerrik anhitx h-dun hitzen lista ta bertze idazkia gatik, bai eta ene poesiari buruzko goraiphuak gatik ere.

“Krutwig tarr Karol ioan den igandean ikhuskan izan zait. Goraintziak igorriten derauzkitzu.

“Neu dathorren hilabetea Espainiaratuko naiz eta herri horrtan aste bi iragan ondoren, zuen Euskalherrian hamarren bat egun egoiteko gogoa dadukat. Bozkario handirekin ikhusiko zaitut orduan, egoki bazaitzu. Uztailaren 24ean Euskadin izanen naizela uste dut.

“Anarrtean onhar itzazu, aberrkide maite horrek, ene euskal-agurrik anaikorrean.

“Mirandetarr Jon.”

(7) Jon Mirande-k *r* azentudunak emaiten ditu systematikoki bere esku-izkribuan, gorago aldatu den Krutwig-en kartaren idaz-makinazko originalean, ordea, *rr* bikoitza agertzen dela. Hemen *rr* bikoitzaz transkribatzera beharturik aurkitu gara ordenagailuaren kausaz.

4

(A. Irigoien-ek A. Ibinagabeitia-ri. Euskal Akademian orduko idaz-makinan kalkoz aterariko kopia da).

“Bilbaon 1954-IX-29’garrenean.

“Ibinagabeitia jaun begiko:

“Eztakit oroitzen zaren nitaz. Orain urte bete Parisen elkar ezagutu genuen. Oraindik, nik behintzat, gogo gogoan dut Mirande zu ta irurok iragan arratsalde ura. Noiz argitara aterako Miranden poesi haiek?

“Geroztik iakin nuen Guatemalara ioan zinela Euzko Gogoia errebis-ta sendotzera.

“Ordudanik urak bide luzea egin du eta egoera bertze da.

“Hemen ere zerbait egin gogo dugu gure ahale ginoan. Orain urte bete Euskaltzaindiak ‘Euskera’ errebista zaharraren bigarren aldiko lehen numeroa agertu zuen, baimenik gabe ordea, eta berehala igorri zerauen debeku. Euskaltzain batek bere gain hartu zuen erdietsi beharra; urte bete baino gehiago ioan zaigu aurrerapenik gabe alperrarren. Azken batzar bietan egondu nintzan eta sekulako kemen beharra somatu nuen. Asmo batzuk aurkeztu nituen eta onetsi ziran: Euskaltzaindiko obrak bukatzea, Resurreccion Maria de Azkue katedra sortzea eta uste (dut) eskubidea lortuko dudala baimena bere lepoan artu zuenari laguntzeko. Geroak erranen drauku nora iritsiko garen. Aste honetan inguru aterako da Euskaltzaindiaren babesean Axular nagusiaren ‘Gero’ berak izkiribatu zuen araura, oraingo ortographiz (sic). Ezin agorrezko iturburua dukegu bertan. Ailegi euskalzaleen artean dagokon probetxu.

“Lan hauetan niardualarik euskalzale zindo batekin oztopo egin dut eta gauza askotan laguntzen draut. Oso gaztea da eta hogeit urte baino eztitu; hala ere euskal literatura barnean sartua, naiz eta euskaldun berria izan. Irakur itzazu igorten drauzkitzudan poesi batzuk, eta nabarituko duzu ez tirela arrunt, sakon baizik. Mesede haundia eginen zeneraukeo bere kemenari Euzko Gogoan, errebista eder hortan, argitara bazenitza. Erranen drautazu zure iritzia.

“Anartean, eskerrik asko aurrez, eta orizu bortzeko hau.

“Irigoyen tar Alfontso

“Arpidetu nahi duen bat: Jose Maria Sagarzazu, Mayor, 100, Azcoitia.

“Poesi izkiribatzailearenak: Gabriel Aresti Segurola, Barroeta Aldamar, 2-6.º dcha, BILBAO.”

5

(A. Ibinagabeitia-k A. Irigoién-i).

“Guatemala’n, Azaroak 16-54.

“Irigoyen’tar Alpontso j’ri

“Bilbao

“Adiskide ona:

“Oroitu ez? Nik ere ez dut beingoan ahantziko (sic) Mirande’k eta irurok elkarrekin (8) eman genun arratsalde ura. Arkaitzean elatzak baiño tinkoago diraute ene baitan zu bezelako euskalzale iator-langilleen irudiak eta itzak. Egia esan, ni ere maiz egon nazaizu lerroño batzu zuzentzekotan, zure irailleko gutunak, ordea, aurreak artu dizkit. Aitortu bear dizut, ala ere, astirotxo ibilli dala, gaurdaño etzait eskuratu bada. Eta berantetsian zaudelakoan bat batean erantzutera iarri nazaizu.

“Aresti olerkari gaztearen poemak atsegin bitsetan irakurri ditut. Badu ezpal eta gogo-giro gazte azkar orrek. Itz-lauzkoa ere siratsgarri izan zait. Euskerari orren sutsu ekiten baldin badio, uza bikaiñik bilduko du Aresti gazteak. Aurtengo irugarren ta laugarren zenbakiak irarrita dauzkagu eta egunotan aizetaratuko ditugu. Beraz, olerkari ta idazle berriarenak urrengo banakoetan argitara emango ditut; lenbizikoan ‘Dance dans la Prière’ ta ‘Godalet dantza’, ondokoan ‘Prelude à la Musique de la Dance’.

“Ain zuzen, aspalditik Bilbao’ko euskalzaleak zertan ote ziran iakin nai nun, eta orra zure eskutitzak iakinmiñ ori ase dit. Dakustanez gogoz ari zerate gazteok. Gazteak bear ditugu euskal arloan, bestela zarrok suntsitzen geranean euskerarenak betiko egingo du. Euskaltzaindik ere gazteen eskuartean bear luke, kemen ta gogo berri bat txertatuko dien gazte azkarren eskuartean, ez zarrakituen esku dardaritsuetan. Gure garai auek ez dira noski, euskerarentzat onezkoenak, ala ere kemenak bikoiztu bear ditugu gure ondasun bakarrari eusteko, eta indartuz, berean iraun erazteko.

“Gu urrutiko eremu auetan aldeguntxoa egiten ari gera. Izugarrizko oztopoak garaitu bearrik arkitzen gera aldizkaria ateratzeko, irarkolako langilleak dirala-ta. Gu baiño motelagoek oraingoz bertanbera utziko zuten. Lenago lertu, ordea, ilten utzi baiño. Egun auetan amaitu dut Barandiaran’en euskal-mitologi berria euskeraz. Aldizkarian agertuko da

(8) Andima Ibinagabeitia-k *r* azentudunak emaiten ditu normalki *elkarrekin* hitz hau konturatu gabe *rr* bikoitzez ageri bada ere. Hemen *rr* bikoitzaz transkribatzera beharturik aurkitu gara ordenagailuaren kausaz.

zatika. Orrez gainera, Vergilius'en 'Unai-kantak' ere gerturik dauzkat argitaratzeko. Euskal literaturaren edestian ere murgildurik nabil. Liburu eder bat egin gogo nuke, nere almenak eskastxoak izan ordea. Zaitegi'k, bere aldetik, Sopokel'en tragedi guztiak euskeratu ditu eta datorren urtean argitaratuko dira liburu eder batean. Ez gera, beraz, alperkerian ari.

“Azkoitiko Sagartzazuri aurtengo banako guziak igorriko dizkiot. Iaso dut bere izena arpidedunen zerrendan. Beste zerbait nai bazenuke, idatzi, eta pozik beteko ditut zure gurariak. Bialdu, otoi, noiztanka orko euskal berriak aldizkarian argitara ditzadan.

“Anartean, ar ezazu adiskide, ene euskal agurrik kartsuena.


“Ibinagabeitia'tar Andima.

“Ez dakit noiz agertuko diran Miranden poemak. Irarriko zitutela itz eman zidaten, baiñan oraindik ez dira ageri, damuz.”

TXOMIN PEILLEN-EN SARRERA EGUNEAN MAITE IDIRINEN KANTALDIA

Beldur nago nere hitzaldiñoa pizka bat inprobisatua izango dela, zeren aspaldian mintzatu ginen, baina gero ez genuen ezer konkretatu. Orduan, pentsatzen dut honela onartuko duzuela. Gainera, hemen naize-nez gero, Peilleneri eskertuko diot, gu Parisen egon ginenean errefuxiatu bezala, berak bere etxean, eta bere emazte Mariteresek, beti bihotz beroarekin onartzen genituela, eta orain ere beti lagun bezala segitzen dugu, bere lagun minak. Milesker Mariterese, milesker Peillen.

Orduan, bi estrofa txiki kantatuko ditut, bat Xuberoko kantu bat, izan ere Xuberoko kantuak, nik uste dut, direla Euskal Herriko ederrenak, musikaren aldetik eta baita ere bere hitzen lirikotasunagatik. Eta gero bukatuko dut Bizkaiko kantu baten beste estrofa batekin, zeren nik uste dut bizkaitarrak eta xuberotarrak badugula halako estremuen elkar atraktibo edo halako zerbait. Beraz kantatuko dut *Xoriñoa kaloian*, burura etortzen zaidalako, eta baita ere musikaren aldetik eta hitzen aldetik ederrenetarikoa bat delakoan, Euskal Herriak oso ondo ezagutzen duen kantu bat.



Eta orain Bizkaiko kantu eder hori. Filosofia ederra duen kantua da:

Horra horgai ko hariztitxo baten

kuku ak ku me ak e gin jo zak aurtan

kuku ak egin e ta a mi lotxak jan

haxe be re kuku aren zoritxarra zan.

(R. M. Azkue: *Cancionero Popular Vasco*. Tomo III, Danzas, 240 z. 92/343 orr.).

TXOMIN PEILLEN-EN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Baiona, 1989-IV-1

J. M. Bedaxagar

Bi berset berri gaur Txomin Peillen nahi neizketzū kantatū
Zure omena bazter orotan aspaldian beita zabaltū
Parisen sortū izana gatik, ezpeitzira han zahartū
Euskaltzaindian horrela sartzez badüzū mereximentū.

Aitoren ipuin ederrenetik alaba zazpigerrena
behin sorthū zen haütatzekotan baratzerik ejerrena
Xiberoa da düdarik gabe andere berheziena
Jean-Louis-ekilan artha zazüe ahizparik minberena.

Idatz lanetan agertzen zira langile kartsū süharra
zük beitaizū ingoitik zer den ametsez ari beharra
goizaldi huntan batto egin dit harrotū gabe ollarra
Euskadi zela lür dohatsüa eüskara laket belharra.

Jaun andereak zinez botzik niz zük zidiela esker
egün eder hau kantatüren dit Basabürüko txorier
erranenko dit ihes joan gabe lekü üzteko lagüner
Agur, goraintzi ta goresmenak Santa Graziko izarrer.

TXOMIN PEILLEN-EK BAIONAN

Baiona, 1989-IV-1

Errakiaren garaian egin bertsoak züberoeraz eta ondotik abestuak,
J. M. Bedaxagar-ek eginikakoei erantzuteko.

Izar ederra zara eüskara
bena odeiak nagusi
kanpok'aldetik joiten gütüan
aize zaharrek nahasi
zohardirik ez dakigüla
nola dezakegün kausi.

Sü eder batez berotüko da
hoztürik den Iparralte,
jar eüskaldünak girenak oro
bizi berri baten alte,
Eüskal Herrian hilaldiaren
ez dadin izan gure mente.

Bilo xuriak ezin heltüan
lanean ari beikirade
züek aldika bilo beltz horik
sailean sartüko zirade,
halaxe denek garbi dezagün
gure zerüko kerade.

(Egin eta abestu ez zituenak)

Bedexagar-i entzünik deitzot
berset berriak eskertzen
orain aldika ahal bezala
Urdiñabarra (y) aipatzen
Agosti Xahoz hasi beitzaikü
pastoralak ezkribatzen
hala kontatüz Atarraztarra
zoiñen eüskaldün izan zen.

Hebentik zonbait metrotan
harri xurian agertzen
Xahoren бүрү арренкүратү
ilherritik da behatzen:
Ez дү ikusi beharrik ere
eüskara Züberoan galtzen
hainbeste maite züan mintzaje
xeharra ari lehertzen.

Eüskaldün axolgabeak üsü
beren etxetik baztertzen
eta erdaldün maltzürrek aldiz
non nahitikan zapaltzen
hur zikin hontan erdi itoak
nola eüskarak hatsartzen?
bүrүa zүtik etxekiz baizik
ezin da biziartzten.

Odei ondotik ateria beita
gogoaren pausagarri
erran dadila goresmenetan
mente hunen oroigarri
ekaitzartean itsasuntzia
osorik zaigula jalgi
gure borroken arraunkatzeaz
eüskara bai dela bizi.

**JUAN ANTONIO UBILLOSEN
II. MENDEURRENA**

Billabona, 1989-V-27

JUAN ANTONIO UBILLOSEN

II. MENDEURRENA

Billabona, 1989-V-27

Eduardo Laborde

herriko Alkatearen agurra

Kaixo lagunok:

Oso pozik nago berriro ere zuekin egoteaz eta bi hitz esateaz.

Bi egunetaz egon zarete toki honetan. Ez da lanerako egokiena, baina jakin guztiok dakigunez, Udaletxea berritzen ari gara eta ezinezkoa izan zaigu, gure asmoa zen bezala, jardunaldi hauetarako prest edukitzea.

Benetan pentsatzen dut jardunaldi hauek gure kulturaren ezagupe-nean sakontzeko eta beste kultura desberdinekin parekatzeko aproposak izan direla, hau da, katalana, galiziarra edo gaztelaniarra esate baterako.



Bestalde, oso Billabonatar gutxik ezagutzen zuen Juan Antonio Ubillos herriko semearen bizitza eta lana ezagutzeko aukera ere eman digute. Oraintxe bertan bere sortetxean jarri dugun oroitarria ekintza honen lekuko izango da historian zehar.

Guzti hau ezinezkoa zatekeen Euskaltzaindiko partaideen lanik gabe, eta lerro hauen bidez, nire izenean eta Billabonatar guztion izenean, eskerrik beroenak eman nahi nizkieke gure historiaren zatitxo bat idatzi dutelako.

Eskerrik asko denoi

JUAN ANTONIO UBILLOSEN II. MENDEURRENA

Billabona, 1989-V-27

Karmelo Iturria

**Juan Antonio Ubillos Galatas
(1707 - 1789)**

Duela 34 urte, 1955. urteko Apirilaren 27.an hitzaldia eman nuen Gipuzkoako Foru-Aldundiko “Urkixo Mintegi” aretoan, gure Juan Antonio Ubillosi buruz. Orduan hilero eman ohi ziren euskal idazleei buruzko hitzaldiak areto hartan. Nirea hemeretzigarrena izan zen. Hurrengo urtean, Guatemalako aldizkari ederra zen eta Jokin Zaitegi zenak zuzentzen zuen *Euzko Gogoa*-n argitara emana izan zen nire hitzalditxoa (1). Hori dela eta uste dut dei egin didatela gaur hemen zuen artean aurkezteko. Aita Villasante Euskaltzainburu ohiak eta nire lagun onak gutun bat idatzi zidan hauxe eskatuz. Nik baiezkoa eman nion. Eta hementxe nauzue zuen aurrean zuen herrikoa den Aita Ubillosi buruz zertxobait esan asmoz.

Galatas edo “*Kalatras*” baserria —aspalditxotik hala deitzen diote— Amasa herriskan dago. Muino txiki baten gainean, euskal kabia polita bait litzan, ederki kokaturik. Ikuspegi zoragarria bertatik ikusten dena. Eskuin aldera, Buruntza mendia eta bere azpian Andoaingo herria; erdian, Belkoain mendia, eta haren magalean —hau ere muino baten gainean— Aduna herriska polita; azpian Billabona herri hau, gainean Fraisoro etxe handi-ezaguna duen; ezker aldera, urrutiago, Ernio euskal mendi santua, gailurrean gurutze santuarekin; eta Kalatras baserriaren alboan, ezkerretara hau ere, Amasako eliza eta etxadia. Zelai-soro ederrez inguratua dago Kalatras baserria. Baserri haundi eta zabala; bi etxe-bizitzakoa: bata Ibarbia bi anaia, bestea Joxe Mari Letamendiarena. Zelai horietako batean, hantxe zegoen lan eta lan etxe-bizitza horretako nagusi jaun den Joxe Mari, ikustera joan gintzaizkionean. Etxera eramanez, bertan sartu eta hantxe egon ginen berriketan luzaroan eta patxadan. Agure jator eta

(1) *Euzko Gogoa*, VII. urtea, 1956.eko Epailla-Jorrailla, 76-96 or.

pijoa Joxe Maria Letamendia hori, gaurko egunez hain zuzen 87 urte betetzen dituen bera. Hortxe bizi da bere emazte Erromana Gorostegi-ekin —zizurkildarra bera eta 85 urte dituen— eta bere semearekin. Ez zuen Juan Antonio Ubillosen berririk oraintsu arte; Euskaltzaindiko biz-pahiru lagun etorri zitzaizkion arte, alegia. Ez zuen uste halako garrantzia zuenik Kalatras baserriak. Eta berak adierazi zigunez, Andoaingo Ubillos baserriko aitonak jaso izan omen zen bataio-egunez, Ubillos baserriko Joxe Mari aitona izan zuen bere aita-pontekoa. Eta honen semea ere Joxe Mari omen zen, “Joxe Potolo” deitzen ziotena. Ez zuen gogoan haien deiturarik. Joxe Mari Letamendia berberak erakutsi zigun, zelaira joanda, Ubillos baserria non kokatua zegoen, Andoaingo aldean. Orain hogeit bat urte arte-edo hantxe zegoen Ubillos baserria, gaurko errepede berria egin zuten arte. Baserri hura ere bi bizitzakoa zen. Azkena bizi izan zirenak, alde batetik, Iñurrita familiakoak ziren, Joan Iñurrita eta Ana Josefa Odriozola, beren seme-alaba Martin eta Maria Arantxarekin; eta beste aldetik, Gregoria Etxezarreta alarguna, bere seme-alaba Belen eta Zelestinorekin. Ikusten denez, aintzina-aintzinakoak dira Amasako Galatas eta Andoaingo Ubillos baserrien arteko harremanak. Baina aspal-ditxo galduak dira, bai batean bai bestean, Galatas eta Ubillos deiturak. Noizdanik galduak ote diren jakitera ez naiz heldu, nik egin ditudan baino azterketa, arakatze eta ikertze-lan sakonagoak behar bait dira horretarako. Halere, Ubillos deitura oraindik ere nahiko zabaldua dago Gipuzkoan zehar. Ez hainbat, nik dakidanez, Galatas deitura, inon azaltzen bada.

Galatas edo Kalatras baserrian jaio zitzaigun ezbairik gabe gure Juan Antonio Ubillos euskal idazlea. Haren aita, Migel Ubillos, ez zen noski maiorazkoa izango eta beste baserri batera ezkondu behar izango zuen, eta Amasako Galatas baserrira ezkondu hain zuzen.

Juan Antonio Ubillosen bataio-agiriak honela dio: “A quatro de noviembre de mil setc. y siete baptice a un niño habido de legitimo matrimonio de entre Miguel de Ubillos y Maria Arano de Galatas siendo padrinos Juan de Ubillos y Maria Miguel de Olano; le pusieron por nombre Juan Antonio; advertiles el parentesco espiritual que contraxeron con el niño y sus padres, y por la verdad firmo, D. Sebastian de Larrañaga” (2).

Azaroaren 4ean bataiatua izanik, bezperan-edo jaioko zen noski. Aitaren aldeko osaba eta amaren aldeko amona izan zituen Juan Antoniok aita-amabixi. Gazteak zituen gurasoak, aita 21 urtetakoa, eta ama berriz 25etakoa. Hona hemen beraien bataio-agiriekin diotena: *Amarenak*: “*Mariarano de Galatas*: En siete de febrero de 1682 bautice a Mariarano

(2) Donostiako Elizbarrutiko Artxibategia; Libros Parroquiales, Parroquia de Villabona-Amasa (2), Libro 2.º Bautizados 1655-1723, folio 97.

de Galatas, hija habida de legítimo matrimonio de entre Domingo de Galatas y Maria Miguel de Olano, siendo padrinos Antonio de Larrañaga y Magdalena de Zumaeta; a quienes advertí el parentesco espiritual que contraxeron con la niña y sus padres, y por la verdad firmo, D. Juan de Larrañaga” (3). Xehetasun interesgarri bat aipatu behar da hemen. Bataio-agiri honetan, amaren izen-deiturak jartzean, *Mariarano de Galatas* azaltzen da. Ezkontzako agirian ere berdin, gero ikusiko dugunez. Seme-alaben bataio-agirietan, ordea, *Maria Arano de Galatas* agertzen da; han segidan, hemen aparte. Eta heriotze-agirian, berriz, *Maria de Galatas*, besterik gabe. Honek esan nahi du, noski, bere deitura egiazkoa *Galatas* zela. *Aitare*n bataio-agiriak honela dio: “A tres febro del año mil seyscientos y ochenta y seis bautice a Miguel de Ubillos, hijo legítimo de Martín de Ubillos y Cathalina de Estanca, siendo padrinos Miguel de Elizagarate y Josepha de Anzizu, todos vecinos desta Villa, y les adverti el parentesco espiritual contraído, y para que conste firmo, D. Juan de Berrospe” (4).

1706. urtean ezkondu ziren Amasan gure Juan Antonioren gurasoak eta handik hamahiru hilabetetara jaio zitzairen beren lehen semea. Ezkontzako agiriak honela dio: “Miguel de Ubillos y Mariarano de Galatas oyeron la misa nupcial. A 20 y 7 de septiembre del año mil setecientos y seis se casaron y contraxeron el Sto. Sacramento de matrimonio Miguel de Ubillos, natural de la Villa de Andoain y Mariarano de Galatas, natural desta Villa, aviendo precedido las tres proclamas, que el Sto. Concilio y synodal de este obispado disponen en tres días festivos sucesivos, al tiempo del ofertorio de las Misas populares, de las cuales no resulto impedimento canonico que obstase la celebracion del dcho. matrimonio. Fueron testigos Antonio de Garagorri, Pedro de Arizmendi, Adrian de Arizmendi y otros muchos. Y porque conste firmo, D. Sebastian de Larrañaga” (5).

Beste hiru anai-arreba izan zituen Juan Antoniok, bera baino gazteagoak: Maria Magdalena, ia hiru urtez gazteago, Joan Bautista, ia sei urtez, eta Rosa Agustina, bederatzi urte t’erdi gazteago. Hona hemen bataio-agiriekin diotena: “*Maria Magdalena de Ubillos*: A ocho de Junio del año Mil setecientos y diez baptize a una niña habida de legítimo matrimonio de entre Miguel de Ubillos y Maria Arano de Galatas; fueron

(3) Ib., folio 31 v.

(4) Andoain: Libro de Bautizados de la Parroquia de San Martín desde 1684 hasta 1726, folio 10 v.

(5) Libro de Casados y Finados de la Parroquia de San Martín de la Villa de Amassa Villabona, que da principio el año mil seiscientos cinquenta y quatro y acaba en el de mil setecientos y veinte y seis, folio 029.

padrinos Domingo de Galatas —*amaren aldeko aitona*— y Cathalina de Uztanga; la pusieron por nombre María Magdalena; les adverti el parentesco espiritual que contraxeron con el niño (sic) y sus padres y por la verdad firmo como de costumbre. D. Sebastian de Larrañaga” (6). “*Juan Bapta de Ubillos*: A dieciocho de Junio de mil setecientos y trece baptize a un niño habido de legitimo matrimonio de entre Miguel de Ubillos y Maria Arano de Galatas, vecinos desta Villa, siendo padrinos Juan de Ubillos, vecino de la de Andoain —*aitaren aldeko osaba*— y Maria de Galatas —*amaren aldeko izeba noski*—, vecina desta dcha Villa; le pusieron por nombre Juan Bapta; les adverti el parentesco espiritual que contraxeron con el niño y sus padres y por que conste firme. D. Ignacio de Ureta” (7). “*Rosa Agustina de Ubillos*: A doce de Abril de mil y setecientos y dieciseis baptize a una niña nacida de legitimo matrimonio de entre Miguel de Ubillos y Maria Arano de Galatas, vecinos desta Villa, siendo padrinos Don Salomón de Sorarrain, Rector del lugar de Ibarra, y Agustina de Azpilicueta, vecina deste dcha. Villa; pusieronla por nombre Rosa Agustina; les adverti el parentesco espiritual que contraxeron con la niña y sus padres y por que conste firme. D. Ignacio de Ureta” (8).

Sendotzako agiriak dioenez, Juan Antoniok ia zazpi urte zituen sakramentu hori hartu zuenean. Jakina da orduan —eta gero ere— Gotzain Jauna herrira zetorreanean hartzen zela Sendotzako sakramentua, haurrak zituen urteak zirenak zirela. Honela dio Sendotza-agiriak: “A nueve de Julio del año de Mil setecientos y catorce en la Visita que hizo el Ilustrisimo Señor D. Pedro Aguado, Obispo de este Obispado, en Parrochial desta Villa de Amassa Villabona confirmo los siguientes. Y porque en todo tiempo conste hice este asiento y firme en dcha Amassa Villabona, dcho día, mes y año. D. Ignacio de Ureta” (9). Hirurehun eta hamahiru haur azaltzen dira guztira, eta horien artean Juan Antonio (200 zenbakiarekin), eta bere anai-arreba Juan Bautista (201 zenbakiz) eta Maria Magdalena (202 zenbakiz hau). Arreba gazteena, Rosa Agustina, artean jaio gabea zen. Beste Ubillos bat ere agertzen da zerrenda horretan: Sebastian de Ubillos, alegia (232 zenbakiz), baina ondoren Andoaingoa zela jartzen du agiriak; gure Juan Antonioren lehengusua noski. Harritzekoa da benetan urte hartan 313 haur azaltzea sendotza hartzen.

(6) Libro de Bautizados y Confirmados de la Parroquial de San Martín de la Villa de Amassa Villabona que da principio el año mil seiscientos cinquenta y quatro y acaba en el de mil setecientos y veinte y tres, folio 105.

(7) Ib., folio 112.

(8) Ib., folio 120.

(9) Ib. Libro 2.º Confirmados 1656-1714.

Sebastian de Insausti apaiz historigilearen ustez, garai haietan mila bat biztanle-edo izango ziren Amasa-Villabonan (10). Lehenagoko sendotza 1692. urtean azaltzen da eta orduan 20 haurrek bakarrik hartu zuten sakramentu hori. Baina halere, aurreragokoan, 1686. urtean hain zuzen, 99 haur agertzen dira. Bi urte hauetan ez da agertzen ez Ubillos deiturarik, ez Galatasik; hau lehen aipatutakoan ere ez.

Gazterik hil zitzaizkion Juan Antoniori bere gurasoak: Migel de Ubillos aita, 1716. urteko Maiatzaren 15.ean, Juan Antoniok zortzi urte zituelarik, eta aitak berak 30 urte besterik ez; ama, berriz, 1723. urtean, Juan Antoniok 16 urte beteta zituenean, eta amak berak 41; ama hil zenerako Juan Antonio Arantzazuko Santutegian zegoen, geroago ikusiko dugunez. Gurasoen heriotze eta ehorte-agiriak Donostiako Eliz-Artxibategian aurkitzen dira eta honela diote: *Aitarenak*: “*Miguel de Ubillos*: A quinze de Mayo de mil y setecientos y dieciseis murio Miguel de Ubillos, vecino desta Villa, haviendo recebido los Santos Sacramentos de la Penitencia, Eucaristia y extrema uncion, y dispuesto su testamento; fue enterrado en la sepultura de Amallo, y para que conste firme. D. Ignacio de Ureta”. Eta alboan zera jartzen du: “Testo ante Miguel de Lejarra menor” (11). Eta *amarenak*: “*Maria de Galatas*: A catorce de Diciembre de mil setecientos y veinte y tres murio Maria de Galatas, vecina desta Villa, haviendo recebido los santos sacramentos de la Penitencia, euquaristia y extrema uncion, fue enterrada en la sepultura de Amallo, y para que conste firme. D. Ignacio de Ureta, Rector”. Eta alboan: “no testo = sus tres oficios se hicieron = I. de Ureta” (12). Hiru “ofizio” edo “ondrak” zeritzaten elizkizun horiek egiteak garai haietan ba omen zuen halako izen onik edo osperik. Ez omen zitzaien denei egiten halakorik. Bestalde, Iruñeko Eliz-barrutiko Artxibategian Amasako San Martin elizako plano bat aurkitzen da, bertako biztanleen hilobiak azaltzen dituen. Jakina da, garai haietan Gipuzkoako Orialdea eta Urolaldea Iruñeko Eliz-barrutikoak zirela, eta Debaldea Kalagurrikoa. 1752. urtekoa da plano hori. Eta bertan ez da azaltzen Galatas etxeari dagokion hilobirik, baina bai Amallo etxekoa, eta, ikusi dugunez, hilobi horretan ehortziak izan ziren Juan Antoniorene gurasoen gorpuk (13).

(10) SEBASTIAN INSAUSTI *Villabona-Amasa*, San Sebastián, 1970.

(11) Libro de Casados y Finados de la Parroquial de San Martín de la Villa de Amassa Villabona... folio 18.

(12) *Ib.*, folio 25.

(13) Iruñeko Elizbarrutiko Artxibategia; Amasa-Villabona, C/1.934 - n.º 15, 1752.

Familien arteko berriak

Ez noakizue zuen herriko berri zehatz-mehatz ematera. Zuek zeurok nik baino hobeto eta sakonago izango bait duzue zuen historiaren berri. Zenbait puntutxo bakarrik gogoratu nahi dizuet. Aintzina, bi herri ziren Amasa eta Billabona, bata bestearengandik bereiziak, nahiz eta Parrokia bakarra osatu aspaldidanik 1909.urtera arte. 1387. urtean Amasa Tolosarekin bat egin zen. Baita Billabona ere, agi denez. Gorosabel historilari ezagunak dioenez, XV.mendearen azken-alditik zuen “villa” edo “hiribildu” titulua. Baina besteen ustez, Karlos V.ak eman zion titulu hori XVI. mendean. Dena dela, eta lehen esan dugunez, Tolosarekin bat eginda bizi izan ziren, Billabona 1536. urtera arte; Amasa berriz 1615.erarte. Eta handik lau urtetara, 1619. Abuztuaren 18an, biek bat egin zuten. Eta ordutik hona, biak elkartuak eta herri bat osoturik bizi izan dira.

Ubillos eta *Galatas* oso etxe ezagunak ziren, bata Andoainen eta bestea Amasan. *Ubillos* jauregi-etxe bezala azaltzen da liburu zahar eta agiritan, bere armarri eta guzti. García Carraffa anaiek diotenez (14), *Ubillos* izeneko hiru etxe omen ziren aintzina: bata Bizkaiko Muxikan (Ugarte auzoan), bestea Ordizian eta hirugarrena Andoaingo Lizaurren. Jaime Kerexetak (15) beste bi ere aipatzen ditu, bata Azkoitian eta bestea Zumaian. Andoaingo Lizaurren zegoen etxeko armarria honela aipatzen dute, bai García Carraffa anaiek, bai Kerexetak: “La de Lizaur (Andoain): en oro, un árbol de sinople, y un jabalí de sable, pasante al pie del tronco; en el jefe, ondas de agua de azur y plata, surmontadas de una cruz de Montesa de gules”. Eta García Carraffa anaiek hau gaineratzen dute: “Lema: ‘Más vale paz’. Ikusten denez, bada, *Ubillos* jauregi-baserria nahiko garrantzitsua zen Andoainen aspaldi hartan. Sebastian Insausti apaiz historiagileak ere *Ubillos* deitura aipatzen du bere “Villabona-Amasa” liburuxkan (San Sebastián, 1970), Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak urte haietan sariketa bidez argitaratu zituen Gipuzkoako herrietako liburuxka haietako batean, alegia: ‘*Ubillos*-ko erreka’ 1595. urtean aipatzen dela esaten digu, 93. orrialdean. Eta 23.ean: ‘El camino que va desde el arroyo de Larrea hasta el arroyo de *Ubillos*, que va para San Sebastián... El lector debe prescindir de la actual carretera desde Larrea a *Ubillos*, que entonces no existía (gaurkoa baino lehenagokoaz ari da noski). Arrancando del arroyo citado, subía a la casa solar de Larrea, seguía por Garmendi-txiki, Garmendi, Etxe-ondo, bajaba a cruzar el arroyo de Zorrodore, y de allí por Etixon-txiki llegaba al caserío Etxebe-

(14) GARCIA CARRAFFA *El solar vasco-navarro*, Madrid 1947, 2.^a ed., tomo VI, 139 or.

(15) JAIME DE KEREXETA *Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco*, tomo IV.

ria de Villabona (el ya desaparecido Altzone) para entrar en la calle Mayor” (16). Eta *Ubillos* deiturari buruz zer esan? Jakintsuengana jo behar nahi eta nahi ez argi bila. Eta jakintsuen artean jakintsuena Koldo Mitxelena zena noski. Haren *Apellidos Vascos* liburuan ez du gauza haundirik esaten, baina nondik norakoa argitu behintzat bai. Bi aldiz aipatzen du *Ubillos* abizena, lehenengo bukaerari dagokionez eta gero hasierari: “-(h)otz “frío”: Araoz, Iturrioz, Iturrospe (eta ondoren deitura pila) eta azkenean: “La terminación -os se encuentra también en algunos apellidos: Galdos, Obanos, Ubillos, etc.” (17). Hasierari dagokionez: “-u-, variante (h)ur “agua” ante consonante. Upera (vado)... Ubide, Ubidea... Ubilla, Ubillos (*ubil*, de *ur-bil*, “vórtice”), Ubineta, etc.” (18). Halako jakintsu ospetsuaren eritziari ezer gutti dakigunok pozik gatzekizkio. Ubillos deituraren aurreneko *Ubi* hori izen askotan aurkitzen dugu, Ubietxe, Ubiria, Ubide, Ubietia, Ubidea, Ubilla, Ubineta, Ubitarte, Ubillos eta abar. *Ubi* horrek -ibi-k bezala, erdarazko “vado” esan nahi du. Ubilla, Ubillos ikertzean, berriz, *ubil* ikusten da eta *ubil* hau *ur-bil* izanez gero, erdarazko “vórtice, torbellino, remolino” izango litzateke, edo euskarazko “zirimola, zurrunbilo”. Bukaerako -os edo -otz horri buruz, duela zenbait urte, filologia gauzetan hain jakintsu dugun gure Aita Inazio Omaetxebarriak “patronimiko” deritzaten horietakoa izan litekeela esan zidan. Izan ere, halako hitz asko bait dugu, berdinak ez badira ere -os eduki beharrean, -oz bait dute horiek-. Adibidez, Mitxelenak dakartzan artean, Bellacoz, Blascoz, Lecenioz, eta abar. Horretan jakintsuak direnei utzi behar erabateko erantzuna eta erabakia, hala eman ahal baledi. Amaren aldetik Galatas deitura zuela ikusi dugu. Hau gutxiago aipatzen da liburuetan. García Carraffa anaiek ezertxo ere ez dakarte. Jaime Kerexetak, ordea, bai. Arabako Aramaio herrian aurkitzen da 1786. urtean (Amasako *Galatas* baserria, halere, askozaz lehenagokoa dugu). Eta gero Bilbon, 1817.ean. Amasako Galatas deiturarik ez du aipatzen, lehenagokoa izanik ere. Baina armarrria badakar: “En azur, un león de oro, terrasado sinople y con una espada en la diestra”. *Galatar* abizenaren aldaketa dela ere esaten du. Eta Galatar honek, Isaak Lopez Mendizabal zenaren ustez, “pastizal”, hau da, “larre, belardi” esan nahi duela. Baina Lopez Mendizabal zenaren eritziak gai honetan ez dut uste oso fidagarriak direnik. Koldo Mitxelena zenak ere aipatzen du deitura hau bere liburuan, baina ezer gutti argituz. Hauxe besterik ez: “-a(t)z, -a(t)s, terminación frecuente: Ardanaz, Aranaz, Imaz, Loinaz, Galatas, Idigoras,

(16) SEBASTIAN INSAUSTI *Villabona-Amasa*, San Sebastián, 1970, 23 or.

(17) LUIS MICHELENA *Apellidos Vascos*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 1953, n.º 512, 49 or.

(18) Ib., n.º 571, 103 or.

Iribas, etc.” (19). Lehen aipatutako gure Aita Omaetxebarriak arabiar usaia susmatu dio *Galatas* horri. Eta aintzina gaztelu-antzeko etxea zela zioen. Baina nola deitzen diote “Kalatras”? Bestetan bestela, alderantziz izan ohi bait da: *castellum-gaztelu*, *castania-gaztaina*, eta abar. Hemen, berriz, Galatas-tik Kalatras. Aita Omaetxebarriak eginiko oharra dituzue. Berriro ere, hemen, nik baino gehiago dakitenen eskuetan utzi behar auzia.

Amasa-Billabona Parrokiako aintzinako eliz-liburuak arakatuz, Ubillos deiturako gutti aurkitzen da eta denak gure Juan Antonioren ahai-deak ditugu. Andoainen, berriz, erruz aurkitzen da aldi haietan deitura hori. Iruñeko Eliz-Artxibategian, 1686. urteko Irailaren 5ean, *Martin de Ubillos Donachele* —gure fraidearen aitona hain zuzen— azaltzen da, bere ordezkari Andres de Larrazaren bitartez, orduko Gotzain den Juan Grande Santos de San Pedrori, Andoainen pastoral ikustaldia egiten zebilela, haren aitari Andoango San Martin elizan hilobia edukitzeko eskubidea eman ziola esanez, ebanjelio aldetik eta erdiko hilaran, Asirendegi eta Bulano etxeetako hilobien tartean, eta hilobi hura bera berarentzat eskatuz. Eman egiten zaio Juan Antonioren aitonari, hurrengo urteko Ekainaren 2an. Bai bait dira eskubide hori bera eskatzen duten beste batzuek: Luis de Galardi eta Cathalina de Luxanbio Sorabillako senar-emazteak hain zuzen (20).

1703. urtean ezkondu zen Amasan bertan Juan Antonioren osaba bat; bere aita baino hiru urtez lehenago beraz. 1740.ean ezkondu ziren, Amasan hauek ere, Ubillosko Juan Antonio —gure fraidearen izen-deitura berberak daramatzana, ikusten denez— eta Galatasko Maria Josefa; andoaindarra hura, Amasakoa, berriz, andrea. Hauek ere, nahi eta nahi ez, gure Juan Antonioren ahaidetakoak izan behar, lehengusuak-edo, bata aitaren aldetik bestea amarenetik, bi osaben seme-alabak noski. Elkarren artean ahaideak zirela badakigu, beren ezkontza-agirian ezkontzeko eragozten zuen laugarren mailako ahaidetasuna ezabatu zitzaizela esaten bait da.

Iruñeko Eliz-Artxibategian azaltzen denez, Juan de Ubillosek —gure frailearen lehengusua seguraski, Ordena txikietako elizgizona bera eta Salamankako Unibertsitatean Teologia ikasten ziharduena—, andoaindarra, Andoango San Martin parrokian hutsik gelditu zen kapilautza eskatzen du; Pedro de Zumetaren alarguna zen Cathalina de Mimendik sortua zen kapilautza hura. Eman egiten zaio. 600 dukadotakoa da, eta urtean hainbat Meza eman behar ditu eta Meza bakoitzeko “lau erreal

(19) JAIME DE KEREXETA, ib., tomo II; LUIS MICHELENA, ib., n.º 111, 49 or.

(20) Iruñeko Elizbarrutiko Artxibategia; Andoain, C/1.152 - n.º 15.

de vellón” zirelakoak kobratzen ditu eta hilobi aurrean erresponsoa erretzeko eginbeharra ere badu. 1727.urteko Irailaren 15.ean ematen zaio kapilautza. Baina gero, Juan de Ubillos hori monje sartzen da, Balbuena-ko Santa Maria la Real monastegian, San Bernardoren ziztertarren monjetan, eta 1733. urtean utzi egiten du kapilautza. Eta orduan berberak izenpetutako agirian bi kapilautza zituela adierazten du: bata Sorabillan, mila dukadotakoa, eta bestea Andoainen, 600ekoa. Testigu asko aurkeztzen ditu bere alde hitzegin dezaten eta testigu denak berdin diote: “Juan de Ubillos es hijo legítimo y natural de Juan de Ubillos y María de Lizarraga, su legítima mujer, habido y procreado constante su legítimo matrimonio a quienes vió le criaron, reconocieron y alimentaron en su compañía en la Cassa solar de *Hubillos* (sic, *hatxez*) (21). Juan de Ubillos honen aita ikusi dugu Juan de Ubillos zela bera ere. Aitona ere bai, Juan de Ubillos, Josepha de Anzizurekin ezkondua (Josefa de Anzizu hau gure Juan Antonioren aitaren amabitxia izan zen bataioan). Eta birraitona Martin de Ubillos, Maria Migel de Zumetarekin ezkondua. Maria Migel de Zumeta hau, berriz, Domingo de Zumeta eta Cathalina de Garmendiaren alaba da. Denak andoaindarrak. Juan de Ubillosek, monje sartu zenean, Frai Malachias izena hartu zuen, eta bere buruaz hauxe dio: “llamado en el siglo Juan de Ubillos, natural de Andoain” (22).

1769. urtean ezkondu zen Ubillosko Migel Antonio Amasako San Martin elizan. Hau gure Juan Antonioren iloba izan liteke, Juan Bautista bere anaiaren semea ziur aski. Baina ez gaitezen gehiegi sartu ahaidetasunaren azkenik gabeko zulo sakon horretan. Hauek dira Iruñeko eta Donostiako Eliz-barrutietako eliz-liburuetan aurkitzen diren Ubillos bakar-rak (garai hartakoak noski). Eta nahikoak direla deritzot. Gerrako Juan Karlos jakintsuak *Ensayo de un Padrón Histórico de Guipúzcoa* bere liburuan, 1749. urtean Billabonan bizi ziren hiru Ubillosen izenak aipatzen ditu, eta hirurak anaiak omen ziren: Juan Antonio, Sebastian eta Frantzisko. Juan Antonio hori lehen esan dugun gure Ubillosen lehengusua baldin bada, hirurak haren ahaideak izan behar noski.

Galatas deiturari dagokionez ere badut zenbait datu. Ez gutti gainera. Bai eliz-liburuetan, bai Amasa-Billabonako Udal artxibuko liburu zaharretan aurkitu izan dut *Galatas* bat baino gehiago. Eliz-liburuetakoak aipatuku ditut lehendabizi: aurrena azaltzen dena *Antonio de Galatas* da, 1656. urtean, Anjela de Yereta eta Magdalena de Ursua haurtxoen aita-ponteko bezala. Geroago, hauxe bera azaltzen da, hurrengo urtean, Juan de Berroeta haurtxoa bataiatzen, “Erretorearen aginduz”, “por mandato del Sr. Rector” beraz esaten duenez, berberak izenpetzen bait du bataio-

(21) Ib., Andoain, C/1.784 - n.º 23.

(22) Ib., Andoain, C/1.804 - n.º 18.

agiria. Urte horretan bertan, *Frantzisko de Galatas* agertzen da, Domingo de Ibargoyen haurtxoaren aita bezala, ama Polonia de Ibargoyen duelarik. Lehen aipatutako Antonio de Galatas beste bi aldiz azaltzen da aita-ponteko bezala: 1659. urtean, Maria de Gorostidiren bataioan, eta 1664.ean Domingo de Irigoyenenen bataioan. Eta beste behin, Antonio de Etxezarreta haurtxoa bataiatzen, hurrengo urtean. *Barbara de Galatas* ere agertzen da bi aldiz: lehenengo, 1661. urtean, Antonio de Lizarraga haurtxoaren bataioan amabitxi bezala, eta gero, 1664.ean, Antonia de Iriarte haurtxoaren amabitxi bezala. *Domingo de Galatas* eta Maria de Larrañaga senar-emazteek, seme bat dute, Juan izenekoa, 1664. urtean, eta beste bat, Pedro, handik ia bi urtetara, 1666.ean. Domingo de Galatas bera aita-ponteko bezala agertzen da Maria Migel de Herrera haurtxoaren bataioan, 1676. urtean. Eta azkenik, *Antonia de Galatas* bat ikusten dugu, Pedro de Gorostidi haurtxoaren bataioan, ama-ponteko bezala, 1672. urtean (23).

Amasa-Billabonako Udal Artxibuan, libururik zaharrenetan, ez da *Ubillos* bakar bat ere agiri. Baina bai *Galatas* deitura duten zenbait. 1681. urtean bi *Domingo de Galatas* azaltzen dira, heldua bata eta gaztea bestea, “mayor en días” eta “menor en días”, alegia, Udaletxeko agiriak esaten dutenez. Biak zinegotzi bezala. Zaharrena gure Juan Antonioren amaren aldetiko aitona dugu, eta bestea osaba seguraski. Hurrengo urteetan, 1689.era arte, biak azaltzen dira, batean Eliza eta kanpandorrea konpontzeko erabakia hartzen. 1722. urtean, *Juan de Galatas* agertzen da, Alkatearen hurrengo bezala. Juan de Galatas hau lehen ikusi duguna da, 1664. urtean bataiatua izan zenekoan, eta gure Juan Antonioren osaba da ziur aski. Udaletxeko agiriak “regidor fiel” dela esaten du, “zinegotzi leiala” alegia. Urte horretan eta hurrengoetan, bai Domingo de Galatas, bai Juan de Galatas hau, biak azaltzen dira, eta Antonio de Lizarraga Galatas ere bai, hirurak zinegotzi bezala; Juan de Galatas 1726. urtera arte, eta Domingo de Galatas 1736.era arte. Hurrengo urtean, 1637. ean, beste bat azaltzen da, *Pedro Ignacio de Galatas*, eta handik bi urtetara, 1739.ean, baita *Agustin de Galatas* ere. Pedro Ignazio 1748. urtera arte agertzen da zinegotzi bezala. Azkenengo bi hauek gure Juan Antonioren lehengusuak noski (24).

Azkenik, Sebastian Insausti apaizak, lehen aipaturiko liburuxkan, *Domingo de Galatas*, gure Juan Antonioren amaren aldetiko aitona, argi-

(23) Donostiako Elizbarrutiko Artxibategia; Libro de Bautizados y Confirmados de la Parroquial de San Martín de la Villa de Amassa Villabona... folios 2, 4, 12, 18 v.

(24) Billabonako Artxibua; Libros de Actas de Amassa-Villabona; hiru liburu, 1675-1689, 1722-1734 eta 1734-1748.

na zela esaten digu eta Amasako San Martin parrokiako epistola edo eskuin-aldeko gurutze-besoa eraikitzen lan egin zuela (25). Amasako San Martin parrokia, hain zuzen, gure Juan Antonioren garaian bukatu zuten, 1729. urtean, alegia, Juan Antonio Mezaberria emana eta apaiz gaztetxoa zenean. 1684. urtean hasi ziren eliza eraikitzen eta 1729.ean bukatu (26). Andoaingoa ere Juan Antonio Ubilloren garaikoa dugu, baina geroago-koa: 1759. urtean hasi bait ziren eraikitzen eta 1770.ean bukatu, Frantzisko Ibero arkitekto ospetsua egile izan zelarik eta Aita Manuel Larramendi —hau ospetsuagoa oraindik— jesulaguna bultzagile.

Hainbat Ubillos eta Galatas aipatzea, honetarakoxe izan da: Familia haiek garai haietan, bai Andoainen, bai Amasa-Billabonan oso ezagunak eta estimatuak izan zirela frogatzeko eta gure Juan Antonioren ahaidetakoak zeintzuk izan ziren jakiteko.

Juan Antonio Ubillos fraide frantziskotar

Baina jarrai diezaiogun Juan Antoniori bere bizitzan zehar. 1722. urtean Arantzazuko Santutegian ikusten dugu bera. Hamabost urte zituen orduan eta urte hartantxe jantzi zuen frantziskotarron habitu edo jantzia. Eta Nobiziadu urtea bukatuta, hurrengo urtean egin zuen profesa edo lehenengo zin-hitza. Bada Arantzazuko Artxibategian liburu haundi bat orduko gaztetxoeren habitu-jazteak eta zin-hitza egiteak dakartzana. Baina ez da azaltzen bertan gure Juan Antoniok habitua hartu zuen eta profesa egin zuen egunik ez hilabeterik. Halere, liburu horretan bertan paper solte batean, hau azaltzen da: “1722. Tomaron el hábito 8, de los que 7 profesaron el año siguiente, entre ellos Fr. Juan Antonio de Ubillos, hijo de Amassa Villabona, de 16 años de edad” (27). Gure Juan Antonio aipatzeak eta ez beste gainontzekoak, zerbait esan nahi du: Juan Antoniok geroago irabazi zuen ospea noski, bere buru argi eta azkarra zela eta. (Horregatik pentsatzekoa da hitz horiek askozaz geroago idatziak izan zirela). Eta hantxe ikusten dugu Arantzazun apaizgintzarako ikasketak egiten. Aurrena, Gramatika ikasi beharra izan ohi zuten, Aita Adrian Lizarralde Arantzazuko historilariak dioenez, gero Giza-zientziak, Logika, Filosofia eta Metafisika, Teologia eta Biblia, Eliz-Zuzenbidea eta Morala (28).

(25) SEBASTIAN INSAUSTI Villabona-Amasa, 93 or.

(26) Ib., 47 or.

(27) Archivo de Aránzazu, Secc. XXXV, Libro-Recepciones, Profesiones, Defunciones, Años 1753-1833.

(28) ADRIAN DE LIZARRALDE *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*, Editorial “Aránzazu”, 1950, Cap. X, 220 or.

Arantzazu XVIII. mendean bere gailurrik gorenean ikusten dugu. Aurreko mendean, ehun urte lehenago hain zuzen, 1622. urtean jasandako kiskaltze ikaragarriaren ondorio negargarriak gainditu ditu. Eliza eta komentua etengabe berritzen eta apaintzen ari izan dira fraideak binbitartean. Eta XVIII. mendean bertan ere berritze haundiagoak eta apainagoak egingo dira. Hurrengo mendeko gainbera izugarria heldu arte, 1834. urtean, lehenengo karlistadan eta gipuzkoar militar baten eskutik —Anselmo Iñurriagarro bera, antzuolarra—, baina Errodil jeneralaren menpeko zena, eta honen aginduz erreketeta bete zuena. Juan Antonio Ubillosen garaian inork ez zukeen usteko noski handik urte batzutara Arantzazun gertatuko zena.

Eta han dabil Juan Antonio gaztetxoa urte haietan ikasi eta ikasi. Profesa egin eta handik sei urtetara, 1729. urtean, Bilboko San Frantzisko komentua haundian ospaturiko Batzarrean, sermoiak egiteko gai izendatzen dute eta Morala eta Eliz-Zuzenbidea ikastera behartua dagoela adierazten, horretarako izendatuak dauden lau komentu hauetako batean: Gasteiz, Bilbo, Bermio eta Miranda de Ebro. Ez dakigu zein komentutan ikasi zuen (29). Eta handik bi urtetara, 1731.ean, sermolari bezala izendatua azaltzen da eta, hogeita hamar urte betez geroztik, aitorle ere bai (30). 1734. urtean Gasteizko San Frantzisko komentua haundian ospaturiko Probintziako Batzarrean Alkalako ikasle izendatzen dute; hogeita zazpi urte zituelarik, nahiko gazterik bada (31). Alcalá de Henares-ko Unibertsitatea (Pedro eta Paulo apostoluen izenean eraikia), Sevilla-koa (hau Buenabentura donearen izenean jaso) eta Salamankakoak bezala (nahiz eta azkenengo hau famatuena izan) garai haietan oso izen haundikoa zen. Eta argienak eta burutsuenak ziren fraide gazteak bertara bidaliak izan ohi ziren gehienik, nahiz eta baten batzuk Sevilla-ra ere bai. Aspalidian hildako gure fraideen aipamenetan oso ohituak gaude hau entzuten: “ex-colegial de Alcalá”. Alkalako Unibertsitateko ikasle ohia, alegia. Noiz joan ote zen Alkalara eta noiz itzuli? Ez dago gauza hain garbi. 1735. urtean behintzat, hau da, Alkalako ikasle izendatu eta hurrengo urtean, Santandere-ko komentuan egindako Batzarrean, Tolosako San Frantzisko komentuko ikasleen Maisu izendatua azaltzen da (32). Tolosako komentua

(29) “Tablas Capitulares de la Provincia de Cantabria”, tomo I, fol. 255. “Archivo Provincial de Cantabria”. Libros de Patentes. L. III, p. 518 eta L. IV, fol. 66 v.

(30) “Tablas Capitulares...”, tomo II, fol. 271.

(31) “Tablas Capitulares...”, tomo II, fol. 303. “Archivo Provincial de Cantabria”. L. III, p. 564 eta L. IV, fol. 91.

(32) “Tablas Capitulares...”, tomo II, fol. 314. “Archivo Provincial...”. L. III, p. 585. L. IV, fol. 100. L. X, fol. 47 v.

1587. urtean eraikia dugu, Tolosa bertako seme zen Pedro de Mendioroz jaunaren eskuzabaltasunari esker jasoa, eta Gipuzkoako komentuen artean ospetsuenetakoa zen, bigarrena, Arantzazukoaren hurrengoa, eta Arantzazukoa bezala Filosofia eta Teologia ikastetxea. 1611. urtean, Isabel de Idiakez andereak (bilbotar Juan Martínez de Recalde Almirante famatuaren alarguna bera) "San José" zeritzon ikastetxea sortua zuen bertan, ez fraideentzat bakarrik, baita sekularrentzat ere. Eta ordutik aurrera, are eta ospe haundiagoa lortu zuen Tolosako komentuak. Bertako ikasleen Maisu izendatua izan da, bada, Juan Antonio Ubillos 1735. urtean. Eta handik bi urtetara, 1737.ean, Gasteizko San Frantzisko komentuan ospaturiko Batzarrean Tolosa bertako Teologia irakasle hirugarrena izendatzen dute. Irakasleen artean ere mailak bai bait zituzten: lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena (33).

Baina hurrengo urtean, 1738.ean, beste aldaketa izango du gure Juan Antoniok: Gasteizko komentuan bilduriko Kapituluan (hala deritzote gure arteko Batzarreei) La Bastidako komentuko "Artes" edo Filosofia irakasle izendatzen dute, eta handik bi urtetara ere beste horrenbeste (34). La Bastida, Arabako Errioxan aurkitzen da, Biasteritik hogeit bat kilometrotara. Ardoa ugari ematen den herria da eta eliza eder-ikusgarria duena. Garai haietan, herritik at, frantziskotar komentua ere bazuen, entzute haundikoa, besteen artean frantziskotar gazte ikasleen kabia zena. Komentu hau lehengo mendean galdu genuen eta ez da berriro eraiki.

1742. urtera heldu gara. Urterik urte, Juan Antonio Ubillosen urratsak jarraitzen goaz. Urte horretan Arantzazuko Santutegian ospatutako Batzarrean ez da agertzen Ubillosen aipamenik. Eta hementxe jarri behar dugula uste dut haren Alkalako Unibertsitateko egonaldia. Gure Aita Anjel Uribe gernikar historilariak, "Colegio y Colegiales de San Pedro y San Pablo de Alcalá" liburuxkan dioenez, urte hartako Martxoaren 23.an Alkalako ikasle bezala azaltzen da Juan Antonio. Hurrengo urtean gaisotu egin zen, eta hala jarraitu Apirilaren 2.etik 16.era bitartean, eta ekainaren 8tik 10a bitartean. Eta urte hartako azkenengo hiruhilabetetan utzi zion Alkalako Unibertsitatean ikasteari (35). Datu zehatzak dira. Baina hona hemen galdera: 1734. urtean, Alkalako ikasle izendatua izan zenez geroztik, ez al zen Alkalan azaldu? Hala dirudi, bederatzi urte horietan zehar Tolosan eta La Bastidan ikusten bait dugu.

(33) "Tablas Capitulares...", tomo II, fol. 330. "Archivo Provincial...". L. III, p. 617. L. IV, fol. 111. L. X, fol. 64.

(34) "Tablas Capitulares...", tomo II, fol. 341 eta 357. "Archivo Provincial...". L. IV, fols. 120 eta 129 v. L. X, fols. 77 eta 90.

(35) Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak gutun baten bidez bidalitako datuak dira.

1743. urtean, Gasteizko San Frantzisko komentuan bildutako Batza-rean azaltzen denez, Gipuzkoako Teologia irakasle izendatzen da, baina zein komentutan egon behar zuen aipatu gabe. Ikusi dugunez, urte horretan egon zen gaiso Alkalan. Probintziako Batzarrea urte horretako Maiatzaren 11an ospatu zen (36). Hurrengo urtean, Arantzazun egindako Bileran hauxe agertzen da: Alkizalete Aita jubilatatu ondoren, Aita Ubillos izendatzen da Arantzazuko Teologia irakasle bezala. Eta joan ere, Arantzazura joaten da 1745. urteko Urtarrilaren 20an. Hurrengo urtean —1746. can gaude—, Arantzazun Teologiako Dogma-Moral eta Eliz-Zuzenbide bigarren irakasle bezala azaltzen da, Gasteizko San Frantzisko komentuan egindako Probintziako Kapitulan (37). Eta hurrengo urtean, Bilboko San Frantzisko komentuan ospaturiko Bileran berdin (38). Beste horrenbeste, Gasteizko San Frantzisko komentuan 1749. urtean, eta Santanderren bi urte geroago egindako Batzarretan ere (39). Sei urte bete ditu Arantzazun irakasle bezala.

Baina 1751. urtean, Aita Frantzisko de Elejondo jubilatatu ondoren, gure Aita Ubillos Tolosara bidaltzen dute berriro Teologia irakasle bezala (40). Eta Tolosan jarraitzen du, aurrena bigarren irakasle bezala eta gero lehenengoa bezala, hurrengo urteetan, behin eta berriz Gasteizen eta Arantzazun, 1752, 1753, 1755, eta 1756. urteetan izendatua. Eta 1756. urtean, gainera, Tolosako komentuko Nagusi izendatzen dute (41).

Azkenik, 1757. urteko Urtarrilaren 20an, “Lector Jubilado” edo “Irakasle Jubilatua” izendatzen dute (42). Aita Anjel Uribek dioenez, irakasleak Unibertsitateetatik irten eta 12 urtez-edo irakasten egon ondoren,

(36) “Tablas Capitulares...”, tomo II, fol. 399. “Archivo Provincial...”. L. IV, fol. 156. L. X, fol. 123.

(37) “Tablas Capitulares...”, tomo II, fol. 417. “Archivo Provincial...”. L. IV, fol. 183 v. L. X, fol. 143.

(38) “Tablas Capitulares...”, tomo II, fol. 433. “Archivo Provincial...”. L. IV, fol. 203 v. L. X, fol. 159.

(39) “Tablas Capitulares...”, tomo II, fols. 449 eta 466. “Archivo Provincial...”. L. X, fols. 177 eta 195. L. XII, fols. 1 eta 26 v.

(40) “Catálogo de Patentes...”, tomo II, fol. 182. “Archivo Provincial...”. L. XII, Pat. 10, fol. 26 v. -31.

(41) “Tablas Capitulares...”, tomo II, fols. 490, 506; tomo III, fols. 521, 537. “Archivo Provincial...”. L. V, fols. 1, 20, 33, 52. L. X, fols. 209 v., 225, 238, 251. L. XII, fols. 44, 269 v., 87 v., 102.

(42) “Catálogo de Patentes de la Provincia de Cantabria”, tomo II, fol. 194, Pat. 407.

irabazten omen zuten titulu hori, bestaldetik oso estimatua zen titulua eta horrekin batera zenbait eskubide eta pribilegio zituen. Aita Ubillos 1743. urtean Alkalako Unibertsitatik irten eta handik hamalau urtetara izendatzen dute “Irakasle Jubilatu”.

Hurrengo urtean, oraindik goragoko pausu berria ematen du: Gasteizen ospatutako Kapituluaren Kantabria Probintziako “Custodio” edo Probintzialaren hurrengo izendatzen dute, Uztailaren 15ean. Eta hurrengo urtean Arantzazun egindako Bileran ere beste horrenbeste azaltzen da (43). Gasteizen bildutako hurrengo Batzarrean uzten du edo utzierazten diote kargu hori, Maiatzaren 30.ean. Kargu haundiak eta ardura haundi-koak izan ditu Aita Ubillosek gure frantziskotar Probintzian.

Aita Ubillos filosofari eta idazle

Ez zen, ez, nolanahikoa gure Aita Ubillos. Baizik eta burutsua eta oso jakintsua. Gizon jakintsuen jakinduria adierazteko agerpiderik nabarmena, beraiek idatzirik liburuak omen dira. Horietan azaltzen omen dute argien beren adimenaren sakona. Aita Ubillosek behintzat bai. Probintzian izan zituen kargu haundiak aipatuta utzita, orain bere liburuak aipatu beharra dago. Eta gero aipatuko dugun euskal liburua ez ezik, beste hiru liburu baditu idatzirik eta argitaraturik, latinez idatzita gainera eta filosofia gai sakonez hornituta. Ez bait da gauza erraza halako gai ilun eta sakonetan murgilduta ibiltzea eta gai horiek latinez idaztea (euskaraz zailago noski!). Hiru liburu esan dut, eta halaxe da, baina beharbada, liburu bakarra esan beharko genuke, hiru tomotan banatua; eta filosofia gai sakonei buruzko liburua, gainera, lehen esan dugunez.

Lehenengo tomoak honela du titulua (luzea da, baina osorik aipatzek pena merezi duela deritzot):

“Philosophia - rationalis - alm. Provinciae Cantabriae, - regularis observantiae - Seraph. P. N. Francisci - jussu edita - et - ad mentem Venerabilis Subtilis et Mariani - Doctoris Scoti, pro studiosa juventute - accomodata - authoribus - R. P. Fr. Francisco de Elejondo olim - in Hispalensi Collegio Doct. Seraph. D. Bonaventurae alumno, - Lect. Jubilato, Ex-deffinitore Provinciae, et in Sacello - Deiparae Dominae, et Inclitae Patronae nostrae de - Aranzazu nunc secundo Guardiano, - et -P.Fr. Joanne Antonio de Ubillos, quondam - in Majori SS. Apostolorum Petri et Pauli Complutensi Musaeo - Collega, et in Conventu S. P. N. Francisci de Tolosa - Sacrae Theologiae Lectore Primo. - Tomus primus

(43) “Tablas Capitulares...”, tomo III, fols. 543 eta 559. “Archivo Provincial...”. L. V, fols. 74 eta 92. L. VI, fols. 10 eta 20 v. L. XII, fols. 117 v. eta 130 v.

Summulas et Logicam exponens. - Sancti Sebastiani: - Ex Officina Laurentii Josephi Riesgo et Montero, Typographi Provinciae Guipuzcuae et ejusdem civitatis. Ano MDCCLV”

Lehenengo tomo honek 509 orrialde ditu. Eta, ikusi dugunez, bere irakasle-lagun ospetsu zen Aita Frantzisko de Elejondorekin batera idatzia dago. Beste biak, berriz, Ubillos berak bakarrik osatuak. Aita Frantzisko de Elejondo hori arrasatearra izan genuen. Ez dakigu noiz jaio zen. Baina bai gaztetxo zelarik Arantzazun frantziskotar habitua jantzi zuela, Aita Ubillosek baino urtebete lehenago hain zuzen. Lehen aipatu dugu Arantzazun gordetzen dela orduko gaztetxoen habitu-jazteak eta zin-hitza egiteak dakartzan liburukote bat. Bertan aipaturiko paper solteak honela dio: “1721. Por lo que este año de 21 profesaron 7: entre ellos Fr. Juan Joseph de Palomo, hijo de San Sebastián. Tomaron el hábito 3: entre ellos *Fr. Francisco de Elejondo*, de Mondragón, que profesó el siguiente (año)”. Ez bait zen edozein horrela liburu haundi batean bereziki aipatua izateko. Eta hala erakutsi zuen geroago noski: gure Probintzian oso ospetsua izan zen: Sevillako Buenabentura Donearen Unibertsitatean ikasten ibilitakoa, eta gero Irakasle izana, Irakasle Jubilatua, Arantzazuko Santutegiko Aita Nagusia, Probintziako Definidore edo Aholkularia, eta azkenik Aita Probintziala ere bai 1755-1756 urteetan. Ikusi ahal izan dugunez, lehenengo tomo hau Donostian argitaratua izan zen, 1755. urtean, Lorenzo Jose Riego eta Monteroren moldiztegian. Arantzazuko Ama Birjinari eskainia dago, eta “Summula” eta Logika gaiak azaltzen ditu. “Summula” horretan giza-adimenaren lehenengo ekintza-lanak aipatzen ditu: silogismoak, proposamenak eta abar. Badago Arantzazuko Artxibategian paper-sail bat liburu honen baimenak eta masiaketak eta argitaratzeko kontuak-eta biltzen dituen, eskuz idatzia noski (44). Argitaratzeko baimenak-eta liburuan bertan ere azaltzen dira.

Bigarren tomoaren titulua: “Philosophia - transnaturalis - et - naturalis - alm. Provinciae Cantabriae, - regularis Observantiae - Seraph. P. N. Francisci - jussu edita, - et - ad mentem Venerabilis Subtilis, et Mariani - Doctoris Scoti, pro studiosa juventute - accommodata. - Authore - P. Fr. Joanne Antonio de Ubillos, quondam - in Majori SS. Apostolorum Petri, et Pauli Complutensi - Musaeo Collega, jam vero Lectore Jubilato. - Tomus secundus - Metaphisicam, et Generalem Physicam - complectens. - Sancti Sebastiani: - Ex Officina Laurentii Josephi Riesgo et Montero, Typographi Provinciae Guipuzcuae, et ejusdem Civitatis. - Anno MDCCLVIII”.

(44) Arantzazuko Artxibategia: 1755. Aprobación, licencias, Corrección, Tasa y Ajuste para la impresión del tomo 1.º intitulado “Philosophia Rationalis”.

718 orrialdetako liburu mardula da. Frantziako Tolosako Gotzain izan zen Luis Santu frantziskotarrari eskainia. Lehenengo tomoaren mol-diztegi berean argitaratua, 1758. urtean. Baimenak eta beste, aurreko liburuan bezala agertzen dira. Metafisika eta Fisika Orokorreko gaiak azaltzen ditu: izakia, materia eta abar.

Hirugarren tomoak, eta guretzat interesgarrienak, titulu hau du:

“Philosophia - naturalis, - Pars secunda Physicae, - seu - Physica Particularis, - quae de corporibus inanimatis disserit et Pars tertia - Physicae - quae - de corporibus animatis - agit - almae Provinciae Cantabriae - regularis Observantiae Seraph. P. N. Francisci - jusu edita, - et - ad mentem Venerabilis, Subtilis, - et Mariani Doctoris Scoti, - pro studiosa juventute accomodata - Authore - P. Fr. Joanne Antonio de Ubillos, - quondam in Majori SS. Apostolorum Petri et - Pauli Complutensi Collegio Alumno, - jam vero Lectore Jubilato. - Tomus Tertius. - Secundam, et Tertiam Physicae - Partem continens. - Victoriae: Ex Officina Thomae de Robles et Navarro, Typographi Nobilissimae Provin-ciae de Alava.”

536 orrialde ditu. Liburu mardula beraz hau ere. Gonzagako Luis Santuari eskainia. Gasteizen izan zen argitaratua, Tomas de Robles eta Navarroren moldiztegi, tamalez urterik ez dakarrelarik. Fisikaren bigar-ren eta hirugarren zatiak ikertzen ditu: munduaren sorrera eta azkena, Ptolomeo eta Copernicoren sistemak, ortzia, eguzki, ilargi eta izarrekin, argia, gorputza, bizidunak eta bizigabeak, haizea, ura eta lurra, eta abar bigarren zatian; eta hirugarrenean arima eta arimaren gaitasunak eta ahalmenak, adimena eta nahimena, eta abar. Gai ugari beraz eta denak sakonki aztertuak.

Duns Scoto frantziskotar filosofo ospetsuaren erakusaldien arabera egina dago Aita Ubillosen Filosofia liburua, berberak hiru tomoetako titulutan dioenez: “ad mentem Venerabilis, Subtilis et Mariani Doctoris Scoti”. Izan ere, beti izan dugu frantziskotarrok Scoto gure ikasteetako argi, izar eta gidari. Eta ez uste izan Ubillosen liburua gure komentuetako liburutegien zokondoetan ezkatutua geratu zenik. Bai zera! Gure Probintziako ikasle gazteen liburua izan zen urte askotan zehar eta, beraz, bere orrialdeen jakinduri iturritik edan eta xurgatu zuten gure gazteek Filosofia. Eta hori hala dela egiztatzeko, Zarauzko gure komentu-ko Liburutegia arakatzea besterik ez dago; bertan bait dago liburu horren ale-mordo bat, ale bakoitzean zein ikaslek erabiltzen zuen jartzen duelarik.

Liburu hau ongi aztertu duen gure Aita Felix Alluntisek (Deustuko Unibertsitatean Filosofia irakasle izana bera) esanari bagagozkio, Aita Ubillosek, Scotori jarraitzen badio ere, ez ditu baztertu eta gutxiesten beste aintzinako filosofoak, batez ere Aristotelesen Filosofia erroitik eza-gutzen zuela eta askotan onartzen zuela ikusten da. Eta horretarako, ez

gutxitan, Platonen eta Buenabentura deunaren esanak alde batera uzten zituen (45).

Hona Ubillosen jakinduriari buruz horrek berak dioena: “Por lo demás, es asombrosa la erudición científica que despliega Ubillos. Diserta con la misma agilidad mental de la esencia de las estrellas y planetas y de su movimiento, influjo y eclipses, como de la esencia de la luz, de la generación de los vivientes y de su nutrición, del número, esencia y propiedades de los elementos, de los meteoros ígneos, aéreos y acuosos, del origen y figura del mundo, de las fuentes y de los ríos, de la mar, de los terremotos, de las fuerzas magnética y eléctrica, de la división de los vegetales, de las propiedades de algunas plantas en particular” (46).

Badirudi Filosofia liburu hauek ordaintzea nahiko kosta zitzaiela orduko gure Probintziako fraideei, Nagusiei bereziki noski. Hamar mila erreal kosta ziren lehenengo bi tomoak. Mateo de Aranburu Aita Probintzialak Donostiatik komentu guztiei zuzendutako gutun batean esaten denez, Arantzazuko Santutegia ez zen diru-kopuru hori ordaintzeko gauza. Eta orduan komentu bakoitzak hainbat Meza diruekin laguntzea erabakitzen da: Lau komentu haundiak, Gasteizkoak, Bilbokoak, Santanderekoak eta Arantzazukoak 200 Mezatako dirua eman behar dute urtean. La Bastida, Gasteizko Rekoleta komentuak (Bilbon eta Gasteizen bi komentu zeuden hiri bakoitzean: bata haundia zeritzana, bestea Rekoleta), Piedrola, Tolosa, Donostia, Zarautz, Castro Urdiales, Soto, Laredo, Bermeo, Urduña (liburu zaharretan “Horduña, *hatxez* azaltzen da) eta Bilboko San Mames (hauxe zen Bilboko Rekoleta) komentuek bakoitzak 150 Mezatako dirua. Eta Miranda de Ebro, La Puebla, Arrasate, Elgoibar, Sasiola, Reinosa, Medina de Pomar, Monte Hano, Poza, Frias eta Foruko komentuek 100 Mezatako dirua bakoitzak urtean. Gutun hori 1755. urtekoa da. Handik hiru urtetara, 1758.ean, Frantzisko Fernandez de Navamuel Probintzial berriak abisu berria bidaltzen die guztiei, batzuk oso atzeratuta dabilzala esanez eta lehenbaitlehen ordaintzeko eskatuz. Lehenengo eta bigarren tomoak argitaraturik daudela dio, eta hirugarrena prestatzen. Agiri honetan Juan Antonio Ubillos ere azaltzen da, Probintziako “Custodio” edo Probintzialaren hurrengo bezala izenpetzen (47).

Hirugarren tomoa guretzat interesgarriena dela esan dugu. Eta hala xe da. Badu guretzat oso interesgarri den zerbait eta hauxe da: Gonzagako Luis Santuari zuzenduriko eskaintzaren ondoren, hitzaurre luze bat

(45) FR. FELIX ALLUNTIS *De la Filosofía del P. J. A. Ubillos*, “Ensayo”, año VI, Sept. Dic. 1935, Aránzazu, 158-165 or.

(46) Ib., 162 or.

(47) “Libro de Patentes”, n.º 12, Pat. 34 bis, fols. 96 v eta 97, fols. 117-119.

dakarrela, sei orrialdetakoa, nori eta Peñaflořidako Kontea zen Xabier Maria Munibe eta Idiakez jaun ahaltsuari eskainia, alajaina! Denok dakigu nor izan zen Peñaflořidako Konte hori, euskal idazlea, *El borracho burlado* operaren egilea, *Gavon-Sariac* liburuxka ere ustez idatzi zuena, eta batez ere Euskal Herriko Lagun Elkartearen sortzailea. Ubillosek Peñaflořidako Konteari titulu hauek ematen dizkio: Bizkaiko Munibe jauregiaren eta beste etxadien jabea, eta Gipuzkoan Itxesaga eta Insausti etheen jabea, Bizkaiko Berriatuko Parrokiako Zaindaria, eta abar. Baina gai honezaz zertxobait luzatzeak pena merezi duelakoan gaude.

“Azkoitiako Zalduntxoekin” eta harremanak

Jakina da Menendez y Pelayo Kantabriako jakitsuak *Historia de los Heterodoxos Españoles* bere liburuan Azkoitiako Zalduntxoekin aurka esaten duena. Baina aurki atera zitzaion erantzulea. Eta nor izango eta Julio Urkixo eta Ibarra jaun prestua hain zuzen, euskal letrek hainbat eta hainbat zor dioten jauna bera, Euskaltzaindikoa eta RIEV aldizkari eza-gunaren sortzaile eta jabea urte askotan zehar. Badu honek liburu bat Donostian, 1925. urtean argitaratua, *Menéndez y Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia* izenekoa. Liburu horretan, bada, hiru aldiz aipatzen du gure Juan Antonio Ubillozen izena. Hiru aipamenak hona ekartzeari eta hemen aipatzeari ongi deritzot.

Lehenengo aipamena 14. orrialdean dator, eta honela dio hitzez hitz: “Se ha pretendido, en nuestros días, por gentes enemigas de la investigación, aficionadas a los juicios hechos, estereotipados, que diría Menéndez Pelayo, que tanto el uno como el otro le miraban con recelo (Peñaflořidako Konteak elizgizon sekularrekin eta fraileekin zituen harremanaz ari da). Si esto era así, ¿cómo explicar que un hijo esclarecido de la Orden de San Francisco, a quien sus estudios filosóficos y teológicos no impedían, por cierto, cultivar con fortuna la literatura vasca, pudiera ensalzar públicamente al conde en una obra publicada con todas las licencias eclesiásticas necesarias? Si Peñaflořida hubiera sido en concepto del clero de su tiempo un enemigo de la Iglesia, ¿hubiera sido posible que *Fr. Juan Antonio de Ubillos* (azpimarratzea geurea da) le dedicara el tomo III de su *Philosophia naturalis*? Pues así lo hizo con autorización de su Orden, concedida por el Comisario General Delegado Fr. Antonio de Lara (en Zaragoza, el 15 de Septiembre de 1762) y con aprobación de Luis de Vitoria y Fr. Antonio Varron, profesores ambos de Teología (Vitoria, 9 de Octubre de 1762). Por si esto no fuera suficiente, el libro lleva además licencia para imprimir, dada por el Obispo de Calahorra y la Calzada el mismo año de 1762”. Eta azpian oharra dakar, zera dioelarik: “Fue autor de *Christau Doctriñ Berri-Ecarlea; Tolosan 1785*, cuyo vascuence califica el P. Zabala de bellissimo, en su *Noticia de las obras*

vascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larra-mendi. El original manuscrito del *Berri-Ecarlea* forma parte de mi Biblioteca vasca, aunque con título diferente, tachado". Eta gero berriro jarraitzen du: "Pero aún hay más, Fr. Juan Antonio de Ubillos no se contenta con ofrecer su obra en una dedicatoria usual, para salir del paso, sino que se hace el representante de toda la provincia cantábrica para ensalzar al fundador de la *Sociedad Vascongada*". Eta ondoren, latinetik gaztelar-tuta, Ubillosen hitzaurreko zatia dakar, honela dioena: "Esta seráfica provincia cantábrica, llevando siempre esculpidos en su corazón los numerosos y extraordinarios beneficios, con que tanto tú, oh ilustre conde, como tus antepasados la han enriquecido, viene hoy y yo en su nombre, no con intención de pagar esa deuda, lo que reconozco y confieso ante el mundo entero es una obra que supera todas nuestras fuerzas, sino para dar una pequeña muestra de gratitud, y poder de nuevo experimentar tu benevolencia; porque conozco perfectamente, que el favorecer, auxiliar y socorrer en sus necesidades a los hijos del seráfico Padre es tan natural en tí, que juzgas de poco valor todo lo que por ellos haces. Por lo tanto, no me ha sido posible escoger fuera de tí un intercesor, para hacer aceptable a San Luis Gonzaga y grata a los lectores esta obra, que sale de manos de quien carece de toda erudición" (48).

Bigarren aipamenak honela dio: "Por si alguien creyera todavía, a pesar de los textos citados, que no interpreto bien el pensamiento de Peñaflorida, voy a transcribir otros trozos de la dedicatoria de Fr. Antonio de Ubillos, defensor de las ideas filosóficas de Aristóteles, que no sólo reconoce la utilidad de los trabajos de los neotéricos prudentes, sino que invoca la autoridad del conde contra los enemigos de los peripatéticos. ¿Lo hubiera hecho, *en un libro provisto de todas las licencias necesarias*, si el caballerito de Azcoitia hubiera tenido fama de filósofo heterodoxo? Seguramente que no: y esto nos prueba, una vez más, la ligereza con que se ha juzgado a Peñaflorida". Eta ondoren, latinetik itzulita, beste esaldi-pilaren artean, hauxe dakar: "Contra todos esos ignorantes y murmuradores (Aristotelesen filosofiaren aurka zihardutenetaz ari da), te invoco como patrón, esclarecido conde; y lo hago para que recojas este libro y a su autor en los pliegues de tu respetada autoridad, como conviene a tu ilustre persona, y de que tan alto gozas, por cierto, ante todos. ¿Quién más a propósito que tú para esto, ya que tan pronto y dispuesto estás a las necesidades de todos los hermanos de la Seráfica Familia? En realidad nadie debe buscarte, puesto que tú mismo te

(48) JULIO DE URQUIJO E IBARRA *Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia*. San Sebastián. Imprenta de Martín y Mena, San Marcial 23. 1925. 14-15 or.

apresuras a buscar a quién colmar de beneficios. Felices reputo yo a los Franciscanos, cuando no tienen nada y poseen todo, y a quienes impulsa y dice su Seráfico Padre: que vayan a buscar limosna con confianza, y que jamás se avergüencen de ello, puesto que Jesucristo Nuestro Señor se hizo, por nosotros, pobre en este mundo. ¿A dónde podrán recurrir los Franciscanos con mayor esperanza y sin rubor alguno, sino a tí, que, con singular caridad les muestras tus entrañas de misericordia? (49).

Hirugarren aipamenean honela mintzatzen da Urkixo jauna: “Por si aún quedara la menor duda acerca de este punto (Menendez Pelayoren aurka ari da beti), voy a revelar un nuevo aspecto de la vida del fundador de la *Real Sociedad Vascongada*, que no dejará de causar estupor a quien siga aferrado al juicio del polígrafo santanderino. Era tal el prestigio de Peñaflorida, según hemos visto en la dedicatoria de Fr. Antonio de Ubillos, que las gentes acudían a él con mil motivos diferentes, y el conde, solícito, nunca permanecía sordo al llamamiento”. Eta, ondoren, Peñaflorida Kontearen gutun bat dakar, andre bati zuzendua, honek monja sartzeari buruz egin zion galderari erantzunez (50).

Bada Urkixo jaunaren liburu horretan beste oharra, frantziskotarrek (Ubillos barne zelarik noski) Peñafloridako Kontearekin zuten harreman estua argi eta garbi jartzen duena. Hauxe dio ohar horretan: “*Antonio María de Zabala y Aguirre*, en su obra inédita *Libro de Curiosidades de la Casa Solar de Churrucaenea y sus Agregadas* (1781): “Los Religiosos de la Orden de San Francisco, que por precisión vienen a esta villa de Azcoitia, como son los predicadores y limosneros de los conventos de Sasiola y Elgoibar, se hospedan en esta casa de Churrucaenea por devoción de ella a esta Religión, con la que ai Carta general de Hermandad. Antes solían aposentarse en casa del Conde de Peñaflorida, y por su ausencia de esta villa año de 1767, siguieron no obstante en alojarse en ella hasta la primavera del año 1768 en que levantó la casa...” (51).

Argi dago Peñafloridako Konteak eta frantziskotarrek elkar ongi eza-gutzen eta maite zutela. Baina orain galdera bat: Juan Antonio Ubillos Euskal Herriko Lagunen Elkartekoa izan ote zen? Litekeena da. Urkixok bere liburuan zera dio: “Y así pudo figurar, en las fiestas de miembros de la *Bascongada*, el nombre del jesuita Belot, profesor de matemáticas, junto a los nombres de religiosos *franciscanos* y agustinos” (52). Eta

(49) Ib., 20-23 or.

(50) Ib., 81 or.

(51) Ib., 15 or., azpiko oharra.

(52) Ib., 67 or.

geroago: “Esto ocurrió (hileta batean hitzaldia egiteaz ari da), por ejemplo, a la muerte del citado don Ambrosio de Meabe, encargándose de cantar sus virtudes y generosidad el R. P. Fray Joaquín de Soparda, Lector de Teología en el convento de San Francisco de la villa de Bilbao” (53). Hitzaldi hau 1782.go Irailaren 26an eman zen Bergaran, eta gero Gasteizen argitaratu zuten. Geroago oraindik hau dakar: “Reglamento para los Alumnos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País”: para esto último (*para adquirir rudimentos de la Religión Católica e Historia Sagrada*) no necesitarán más que el estar impuestos en el Catecismo Histórico de el Abate Fleury” (54). Hain zuzen, Fleury abatearen liburu hau izan zen Ubillosek euskaratu eta moldatu zuen Kristau Dotrina. Urkixo jaunak Euskal Herriko Lagunen Elkarteko izen zerrenda bat ere badakar, eta lehen aipaturiko Aita Joakin de Loparda frantziskotar hori azaltzen da, baina gure Juan Antonio Ubillos ez. Nahiko harrigarria da hauxe, baino halere Elkarre horretakoa izan zelakoan gaude. Proba zehatzik ez izatea, horra!

Aita Ubillosek, Filosofiako aipaturiko hiru liburuak ez ezik, euskal liburu bat ere argitara eman zuten, eta horixe da guri hain zuzen gehien ajola zaiguna: *Cristau doctriñ berri-ecarlea* du izena liburu honek. Baina gai honezaz Aita Luis Villasante mintzo behar zaigu, eta berehala utziko diot nik hitza. Ez, ordea, garai hartako hiru euskaldun jator eta ospetsu aipatu gabe. Eta lehenengoa, Aita Manuel Larramendi. Aita Ubillos hamazortzigarren mende bete-betean bizi izan zen. Aldi hartakoa dugu Aita Larramendi ere. Andoainen, 1690. urtean jaio bazen ere, hamazortzigarren mendeko gizona dugu oso-osorik. Ubillos eta Larramendik elkar ezagutu ote zuten? Hamazazpi urtez zaharragoa zen Larramendi. Eta Ubillos baino hamahiru urte lehenago hil zen. Bata andoaindarra eta bestea Amasakoa izaki, eta biak euskalzaleak eta euskal idazleak, bazuten noski elkar ezagutzeko eta elkarren artean harremanak izateko nahiko erraztasun. Biak ziren gainera jakintsuak, biak Filosofia eta Teologia irakasle: bata —Aita Larramendi— Valladoliden eta gero Salamancako Unibertsitatean, bestea —Ubillos— gure artean. Eta badakigu jakintsuak izanik, errazago elkar zitezkeela, Ubillos Alcala de Henares-en bere ikasketak egiten ari zen bitartean, Larramendi Valladoliden edo beharbada Salamancan egongo zen irakasten, gazterik izendatu bait zuten Maisu. Ez al zuten, bada, elkar ezagutuko eta elkarren artean harremanak izango? Baietz erantzutea bidezko dela deritzot.

Bigarrena, Aita Fermin Franzisko de Lasuen dugu. Frantziskotar Misiolari famatua. Gasteizen jaio zen 1736. urteko Uztailaren 7an, San

(53) Ib., 69-70 or.

(54) Ib., 74 or.

Fermin egunez. Horregatik eta familiak San Frantziskori zion jaiaragatik jarri zizkioten bi izenak: Fermin Frantzisko. Gaztetxo zelarik, 15. urte zituela, hartu zuen frantziskotar habitua Gasteizen bertan, 1751. urteko Martxoaren 19an. Eta handik urtebetera, 1752. urteko Uztailaren 7an egin zuen profesa. 1752. urtetik 1759.era arte, Arantzazuko Santutegian ikusten dugu Filosofia eta Teologia ikasten. Azkenengo urte horretan abiatzen da Ameriketara Misiolari, Aita Domingo de Legarra Arantzazuko Nagusiak agiria eman eta izenpetu ondoren. Bi urte lehenago uzten ditu Aita Ubillosek bere Filosofia eta Teologia eskolak eta 1759. urtean Probintziako "Custodio" edo Probintzialaren hurrengo dugu. Nahi eta nahi ez elkar ezagutu behar, bada, bi fraide famatuek. Aita Lasuen Ameriketara oso ospetsua izango zen Kalifornia aldean. Aita Junipero Serrarekin lan egingo du —Junipero Serra hori, Mallorcako semea, doatsu izendatu berria dugu— eta hura hil ondoren Kaliforniako Misioetako Nagusi izendatuko dute, 1785. urtean. Ameriketako Misiolarien artean osperik haundienetakoa duen fraidea dugu Aita Lasuen. 1803. urteko Uztailaren 26an hil zen Monterrey deritzon hirian (55).

Eta hirugarrena, Julian Lizardi, doatsua, Misiolari jesulaguna dugu. Asteasun jaio zen, 1696. urteko Azaroaren 30ean. 1713. urtean sartu zen Jesusen lagundian. Santiagoko ikastetxean egin zituen bere ikasketak. Eta 1717. urtean, 21 urte besterik ez zituela, abiatzen da Buenos Aires-era Misiolari. Argentinako Cordoba hirian jarraituko ditu bere ikasketak eta bertan apaiz egingo 1721. urtean. Cordoban eta Buenos Airesen ariko da lanean jo ta ke. Geroago, Paraguayra joango zaigu, eta azkenik Bolibiara, "txiriguano" deritzoten indioen artean ebanjelizatze lanetan ihardutera. Bolibiako Tarija hiriko Misioaren zuzendari eta nagusi zela, eta Meza ematen ari zela, atxilotuko dute indioek eta preso hartu, 1735. urteko maiatzaren 16an. Eta hurrengo egunean lantzaz josita erahil. Aita Julian Lizardi asteasuarra, martiri dugu, bada harrez geroztik (56). 1735. urte horretan gure Juan Antonio Ubillos Tolosako fraide gazteen maisu izendatu berria da. Horra, bada, nola lotzen diren fraideen bizitzak eta gertaerak.

Aita Ubillosen azken urteak

Aita Ubillosek bere azkenengo urteak Arantzazun eman zituelakoan gaude. Han aurkitzen dugu behintzat 1766. urteaz geroztik. Lehen aipatu dugu Arantzazuko Artxibategian aurkitzen den liburu lodikote bat, habi-

(55) ARANTZAZU aldizkaria, 1987 Martxo, 30 or.; *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, vol. XXIII, *Landara-Lecu*, 442-443 or.

(56) *Enciclopedia General...*, vol. XXV, *Libano-Llavo*, 192-193 or.

tu-janzte eta zin hitz-egite agiriak biltzen dituen (57). Urte horretako Urriaren 28tik hasita, agiri guzti horietan Ubillosen sinadura ia etengabe azaltzen da. Eta Aita Nagusiaren Aholkulari —gure artean “discreto” esan ohi duguna— bezala izenpetzen du, eta Aholkulari zaharrena denez, lehenengo sinadura berea da. 1773. urtetik hurrengo urteko Ekaina arte ez da bere sinadurarik azaltzen. 18 aldiz sinatzen du bitarte horretan. Eta gero berriz hasita, etengabe, 1786. urteko Irailaren 14a arte. Izen-deituraren azpian, beti “Lector Jubilado” ipintzen du. Letra argi eta ederra berea. Baina azkenengo urteetan, letra, argia izanik ere, dardaratsua agiri zaio. Hirurogeita hemeretzi urte zituen zegoeneko. Zahartzaro bete-betean zegoen. Nahiko lan egina zuen ordurarte bere bizitza luzean zehar eta atsedenean lasai egon zitekeen. Orduantxe izan zuten, izan ere, Gasteizko komentuan, Kantabria Probintziako Aita Nagusiek, hiru urtetik hiru urtetara izan ohi den Batzarrea, Nagusiak eta beste karguak izendatzeko. Eta ez da inondik ere agiri Batzarre horretan gure Aita Ubillos. Behar eta ongi merezi zuen atsedeen-aldia eman zioten noski.

Noiz hil zen Aita Ubillos? Aita Juan Jose Maiz zarauztarrak, eskuz idatziriko bere Historian, 1789. urteko Martxo aldera hil zela dio. Bada Arantzazuko Artxibategian *Libro de Defunciones* izeneko liburu zahar mardul bat, eskuz idatzia. Arantzazun hildako fraide guztien izenak dakartzatza, non ehortziak izan diren eta guzti, 1708. urtetik hasita, 1834. urtera arte. Jakina da 1834. urte horretan erre eta kiskali zutela liberalek Arantzazuko eliz-komentua. Erabat erre. Halere, 1855-56 urteetan fraile batek idazten duenez, hildakoen liburu hori zorionez salbatu omen zen, lur azpian edo Ama Birjinaren kaperaren azpian zegoelako. Ez omen zen sua haraino heldu. Fraideen kanposantuan egongo zen noski liburua, Ama Birjinaren aldare azpian egon bait da hilerria 1708. urtean eraikia izan zenez geroztik. Eta hain zuzen ere, tamalez, 1768. urtetik 1806. urtera, bederatzi-edo fraideen izenak hutsik agertzen dira. Liburu hori idatzi zuenak noizean behin zenbait ohar dakar: “El nombre de este difunto no pudo leerse por hallarse roto el papel”; “tampoco pudieron leerse estos dos por no haber más borrones y roturas del papel manchado con malísima tinta”; “otro que no se lee”. 1789. urtean azaltzen da hain zuzen horrelako bat. Hortxe ote zegoen gure Aita Juan Antonio Ubillosen izena? Daitekeena eta ziur aski badena, baina ezin inolaz ere ziur-ziur egiaztatu, hori ez bait da azken froga. Bestaldetik, harritzekoa da urte askotan zehar gure Probintziako kronikalari fin izandako Juan Ruiz de Larrinaga gernikar historigile prestuak dakarrena: “Juan Antonio de Ubillos, fallecido hacia 1780” (58). 1780. urte aldera beraz? Eta sei urte

(57) Archivo de Aránzazu, *Libro de Recepciones, Profesiones, Defunciones*, XII.

(58) *Necrologio de la Seráfica Provincia de Cantabria*.

geroago ikusten ditugun bere sinadurak non gelditzen dira? Horacio latindar poetak idatzitako harako esaldi hura gogoratu behar: “Quando-que bonus dormitat Homerus”... Dena den, Aita Juan Jose Maiz nahiko testigu fidagarria da eta Aita Juan Antonio Ubillos aurten berrehun urte hil zela ziur gaude.

Eta hauxe da guztia. Gehiegi luzatu naizela uste dut eta barkatu. Bukatzeko, eskerrik beroenak nire lan xume eta kaskar hau egiten lagundu didaten guztiei: Billabonako Udalari, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainari eta bereziki Zarauzko eta Arantzazuko nire fraide lagunei. Baita niri entzuteko arreta izan duzuen guztioi ere. Eta, baita ere, zorionik sutsuenak Amasa-Billabonako herriari, bere seme prestuari halako omenaldi ederra eskaini eta antolatu diolako. Eta zer esanik ez, Euskaltzaindiari. Aunitz esker eta besterik ez. Agur.

AITA UBILLOS-EN “CHRISTAU DOCTRIÑ BERRI-ECARLEA”. LIBURU HONEN BEREZITASUN BATZUEZ OHARRAK

(Ubillos-en II. mendeurreneko ospakizunean,
Billabonan, Maiatzak 27, 1989)

Fr. Luis Villasante

I

Aita Ubillos-en liburua, orokorki

Aita Ubillosek —edo Ubilloskoak, berak dioenez— bere euskal liburua 1785. urtean ateratzen du Tolosan, Francisco de la Lamaren inprimategian. Titulua honela jarri zion: *Christau doctriñ berri-ecarlea, christauari dagozcan eguia sinis-beharren berria dasacarrena*.

Gero (1) beste behin bir-argitaratu da liburu hau, 1909an Tolosan, Muguerzaren etxean. Jon Bilbao berak aipatzen du, baita ere, Aita Karmelo Iturriak idazle honi eskaini zion hitzaldia. Ondo gogoan dut. Berrogeitamarreko hamarkadan hitzaldi batzuk egin ohi ziren euskal literaturari buruz Donostian, Diputazioko liburutegian, eta han egin zuen hitzaldi hori Iturriak eta gero *Euzko Gogoa*-n agertu, 1956an; 76-96.

Eta azken urteotan Hordagok atera zuen, dakizuten bezala, liburu honen faksimilezko edizio berria.

Itzulpena da Ubillosen liburua, frantsesetik euskarara itzulia. Bi parte ditu: lehenbizikoa historia sakratua; bigarrena, dotrina edo katezismoa. Azkenean badu aurkibide, edo berak deitzen duen bezala, arkitegia, eta azken orrian hutsen zuzenbidea.

Luze-laburrez ez da handia: 224 orrialde ditu, baina formato ttipian, in 8.º, Vinsonek dioenez. Liburuaren erdia galde-erantzunez betea dago eta azalpenak aski murrizak edo laburrak dira. Ez dago, bada, lekuri arnasa handiko prosa bat moldatzeko.

(1) Eta Jon Bilbaok bere bibliografian ez badakar ere, esan behar da Azkuek 1897. urtean liburu honen argitarapen berria egin zuela Bilbon, idazkera gaurkotuz eta hatxeak kenduz.

Liburua itzulpena dela esan dugu. Jatorrizko autorearen badakigu zein den: M. Klaudio Fleury, bere liburua Parisen 1763an atera zuena (eta badirudi lehenago beste edizio batzuk ere egon zirela). Frantsesez honela du titulua liburua: *Catéchisme historique, contenant en abrégé l'Histoire Sainte et la Doctrine Chrétienne*.

Baina guri, jakina, Ubilloskoaren euskal liburua da hemen interesatzen zaiguna (2).

Eta hasteko, liburu honek badu hitzaurre bat motxa, baina guztiz salataria. Egile edo itzultzaileak duen kezka salatzen digun hitzaurrea, alegia. Honela dio:

“Hizcunz bacoitzac ditu, hitzeguiteco, berezco ta bere echeco hitzac: gure eusquerac beinzat bai. Onez ateronzeco gueienac besterenac ditue. Ezpere beguira Erderari, ta ecusico dezu gueienac latin-hizcuntzarenac dituala, ta oez gañeracoac, noc (3) daqui nongoac, ta norenac. Berezco hitz oec, hitzcribitzean, ta esatean, ezarri behar dira, bacoitzari dagocan toquian. Eusqueraz dorausquizunean, eusquerazco hitzac ez badarabiltzatzu, zure erausia hitzunea edo *barbarismoa* dala esango dizue; ta hitz bacoitza dagocan toquian sartzen ez-padezu, zure hitz-jarioari araututsa edo *Solecismoa* deituco dioe. Bost onelaco enzuten degu eusquerazco sermoietan! Alabaña, zori gaiztoan dacuscun bezala, euscaldun guichic necatu nai du eusquerazco hitzac billatzen, ta bacoitza bere toquian ipintzen.”

Hasteko, zati honetan bi hitz berri edo asmatuak aurkitzen ditugu, biac Aita Larramendiren hiztegitik hartuak: *hitzunea* edo *barbarismoa*, eta *araututsa* edo *solecismo*. Baita H letrarekin ere topo egiten dugu.

Gure egilearen ustetan, bada, hizkuntzak berezko dituen hitzak erabili behar dira, eta gainera, hitz bakoitza bere tokian jartzen jakin behar da. Euskarazko sermoietan bi lege hauek egunero hausten zirela badaki gure idazleak, eta bere aldetik makur horiek zuzendu nahiko ditu bere liburuan.

Eta segituan Laurentius a Villavicentio-ren pasarte bat aipatzen da latinez. Jaun honek dioena mamiz hau da: sermolariak herriko hizkuntza erabili behar duela, hori bai, baina pixka bat hautatua, garbitua eta

(2) Haatik, aipu hutsa bada ere, esan dezagun Ubillosek baduela beste libururik. Filosofia “ad mentem Venerabilis Subtilis et Mariani Doctoris Scoti” gure frantziskotar Probintziako eskoletan irakasteko testu-liburuak, hiru tomo, latinez: 1 *Philosophia rationalis*, 2 *Philosophia naturalis*, eta 3 *Philosophia transnaturalis*. Lehenbizikoan bi egile ageri dira: Elejondo eta Ubillos. Beste bietan Ubillos soilik.

(3) *Noc* jartzen du testuan, baina hitzen zuzenbidean *norc* dator zuzendua.

txukundua. Eta hori non ikasiko du? "Puritatem sermonis patrii non haurias, nisi vel ex familiari convictu eorum qui tersissime et nitidissime illum sonant, vel ex libris commendatissima Dialecto editis".

Esan nahi baita: Nondik ikasiko du eliz-hizlariak hizkuntza hautatu hori? Bi bide daude: lehena, garbi eta jator mintzo direnekin har-e-manak izanez; eta bigarrena, liburu ongi eginetatik ikasiz.

Hemen dugu, nik uste, idazleak bere buruari jarri dion lege eta helburua. Hitz garbi, jator eta ondo hautatuak erabili, eta gero, esaldi barruan, hitz bakoitza, berari dagokion tokian kokatu. Eta zinez, liburuan zehar ardura hori ezagun da.

Baina nik esango nuke Ubillosek arrangura edo kezka aparta jarri duela puntu jakin bat irakasten, hots, erlatibozko perpausak zuzen eta ortodoxoki muntatzen. Horrelakoen pilo galanta ageri da liburuan eta beti daude zuzen eratuak -n atzizkiaren bidez. Zeinismoaren arrastorik ez dut aurkitu liburuan. Jakina, gauza bat liburuan ez datorrela diodanean, mugaketa bat egin beharrean naiz: "nik aztertu dudan liburuaren zatian", zeren eta liburu osoa ez baitut aztertzerik izan.



Erlatibozko perpausez, ordea, ez goaz gehiago esatera, zeren eta beroien egitura gaur arras ezaguna baita.

Bada, ordea, beste zerbait, liburu honi, agian berez bezala eta asmo jakinik gabe, iturriari ura bezala, dariona, eta guretzat —neretzat behintzat— harrigarri eta ustegabeko gertatu dena. Harritzekoa da, alegia, nola egilea, gipuzkoar izanik, hainbeste gauzatan, gaurko gipuzkeratik urrun dabilen, eta binbitartean, hori eginez, guztion euskaratik oraingo gipuzkera baino hurbilago gelditzen den. Honek, duda gabe, problema bat planteatzen du. Baina goazen poliki, etapak erre gabe.

II

Adibidetegia

Gure txostenaren zati honetan, Aita Ubillosen idazkera zer moduzkoa den jakiteko, adibideak eskaintzen ditugu, zenbait punturi buruz dagozkien adibideak, baina, jakina, alde guztietako azterketa osoa egin gabe. Adibidea zein orrialdetan dagoen adierazi nahiz, zenbakia kortxete tartean jartzen dugu.

1. *Larramendigandik hartutako hitzak* —*hitz asmatuak edo halako itxura dutenak, alegia*—. Hitzaurrean bertan aurkitu ditugu bi: barbarismo esateko *hitzunea* [3], eta solezismo esateko *araututsa* [3]. Bai bata eta bai bestea ere *Diccionario Trilingüe* delakoan datoz, noski. Idoloak esateko *ce-aguiac* [35] darabil, baina beste hitza ere ipintzen duelarik, eta idolatria esateko, *ce-aguigurte* [38]. Hauek ere Larramendiren Hiztegian daude, baina Ubillosek hitzok aipatuagatik, besteak darabiltza parra-parra —idolo eta idolatria, noski—.

Ecarrai edo *ecarraizcoa* da beste hitz bat Ubillosek dakarrena eta Larramendigandik hartua dirudiena, hots: “Legue naturala edo Legue ecarraizcoa” [14]. Hitz hau Larramendiren Hiztegian badator, eta baita Larramendik Mendibururi egindako karta famatuan ere —*Jesusen Bihotza-ren Devocioa* liburuaren aitzinean agertutakoan—. Hitz herritarra ote da, ala asmatua? Hori da beste korapilo bat, beti askatzen erraz ez dena, zeren Larramendik denak nahasian jartzen baititu. Hitz hau, *ekarrai*, Iparraldeko Lapeyregan ere aurkitzen dugu (Ikus “Lekukoak” 5, 292. orriald.). Baina hori jakinik ere, ez gara dudatatik ateratzen, ezen Larramendik, dirudienez, Iparraldean ere izan du jarraitzailerik.

Gero hor dago *desneque* [26]. Hitz hau ere Larramendiren Hiztegian dator. Baina hemen ere hitz horren segidan “atsedetea edo descansua” dakar Ubillosek.

Guda ere hor da [39]. Hitz honi buruz Azkuek dio arrunta dela —(c) = común jartzen baitu—, baina ez du lekukotasunik bat ere aipatzen.

Ubillos bederen aipa zezakeen. Eta segituan hara zer gaineratzen duen Azkuek: "El vulgo hoy lo ignora. Variante de *gudu*". Bitxia benetan; aurrean esan du "común" dela eta jarraian "El vulgo lo ignora". *Gudu*, bai, hitz zaharra da, noski, baina *gudu* eta *gudak* ez dute gauza bera esan nahi. Hitz hau, *guda*, ez dut Larramendigan aurkitzen. Larramendirentzat *gera* hitz euskalduna da, eta euskaratik hartu du erdarak. Ez zuen, bada, zer ibili asmaketan. Nondik hartu du Ubillosek *guda*? Ez dakit. Baina hemen ere gure egileak *guda edo guerra* dakar, herriak ezagutzen duen hitza aldamenean ezarriz.

Hauek dira hitz asmatuen itxura duten eta Ubillosek gehienetan Larramendiren Hiztegitik hartu eta nik topatu ditudanak. Agian gehiago ere izango dira, baina edozein modutan ere ez dira bat ere ugariak, eta ikusi duzueenez, berak beti jartzen du aldamenean herriarentzat ezaguna edo arrunta dena.

2. *Hatxedun hitzak*. Hau da Ubillosen berezitasun bat, aski nabarmena: Hegoaldekoa izanik, H letra erabiltzen duela, alegia. Baina honetan ez da aurrelari: goragokoak aipatu gabe, XVIII. mendean badira hark baino lehenago letra hori erabili duten hiztegiak eta idazleak, adibidez Larramendi eta Mendiburu. Esan behar da, gainera, nik ikusi dudanez, ez duela maizegi erabiltzen eta inoiz agertzen dela hitz berbera orain H-kin eta gero H gabe. Bokalen arteko H gutitan erabiltzen du: *behar* [1], *ahal* [31], baina baita *al* [35] ere.

Gehienak hitz-hasierakoak dira: *hitz*, baina ez beti, ikus [49], *hitzcuntza* [3], *hitzcribitu* [3], *hondratu* [37], *hordu*, *horduan* [9], *horduraño* [19], *hume* [9], *humedi* [19]. Erakusleak H-kin erabiltzen ditu, baina ez beti: *Haec* eta *hoek* [46].

Gaur gipuzkeraz *beren* esan ohi dena, berak *heren* idazten du [37], baina batzutan H gabe ere bai. Beraz, ez dator beti bat.

Eta *Artu*, esate baterako, H gabe dakar [23]; baita *erri* ere, *oben* [50], *orregatic* [50], *ots* [17].

Labur: Ubillosek erabiltzen du, beraz, letra hau, baina ez gehiegi eta erabiltzean baditu zalantzak.

3. *Ubillosen hitz-ondaretik*. Sail honetan halako erakusketa bat eskaini nahi dugu. Zerbait berezi duten hitzen zerrenda, alegia, baina gaia agortzeko asmorik gabe.

Aguiz [47]

Aintzura [31]

Aisia [43]

Alcar, *alcartasun* [30], ez *elcar* gaurko gipuzkeran nagusi dena.

Andi, sekula ere ez *aundi*, gaurko gipuzkoarrek bezala.

Araguicortu [45]

Areagoac [14]

Atelecac [50]

Baña (perpau adbersatiboetan beti erabiltzen du *baña*, eta ez besterik; *baño*, aldiz, beti konparatiboetan; gaur Gipuzkoan egiten den nahastea ez du sekula Ubillosek egiten)

Bazcoa [22]; inoiz P-kin ere bai.

Becatari [99], *becatu* [8]; B-kin eta ez P-kin.

Bere gogora [44], ez *gogara*.

Bereiztu [42]

Besta [42]. Hau ere B-kin. Inoiz P-kin ere bai, halere.

Bestelazco [37]

Bezala (portada), eta ez *bezela*, gaur Gipuzkoan esaten dena.

Bider [37]. Gaur Bizkaian soilki erabilia.

Debecatu [9]

Denbora. B-kin hau ere.

Ecusi [3]. Beti; ez *ikusi*.

Echadi [45]. *Tribu edo...*

Emanicaco [43]

Eranzuac, ez *Erantzunak* (passim).

Erauso euriari [13]

Erdiratu (portada)

Eremu [28] (= desierto)

Ezagumentu [40]

Gaizquia [43] (= el mal)

Galde, galdea (passim), ez *galdera*, gaur Gipuzkoan arrunta dena

Gau oro [25], ez *gauero*, Gipuzkoan gaur ezagutzen dena

Gogoac eman [14]

Guiz-eralle [14]

Guticiatu [27]

Iracequi [28], gaur Gipuzkoan kasi ezezaguna

Iracurtza (passim)

Ispiritu [9]. I-kin, noski

Jaiet-buru [31]

Jaincoa (passim). Sekula ere ez *Jaungoiko* edo *Jangoiko*

Jaioquizun [12]

Jaquiunde [45]

Laurembata [26]. Herri-etimologia ote?

Lecucotasun [27]

Manu edo mandamentuac [28]

Mi [97], eta ez *mingain*. “Mi batzuec” agertu ziren Apostoluen gain Pentekoste egunean

Ol leguedunac [29] (= tablas de la ley)

On-behar [41]

Onguia [21] (= el bien)

Osotero [48]

Ois bada (= atención!)

Parabisu [9]. B-kin, Iparraldean bezala

Urte oro [22] (eta ez *urtero*)

Vicitu [42]

Vicicor [13]

Ohartuko zineten bezala, hemen esan ditugun formatatik asko gaur Gipuzkoan ez dira erabiltzen; erabiltzen dira, ordea, Iparraldean, Bizkaian etab. Gauza bera ikusiko da oraindik azaltzeko ditugun beste zenbait sailetan ere.

4. *Adizkiak*. Ubillosek darabilzkian adizkiak gipuzkoarrak dira, noski, baina ez datoz beti bat orainagoko aldian zabalduak daudenekin. Adibidez, berak *zuan* singularrerako erabiltzen du eta *zuen* (gaur *zuten*) pluralerako, *zituan* singularrerako eta *zituen* pluralerako (gaur *zituzten*); *zizten* gaur *zizkieten* ikus [50], *ziozkan* (gaur *zizkion*), etab. *Zezaen* [21], gaur *zezaten*. *Citequeana*, etab.

Deklinabidea ere gipuzkoarra du funtsean.

5. *Haren eta bere-ren erabilera*. Gauza jakina da halako bikoiztasun bat dagoela puntu honi buruz herriko euskarari eta bai literaturan ere; sortaldeko eta sartaldeko tradizioak ez datozela bat, alegia. Honetan badirudi Ubillosen liburuan zalantzak nabari direla. Alde batetik bera, sartaldekoea izanik, batzutan sortaldeko tradizioetik hurbil dabil, eta beste batzutan alderantziz. Gehienetan, ordea, gaur sortaldeko tradizioa deitzen dugunera lotuago dela esango nuke.

Ikus ditzagun adibide batzuk: "Sartu ciran noizbait Israeldarrac, Jaincoac aenzat aguinduric ceuzcan Canaango bazterretan... Baña Israeldarrac urratu zuen Jaincoari eman cioen itza; ausi zuen beraren legue santua, eta etzuen eguin aren esanic batere" [32].

"Israeldarrac eren aldetic cer aguindu zioen Jaincoari?

Eren biotz guciarequin maite izango zuela Jaincoa, eta gordeco cituela aren mandamentuac" [34].

"Eleiz bat eguiteco gogoac ere eman cion; baña Jaincoac adiraci cion eguiteco hau aren semearentzat guelditzen zala. Bai-ta-ere adiraci cion Jaincoac Davidi, aren ondorengoac izango cirala Jaincoaren hume leialen Erregue ta aguintari" [40].

"Salomonen gaizquiac castigatceco, haren ill-ondoan zatitu, ta bere-citu zan haren Erreinua" [43].

"Nor izandu zan David-en ondorengo Erreguea?

—Haren seme Salomon.

—Nola vicitu zan bere denboran?

—Bere gogora, berac nai cituan aisia, ta atseguin-contentuz betea” [44].

“Hura illezquero cer guertatu zan?

Haren erreinua banatua ta zatitua guelditcea” [45].

“Horduan Jaincoac madaricatu zuen suguea ta adiraci zuan emacu-meagandic etorrigo zala aren burua ausico zuana” [9].

Ikusten duzuen bezala, puntu honetan ere Ekialdeko tradizioetik hurbil dabil gure Ubillos. Nola esplika daiteke hori? Orduko gipuzkera —ahozko gipuzkera, alegia— hortik zebilelako ez ote?

6. *Perpaus osoa hitz baten osagarri gertatzen denean*. Kasu honetan gure artean —Hegoaldean esan nahi dut—, *-n* hutsaz egiten da maizenik lotura. Iparraldeko tradizioan, aldiz, *-lako* erabili izan da arruntki. Hala ageri da Axular baitan (Ikus “Serie Eleizalde”, 4, 66).

Ubilloskoak ere *-lako* darabil. Horra behintzat zenbait adibide:

“Jaincoa hondratzen zuelaco aitzaquian, gaitz itsusi asco eraguiteagatic” [36].

“Orra Jaincoaren ta Israeldarren arteco itzac: ta itz oec utseguin gabe gorde beharco ciralaco siñu edo señaletzat artu zuan Moisesec isipu bat, ta Jaincoari aldarearen gañean esqueintzen cizaizcan arien ta idien odolarequin busti cituan Israeldarrac...” [31].

-n ere erabiltzen du lotkailu, ordea, zeregin horretarako:

“Lengoaren ondoren Igiton sartu zan beste Erregue batec indartsuegui eguin, ta escu gueiegui artu cezaen bildurrez, necarazi cituan” [21].

7. *Galdezco perpausak*. Horietan gaur ezin utzizkoa bihurtu da gipuzkeraz *al* erabiltzea. Bizkaierak, berriz, ez du horrelako usadiorik ezagutzen, eta ez beste euskalkiek ere, nik uste. Oroit naiz Mitxelena zenari behin entzun nionaz. Ubillos gipuzkoarra izanik eta haren liburua galdez josia egonik, ez du behin ere hartako perpausetan *al* hori erabiltzen. Eta hortik uste dut zuela berak gipuzkeraz ere usadio hau oso berria delako susmoa. Usadio berri honen eraginez beste gauza bat gertatu da Gipuzkoan, hots, partikula hau ahala edo ahalmena adierazteko, guti edo batere ez erabiltzea; galdezco zereginak, alegia, lurra jan dio jatorrizko zereginari.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

“Orrela Israeldarrac baicic, etzan horduan Jainco eguiazcoa ezagutzen zuanic?” [37].

“Eta etzuan izandu ori baño gauza obeagoric?” [44].

"Eta ba-zan bestetan Jaincoari non agur eguin?" [44].

"Eta jaquintsu iraun zuan Salomonec azqueneraño?" [45].

"Mesiasgatic ecer esan zuen Profeta aec?" [49].

Guar perpaus guzti hauetan *al* jarriko lukete gipuzkoarrek; Ubillosek, ikusi duzueenez, ez du behin ere jartzen.

Ahalmena adierazteko, berriz, bai, erabiltzen du *al* edo *ahal*:

... "aguertu zuan bere ahal ta indarra" [31].

... "ecin contatu al adina Jainco" [35] ("Une infinité de Dieux" esaten du frantsesezco liburuak).

"Nic eguingo zaitut ecin contatu al adiña genderen Guraso" [17].

8. "*Eritzi*" aditz *trinkoaren errejimen jatorra*. Gogoan dut Euskaltzaindiak aditz trinkoen batasuna egin zuenean, *eritzi* aditzari buruz Mitxelenak hartu zuen jarrera: bizkaiera zela, zioen, aditz honen errejimen jatorra beti iraunkor gorde duena, beste euskalkiek zalantza eta dudamudak izan dituztelarik. Gehiago oraindik. Mitxelenak esan zuen berak ez zuela aditzon batasun-agiria sinatuko, baldin aditz honetan bizkaierak gorde duen errejimenaren errejimen zuzen bakartzat onartzen ez bazen. Eta, bai, hala egin zuen Euskaltzaindiak.

Neratu ere ohartu nintzen, *Axular-en Hiztegia* egin nuenean, nola urdazubiarrak batzutan bai eta beste batzutan ez duen gordetzen errejimen jator hori.

Ubillosek, bada, bizkaitarrek bezala, zuzen erabiltzen du *eritziren* errejimenaren. Hona adibide batzuk:

"Lenengo gizonari ceritzan Adan... Eva ceritzan lenvicico emacumeari" [6].

"Gueren burutic degun argui ta ezagumentu oni deritza Legue naturala, edo Legue ecarraizcoa" [14].

"Igitocoen Jaincoari ceritzan Isis" [36].

9. "*Alkar*"ek *galdegiten duen aditz laguntzaileaz*. Gaur egun, erdarearen eraginez, noski, askotan ikusten dugu aditz laguntzaile iragangaitza *alkar*-ekin erabilia. Badakit Gramatikak beti txartzat jo duela erabilpen hori, baina oso zabaldu dagoela ez da dudarik. Izenordain hau Ubillosek beti zuzen darabil, zor zaion laguntzaile-motaz esan nahi dut. Aski izango da adibide bat edo beste aipatzea:

... "eman cioen guciac araguizko becatuari alcar ecin ecusi zuela" [14].

"Etzuen cer ibilli galdez jaquiteco gauza gaiztoac cirala lapurreta ta gañeraco alcarri eguiten cizten dollorqueriac ta bidegabeac" [14].

...“jaquin cezaen biac, alcarri ongui nai beharco cioela, ta alcarrequin viac beharco zuela” [6].

10. *Galdegaiaren auziaz*. Perpaus-barnean, osagaiak ordenatzeari buruz jakina da zer-nolako arrakasta izan duen gure mendean, Hegoaldean bederen, Altube jaunaren teoriak (4).

Honako hiru lege hauetan biltzen da teoria hori, nahiz eta gehiengotan aurrenengoari bakarrik ematen zaion kasu:

1) Galdegai edo “elemento inquirido” delakoa izen, izenorde edo adberbio bat denean, aditzaren aurrean jarri behar da, eta bion artean ezin tarteka daiteke deus.

2) Galdegai aditza bera denean eta aditz hau laguntzaile-dun baldin bada, aditz horrek *egin* hartu behar du.

3) Galdegai baieztapena bera baldin bada eta aditza laguntzaile-dun, orduan ez dago lege jakinik eta osagaiak libreki ordena daitezke.

Gero, jakina, pratikan ez dakizu, beti behintzat, zein den galdegai eta hiru lege horietarik zeinek duen, kasu jakin batean, aginpidea. Edo-zein modutan ere badirudi aurrenengo tokian aipatu dugun legea nagusitu dela gure artean eta beronen arabera egiten dela maizenik perpaus-barneko osagaien ordenamendu arrunta.

Ubillos Altuberaren aroa baino askoz lehenagokoa da, noski. Baztertu behar ote dugu, beraz, ezer ez baleki bezala, Altube baino lehenago jaio zela eta? Ez dut uste.

Hertsikeriarik gabe, eta zabaltasun handiz gauzak hartuz beti da on idazle zaharren jokaera aztertzea eta ezagutzea gauzak pixka bat erlatibizatu eta bere lekurtzeko.

Ez dugu pentsatu behar, nik uste, perpausak ez dutela onartzen ordenatze-modu bakar eta zurrun bat baizik; beti edo ia beti izango du idazleak eskumenean aukera bat baino gehiago, eta hori, baita Altuberaren erregelak hautsi gabe ere.

Hasteko, hor dugu Altuberaren hirugarren lege edo erregela hori. Horren arabera, askatasun handiz ordena daitezke perpaus baten osagaiak. Badirudi askotan Altuberaren hiru erregeletatik bat soilki, lehena, hartzen dela kontutan.

Honako hau, bai, esan behar dut: Altube jaunaren bigarren erregela—laguntzaile-dun aditza galdegai denean *egin* sartu behar dela—, hori betetzen duen adibiderik Ubillosengan ez dudala aurkitu.

(4) Altube (Seber), “Erderismos”, *Euskera* X (1929), 5-70.

Hona hemen adibide bat, itxuraz eta lege horren arabera, *egin* eraman beharko lukeena:

...“baña oec ere ezcontzaz gaiztoaquin nastu, ta gaiztotu ciran” [13].

Badirudi *gaiztotu eguin ciran* beharko lukeela, baina ez dago horrelakorik.

Berriro esan, *egin* delako horren arrastorik ez dut aurkitu gure autore honetan.

Altuberen lehenengo legea, hots, galdegaia aditzaren aurrean jartze-ko agintzen duena, hau da gure mendean aginpidea hartu duena. Lege hau betetzen ote du Ubillosek? Batzutan bai eta beste batzutan ez, beharko esan. Gehienetan, ordea, ezetz gaineratuko nuke.

Jarraian adibide-mordoska aldatuko dut, gerok geure begiz ikus dezagun:

“Erregue guciac izandu ciran gaiztoac” [46].

“Deitzen dira Profetac” [46].

“Erri nausia zan Jerusalem” [39].

“Batzuec ciran guizonac” [36].

“Idolo batzuec ciran Jainco-guizonac” [37].

“Guizona eguiteco lenago moldatu zuan lurrez gorputz bat” [5].

“Guizona da Jaincoaren imagiña” [5].

“Guizonari ceritzan Adan” [6].

“Aingueru guciac, Jaincoac eguin cituanean, onac ciran” [8].

“Aingueru gaizto oec dira Deabruaren Aingueruac edo Demonioac” [8].

“Ispiritu gaitzquin oetatic batec suguearen aotic Evari itz eguin ta janeraci cion sagar debecatua” [9].

“Horduan Jaincoac madaricatu zuan suguea” [9].

“Cain ta Abel ciran Adan ta Evaren lenengo semeac. Abel ona zan, baña Cain gaiztoa, ta bere anaia ona izatea ecin eraman zuana, ta orregatic quendu cion vicia” [12].

“Batzuec Jaincotzat artu zuen Eguzquia, besteac Illarguia” [14].

“Gordeco dezu laurembata, edo zazpigarren eguneco atsedetea, desnequea edo descansua” [26].

“Iñor ilco ez dezu” [26].

“Denbor-artaco presentac ciran bildots, checor, ari, idi, lepoac quendu ta Aldarearen gañean erreac” [32].

“Lenengo Erreguea izandu zan Saul” [38].

“David-en ondorengo Erreguea izandu zan haren seme Salomon” [42].

“Onela sortu zan cisma bat” [43].

Ez goaz adibide gehiago aipatzera. Batzutan betetzen du Ubillosek galdegai aditz aurrean ezartzeko lege hori, baina gehienetan predikua edo atributua aditzaren ondoren kokatzen duela esango nuke.

* * *

11. *Alabaña eta bada*. Badira juntagailu batzuk Ubillosek beti perpausaren toki jakin batean kokatzen dituenak. Adibidez, *alabaña eta bada*.

Alabaña. Juntagailu honek esanahi kausala du gure autorean eta beti perpausaren bigarren edo hirugarren tokian kokatua agertzen da.

Hona hemen adibide batzuk:

“Etzuen alabaña gaitzquiric, ez eta gaitzeraco griñaric ta gogoric” [6].

...“galdu zuen alabaña gracia, eta graci onec eman cien Ceruraco escua ta derecha” [9].

...“gucioc alabaña gatoz Adanen ta Noeren odoletic” [16].

Beste juntagailua da *bada*. Bi esanahi ditu gure autore honetan: bata kontsekutiboa eta bestea kausala, eta kokatze-lekutik bereizten dira bata bestetik.

Kontsekutiboa denean, perpausaren bigarren edo hirugarren tokian jartzen da.

Adibidez:

“Oni bada Jaincoac adiraci cion...” [13].

“Ceri bada, Israeldarrac ez, besteac agur eguiten cioen?” [37].

“Nola bada aztu ciran?” [38].

“Aguindu cien bada berriro” [30].

“Cer eguin zan bada artzaz?” [48].

Bada kausala, aldiz, beti jartzen du Ubillosek perpausaren hasieran. Hona etsenplu bat edo beste:

...“eta alcartasun hau zan Jaincoac Abran-equin eguin zuan alcartasun bera; bada israeldarren alde berriro cituan Jaincoac, hoen gurasoi eguindaco esqueñi, agunde ta itzac” [30].

Salomoni buruz galdetzen du:

"Eta etzuan izandu ori baño gauza obeagoric?" [44].

Eta erantzuna:

"Bai suertez ere, bada izandu zuan jaquiunde" [44].

"Bai-ta ori ere; bada esan zuen, federic etzuen gendeac, Idolo edo guezurrezco Jaincoac utci ta joango cirala, Jainco eguiazcoari agur eguitera".

12. *Nagusia eta menpekoak*. Perpaus konposatueta Altuberen aholkua dela uste dut menpekoak aurretik eta nagusia azkenean jartzea (5). Ubillosek oker ez banaiz, kontrako joera duela esango nuke.

Hona hemen adibide batzuk:

"Itoac utzi cituan egui, aldapa, mendi ta mundu guciarequin batean, odei-itsaoetatic biraltzen zuala, orretaraco behar zan ura edo ugoaldea" [15].

... "ta aguindu ere zuan il citecela aen artean jaiotzen ciran seme guciac" [21].

"Barcatu cien eguin cioen gaizquia, ta eracarri cituan Igitora eren familia edo echetiar guciaquin batean" [23].

"Esan cien Iraeldarraia artuco cituala bere Erritartzat, eguingo cituala Canaango lurren jabe, ta beteco cituala ondasunez" [33].

"Esan zuen hura ere erorico zala, baña guero berriz eguingo zala" [49].

Eta abar.

III

Ondorioak

Aitortu behar dut harridura-suerte batek hartu ninduela Ubillosen liburu eder hau pixka bat hurbildik ezagutzen eta aztertzen hasi nintze-nean. Hainbeste gauza ustegabeko aurkitzen nituen!

Ibon Sarasolak *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren bigarren liburukia aurkeztean esan zuena gogora zitzaidan: Ez dugula gure literaturaren tradizioa ezagutzen. Egia galanta.

Mitxelenaren esan batez ere oroitu nintzen. Batzuek esaten dute —zioen Mitxelenak— euskalkiak berekasa utzirik ere, pixkaka eta berez

(5) Ikus Erderismos, cap. VI, in *Euskera* X (1929), 161 ss.

batasunera buruz doazela. Berak ezetz uste zuen. Geroago eta gehiago elkarrengandik aldenduz eta hastanduz doazela, alegia.

Badirudi garbi ikusten dela hori Ubillosek darabilen gipuzkera eta gaurko gipuzkera elkarren artean alderatuz.

Orain dela berrehun urte hil zen idazle gipuzkoar baten liburua ari gara aztertzen. Hartu haren liburua eta orain ezagutzen dugun giputz euskalkia, eta biotatik zein dago guztion euskaratik hurbilago? Erantzuna ez da zaila: Ubillosena, noski.

Adibideak aipatu dira jadanik, baina zilegi izan bedi berriz ere batzuk errepikatzea: *Jainko* esango dizu eta ez Jaungoiko edo Jangoiko, *bezala* eta ez bezela, *mi* eta ez mingain, *bekatu* eta ez pekatu, (h)*andi* eta ez (h)aundi, *baina* eta baino ez ditu nahasten, galdezko perpausetan ez dizu *al* jarriko, etab.

Gauza batzuetan, bai, bat dator Ubillos gaurko gipuzkerakin. Baina bat ez datorrenetan nik esango nuke hurbilago dela bera guztion euskaratik gaurko gipuzkera baino.

Zer esplikazio du fenomeno honek? Pentsa daiteke Iparraldeko literaturaren ukituagatik izango dela, baina nik ez dakit, nik duda egiten dut. Honekin ez dut esan nahi, jakina, Iparraldeko euskal libururik ez zuela ezagutzen. Baina hau da kontua. Ubillos ez dator beti bat Iparraldeko formekin. Batzutan Bizkaikoekin dator bat (esate baterako *alkar*, eta ez *elkar* erabiliz). Eta harrigarriago dena, Iparraldeko euskararen berezitasun nabarmen batzuen arrastorik ez da Ubillosengan nabari. Adibidez, ez ditu erabiltzen ez *bait*- aurrizkia, eta ez *-larik* atzizkia ere, etab. *Euscara* ere ez du esaten, *eusquera* baizik.

Egia da, bai, Ubillosek bere liburua argitara eman baino 10 urte lehenago atera zuela Larreguy-k *Testamen çaharreco eta Berrico Historia* eta berez bezala sortzen da susmoa: agian honen eragina jasan izango zuela gipuzkoarrak, baina hori frogatu beharko litzateke bion azterketa eginez.

Gipuzkoarrak Larreguyandik gauza bat hartu duela frogatzeko ez da aski hitz edo forma bat biotan aurkitzen dela ikustea, zeren eta beste hipotesia ere posible baita, hots, Ubillosek darabilzkien formak garai hartako gipuzkeran arruntak izatea, gero galdu badira ere.

Nere inpresioa da Ubillos gipuzkoar jatorra dela eta bere garaian Gipuzkoaren bihotzean egiten zen euskara-modua hartu zuela oinarri. Baina hau hobekiago eta berariaz aztertu beharko litzatekeen puntua da. Nik ez dut azterketa hori egiteko, ez eta Ubillosen obra osoa aztertzeko ere betarik izan, baina zinez aztertea merezi duen autorea da Ubillos.

Gauza batean, bai, ikusten zaio Ubillos-i dotrina berri bat jakinaren ganean eta berariaz irakatsi nahi duela, hots, erlatibozko perpausak zuzen

eta ortodoxoki antolatzen. Honelako perpausen kopuru handia dago liburuan. Zeinismoarentzat ez du zirrikiturik bat ere utzi. Larreguyrengan, berriz, zeinismoa usu ageri dela uste dut (6).

Larramendiren hitz asmatu batzuk, bai, badatoz gure autorean, baina urri eta bakanak dira eta beti dute aldamenean herriko hitza.

Beste gauza batzuetan oraingo gipuzkerakin bat dator, noski, gure egilea: *anima* esango dizu eta ez *arima*, *a* organikoa gordetzen ez da beti segurua, maiz erabiliko dizu sozietatiboa instrumentalaren ordeztan, etab.

Guzti hau hala baldin bada, galde hau (*galde* esaten du Ubillosek, ez *galdera*), galde hau dator berez hitzetik hortzera: Zer bide edo eboluzio ekarri du ordutik honera Gipuzkoako euskalkiak?

Eta honekin bukatzen dut.

Hemendik ateratzekoa den ondorioa zera da: zein premiazko diren gure literatur tradizioaren azterketak.

(6) Eta erlatibo-kontuan ageri duen ortodoxia zurrin hori dela medio, maiz argitasun-eskasia edo galera zerbait nabari da Ubillosen zenbait pasartetan. Perpaus kausalak, berriz, nola eratzen dituen Ubillosek, ikus Serie Eleizalde, 8, 118-120.

ZERGATIK EDIZIO KRITIKOA

Billabona, 1989-V-27

Patxi Altuna

Euskal liburu zaharretan aztarrika ohi dabiltzan ikerlariak hondartzako harea edo zeruko izarrak adina direla ezin esan dezakegun arren, ezin ere uka badirela gure artean bakar batzu eta are badirela egunean baino egunean gehiago, nahiz ez diren —eta ez izan behar ere— liburu berriak, gaurkoak eta oraingoak eskuztatu eta miatu nahiago dutenak adina. Literatura baten bizirik irauteari eta hizkuntza bizi baten suspertzeari bietariko langileak eta ikerlariak izatea dagokio eta ez dugu inola ere pentsatu behar elkarren etsai direla eta elkarren kalteko lanean dihardutela. Aitzitik, xede eta helburu beraren alde ari dira batzu eta besteak: euskarari, lehengoari eta oraingoari, lehen eta orain hizkuntza berbera denari irauneraztearen alde. Eginbehar berean ari dira filologoa eta hizkuntzalaria ere, nor bere sailean. Filologoak maiteago duke liburu zaharra, hartango testu jatorrari, idazlearen lumatik atera zenari, gero inprimategian erantsi zitzaizkion hutsegiteak atzemateko, lehenagoko idazleen eragina eta kutsua aztertzeke eta egileak han darabilen hizkeraren bereizgarri nagusiak eta bereizitasunak lore sorta gisa biltzeke. Hizkuntzalariaren egitekoa besterik da, nahiz gaurkoen, bai eta gure artekoen, iritziak eta jokabideak bereiz samar dabiltzan, nonnahi bezala eta bidezko denez. Badira hizkuntza zaharrari lehentasuna emanik haren antzineko egoera, lehen-lehengo “estatusa” idoro nahi dutenak, eta badira beste batzu hizkera bizia, aldian aldikoa, egunorokoa bere ikerlanetarako hobesten dutenak. Guztientzat du lekua eta guztien besoen beharra du hizkuntza baten lan-sailak, soro batean bezalaxe han ere gisa askotako arloak burutu behar direnez gero: zokorrak hautsi, hazia erein, belar txarrak atera eta buruenik uzta bildu.

Liburu zahar bizkarrean berrehun urte dituenak dakarkizue gaur Euskaltzaindiak berriturik. Zuena dena itzuli baizik ez dizue egiten, herri honetako seme ospetsu Juan Antonio Ubillosek, euskara maite eta euskarari ahaleginean lagundu behar zitzaiola uste zuenak paratu baitzuen bere bizitzako azken urteetan. Zuena da, bai, baina euskaldun guztiona

ere bai, argitaratu zuen unetik euskal gordailuaren pitxi bat izaten hasi baitzen. Hari eskerrak gaur jakin dezakegu nolakoa zen garai hartan Amasa-Billabonako euskara edota, baldin edozein idazlek bezala herrikoa zerbait edertu bazuen, zein ziren gutxi gorabehera hizkera haren berezitasun nagusiak, Gipuzkoa bereko beste zenbait herritako beste idazleen —lehenagokoen eta geroagokoen— hizkeratik hura bereizten zutenak. Ez baitzen Juan Antonio Ubillos ordu onean gipuzkeraz idatzi zuen lehena eta ez azkena izan. Azkena izan ez zela bistan dago, hemeretzigarren mendean berean —ezagunagoak ditugun hogeigarrenengoak aipatzen ibili gabe— izan baitzituen ondorengo bikain eta distiratsuak, hala nola Asteasu-ko Agirre, Gerriko, Lardizabal, Otaegi, Iturriaga, Iztueta, Arana Jose Ignazio eta abar. Lehena ere ez, nahiz asko izan ez ziren zoritxarrez gipuzkeraz idazten aurea hartu ziotenak. Aipatzekoak dira hauen artean lau bederen: Otxoa de Arin, Irazusta, Kardaberaz eta guztien gaindik —ez haatik euskaraz gehiena idatzi zuelako, ez eta hurrik eman ere— Andoain-ko seme Manuel Larramendi, zeinen jaiotzaren hirugarren mendeurrena datorren urtean ospatuko baitugu. Honek onerako edo txarrerako —alde txarrei gehiago begiratzen dienik bada— mugarri sendo eta seinalagarria ezarri zuen bere lehenaren eta geroaren artean. Hizkerari dihoakionez ez dago, nik dakidala, ongi ikertua zertan den diferent andoaindarraren hizkera bera baino lehenagoko gipuzkeratik, ez eta zenbatetaraino markatu zuen hark bere ondoko idazle gipuzkoarren hizkera, zenbait hitz berriren erabileraz landa, ez eta horrenbestez zertan den desberdin Larramendi baino lehenagoko eta geroagoko gipuzkera. Egunen batean norbaitek burutu beharko duen eta burutzea merezi lukeen lana da hori, ene ustez. Esan ohi den bezain bortitza izan al zen —bere hiztegiko hiruzpalau dozena hitzez landa, berriro diot, eta hizkerari soilik gagozkio- la— Larramendiren eragina geroko idazle gipuzkoarrengan? Nor bere bidetik ibiltzen ikusten ditut nik gehienbat eta elkarrengandik urrun samar, inoren arrasto sakonik haien hizkeran begiztatu ahal izateko, edota Larramendik bere jokabideaz euskal literaturan leizerik eta tulunbiorik ireki zuela sinistu ahal izateko. Ados nago diotenekin Larramendi gabe ez zela segurki izango orduan eta gero izan zen zenbait idazle; ez ordea hain ados Larramendi gabe idazle haiek erabili zuten ez bezalako hizkera erabiliko zuketela diotenekin. Hauengan nik bere herriko eta lurraldeko hizkeraren zantzuak eta arrastoak gehiago ikusi uste ditut inork irakatsitako euskararenak baino.

Hau bezalako mintzaldi laburrean egin daitekeen baino ikerlan luzeagoa eta sakonagoa zor zaio, ordea, auzi horri eta ni hori alde batera utzirik Ubillosen liburuaz mintzatzera nator berriro, hori baita nere gaurko eginbidea. Esan daitekeen gehiena esana dute, haatik, nere aurretik hitza hartu duten bi hizlariak eta ni bi punturi lotuko natzaie laburkiro. Bat, zergatik prestatu dudan edizio kritikoa eta ez soilik eman, duela berrehun urte atera zen bezalaxe, hutsik eta biluzik, gorririk eta larrutsik,

Ubillosek berak ezarri zizkionez bestelako hitzaurre eta okerren zerrenda gabe. Bi, zer berri irakatsi didan edizio kritikoa prestatzeak.

Zergatik beraz edizio kritikoa? Hara garbi esan. Aspaldixko joana da ene ustez, eta zorionean joana noski, euskal liburu zaharrak ikerlarien multzo urriari bakarrik axola zitzaizkiola eta, haientzat bakarrik berrargitaratu behar zirela pentsatzen zen garaia. Gaur eta hemen euskal liburuaren, bai eta zaharren, irakurlegoa ugaltu eta mukurutu egin da eta Euskaltzaindiaren argitalpenek irakurle arrunt eta xotilentzat ere baliagarri eta probetxugarri izan behar dute, ene ustez. Horrela jokatu du Ubillosen liburuaren edizio berri hau prestatzean Euskaltzaindiak ez ezik Amasa-Billabonako udalak, mila aleren kostua bere gain hartu duenean. Ala mila hizkuntz ikerlari ditugu Euskalerrian? Bai hobe, bagenitu! Ez, jaun andreak, ez; ikerlariak bakarrik ez dira iadanik euskal liburuaren hartzaileak, beste asko ere badira, eta horiek ez izaki ikerlariak bezain jakintsu eskuarki, inoren esku luzatzea eta laguntza eskertzen ohi dute, liburu zaharreko euskara neke eta ardaila gutxiagoz aditzeko. Laburki esan, testu zur-murria baino zerbait gehixeago nahi eta behar dute, oharrez eta argitasunez jantzia alegia.

Ikerlariak bere egarrira berdintzeko eta bere ikerlanetarako hortxe dituzte, gainera, hau baino lehenagoko beste lau edizio, horietan azkena duela hamar urte faxsimile gisa Hordagok aterea, edozein liburutegitan aurki daitekeena eta are gutariko askok etxean duguna. Are gehiago, lehen edizioak aleak ere ez dira oraintsu arte uste genuen bezain urri, Hordago berea egiteko baliatu zen hartaz gainera “Azkue Biblioteka” ere bai baita beste ale bat, geure edizio hau prestatzeko erabili duguna, eta hona azkenik egun hauetanxe zabaldu den beste albiste ona: “Azkue Biblioteka” berak lehen edizioko beste ale bat bereganatu du arestian, erosi berria duen liburutegi pribatu batean aurkitzen zena. Beraz ezin esan gure arteko ikerlariak hain peitu eta onbehar direnik.

Baina edizio kritikoeikiko zenbait lagunek dituzten kezka eta susmo txarrak erabat uxatzeko, diodan oraindik guk prestatu dugun honek beste bezain ongi edo hobeki balio duela ikerlanetarako, ez baitiogu jatorrizko testuari deus ere kendu, ez erantsi, ez aldatu: ez hitzik, ez silabarik, ez letrarik. Lehen zegoen zegoenean dator jatorrizko testua hemen, hau ere fotolito bidez egin baita. Garbiketa txiki bat da guk egin diogun guztia. Egun ez ditugu lehen bezain maite komak, puntuak eta puntu komak eta orain ipini ohi ez diren lekuetatik lekoratu eta ezabatu egin ditugu, irakurleari irakurbidea oztopoz eta zoztorrez eta trabalekuz iraurri baino egiten ez ziotelako, Deustuko eta Donostiako neure ikasleekin egin probak irakatsi didanez. Hori egitean, gainera, aita Akesolok beste euskal liburu zahar baten argitalpen berria prestatu zutenei eman zien aholkua bete baizik ez dugu egin. Hona zer esan zien: “...liburuari ez deustoa bat bere mesederik egin koma guztiak lengo-lengoan isteak: [...] dagozan

moduan idazteaz, oraingo irakurleak eztau ezer irabazten. Ezer zuzentzen astekotan, uts orreik zuzendu bear ziran" (1). Beraz ez dugu uste horrenbestez mesede baino egin diogunik irakurle arruntari eta are ikerlariari, non eta honek ikergaia ez duen lehengo idazleek puntu-komak non ezartzen zituzten eta non ez.

Puntu honi amaiera emateko Mitxelenaren hitzak, gure artean gero eta lagun gehiagok geure egiten ditugunak, aldatuko ditut hemen. Hark idatzi zuen behin "fac-simileak, nahiz berez eta bere arloan probetxugarriak izan, ez direla sekula izan ez izango edizio kritiko onaren ordain zuzen" (2); eta nik neure aldetik erantsiko nioke: batez ere edizio kritikoak jatorrizko testua zipitzik ere aldatu gabe ematen badu, oharrak, argibideak, zuzenketak eta gainerako eraskinak aurrean zein atzean, goian zein behean, edo gogoak ematen dion beste lekuren batean prestatzaileak ezartzen dituela. Eta hala egin dugu.

Natorren honenbestez beste puntura: zer erakatsi digun edizio kritiko honen prestatzeak. Entzun duzue 1785ean eman zuela Ubillosek argitara bere liburua. Ez duzue halere pentsatu behar edizio hartako ale guztiak —zenbat izango ziren, berrehun, hirurehun?— batera inprimatu zituztela Tolosan eta guztiak batera egun berean salgai jarri. Ez eta hurrik eman ere. Orduko inprima makinak gaurkoak baino motelagoak ziren ibiltzen. Ez zytuzten ere, orain edozein egunkari goizoro salgai jartzeko behar denez, ordu gutxitan ehun milaka orrialde inprimatzen. Bai zera! Hilabete mordoxka luzatzen zen liburu baten hirurehun aleren inprimatze lana, gaur berrogei ale ateratzen bazituzten, beste hilabete bateko lana zelako hurrengo berrogeiak inprimatzea. Bestela esan, labealdika ateratzen ziren, eta hartara egileak lehen labealdiko alea eskuratu bezain laster, astiro ikuskatu eta atzeman zitzakeen inprimategikoei lehen labealdiko aleetan itzuri zitzaizkien hutsegiteak eta okerrak, bai eta hurrengo labealdietan zuzenerazi.

Orain bada, Hordagok faksimilatu zuen alea eta guk edizio honetarako erabili dugun Azkue Bibliotekakoa biak dira noski lehen ediziokoak, ez ordea biak labealdi berekoak. Biek dakarte azkenean Ubillosek begiz jo zituen hamabost hutsegiteen zerrenda; horietatik batzu, halere, Hordagokoan iadanik zuzendurik daude eta gurean ez. Beraz labealdi zaharragoko alea da gurea bestea baino eta horrexegatik hobetsi dugu. Hala *illarartera* ez *illaraztera* behar duela dio zerrendak, eta hain juxtu Hordagokoak zuzendua dakar, *illaraztera*, gureak ez bezala (ik. 87. or.). Orobat *Atitari* ez, *Aitari* behar duela dio eta halaxe dago Hordagokoan, gurean berriz *Atitari* (ik. 93. or.).

(1) AKESOLO, LINO, "Idazte baten zoritxarrak" KARMEL, 1977.

(2) MITXELENA, KOLDO, MEIG IV, 113. or (1988).

Larramendiren hiztegia Ubillosek ezagutzen zuela gauza jakina zen lehendik ere liburu eskuartearen marruskatua zuen edozeinentzat, harenak baizik ezin izan baitzitezkeen *ce-agui*, *araututs*, *doaindu*, *ecarraizco*, *elizgue*, *hitzune*, *larririquitu* eta abar bezalako hitzak. Gauza jakina zen ere, Mitxelenak hala irakatsia zigunetik, Axular ezaguna eta erabilia zuela (3). Ez zigun inork esan, ordea, Lavieuxvilleren eta Ziburuko Etxeberriren liburuak ere ezagunak zituenik, eta hori orain idoro dut, 170. orrialdean Jainkoaren legeko hamar aginduak bere gisa, prosaz eta gipuzkeraz, eman ondoren, “versutan, Franciaco guisan” lehendabizi eta gero “baita bestela ere” kopiatzen dituenak Lavieuxvilleren *Guiristinoen doctrina laburra* deritzanekoak eta Ziburuko Etxeberriren *Manual devotionezkoa*-koak zirela ohartu nintzenean. Honek lehendik ere genekien zerbaitean sendortzen gaitu: Iparraldeko liburu zaharretatik edoskitzen zutela, eta ikasten eta aberasten bere hizkera, gure Hegoaldeko idazleek. Horrexegatik hartu izan zaio gaur baino lehen Ubillosoi, aita Villasantek ere esan digun bezala, Iparraldeko euskalkien usain ez txikia.



(3) MITXELENA, KOLDO, MEIG IV, 70 or. (1988).

Ez naiz hemen abiatuko Ubillosten hizkeraren bereizgarri xehe batzuren berri ematen; liburuari ezarri diodan hitzaurrean egina dut lan hori eta aita Villasantek ere bere txostenean adierazi digu. Hona laburki aipatuak bizpahiru puntu: Ubillosek ez darabiltza inoiz ere Bizkaiko aditzaren eragina diren eta Gipuzkoako beste zenbait idazlegan agertzen diren *—gi—* erroko adizkiak, *nor-nori-nork* paradigmakoak: (esan) *egidazu, dagion, leikegu...*; ez eta *al* galderazko partikula ere; ez eta *zein* edo *nor* erlatibo gisa ere; ez eta *—(e)na* konpletiboa ere, bai ordea *—(e)nik* ezezkoetan; ez eta *joan egin da* eta antzekoetan darabilgun *egin* hori ere; ez eta *bait-* ere *—behin* bakarrik dio “nola baitira”, 47. or—.

Zertan luza? Ubillosten hizkera ezagutzeko biderik onena liburua bera irakurtzea duzue eta horretarako idatzi zuen Ubillosek. Dei hori eta gomita hori egiten dizuet nik ere. Darabilen gaiagatik ez bada, ez baitut uste liluratuko zaituztenik, irakur ezazue bederen gipuzkera zaharraren lekukorik hoberenetakoa delako eta urte gutxi geroago, hurrengo mendean, gipuzkera lora-erazi zuten idazle garaiei aitzindari izan zelako.

BATZAR-TXOSTENAK

WENTWORTH WEBSTER-EN BASQUE LEGENDS

Donostia, 1989-IV-28

Jose Antonio Arana Martija

Erromantismoak ekarri zizkigun aurkikuntzetatik bat herri kultura edo herri jakintza aintzakotzat hartzea izan zen. Dakigunez *folklore* hitza garai erromantikoan sortua izan zen, Londoneko *The Athenaeum* aldizkarian Ambrosio Merton ezizenarekin William J. Thoms-ek 1846.eko Abuztuaren 22an proposatu zuenean. Hitz ingeles hau, *folk* —jende, herri, gizateria— eta *lore* —ikasbide, dotrina, irakaspena— konposagailuekin osatua, *volkslehre*, edo hobe *volkskunde* hitzekin alemanera itzulia izan zen, herriaren jakituria bereziki esangura eman ziolarik. Italiarrek grekora jotzea nahaiago izan zuten hitza itzultzerakoan eta zientza berri honi izena emateko *Demotica* edo *Demiologia* asmatu zuten orduan, gaztelaniazko eremuan ere gure Migel Unamunok bultzatu nahi izan zuena 1896an Sevillan “Sobre el cultivo de la Demótica” eman zuen hitzaldian.

Ordurako, ordea, errotua zen Euskal Herrian aipatu hitz ingeles hori, Wentworth Websterek egindako estudioen ondoren —euskal folkloreaken aita bait da ordutik hona Webster jauna— eta Julien Vinson frantsesak 1883an *Le Folklore du Pays Basque* liburua argitara eman zuenetik. Hurrengo urtean, hain zuzen 1884an, *El Folklore Vasco-Navarro* izeneko Elkartea sortu zen eta hitzak esannahi, edukin eta erabilera lortu zuen nolabaiteko onarpen ofiziala izan arte, 1920an Gasteizko Seminarioan Jose Migel Barandiaran gure euskaltzainak Eusko Folklore mintegia eta elkartea sortu zigunean.

Hitz berri arrotz hauen aurka, folklore edo herri jakituria kontzeptua adierazteko euskal berba bat sortu nahi izan zuten euskal etnologo batzuk. Eta bide autoktono horretatik ibiliaz *Errijakintza* hitza erabiltzea proposatu zuen Camilo de Villabaso bilbotarrak zientzia berri honetaz 1886.eko Martxoaren 27an eman zuen hitzaldi batetan, hitz hori osatzeko Manuel de Larramendik bere *Diccionario Trilingüe* delakoan (1745) *sabiduria* adierazteko asmatu zuen berba berria aukeratuz. Villabasok proposatu zuen berba berri hau gure etnografiako idazkietan arrunta izatera iritsi zen urteen zehar Resurrección Maria de Azkue jaunak 1934an *Euskalerraren Yakintza* izenburutzat daramaten lau tomoetan onarpena

eman zion arte, euskaldunen herri jakituria bildu zuen izugarrizko lan hau laster berriz eta hirugarrenez kaleratua ikusiko dugularik.

Urte asko lehenago, 1917an, folklore hitzaren edukina oso zabala zen, herri jakintza guztia barnean biltzeko hainakoa, eta euskarara itzultzeko hitz konposatu hori oso egoki zetorkion. Izan ere, Telesforo Aranzadik esaten zuenez, herriak zekien guztia zen folklorea, ez kantatzen eta kontatzen dakiena bakarrik, egiten dakiena ere. Herri jakintzaren kontzeptu zabal honek bere barnean eduki zitzakeen hizkuntza, lege berezi edo foruak, ekanduak, mito eta siniskeriak, ahozko literatura, artisautza, jokoak, gastronomia, osasungintza, musika eta dantza, eta abar luze bat. Baina izatez, ikerketetako arlo zabal hau jadanik apurka apurka mugatzen hasia zen, zeren eta 1889an Parisen I Nazioarteko Folklore Biltzarra antolatu zenean, zientzia berri honen ikerleentzat galdeketa askoz ere laburragoa finkatu bait zen, alegia: ikerle hauen zeregina zera estudiatzea zen, bizirik eta ez fosilizaturik zeuden mito eta siniskeriak, ahozko literatura, musika eta dantza, eta herri osasungintza. *Euskal Herria* aldizkarian (1884) argitara emana zeukan Jose Manterolak edukin hau garatzen zuen galdeketa, apaiz, mediku eta maisuei zuzendua, herrian bizirik zegoen folkloreaz datuak bildu eta finka zitzaizen. Oraindik burutua izan ez den Euskal Herriko Atlas Folklorikoaren lehen saialdia izan zen hura, hamaita ikerketa monografiko eginak izan arren ezinezkoa dirudiena, nahiz eta urtero horietariko gaiak bultzatzeko, 1853an Urruñan hasita Euskal Jaiak Antoine D'Abbadie jaunak antolatu.

Euskal herri jakintzaren bultzatzaile bakan honi zuzendu zion Wentworth Webster ingelesak *Basque Legends* liburua, ingelesez argitaratua, 1877an Londoneko Griffith and Farran argitaletxean. Lehen argitarapen honek ukan zuen arrakasta handia izan omen zen bi urte barru, 1879an, bigarren argitarapen bat egin beharrean aurkitu bait zen Webster jauna. Lehen argitarapenaren eranskin gisa Julien Vinsonen *An Essay on the Basque Language* ematen zaigu, 22 zentimetrodun XVI-233 orrialde dituelarik. Bigarren argitarapenean *Basque Poetry* gaiatz gehitu zion Websterek bere lan bat, XVI-276 orrialdedun liburu bat kaleratuz. Argitarapen biak, esan dugunez, D'Abbadie jaunari zuzenduak dira.

Gure herri jakintzaren zati bakar bat ematen digu Websterek liburu honetan, ahozko literatura hain zuzen, baina gure kulturaren arloan bil zitekeen osoa ere ez, zeren eta ez zizkigun eman herri poesiaren adibideak, alegiak eta abar, kondairak bakarrik baizik. Dena den bilduma baliosa dugu euskara bakarrik zekiten euskaldunen ahotik hartuak ziren eta. Aurkibide luzea du liburuak non Tartalo, Heren-sugea, Basa Jaun, Laminak, Maitagarriak eta Sorginak, eta erlijiozko ipuinak ematen dizkigu.

Egia esan, ematen dizkigun kondaira guzti hauetan ez dago originaltasun handirik. Nahiz eta euskaldunen ahotik hartuak izan unibertsalak

dira gaiak, fenomeno naturalen pentsamolde eta adierazpenak —Websterrek hitzaurrean esaten digunez— herri isolatu eta urrunduetan ere noiz behinka agertzen direnak. Baina Euskal Herrian bilduak izateak badauka bere garrantzia, bere kultura eta hizkuntza bizirik mantentzen duen Europako herririk zaharrena baita. Frantziako kulturak Parisen 1486an argitaratutako inkunable bat badauka, hots, *Les Cent Nouvelles*, eta ipuinen liburu gehiago XVI. eta XVII. mendeetan ere Websterrek ematen dizkigun ipuin eta kondairek ez zuten argirik ikusi 1875.ean D'Abbadie jaunak Baionako Zientzia eta Arteen Elkartearen Tartalorena irakurri zuen arte, eta Jean François Cerquandek 1874an bere *Legends et récits populaires du Pays Basque* kaleratzen hasi arte. Kristaurreko aintzinasunaren lurrina, edo zaharragoa dute, garai zahar haietako historiak dirudite: “Hau gertatu zen —dio kontalari batek— animaliak eta gauzak hitz egiteko gai ziren denboretan”. Eta mendeen zehar neguetako gau luzeetan gurasoengandik semeengana egiten diren transmisioak hain fidagarriak direnez, sarri askotan ulertezinak gertatzen dira XIX. mendeko pentsaerarentzat. Maiz entzuten zaio kontalariari halakoren bat: “ez dut ulertzen, baina hala dio historiak”.

Herri ipuin eta kondairen bilketa Erromantismoaren fenomeno literarioa da. Euskal Herriari dagokionetik, euskaraz lehendabizi bildu eta argitaratu zirenak alegiak izan ziren (Archu, Iturriaga, Adema, Artola, Juan Mateo Zabala, eta abar), gai honi laguntza baliotsua Jose Manterola donostiarrak (1849-1884) eman ziolarik, 1877 eta 1880 bitartean *Cancionero Basco* delakoan hainbat argitara eman bait zituen. Hemen aipatzen ditugun ipuin eta kondairak, Websterrenak noski, euskaraz bilduak izan ziren, baina gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez argitaratuak izan ziren, azken hizkuntza honetan eman zigularik Wentworth Websterrek bere bilduma.

Lehen euskal ipuinak gaztelaniaz argitaratuak izan ziren. Antonio de Trueba (1819-1889), zeinen heriotzearen mendeurrena aurtan betetzen den, hasi zen bilduma ugari bat idazten. Haren ipuin liburuak, *Cuentos de color de rosa* (1859), *Cuentos Populares* (1860), *Cuentos campesinos* (1860), eta beste asko, sarritan berrargitaratuak eta hainbat hizkuntzatara itzuliak, denak herritik jasoak ez baziren izan ere, herri kutsuz beterik zeuden. Ildo honetatik jarraitu zuen Juan Venancio de Arakistainek (1828-1906), zeinek 1866an inprimatu zuen Tolosan *Tradiciones Vasco-Cántabras* kondairekin osotutako liburua. Bizkaian eta Guipuzkoan hasitako eredu hau jarraitu zuen geroxeago Nafarroan Juan Iturralde y Suit (1840-1909) historigileak, gaztelaniaz honek ere *Leyendas navarras* (1886) argitaratuz. Idazle hau hil ondoren argitaratuak izan ziren haren *Cuentos, leyendas y descripciones euskaras* (1912). Ez dira ez gaztelaniaz idatzi zuten kontalari bakarrak, baina bai nabarienak eta herri kutsuz gehien eragindakoak. Azken karlista guda bukatu ondoren, kontraekintza kultu-

ralak euskarazko ipuin eta kondaira idaztera bultzatu zituen hainbat eta hainbat idazle, Bizenta Moguel-en bidea hartu zutenek: Artola, Azkue, Barbier, Bustintza, Etxegarai, Etxeita, Larrakoetxea, Urruzuno, Zabala-Arana, eta abar.

Ipuin eta Kondairak Webster jauna biltzen hasi zenean, aurrea hartu zion Bordeleko Akademiaren Inspektorea zen Jean François Cerquandek, 1888an hila; zeinek 1874an hasita Pabeko “Bulletin de la Société des Sciencies, Lettres eta Arts” delakoan herritik ahoz aho hartutako testuak euskaraz eta frantsesez kaleratu zituen. Ipuin eta kondaira hauek, 1875 eta 1882 bitartean, lau liburukietan argitara eman zituen gero hiri bereko Leon Ribaut moldiztegian. Herri literaturako zati hauetatik asko erabili zituen gero, frantsesezko tastua hartuz, Julien Vinsonek. Eta euskal testuak, beharrezko ziren aldaketa ortografikoekin, berrargitaratu ditu oraintsu Asuntxi Aranak Txertoa Argitaldarian. Benetako adiskide bati eta bekaizkeria gabeko zientifiko bati zegokion bezala, irazkin luze bat eskaini zion Websterek Cerquand-i 1875ean *Bulletin de la Société Ramond* zelakoan.



Cerquand-en lana argitaratu eta hurrengo urtean, 1883.an hain zuzen, Julien Vinson-en (1843-1926) *Le Folklore du Pays Basque* kaleratu zuen Pariseko Maisonneuve et Cie. argitaldaria. *Les Littératures populaires de toutes les nations* bildumaren XV. liburukia betetzen du Vinsonen lan honek eta Wentworth Webster, Oxfordeko Unibertsitatean Master of Arts titulua zeukan adiskideari zuzendu zion egileak, hitzaurrearen lehen lerroetan euskal folklorearen sortzailea zela aitortuz. Vinsonek ematen dizkigun ipuin, kondaira eta siniskeriak berak eta Websterek bildu zituztela 1874 eta 1876 bitartean diosku. Baina Cerquand eta Arakistainen gandik hartutakoak ere argitaratu zituen liburu berean. Kantuak, igarkizunak, atsotitzak eta abar ere ematen zaizkigu liburu honetan. Beraz, ordu-rarte argitara emandako testuen bilduma bat dela Vinsonena esan dezakegu. Liburu honen berrargitarapen bat, gaztelaniara itzulita, eman digu 1988an Txertoak.

Wentworth Webster 1828.eko Ekainaren 16an jaioa zen Ingalaterra-ko Middlesex eskualdean, Uxbridge herrixkan, Londonetik hurbil. Brightonen eskola pribatu batetan egin zituen lehen ikasketak eta gero, 1848an, Oxford-eko Lincoln Collegen lortu zuen Master of Arts titulua. Eskozia, Alemania eta Suiza nazioetatik ibili zen Erromantismoak eskatzen zuen bezala beste kultura batzu ezagutzen. Hogeitamar urte zituelarik, 1858an, Argentinako Buenos Airesen egin zuen egotaldi bat eta handik Frantziara itzuli zen bere bizitzaren urte batzu Bagneres-de-Bigorre hirian emanez, non Société Ramond delakoaren kidea izan zen, zeinen Bulletin-erako hainbat idazlan prestatu zituen. Egipton egon zen 1862 eta 1863 urteetan eta handik Suizan sei urte egon ondoren Euskal Herrira etorri zen 1870ean Donibane Lohitzunen bere egoitza kokatuz eta Miarritzeko anglikanoen koloniarrentzat kaperau zerbitzuak eskainiz. Hamairu urteen zehar pastoralgintzako lanak eta etnografia ikerketak burutu ondoren, osasunaren zioengatik Sarara zokoratu zen, non 1907.eko Apirilaren 2an hil zen. Seme bat izan zuen, Oxford-eko irakaslea, eta alaba bat Cambridgekoa, eta jatorrizko aberriarekin ez bazuen harremanik eten ere, bere bizitzaren bigarren 37 urteko sasoian euskalduntzat hartu zuen bere burua, gure kulturaren ikerketetan estudioak eta idazkiak burutuz. Hainbat adiskide eta lankide izan zituen arlo honetan, Bonaparte Printzea, D'Abbadie, Manterola, Etxegarai, Urquijo, Lacombe, Veyrin eta garai hartako euskalzale eta euskalari guztiak. Rodney Gallop, beste ingeles eta euskalariak esan zuenez, “ingeles bakar bat bizi izan da euskaldunen artean denboraz nahiko euskal izaeraz, ohiturez eta hizkuntzaz jakituriaz beterik idazteko”.

Euskal kulturaz askotariko gaiz idatzi zuen Websterek: arkeologia, historia, Literatura, etnografia, erlijioa, toponimia, ohiturak, eta abar luze bat, artikuluak hainbat euskal, frantses eta ingeles aldizkarietan azalduz. Ikertu zituen gaietan gailenenetakoa izan zela Webster jauna aitortu dezakegu. Herri literaturari dagokionez kondairez, pastorez eta abarrez arti-

kulu batzu argitaratu zituen. Baina gai honetaz bere lanik baliotsuena *Basque Legends* liburua izan zen, euskaratik ingelesera itzulia eta laster Madrideko Miraguano argitaldariaz gaztelaniaz kaleratuko duena. Euskarazko testuaren eskuizkribua Baionako Biblioteka Munizipalean dago gordeta eta Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako Artxiboan mikrofilmaturik dugu. Eskuizkribu honekin baliatuz, Charles Bidegain eta Aingeru Irigarai jaunek *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian (Iruñea, 1974 eta 1975) eman zizkiguten euskarazko testu batzu.

Donibaneko Dagieu-baitan idatziak izan ziren kondaira hauek 1873 eta 1875 bitartean, euskaldunen ahotik zuzenean jasorik, kontalarien izenak kondaira bakoitzaren azkenean ematen zaizkigularik. Transkribapen lanak aipatu etxean egin ziren eta Websterek dioskunez etxekoanderea zen Madame Bellevuek eman zion horretarako laguntza baliagarria. Kondairen euskal testuak eta frantsesera itzulpenak neurri eta lodiera desberdinetako koaderno batzutan idatziak izan ziren, eta Julio de Urquijok dioenez, 1906.eko Azaroaren 12an eman zizkion Websterek Baionako Udal Bibliotekari koaderno hauek eta beste testu batzu, hots, Pierre D'Urte-ren *Grammaire Cantabrique-Basque* eta *Dictionnaire Latin-Basque*, Saran antzeztua izan zen antzerti bat, Pastorale bat eta "Faceries" biltzen zituen koaderno bat. Baina Websterek Urquijori emaitzaren berri eman zion gutunean "november" agertzen bada ere, bederatzigarren hilari dagokio data hori, hots, Irailari, zeren eta Baionako Bibliotekari-Artxibaria zen Leon Hiriart jaunak eskerrak ematen dizkion gutunak 1906.eko Irailaren 20 data darama.

Basque Legends liburua ingelesez kaleratu zuenean ez zituen Websterek bildutako materiale guztiak argitaratu. Orduan argitaratu gabe geratu ziren batzuren batzu, euskaraz, originalean agertzen diren bezala argitaratuak izan dira gero Bidegain eta Irigarai jaunei esker. Dozena bete baino laguntzaile gehiago izan zituen Websterek lana burutzeko, eta batzurengandik kondaira bat baino gehiago lortu zituen: Estefanella eta Gagna-Haurra Hirigarai andereengandik hogeitik gora ipuin lortu zituen, eta hauetatik hamabi bakarrik argitaratu. Katherine Elizondo, Laurentine Kopena, Louise Lanusse eta besteren batek ipuin bat baino gehiago kontatu zioten. Laguntzaile guztienganako eskerrona agertzen du hitzaurrean, baina denen gainera D'Abbadie eta Vinson jartzen ditu, lehena, bilduma hasteko lehen laguntza eman ziolako eta bigarrena kontalarien hizkera ulertzeko argibideak eskaini zizkiolako. Kontutan izan behar dugu Webster bilduma hau egiten hasi zenean etorri berria zela gure Herrira eta iragandako hiru urteetan ez zuela euskararen zailtasuna gainditu, are gehiago kontalariak analfabetoak zirenez ulertezinagoa zela ahoz esandakoa. Itzulpenak Mme. Bellevuek egin omen zizkion.

Euskaratik frantsesera itzuli ondoren, ingelesera itzuli zituen Websterek horretarako arrazoi bat zuelarik, hots, euskal ipuin eta kondairak

frantsesez argitaratuta zeuzkala Cerquand-ek eta ingelesentzat euskal literatura guzti hau ematea komenigarri ikusi zuela gure pastore anglikanoak. Poztuko zen benetan Webster jauna liburuak izan zuen arrakastarekin: The Athenaeum, International Review, Gentelman's Magazine, Morning Post, Nature eta beste, Londonekoak bakarrik aipatuz, *Basque Legends* liburuaren irazkinak egin zituzten kaleratua izan zenean. Nik dakidanez, gure artean Iruñeko *Revista Euskara*-k bakarrik M. Gorostidik idatzitako artikulu batetan egin zuen liburaren aipamena. Ehun urte baino gehiago igaro ondoren ez da gehiegikeria izango, ene ustez, Wentworth Websteren lana gure gogoetara ekartzea. Eta hala egin dut ahal izan dudan neurrian.

EUSKAL HERRIA OIHENARTEN ATSOTITZ ETA ERREFRAUETAN

Donostia, 1989-IV-28

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburua

Les Proverbes basques recueillis par le Sieur d'Oihenart plus les poésies du mesme auteur deitu liburua ren aintzin solasean hauxe dio Oihenartek:

“Ce n'est pas sans raison qu'on a fait estat en tout temps des Proverbes, non seulement parmy le commun Peuple, en la bouche duquel ils sont si familiers, mais encore entre les Sçavans; Car, outre qu'ils servent d'ornement au discours dans la conversation, et d'argument pour persuader, ils contiennent plusieurs enseignemens pour la conduite de nostre vie; Ce qui a fait dire à Aristote, au rapport de Sinesius en l'Oraison qu'il a faite à la louange de la Chouette, que les Proverbes estoient les restes de l'ancienne Philosophie ruinée par les guerres et calamités publiques et qu'ils s'estoient conservez par le moyen de leur briéveté, et de l'agréable façon qu'ils ont d'exprimer les choses.”

Egia da erran zaharrek emaiten diotela solasaldiari behar duen apaindura eta Aristotele-ren arabera atsotitzak direla Filosofia zaharraren hereak, jende xeheek atxiki dituztenak gogoan, “populu en zuhurtzia” (la sagesse de nations) izendatzen baitira ere. Egia da atsotitz bildumak inprimatu direla erresuma guzietan, Euskal Herrian ere XVI. eta XVII. mendeetan. Egia da aurkitzen ditugula erran nahi bereko errefracuak denetan eta ez dugula sekulan jakinen non sortu diren. Adibidez Oihenartek bere 211. atsotitzean dakar:

211. Harri erabilik eztu biltzen oroldirik (1)

“Une pierre souvent remuée n'engendre point de mousse”.

(1) Oraiko ortografian emaiten ditut Oihenart-en atsotitzak, ulert-errexak izan daitezzen. Frantses itzulpena aldiz uzten dut idatzi zuen bezala.

Hala itzultzen du frantsesera, nahiz bazakikeen Frantsesek zerasatela: “Pierre qui roule n’amasse pas mousse” eta espainolez “Piedra move-diza nunca moho la cobija”.

Halaber gertatzen da 415. atsotitzarekin:

415. **Su gaberik ezta kerik**

“Il n’y a point de fumée sans feu”, hala erraiten baita frantseses, bainan hobeki esplikatzeko dio (c’est à dire de mauvais bruit sans quel-que fondement).

Bertze adibide batekin ikus dezakegu herri bakoitzak ideia beraren azaltzeko metafora desberdinak erabiltzen dituela:

443. **Zuretik ezpala**

“Le copeau tient de la nature du bois duquel il est tiré”. Egia erran, espainolezko “De tal palo tal astilla”-ren idurikoa da euskaldun atsotitza, frantsesak aldiz diolarik: “Tel père, tel fils”.

Bada beraz, mundu zabalean bizi diren ideiak, herri bakoitzak emaiten diela bere apaindura berezia hizkuntza bakoitzak eskaintzen dituen ahaltsunak baliatuz. Euskarari esker zinez euskalduntzen dira atsotitzak, hizkuntzak baitauka lehentasuna. Halere euskal paremiologian aurkitzen ditugu Euskal Herrian sortu diren atsotitzak, toki izenak ala jende deiturak edo izenak, ala Euskal Herrian erabiltzen diren gauza edo tresnak badakartelakotz.

Atsotitz horiek aipatuko ditugu orain:

1. **TOKI IZENAK**

Has gaitezen Oihenart-ek eskaintzen dizkigun arabera:

65. **Baigorriko bizkondea Beldurak diakarkek ahalgea**

“Vicomte c’est la peur qui produit la honte”.

Itzulpenean ez da aipatzen Baigorri. Baigorriko bizkondea Etxauzko gazteluan bizi zen. Dударik gabe kondaira-atsotitza da, gertakari latz

baten ondotik sortu dena. Zer izan zen gertakari hori ez dakigu, nahiz horren oihartzuna agertzen den ziberotar kantu zahar batetan, Augustin Chaho-ren kantu bilduman aurkitu dudana eta jadanik publikatu *Gure Herrian* (1963, 245-246 or.).

Sorthu nintzan Etchausian
 Hazi Garatian Aguerrian
 Eskolatu Bayounian
 Madamatu Urrutian

Altzuruku Urrutia
 Ala lekhu famatia
 Enetako ja izan duzu
 Phenaz hiltzeko lekhia

Mousde Urrutia bilhoua holli
 Jaun erreterak hortzak chouri
 Harek biek ni narabila
 Urrutian ezterari

Kosinatik kanberala
 Kanberatik kosinala
 Hirouretan Ungurarazi zeitan
 Bilho adatsa eskietan

Mousde Urrutia etzen lotzen
 Bere tela mihissetan
 Arauche nahiago beitzen
 Amouriaren kapitetan

Etchauzeko bizkoundia
 Beldura duzu ahalkia
 Uzten duzu phenaz hiltzera
 Zure arreba anderia

Hona, beraz, non agertzen den Etxauzko alabak bere anaia (neba) bizkondeari oihukatzen dion dei latza. Ez da dudarik orduan sortu zela atsotiz hori, beharbada kantu horretarik. Dei gisa behar dugu hartu zeren eta kantuaren azken pertsuak argi eta garbi erakusten baitu joan zela bizkondea bere arrebaren mendekatzerat.

Bizkoundia armaturik
 Zaldi ourdina zelaturik
 Urrutian sarthu zuzun
 Urrutia ezkapi leihotik

Baigorri aipatzen da ere 66. atsotitzean.

**66. Baigorri baxera lurrez
nik haragei nuenean urrez**

“A Baigorri la vaisselle est de terre; lorsqu'on parloit de m'y marier, elle estoit toute d'or”.

Egiazko izaitea eta alegiazkoarenaren arteko diferentzia erakusten digu atsotitz honek. Holako errefrauak agertzen dira edozoin erresumatan. Interesgarriena dena da onomastikaren bitartez Euskal Herrian kokatzen dela, ez behar bada Baigorriarren ohoretan.

117. Dohaikaitzdunak Zizurren illuna

“Le malheureux est surpris de la nuit à Ciçur”.

Ciçur est un petit village à trois-quarts de lieue de Pampelune, cité principale du Royaume de Navarre.

Zer erran nahi du atsotitz honek? Jalgi dela Iruñetik ibilkaria, hobe zuela hirian egonik eta ez kanpoan izan, bideak ez zirelaketz segurrak bereziki gauaz?...

180. Garaziren gaitza Behorlegik derosa

“Un chétif village porte la peine de la faute de tout un país”. Le mot Garacy, au texte, est le nom propre d'une province en Basque; et le mot Behorleguy, le nom d'un village de la mesme Province.

Gaia da ttipiek pagatzen (edo hobeki erran erosten) dituztela haundien erruak, hala nola haurrek aitamenak. Herri izenen bitartez Garaziko herria bere zabaltasunean eta Behorlegi, mendian kokatua den herrixka pobre bat, sinbolo gisa agertzen dira.

197. Gizon Jainkotiarrari Biriatu eta Donostia, bardin laketgia

“A l'homme dévot, le séjour du village est aussi agréable que celui de la cité”. Donostia c'est le nom de la Cité de Saint Sébastien en Guipuzcoa et Biriatu le nom d'un village à trois ou quatre lieues de là.

Jainkotiarra non nahi laket dago harreman goxoak eta baketsuak dituelaketz denekin. Pentsa dezagun, oker ez balinbanago, biak Baionako diosesakoak zirela eta mugarik ez zegoela garai haietan.

266. **Ientainen oihana hurren
bana behar karreiari egurren**

“A Lentein le bois est proche de la maison, mais il faut le charrier”.

Gentein Ziberoko jauregi bat da, ezagutua jadanik Erdi Aroan (Ikus: J.B. Orpustan, “Les maisons médiévales du Pays Basque de France”, *Bulletin du Musée Basque* 1984, 128.or.). Dirudienez frango alferrak zitezkeen hango jendeak.

295. **Lan ihesi Crastora han ere jakia bera eztator ahora**

“Il va à Castro pour fuir le travail, néanmoins là aussi la viande ne lui viendra pas d'elle même à la bouche”.

Ez du Oihenart-ek esplikatzzen zer den Castro. Castro Urdiales ez da Euskal Herritik hain urrun. Euskaldundu da izena *r* kontsonante metateziarekin, hala nola Grabiél, presuna...

372. **Orhiko xoria Orhin laket**

Orhi da Bortuetan mendi gorabat, Nafarroa elgatako eta Zuberoako mugan.

“L'oiseau qui s'est nourri à la montagne d'Orhi ne se plaît que là”. (Orhi est le nom d'une haute montagne dans les Pyrénées, laquelle est presque toujours couverte de neige.

Sort herriari doakon atxikimendua ederki agertzen da atsotitz honetan onomastikari esker.

373. **Orhin ekhia bero. Ihardespena han izanik hona niz**

Noizbait atsotitz hau osorik erraiten zen, bana orain ezta ihardespena baizik erraiten; eta haren erran-lekua da, noiz ere norbait ohartzen baita berte batek, enganatzekotzat, zerbait eragin nahi diola: zeren atsoen errana da: behiala, hegaztiak mintzo zirenean xori bat neguan hotzez hila habia bati arrimatu zela eta hura berte xori batez hartua edirenik, haren hantik ateratzeko sinhets-arazi nahi ukhen ziola, Orhin ekia bero zela; orde a berteak haren mina ezaguturik, inhardetsi ziola bazakiela Orhiko berri, ezi hantik etorri-berri zela.

“Le soleil est bien chaud à Orhi (Réponse) J’y ay esté et ne fais qu’en venir.”

Atsotiz hau ipuin baten bururapena da, hegaztiak mintzo ziren garai-koa, alegia idurikoa eta, alegietan bezala, azken hitzetan datza erakasp-ena, baina zinez euskal lurrean finkatua da.

506. **Gaitz da Arradoian artzea borroka, eror daite ehor, eta burua porroka**

Arradoia da Garaziko mendi xut eta harritsu bat.

“Il fait mauvais lutter en un précipice car il y a danger de cheoir et de se casser la teste.” Le mot Arradoy au texte Basque est le nom propre d’un précipice.

Gerlak ez dakarrela deus onik eta gudukan ari diren bi alderdiak galtzale ateratzen direla da atsotitz honen erakasp-ena, errima aberatsez apaindua (borroka/porroka) eta eremu berezi batean ezarria.

640. **Lexantxuko tonborrariari urre bi joiteko sei ixil sari**

“Au menestrier de Lixans il faut deux pièces de dix huit deniers pour le faire sonner et six pour le faire taire.”

Dakigularik zein maite duten Ziberotarrek soinua eta dantza, hobeki ulertzen da atsotitz honek daukan metafora, erakusteko nola ezin ixilara-zizkoak diren jende batzu, nardagarriak bilakatzen direla.

2. **IZEN ETA DEITURAK**

Atsotitzen euskalduntzeko ahalatasuna euskaldun izen eta deituren aipatzean datza. Holakoak aurkitzen ditugu Oihenart-ek bildu dituen errefracetan.

28. **Antso limosnari, urde ebatsiaren oinak dematza beharrari**

“Ancho (c’est le nom propre d’un homme) est un grand faiseur d’aumosmes il donne au pauvre les pieds du pourceau qu’il a dérobé.

Nola ager daitekeen norbait eta zer den egiazki, zer den kanpotik eta zer barnetik dio atsotitzak baina norbait hori euskalduna da Antso deituz.

119. Domingo egik emazte, atzi lo, berak iratzar iro.

“Dominique prends une femme et après dors tant que tu voudras, car elle aura assez de soin de t’éveiller.”

Hemen ere izenak euskalduntzen du atsotitza.

**139. Eneko, atxeka hi hartzari
nik demadan ihesari**

“Eneco, saisis-toy de l’ours, afin que j’aye moyen de fuir”.

**160. Ez holla Usmena, handiki gorapenak
Soinean diakarken beherapena**

“Ne prends point vanité, Usmène (c’est le nom d’une femme) de ta fortune; car souvent le croissant porte le déclin sur ses épaules.”

262. Jauregik jaka bete xingolaz, barnea eztupa et’arkolaz.

“Jauregui (c’est le nom d’un homme) a son pourpoint tout couvert de galans, mais le dedans n’est qu’estoupe.”

263. Jauregik, berak ardiesten ezin duena, du gutiesten

“Jauregui mesprise ce qu’il ne peut comprendre”.

268. Joanetak zaia oihal mehez, jakia ekosariz, salda ehez

“Jeannette a sa robe de drap fin, sa pitance c’est de la fève, son potage maigre et tanné comme l’eau de lessive.”

**450. Uhalde, nola haiz hola aberastu kolpe batez?
Traidore izatez**

“Uhalde (c’est le nom d’un homme) comment es-tu ainsi devenu riche tout en un coup? C’est en faisant des trahisons. (Le mestier de traître est parfois bien lucratif, mais toujours odieux et détestable).

621. Hire nahiz gaitz jin zaikan horri, errakok Sancho, ungi ethorri

“Au mal qui t’est venu par ton souhait, dis luy qu’il soit le bien venu.”

Ez da dudarik atsotitz horiek euskalduntzat eman dezazkegula hain zuzen ere izen eta deituren gatik. Ohartxo bat: Presunari zuzenki mintzatzen zitzaizolarik *toka* ari zaio (Domingo egik emazte —Eneko atxeka hi— Uhalde, nola haiz- errakok Sancho) edo *noka* hala nola Usmenari (soinean diakarken). Halaber gertatzen da Baigorriko bizkondearekin (diakarket ahalgea). Horrek erakusten ote du atsotitz horiek sortu ziren garaian zu izen orde personala ez zela oraindik singularrerat pasatua?

Utzi dut azkenerako 208. errefrau.

208. Handurreria, ezpada Tusuria, da hura iduria

Tusuria, diabruari erraten zioten euskara zaharrean eta oraino hitz haur usatzen da Zuberoan.

“L’arrogance si elle n’est pas une diablerie, elle en a du moins l’apparence”.

Interesgarrienetarik da atsotitz hau emaiten baitigu deabruaren izena “euskara zaharrean” Oihenartek dioen bezala eta, gehiago dena, izen hori agertzen delakotz erriman (Handurreria/Tusuria/iduria). Zinez osoki euskalduna den atsotitza da, Euskal herrian eta Euskaldunek sortua.

3. EUSKALDUN GIROKO ATSOTITZAK

Euskal Herrian erabiltzen diren gauzek eta tresnek agertzen dute euskaldun giroa atsotitzetan. Emanen ditut zenbait etsenplu, aztertuz nola hitzen bitartez edo ohidurak gogoan hartuz, zinez euskalduntzat eman dezakegun atsotitz horien sorrera.

20. Amak irin balu opil balaidi

“Si ma mère avait de la farine elle ferait des gâteaux”. “Gâteaux” hitzarekin Oihenart-ek itzultzen du *opil* hitza. Egia erran opila da ogi ttipi berezi bat, labea errean larunbatetan, haurrei eskainia igandekari. Opil hitzarekin sartzen gara euskaldun ohiduretan, laborari etxeetan etxean-dereak ogia egiten zuelarik larunbatetan.

Ez naiz menturatzen euskaldun giroan sartzea.

23. Amaizuna erradan: no, ez nahiduna

“Marastre, dy moy tien, et non pas en veux-tu?”.

eta 24. Amaizuna eztizkoa ere, ezta huna.

“La marastre quoy que faite de miel, n’est pas bonne” amaizunaren eta senarraren lehenbiziko haurren harreman txarrak ez baitziren Euskal Herrikoak bakarrik, dakigularik haur ukaitean gazterik hiltzen zela emazte asko eta berriz ezkontzean aita, amaizuna sartzen zela etxean.

29. Apezak azken hitza bere

“Le Prestre presche, en fin, pour soy”.

Hemen ikus daiteke apezan eragin haundia Euskal Herrian, nahiz hala gertatzen zen ere bertze erresumetan.

49. Atzerri otserri

“Pais d’estranger, pais de loups”.

Labur izanez, *erri* hitz bukaeraren errepikaren balioa ezagutuz eta *atz* eta *ots*-en arteko jokoa sendituz zinez euskalduntzat jotzen dut atso-titz hau, jadanik aipatu dudan “Orhiko xoria, Orhin laket” gogoratuz, bat bertzearen erantzuna delakotz.

120. Duenak azer biper

“Il n’y a que celui qui en a qui mette du poivre sur les choux de son potage”.

Dakigularik zoin maite duten biperra Euskaldunek, nahiz biper beltza, nahiz biper gorria, euskaldun giroa emaiten digu atsotitz horrek.

201. Goldearen amorekati pot nabarrari

“On baise le soc pour l’amour de la charrue”.

Bere itzulpenean ez du Oihenart-ek emaiten nola egina zen iraultze-ko tresna hori, bi tresna berezi baitziren *goldea* alde batetik eta *nabarra* bestetik.

225. Hegoa iduri da emazteen gogoa

“L’esprit des femmes est léger comme le vent de midy”.

Holako errefrauak ezagunak dira: Adibidez:

“Comme la lune est variable
Pensée de femme est variable” (2).

“C’est grand miracle si une femme meurt sans faire folie” (3).

“Femme est un cochet à vent
qui se change et mue souvent” (4).

Eta *Rigoletto* operan agertzen dena:

“Comme la plume au vent
Femme est volage
Et bien peu sage
qui s’y fie un instant”.

Berdin espainolez aurki daitezke:

“Mujer, viento y ventura presto se muda” (5).
“Mujer, viento, tiempo y fortuna presto se muda” (6).

Emaztearen itxura hori, hain unibertsala izana gatik, osoki euskalduntzen da *hegoa* hitzarekin, hegoa baita Euskal Herrian haize bero, basa eta jauzkorra.

228. Her-jauna, otoiez dagoenean botoiari keinuz dauke uheari

“Quand le Seigneur use de prières envers son sujet, il guigne le baston”.

Botoi hitza ezaguna da Ziberoan. Gizarte klaseetan azkena zen, nobleen edo jaunen menpeko ziren. Hitz horren gatik euskaldun giroa agertzen da.

(2) LE ROUX DE LINCY, *Le livre des proverbes français*, Paris, 1842, I, 70.or. (*Suite aux mots dorés de Caton*) liburuan aurkitua, XVI. mendekoa.

(3) LE ROUX DE LINCY, *Le livre des proverbes français*, Paris, 1842, II, 194.or. (*Adages français*), XVI. mendekoa.

(4) LE ROUX DE LINCY, *Le livre des proverbes français*, Paris, 1842, II, 350.or. (Herbers, *Roman de Dolopathos*, esku iskribuan aurkitua, XIII. mendekoa.

(5) CORREAS Gonzalo, *Vocabulario de refranes y frases proverbiales* (1627), Edizio berria, Louis COMBET-ek paratua, Bordeaux, 1967, 563.or.

(6) CORREAS Gonzalo, *Vocabulario de refranes y frases proverbiales* (1627), Edizio berria, Louis COMBET-ek paratua, Bordeaux, 1967, 563.or.

236. Hila lurpera biziak asera

“Le mort à la fosse, les vivants à la saoulée”.

Eta frantsesez segitzen du Oihenart-ek erranez:

Cela se dit à cause des banquets qu'on fait parmy les Basques, aux parens et amis du deffunt, le jour de son enterrement.

Komentario honek argi eta garbi erakusten digu euskaldun giroan gaudela.

Euskal Herria itsasoaren ondoan dago; hortakotz, nahiz bertze erre-suma batzuetan holakoak aurki daitezkeen, euskalduntzat joko ditut 285 eta 286. atsotitzak.

285. Itsasoak adarrik ez

“La mer n'a point de branches à quoy on se puisse prendre quand on se noye.”

286. Itsasturuaren emaztea, goizean senhardun, arratsean alargun

“La femme du Marinier est bien souvent mariée le matin et vefve le soir”.

311. Mandoa nor duk aita? Bortuko behorrik ederrena ama

“Mulet, qui est ton père? La plus belle jument qui soit en tous les monts-Pyrénées est ma mère.”

Bortu hitza “Monts Pyrénées” hitzekin itzultzen du. Alabaina, *bortu* erraiten da komunzki Ziberoan mendiarentzat. Harat igortzen dituzte kabalak udan, behorrak, behiak, ardiak eta ahuntzak. Euskal mendietako ohiduretan gaude.

346. Ogi bezanbat gasna nahi luke

“Il voudrait autant de fromage que de pain”.

Ogi eta gasnarekin hazkuntza giroan sartzen gara, euskal giroan dudarik gabe.

367. Ongi egiten duenak bilaunari bere ongia du esteialtzen eta eskarnio egiten kapareari

“Celuy qui fait du bien au villain dissipe son bienfait et fait injure aux honnestes gens”.

Kapare da bilaun eztena, ez eta xoil aitoren seme, bana bien arteko, Espainian hidalgoa den bezala, dio Oihenart-ek. Hau da beraz Euskal Herrian ezagutzen zen gizarte klase bat.

371. Orga txarrago eta karranka haundiago

“Tant plus la charrette est usée et chétive, tant plus elle fait de bruit.”

Hain zuzen ere, bada Euskal Herrian orga edo gurdi berezi bat eta hortakotz hautatu dut atsotitz hau euskal giroan sartzen baita.

656. Ohetik mahaira, mahaitik züzülura, korronkaz paradüsura

“Du lict à la table, de la table à l’Archibanc et de là en ronflant au Paradis”.

Cecy se dit des feneans et voluptueux, l’Archibanc est le lieu où l’on fait le som meil du midy”.

Supazter xokoan den alki haundia da züzülia; muble euskaldunik balinbada züzülia da, ez baita holakorik ikusten bertze herrialdetan. Ohe, mahai, züzülü, alferraren bizi eder baten amentsa!

* * *

Mintzaldi honen bururatzeko erakutsiko dizuet nola aurki daitezkeen inkesta batzuren bitartez tokian tokiko atsotitzak. Baigorriekin hasi nintzen, Baigorriekin bururatuko dut.

Duela hogoi eta hamar urte baino gehiago etnotestu batzu bildu nituen Baigorri eta azaldu nituen Geronan, “Tercer congreso internacional de estudios pirenaicos” delakoan 1958 an; 1963-an publikatu ziren Zaragozan. Emanen dizuet bat Xan Alfaro-k kondatu zidan bezala:

“Eta, uai, kondatuko daiat ene beharriz aitu ixtorio bat, museko eztabadaat, gure etxian gertatia, usaia bainiin, haurrian, diila urte multxuat, muslarier beha egoiteko. Ai zitian musian Tihista zena koplaka afizione ziina, Poko zena aldeatetik eta Gixonto zena eta Antso bestetik. Samurtu zitian tantoen gainetik. Tihista kexatu eta erran zakian Antsoi:

— Hi, kaka mokordoat hiz

eta Antsok errepostu biziki arrazoinakaria baitzen:

—Ni kaka mokordo bezen hi asta pito haundi.

Ez satifos, Antsok berriz erran zakoian:

—Hi hiz gizon bat Etxauzko khea eta Lakonddoko brasa.

Eta gure gizona ixildu.”

Hi hiz gizon bat Etxauzko khea eta Lakonddoko brasa

Hau da Baigorriin sortutako atsotitz bat. Etxauzea da Baigorriko bizkondearen gaztelua eta Lakonddoa Mitxelengo zubiaren ondoan zegoen Baigorriko etxe miserableena. Xan Alfarok berak esplikatu zidan gizon hori zela “urguluz gora eta izaitez apal”.

Holako atsotitzak bizirik daude oraindik. Behar litezke bildu ahal bezainbat etnotestu inkestak eginez.

OIHENART-EN ATSOTITZ ETA ERREFRAUEZ NOTA TIPIA

Donostia, 1989-IV-28

Alfonso Irigoien

Jean Haritschelharr-ek Donostian J. A. Arana Martija-renaren ondorik txosten bat irakurri zuen Apirilaren 28-an arratsaldez Euskaltzaindiaren batzarrean “Euskal Herria Oihenart-en atsotitz eta errefrauetan” gaiaz. Erranikoa entzun ondoan, ohituraren arauera nork ere hitza eskatzen baitu hari emaiten baitzaio, eni eman zitzaidan, eta haren hitzak entzun ahala burura etorri zitzaidana irazean bezala jaulki zitzaidan. Hara hemen labur gaia:

1. Oihenart, n.º 211: *Harri erabilic estu bilzen oroldiric*, “vne pierre souuent remuée n’engrendre point de mousse”.

Errefrau hau berau, baina gaztelaniaz, gutienez Bizkaiko Enkartzioetako Karrantza-n erabiltzen dela dio bertako seme zen Nicolás Vicario de la Peña-k bere liburu *El Noble y Leal Valle de Carranza*, Bilbao 1975, “Capítulo XXII, Costumbres jurídicas”, 404 orr., delakoan. Honela:

Piedra movediza nunca cría moho. Hurrengo kontextu honetan emaiten du: “En toda Vizcaya se hacen los arrendamientos sin tiempo limitado, estipulándose el pago de las rentas por años; y a pesar de que son muchos los inquilinos o arrendatarios que ocupan o cultivan fincas ajenas, son muy pocos los casos de desahucio, teniendo por bochornoso el que un inquilino cambie con frecuencia de casa, lo cual da a conocer que es un mal pagador o mal labrador, y entre sus iguales es axioma indubitable el que *pedra movediza nunca cría moho*, para dar a entender que el que por poco tiempo labra una heredad, no lo hace con cariño ni la atiende con el cuidado que debe.”

Handik kanpora ere ezagutzen da Bizkaian bertan egungo egunean.

Nicolás Vicario Karrantza-n jaio zen 1866-garren urtean eta bertan hil 1941-garrenean. Epaikari izan zen hiru lekutan eta gero Proprietatearen Registratzailea zortzitan: Ramales, Nájera, Markina, Gernika, Durango, Ubeda, Valladolid eta Donostian. Liburua 1933 eta 1935 bitartean izkribatu zuen geroago argitara zenarren.

Edozein modutan ere 1596-garren urterako *Refranes y Sentencias*-en honetara dator, n.º 5:

Arri ebil oquiac oroldiric ez, erle vçatuac abaaric ez, ‘no tiene moho la piedra mouediza, ni haze panal la aueja espâtadiza’ (1).

J. de Urquijo-k, *RIEV*, V (1911), 379 orr. eta hurr., honen lehenengo partea eta Oihenart-ena konparatzen ditu, eta gainera dio: “debe ser traducción del proverbio castellano: *Piedra mouediza, nunca moho la cubija* (H. Núñez, fol. 364) citado ya en la *Col. de Refr. del sigl. XV*, en la forma siguiente: *Piedra mouediza no la cubre moho*”, eta abar. “Axular (Gvero, p. 38) traduce dicho proverbio de otra manera: *Dabillan harriari etçaica goroldioric lotcen*”, “y en el mismo pasaje emplea otros refranes: *Vr iraquinean eztu vliac pausatcen*”, “*Arduraco arropari etçaica cerrenic eguiten*”, “*Çuhaitz bethacorra eztu nehorc ebaquitcen*”. Frantsesezko etsenpluak ere emaiten ditu: “*Pierre volage ne queult mousse* (*De l’hermite qui se désespere pour le larron qui ala [alla] en paradis avant que lui*), siglo XIII”, “Leroux de Lincy (t. II, p. 354)”, “*Pierre souvant remuée de la mousse n’est vellée* (Gabr. Meurier, *Trésor des sentences*, siglo XV)”, “Véase serie n.º XI, palabra *Pierre*, y también, p. 54”. Eta ondoren dio: “Los romanos decían: *Lapis saepe provolutus non obducitur cespite*, y existe el mismo refrán en otras lenguas, según puede verse en Wander, IV, palabra *Stein*. Consúltese, asimismo, Caro y Cejudo, pp. 317 y 318”.

2. Ohienart, n.º 49: *Azerri Otserri*, ‘païs d’étranger, país de loups’.

Latinez bazen errefrau politiko bat, zeinen arauera: *Hospes hostis*, ‘atzerritarra etsai’, baitugu, euskarazkoa bezain laburra eta aliterazio ta guztikoa. *Azerri otserri* zaharra bada, latinezkoa zaharragoa.

Argi dagoela dirudi latinez *hospes* eta *hostis* hitzek sortzen duten aliterazioa gogoan izanik eraiki dela euskarazkoa ere: *atzerri otserri*. Hitz konposatu bietan bigarren elementu den *herri*, ‘país’, berdina baita *atz-* eta *ots-* formen txistukariekin jokatu da. Latinezko errefrauak eta euskarazkoak elkarren artean zer ikusirik ez dutela pentsatzea zaila dela deritzat, eta, jakina, denborari dagokionez arrazoizko da latinezkoa lehenagokoa dela uste izaita.

(1) *Ebiloqui* hitza bilduma bereko 471-garren errefrauean errepikatzen da: *Oshso gosea ebiloqui*, ‘lobo hambriento andador’, baina Azkue-k bere Hiztegi nagusian *ebilkoi* biltzen du hurrengo oharra duela: “el texto, sin duda por errata, dice *ebiloki*”. Hitza bi aldiz forma berean agertzen denez gero ez da uste izaiteko, ordea, erratua denik. Agian partizipio konposatua dateke: *ebil(i) + idoki*. Honelatsu: **ebil-idoki* > **ebilioki* > *ebiloki*. Leicarraga-k berak ere XVI-garren mendean *idoki*, ‘atera’, darabil: *Baldin eure begui escuinac trebuca eraciten bahau, idoqui eçac hura, eta iraitzac eueganic*, “S. Matthey”, V, 29, Vulg.: “*quod si oculus tuus dexter scandalizat te, erue eum, et projice abs te*”.

3. Oihenart, n.º 139: *Eneco axeca hi harzari, nic demadan ihessari*, 'Eneco, saisis-toy de l'ours, afin que i'aye moyen de fuir'.

Refranes y Sentencias-en, n.º 422, hori berori agertzen da, beste pertsona-izen bat, *Txordon*, daramala, XVI-garren mendeko Bizkaiko euskaraz, eta hala seinalatzen du J. de Urquijo-k ere, *RIEV*, XXIII (1932), 275 orr. eta hurr.:

Ausso Chordon arz orri ta nic iñes dayda, 'ten Hordoño a esse osso, y yo hare huyda'.

J. de Urquijo-k gainera dio: "Si, como parece probable, estos dos refranes se dijeron para censurar a quien, en casos peligrosos o difíciles trata de ponerse a salvo, actuando de capitán Araña, cabrá relacionarlos, en cuanto al sentido, con el castellano: *Tente con siete, mientras me ascondo* (H. Núñez, ol. 443 v.).

"A falta de un cuento vasco, español o francés (que yo desconozco, aunque probablemente existe) [bere aurreko lan batetik aldatzen duenez gero oharrean dio: hoy me consta que ese cuento existe en alemán], en el que pudiéramos basar los refranes de 1596 y de Oihenart citados, voy a traducir del francés uno chino, del que no podrá decirse que no viene al caso. Lo encuentro en la voluminosa obra de Edouard Chavannes: *Cinq cents contes et apologues extraits du Tripitaka chinois*, Paris 1911 (Tomo II, p. 226).

"El protagonista *Chordon o Eneco* de los proverbios vascos, aparece sin nombre en el *Tripitaka*.

"En otro tiempo, una vieja se hallaba echada al pie de un árbol, cuando apareció un oso que trató de apoderarse de ella; la vieja entonces dió vueltas alrededor del árbol para escaparse; tras de ella alargó el oso sus patas para cogerla, abrazando el árbol: la vieja, ante este peligro inminente, abrazó también el árbol y estrechó entre sus manos las dos patas del oso; este se encontró así inmovilizado. En esto llegó un hombre, al que dijo la vieja: 'Ayúdame á sostener y á matar al oso y nos repartiremos su carne'. Entonces el hombre, dando fe á las palabras de la vieja, se puso á sostener al oso al mismo tiempo que ella: cuando le hubo sujetado, la vieja soltó al oso y se marchó.

"El hombre fué después despedazado por el oso..."

Urquijo-k beste errefrau bat ere aipatzen du Garibay-ren bildumakoa, baina hartan otsoaren ordeztu urdea agertzen da, eta *Perutxo* pertsona-izena:

Ausbo Perucho urde orri eta neuc ies daguidan [lehenengo hitza irakur bedi *autso*].

Beste alde batetik ezin gelditi naiteke *atxe*ki eta *eutsi*-ren flexio-jokoez oharren bat edo beste egin gabe. Izan ere batean *axeca* intransitibo

moduan eta datiboari begira, osagarri zeharkako den *hartzari* hitzarekin komunztadura eginik, agertzen da, eta bestean *autso* era berean, *artz orri* duela komunztaduradun, baina zentzu transitiboa atxikirik, itzulpenean bederen. Aurrenekoaren itzulpenean, ordea, euskarazkoaren eredu zehatza emaiten da: 'saisis-toy de l'ours'. Egungo egunean *eutso* forman korritzen du Bizkaian ika berba egiterakoan, zentzu transitiboz fosilizaturik eta datiboari begira gehiago ez dagoela, 'toma (algo), ten'.

Ez da kasu bakarra XVI-garren mendean intransitibo forman agerturik transitibo zentzua duena. Hor dugu, etsenplu bat besterik ez aipatzearen, Leizarraga-rena, "S. Matthev", VII, 9: ***Ecê nor da çuetaric guiçona, baldin bere semea ogui esca badaquiô, harri emanê draucana?***, Vulgata: 'Aut quis est ex vobis homo, quem si petierit filius suus panem, numquid lapidem porriget ei?'. Izan ere, *eska badakio*, 'Vulg.: si petierit', intransitibo formakoa izanarren *ogi* osagarri zuzena duela ageri da, latinez *panem* akusatibokoaz eraikirik dagoenaren parean. Bizkairako ikus *Refr. y Sent.*, n.º 257: ***Ezçaçeaquiô daucanari ta vay onderextanari***, 'no pidas al que tiene, y si al que bien te quiere', baina hala ere, n.º 25: ***Arloteari emayoc arauça, escatuco dic zoça***, 'al mendigo dale el hueuo, pedir te ha el palillo escarbader'. Halako berbo-jokoak izendatzeko agian *deponente* hitza erabil dezakegu, zeinek transitibo formaz intransitibo zentzua dutenentzat ere balioko lukeen. Izan ere, euskaraz kasu horretan hainbat berbo dugu banan banan ikertu behar lirakeenak. Egungo egunean *eskatu* eta beste halako batzu forma transitibora aldaturik agertzen dira.

Bilbao, 1989-garreneko Apirilaren 29-an.

BESTELAKO TXOSTENAK

NOTE A PROPOS DE QUELQUES POINTS DE TYPOLOGIE DES LIQUIDES ET VIBRANTES EN ALTAÏQUE

Michel Morvan

UA 04-1055 CNRS-Université de Bordeaux

Les langues altaïques possèdent essentiellement deux types de *liquides* (on englobe ici les vibrantes sous cette dénomination générale). Tout d'abord une liquide latérale qui peut dans certains groupes d'idiomes être absente à l'initiale des mots, ou bien chuter en finale (1). Ensuite une vibrante faible qui n'apparaît pas, elle non plus, à l'initiale des termes autochtones et donne lieu à un substitut dans les autres positions ou se réduit au degré zéro (2).

Il convient semble-t-il de distinguer l'altaïque occidental de l'altaïque oriental. Dans le premier, la vibrante *r* est une sorte de phonème se situant quelque peu à la frontière entre les liquides et les dentales, et elle est faiblement vibrée. Dans le second, auquel il paraît souhaitable de rattacher le japonais commun, il s'agit encore d'un phonème-limite mais ce dernier est davantage une vibrante-dentale alvéolaire à vibration plus ou moins forte. En tout état de cause, la nature de ces vibrantes tend à nous rappeler la facilité avec laquelle certains phonèmes alternent dans les langues de structure typologique ancienne telles que les langues agglutinantes par exemple. On mentionnera ici la faible distance phonétique qui existe entre le basque *r* et le basque *d*, fait que l'on peut illustrer par les exemples comme:

bsq. *bidasoï(n)* "vent de mer tourbillonnant", qui est un emprunt au castillan *virazón* "id."

bsq. *duR* "je l'ai" (Roncal) pour *dut*, *dud*— (batua).

L'altaïque admet, précisément, le passage de *d* à *r* (ou *l*), qui a pu se produire par l'intermédiaire d'une spirante *ð*, bien qu'un tel intermédiaire

(1) M. RÄSÄNEN, *Zur Lautgeschichte der Türkischen Sprachen*, Helsinki, 1949, p. 210-212.

(2) M. RÄSÄNEN, *op. cit.*, p. 213-216.

ne soit pas absolument nécessaire: türk *ada(q)* "pied"/ türk tchouvache *ora* "id.". La dentale peut de son côté passer à la naso-dentale *n* (3), ce qui là non plus ne surprendra pas le bascologue (alternance de la 1^{re} personne du singulier *ni/ -t/-d-*). Quant à la vibrante, elle peut en altaïque donner une sifflante sourde ou sonore: türk *tür* ou *tüz* "aspect" (var. *dür, tüs*); türk *kör* ou *köz* "voir" (var. *gör, göz, küz*, tchouv. *kuś*) (4). De nouveau on constatera que le basque fait souvent alterner la vibrante et la sifflante: bsq. *intzaur* "noix", en composition *intxauz-*, bsq. *erran/e-san* "dire", bsq. *ernai/esnai* "éveillé".

Les liquides, qu'il s'agisse de *l* ou *r* (vibrante), ne sont pas présentes à l'initiale des mots en mongol, tout comme en türk. Pour ce qui concerne les termes empruntés, la langue remédie à cette "absence" en ayant recours à une prothèse vocalique. Ainsi le sanscrit *ratna* "joyau, pierre précieuse, perle" devient *aratna* en mongol, *ärdäni* en vieux-türk. Il n'est point besoin de rappeler que l'euskara n'a pas de termes débutant par une vibrante initiale: lat. *rege(m)* donne bsq. *errege* "roi"; cast. *raspa* "râpe" donne bsq. *arraspa* "râpe ou raclette à nettoyer le pétrin". En mongol khalkha, dialecte principal de la RPM, il existe une vibrante forte alvéolaire (5), qui a tendance à s'assourdir en finale ou devant une occlusive. On relève en mongol des passages de *r* à *l* et de *r* à *s* comme en türk (6). De plus le *r* du mongol écrit correspond en türk tantôt à un *r*, tantôt à un *z* issu de **r* (7). L'alternance *l/n* est attestée.

Si l'on examine maintenant les langues toungouses, on constate l'existence des liquides *l* et *r* (vibrante). La liquide *l* alterne à l'initiale avec la naso-dentale *n* pour un même terme: ainsi on aura toung. *lūki/nūki* "flèche"; *lamu/namu* "mer". Dans les mots empruntés, le toungouse, qui n'admet pas la vibrante *r* à l'initiale, remplace cette vibrante par son système *l/n*: par exemple le terme signifiant "russe" ou "Russie", devient *luça* ou *nuça*. Outre, une fois encore, la caractéristique typologique commune relative à l'absence de vibrante à l'initiale des mots, on peut observer que le basque, comme le toungouse, fait alterner *l* et *n* pour un même terme

(3) M. RÄSÄNEN, *op. cit.*, p. 215-218 et 221-222.

(4) On remarquera la forme de ces lexèmes *dür* "aspect" et *küz, kuś* "voir" qui pourraient être comparés avec une assez bonne vraisemblance aux formes basques *i-dur-i* (var. *i-rud-i*) et *i-kus-i*.

(5) VLADIMIRTSOV, *Sravnitelnaja Grammatika mongolskogo pismenogo jazyka i chachaskogo narečija, Vvedenie i Fonetika*, Leningrad, 1929, p. 58.

(6) VLADIMIRTSOV, *op. cit.*, p. 360, §§ 216-218.

(7) C'est-à-dire litt. "terre sombre" de *lur* "terre" et *bel* "noir".

- bsq. *lapur / napur* "voleur"
larru / narru "peau"
lurbel / norbel "lieu où la neige a disparu" (7)

N. Poppe et W. Bogoraz nous donnent des indications sur la façon dont se comporte la vibrante dans les dialectes toungouses. Pour Poppe, en solon, la vibrante *r* représente plutôt une vibrante faible (8). Pour Bogoraz, la vibrante du lamoute "acquiert après *l*, *m*, *n* ou *n* une nuance de dentale à vibration réduite et fait l'effet d'un *d*" (9). En even, il existe outre un *l* doux, une variété de *r* qui produit l'effet d'un *dr* (occlusive rétroflexe?) après une nasale (10) ou une latérale (11). En udé, *l* représente un son intermédiaire entre π et π^b du russe, tandis que la vibrante alterne avec *l* (12). L'alternance vibrante/dentale est retrouvée en toungouse-mandchou: mandch. *eru/etu* "fort"; *buru/butu* "sombre, caché"; toung. *duru* (= mongol *düri*) "aspect"/solon *dutci* (13).

Le coréen, comme l'indique Ch. Haguénauer (13), connaît sous un même signe graphique un *í* à vibration réduite et un *l* plutôt latéral. L'auteur ajoute qu'aucun de ces deux sons n'intervient à l'initiale d'un mot indigène. La latérale *l*- des mots empruntés est passée à *n*-, et même au degré zéro.

(8) N. POPPE, *Materialy po solonskomu jazyku*, Leningrad, 1931, p. 101.

(9) W. BOGORAZ, *Materialy po lamutskom jazyku*, p. 4.

(10) LEVIN, *Kratkij evensko-russkij slovar*, Moscou, 1936, p. 110-111.

(11) J. BENZING, *Lamutische Grammatik*, Wiesbaden, 1955, p. 9.

(12) ŠNEJDER, *Kratkij udejsko-russkij slovar*, 1936, p. 90.

(13) CH. HAGUÉNAUER, *Origines de la civilisation japonaise*, Paris, 1956, p. 413.

EUSKARA KONSTITUZIOTIK (Oharrak)

Bilbo, 1988-X

Abel Muniategi

Espainiar Konstituzioaren 3, 1 eta 2, atalak honela dio:

“El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.

Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.”

I. Zer da “ofizialtasuna”?

Derrigorrez aztertu beharrekoa da Auzitegi Konstituzionalak Euskeraren Erabilpena Araukotzezko Legeari buruz 1986.go Ekainaren 26an eman 82. Epaia.

Konstituzioak ez du adierazten zer den “ofizialtasuna”, baina, Epai honen 2. Zuzenbide-Oinarriaren arabera, “gaztelania Estatuaren hizkuntza ofiziala da” eta Estatua “Espainiako botere publikoen multzoa” da, hor sartzen direlarik “autonomo eta tokikoak”.

Beraz, “gaztelania Espainiako lurralde osoan botere publiko guztien hizkuntza ofiziala da”.

Horrek esan nahi du botere publikoen artean eta subjektu pribatuekiko “ohizko komunikazio-bidetzat onartua” dela “baliotasun osoz eta zuzenbidezko ondorioz”.

Horregatik, “gaztelania Espainiar Estatu osoan botere publikoen arteko, eta euren aurrerako, ohizko komunikazio-bidea da”.

Horrela, “gaztelania ez den hizkuntzen baten erabilpen soila ezin liteke Espainiako lurraldearen zati batetan ezarri”, eta ezin liteke gaztelania ez dela ezagutzen alegatu.

Hona hemen guzti honen emaitza: Euskeraren Erabilpena Araukotzeko Legea, bere 8,3, atalean, Konstituzio kontrakoa da, zeren honela bait dio, alegia:

“Gorago agindutakoa hala dela ere, udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dadinean, herri agintariek, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskera bakarrik erabili ahal izango dute.”

Eta hau Konstituzioaren aitatu 3,1, atalaren aurka doa, zera esaten baitu gaztelaniaz:

“Todos los españoles tiene el **deber de conocerla** y el derecho a usarla.”

Hori hor, nahiz eta lehen aitatu atalean “herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dadinean” esan, euskara bakarrik erabiliz, hizkuntza hau ez dakitenen interes eta eskubideak zokora daitezke, Auzitegi Konstituzionalaren eritziz, ze ez dago euskara ezagutu **beharrik**.

Baina, arazo honek beste galdera batetara garamatza:

II. Zer da “deber” edo “beharra”?

Espainiar guztiek dute gaztelania ezagutu **beharra**”.

Xedapen honek ez du berdinik Zuzenbide gonparatuan. Nola jarri liteke holako zerbait Konstituzioan? Gangarkeri bat da. Gauza bat da hizkuntza ofiziala ezagutzen delakotzat ematea eta beste bat ezagutu beharra. Non daude giza-eskubideak?

Nola nahi ere, gaztelania jakin beharra ez da ofizialtasunaren ondorio bat, ze, horrela balitz, euskara ere, gure Komunitate Autonomoan ofiziala denez, ezagutu **beharra** izanen litzateke eta ez da hori gertatzen, ez Konstituzioan eta ez Estatutuan.

Edo, bestela, gaztelania ofiziala bada eta, horregatik hain zuzen, jakin beharra badago, eta beste hizkuntza ofizialak (koofizialak), euskara, esate baterako, ez badago zertan ezagutu, gauza bat da “ofizialtasuna” eta beste bat “koofizialtasuna”. Ez dira berdin. Diskriminazio argi bat nabari da euskararen aurka, bigarren mailako jarritz. (Ikus lehen aitatu Epaia 3. Zuzenbide-Oinarria).

Adibidez, Galizako 1983.ko Ekainaren 15eko Hizkuntz Normalkuntza Legeak, 1,2, atalean, galizar guztiek zutela galizera ezagutu beharra jartzen zuen, eta Auzitegi Konstituzionalak, 1986.go Ekainaren 26-ko 84 Epaian, Konstituzio kontraktzat deklaratu zuen xedapen hori, esanik bakarrik dagoela **“beharra”** gaztelania ezagutzeko eta ez beste hizkuntzak. Hauek erabiltzeko **“eskubidea”** besterik ez dago, soilik.

Gaztelania, beraz, hizkuntza ofiziala baino zerbait gehiago da.

Euskarak lege-menpetasuna du gaztelaniarekiko. Eta hau ez da diglosia soziologikoa, hau lege edo eskubide diglosia da, aprioristikoa, bestea baino askoz txarragoa. Diglosia honekin ez dago soziologikoa gainditzetik eta euskararen etorkizunak hasieratik du oinarritzko oztopo nabarmena.

Honela ez da posible benetako elebitasun soziologikoa, zeren honek eskatzen bait du, guttienez, legezko hizkuntz-berdintasuna, eta hau ez da ematen ez Konstituzioan eta ez da ere, esan bezala, Estatutuan, ez baitu, euskararekiko, "deber" hori ipintzen. Euskarak ere ezagutu **"beharra"** behar luke lagungarri eta ez erabiltzeko eskubide hutsa, besterik gabe.

Euskara **beharrezko** balitz, Arduralaritzak euskara **soilik** erabili ahal izango luke Komunitate Autonomoan, bai beste Arduralaritzekin eta bai hiritarrek, eta gaur ezin du.

Egun euskararen erabilpen soila hiritarren esku dago, ez Arduralaritzaren esku, Euskara soilik erabiltzea, Arduralaritzan, inpugnagarria da eta, ondorioz, Arduralaritzak bakarrik erabil lezake soilik, hiritarrengandik errekurtsurik ez bada.

Hau guztiau honela da, hastapenean aitatu Epaiaren arabera. Zerbaitegatik errebokatu zituen Araukotzezko Legearen 6,2, in fine, eta 8,3, atalak.

Beste era batera. Nola liteke euskara Euskal Komunitate Autonomoan ofiziala izan eta Arduralaritzak berak, ofizioz, soilik erabili ezin, gaztelania paralelorik gabe?

Ba, hori egingo balu, Auzitegi Konstituzionalak dioenez, euskara ezagutzen ez duenaren eskubideak baztertuko lituzkelako.

Norbaitek alegatzen badu ez duela euskara ezagutzen, Arduralaritzak legearen eraginez, berdintasun printzipioz, ziurtasun-juridikoz, eta, abar, gaztelaniara jo beharra du.

Hemen, gizartean eta **legean** diskriminatutako hizkuntza erabiltzeak diskriminazioa dakar. Ongi!

III. "Bertso zarrak fueruen gañian"

"arrazoi gabe eman ziguten
lege kontrako jazkera,
 gañera berriz kontari daude
 galduko dala euskera,
 gogor egiten ez bazaiote
 oientzat aña ez gera!"

Arrazoi zuen Txirrita bertsolariak.

ERDAL ADJEKTIBO ERREFERENTZIALETARAKO EUSKAL ORDAINAK

Leioa, 1989-IV-26

Martxel Ensunza

Egia esan, adjektibo erreferentzialei buruz euskaraz idatzirik dagoena bizpahiru orrialdetara bil daiteke guk dakigularik. Mikel Zalbide, Andoni Sagarna eta guk geuk buruturiko zenbait lanetan inoiz aipatuak izan badira ere, adjektibo erreferentzialei buruzko lan monografikoren berririk ez dugu. Gauzak horrela, eta inguruko erdaretan duten pisua eta garrantzia kontutan harturik, nola edo halako sistematizazioa egitera eta euskal ordainak aurkeztera ausartu gara, helburu hauek lortu ditugun ala ez bestelako kontua delarik.

Honetaz gain, mota hauetako adjektiboetarako bai euskara mintzatuaz inoiz idatzian eman diren ordainak, gure eritziz, ez dira beti zuzenak izan, eta erabilera oker honek ere bultzatu gaitu lerro hauek plazaratzera, azterketa sakonagoetarako abiapuntua izan daitezkeelakoan.

DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

Nolabaiteko definizioa ematearren, ondokoa esan daiteke: adjektibo erreferentzialak, zerbaiti erreferentzia egiten diotenak dira, zerbait hori, edo beste modu batez esatearren, adjektibo hauen iturria, izena, aditza, adberbioa, zenbatzailea eta beste adjektibo bat izan daitekeelarik.

Beraz, ez gara J. N. Levi-k “nominal nonpredicating adjectives” izendapenaren inguruan aztertutako adjektiboetara mugatuko, hizkuntzalari honek, aipaturiko etiketaren azpian, izenetatik eratorritakoak (eta ez denak) bildu bait ditu. Guk geuk, “erreferentzialak” izendapenaren barnean, arestian esaniko iturrietatik aztertuko ditugu, mota honetako adjektiboetarako lehen hurbilketa izan nahi duen lan honetan. Zein bere iturriaren arauera tratatzeko arrazoiak egon daitezkeela ukatuko ez dugun arren, ikuspegi praktikoa lehentasuna emanik, nahiago izan dugu gauzak era honetan aurkeztea.

Begi bistakoa da, esaterako, isladatzaile-k islada(tu)-ari erreferentzia egiten diola, banakor → bana(tu), neurgarri → neur(tu) beldurti → beldur, osasuntsu → osasun, gorriska → gorri, hamartar → hamar, hirukoitz → hiru, bakun → bat, koniko → kono, modular → modulu, bektorial → bektore, etab.

Arestikoa bezain nabaria da, halaber, ezen adjektibo kalifikatibo hutsek ez dutela ezelako erreferentziarik eramaten, ez bait dugu uste, handi, txiki, gorri, eder eta abarrekoek deusi erreferentzia egiten diotenik.

Adjektibo erreferentzialesk duten ezaugarri garrantzitsua, honako hau dugu: nekez hartzen dituzte graduatzaileak, hau da, oraingoz behintzat, geroago ez dakigula, ez dugu uste “oso banakorra”, “elektroniko samarra”, “guztiz infinitesimala”, “integragarriegia” eta “biziki modularra” modukoek zentzu handirik dutenik. Aitzitik, “oso zabala”, “handi samarra”, “guztiz zikina”, “txikiegia” eta “biziki garbia” erakoak zentzuzkoak direla esan dezakegu.

Dena dela, aipaturiko ezaugarria ez dugu gauza absolututzat hartu behar, hizkuntzaren garapenean graduatzaile batzuk erreferentzialeskiko lotura lortu bait dute. Eta puntu honetara heldurik, gaztelaniatiko zenbait adibide erabiliko ditugu, alboko hizkuntzen inguruan hegaz egin ondoren, gaztelaniaren gainera lurreratzen bait gara, gurekiko interferentzi hizkuntza nagusia bera delarik.

Diogun, beraz, ezen “música rockera” eta “producto perecedero” direlakoekin batera, “música muy rockera” eta “producto muy perecedero” ere entzun eta irakurri egin daitezkeela gaur egun, “izena + adjektibo erreferentziala” moduko multzoren batzutara, graduatzaileek nolabaiteko sarrera erdietsi dutelarik.

Berau, ezetz badirudi ere, kontutan hartzekoa da euskal ordainak emateko orduan, zeren, geroago ikusiko dugunez, erreferentzialesi aurre egiteko euskaraz ditugun baliabideak murriztuko bait zaizkigu.

Oso hizkuntza joria da gaztelania adjektibo erreferentzialen sorkuntzari dagokionez, beronetarako eratorpen-mekanismoak erabiltzen dituelarik. Hona hemen adibide batzu:

- BLE: derivable, transformable.
- DERO: llevadero, perecedero.
- DIZO: movedizo, caedizo.
- IVO: deductivo, distributivo.
- NTE: oscilante, dominante.
- TORIO: gravitatorio, combinatorio.
- OSO: gaseoso, esponjoso.
- AL: normal, sindical.
- ICO: numérico, algebraico.

- ANO: booreliano, luterano, cercano, lejano.
- NEO: instantáneo, curvilíneo.
- ARIO: unitario, fraccionario.
- INO: dañino, femenino.
- ESCO: canallesco, principesco.
- IDO: cálido, sórdido.
- AR: angular, modular.
- IL: infantil, juvenil.
- ENTO: amarillento, grasiento.
- ESTRE: terrestre, campestre.
- EO: áureo, niveo.
- ACEO: grisáceo, farináceo.
- IZO: enfermizo, rojizo.
- ADO: dentado, alado.
- UDO: forzudo, lanudo.
- ISTA: progresista, centrista.
- ERO: rockero, salsero.
- DOR, TOR, SOR: ladrador, inductor, tensor.

Beste multzo batetan, jatorri geografikoa adierazten dutenak, hots, gentilizioak sar daitezke, hala nola, toledano, salmantino, madrileño, austriaco, ibicenco, ovetense, japonés, iraní, moscovita, chipriota etab. Hala ere, berauetarako ordain zuzenak ditugunez, -AR/-TAR atzizkiaren bidez eraturikoak hain zuzen, jatorri-arazoa konponduta daukagula esan dezakegu, nahiz eta gaztelaniaz daгоen barietatea askoz handiagoa den euskarak ager dezakeena baino. Aipaturiko atzizkiaz gainera, betidanik erabilia izan da gaur eguneko euskaldun “jantziok” zokoratuegia daukagun(-e)ko ere. Beharbada, gehiegikerian erortzen ari gara bata puztu eta bestea zapuztean.

Erreferentzialen erabilpena oso handia dela esatean, ez dugu uste sekulako aurkikuntza burutu dugunik. Begi bistakoa da, eta ez hizkuntza teknikoan soilik. Edozein liburu, aldizkari eta egunkari irakurriz edota hizkuntza mintzatuari dagokion edozein esparru, dela irratia, telebista zein norberaren berbaldia entzunez jabetuko gara adjektibo hauen ugartasunaz.

EUSKARAK DITUEN BALIABIDEAK

Azalduriko adjektiboak eratzeko orduan gaztelaniak darabilen prozedura eratorpenarena izanik ere, gure eritziz, euskarari dagokionean, bide bakarra barik, zenbait bide desberdin erabil daitezke gaztelaniaz datozkigun adjektibo erreferentzialetarako ordainak emateko orduan.

Hizkuntza bien arteko garapen-faseak aintzakotzat harturik, edo hobeto esan, bata garaturik dagoela eta bestea azpigarapen-egoeran bizi dela nabaria izanik, ez dugu uste betirako errejeta miresgarririk emateko zorian gaudenik; gure asmoa, gaztelaniaz etengabe eta indartsu etortzen zaizkigun mota honetako adjektiboetarako ordainak azaltzea da.

Has gaitezen, bada, erreferentzialetarako ordainak izan daitezkeenak aztertzen, hemendik aurrera erabiliko dugun notazioa ondokoa delarik:

A eta B: izenak

b*: adjektibo erreferentziala

Beraz, gaztelaniaz etorriko zaizkigun "Izena + Adjektibo erreferentziala" moduko izen-sintagmak AB* ikurraz adieraziko ditugu.

Orohar, bost baliabide desberdin aurkitu ditugu mota honetako adjektiboen euskal ordainak eman ahal izateko:

1. Eratorpena

Euskal atzizkiak eta euskal zein erdal erro lexikalak erabiliz, ordain egokiak sort daitezke zenbait kasutan. Aipa ditzagun, esaterako: zatigarri, higikor, biratzaile, hamartar, oliokara, adartsu, hirukoitz, basati eta igokari.

Bide honetatik abiaturik, segidan azalduko ditugun puntuok kontutan hartzeko modukoak dira gure eritziz.

* Forma berbera aurkezten duen erdal atzizki batek edukin semantiko desberdinak ager ditzake:

mentiroso = que tiene costumbre de mentir.

gaseoso = que se halla en estado de gas.

fistuloso = que tiene forma de fistula.

* Edukin semantiko berbera adierazteko, atzizki desberdinak erabiltzen dira:

perteneciente al sol = *solar*

perteneciente a la tierra = *terrestre*

que está debajo del mar = *submarino*

que está debajo de la tierra = *subterráneo*

Euskaraz ere antzeko asimetriak aurki ditzakegu.

Alde batetik, forma berbera aurkezten duen euskal atzizki batek edukin semantiko desberdinak ager ditzake:

mingarria = mina egiten duena
 neurgarria = neurtu egin daitekeena
 gorrotagarria = gorrotatua izatea merezi duena

Bestalde, edukin semantiko berbera adierazteko, atzizki desberdinak erabiltzen dira:

askatzen duena = askatzailea
 aspertzen duena = aspergarria
 hegaz egiten duena = hegalaria

Laburbilduz: euskal eta erdal atzizkien arteko harremanak ez dira batere biunibokoak. Hortaz, adibidez, erdaraz “-BLE” atzizkiaz eraturiko guztiek ez dute zertan “-GARRI dunak” izan behar euskaraz, eta alde-rantziz.

Eta, eratorpenaz gainerako baliabide guztietarako erabili beharrekoa den arren, esan dezagun, dagoeneko, erizpide onomasiologikoari eutsi beharko diogula, hots, kontzeptutik abiatuko gara, kasu bakoitzari dago-kion hizkuntz zeinura heltzeko, aurkako norantza duen erizpide semasio-logikoa arriskutsua da eta.

Ahal izanez gero, haxe da, gure ustez, erreferentzialei aurre egiteko daukagun biderik egokiena. Lehenik, benetako adjektiboak sortuko ditu-gulako, eta bigarrenik, inoiz “izena + adjektibo erreferentziala” moduko izensintagman graduatzailearen bat tartekatuko balitz, euskaraz ere tarte-ka-pen hori lortzeko behatzoporik ez legokeelako.

Dena den, eratorpena ez da erreferentzialekiko erabateko mekanis-moa, ez bait da beti erabilgarria izango.

Edozein modutan, sorbide itxuroso eta dotorea bada ere, euskal eta erdal semantikaren eta eratorpen-mekanismoen ezagumendu zehatza eska-tzen du.

Kasu guztietarako baliagarria ez izateaz gain, beste oztopo bat ager daiteke bide honetan barrena goazelarik. Zer gerta daiteke adjektiboaren nominalizazioa suertatzekotan? Bada, agian, adjektiboa sortzeko erabili dugun atzizkia, nominalizazioa gertatzekotan erabiltezina izatea.

“Carga móvil”, “partícula móvil” eta antzekoetarako ordainak emate-ko orduan, “higikor” erabil dezakegu inolako istilurik gabe. Aitzitik, “un móvil se desplaza con una velocidad de 5 m/s” testuinguruan, “higikor” barik, “higikari” izan liteke kasu honetarako hitza; gaztelaniaz gertatu diren zenbait adjektiboren nominalizazioak nekez gerta daitezke euskaraz.

Beste kasu batzutan, ordea, adjektibo zein izen modura erabil daite-ke atzizki berberaz baliaturik eratutako hitza, esate baterako, “herriaren askatzaileak” (izena) edo “indar askatzailea” (adjektiboa).

Nolanahi ere, erdal Ab^* direlakoak, euskaraz ere Ab^* sekuentzia berean eratuko ditugu, “karga higikorra” edo “liburu aspergarria”, adibidez, eta ez b^*A eran, batzutan entzun eta ikus daitekeenez. Salbuespen bakarra -AR/-TAR atzizkiaren bidez eraturiko adjektiboetan izan daiteke, berauek izenarekiko kokagune biak onartzen dituztelarik.

2. Izenlaguna

Gaztelaniatik etengabe etortzen zaizkigun “izena + adjektibo erreferentziala” moduko sintagmak, “izenlaguna + izena” eran ere eman daitezke euskaraz. Beraz, erdal Ab^* modukoak, euskaraz $B \left\{ \begin{array}{l} (r) \text{ en} \\ x + ko \end{array} \right\} A$ gisakoak izango dira baliabide honi dagokionez, “B”, adjektiboari dago-kion izena, eta “x”, “ko” delakoak onar dezakeen deklinabide-atzizkieta-rikoren bat izanik.

Esan gabe doa, semantikak sekulako garrantzia du zeren, “ciudad fronteriza” “mugan dagoen hiria” eta “energía solar” “eguzkitik datorren energia” baldin badira, ez bait dago inolako oztoporik “mugako hiria” eta “eguzkitiko energia” moduko ordainak emateko orduan.

Hala ere, asimetria semantikoak egon ba daude, hau da, kasurako, gaztelaniatik datozkigun “solar” guztiek ez dute beti gauza bera adierazten. Adibidez:

energía solar = eguzkitik datorren energia

horno solar = eguzkitiko energiaz baliatzen den labea

panel solar = eguzkitiko energia biltzeko erabiltzen den panela.

Honelatan, bada, ez dugu uste, “eguzkitiko labea” eta “eguzkitiko panela ganorazko ordainak direnik; beste baliabideren bat erabili beharko dugu.

Aipaturikoez gain, hona hemen gaur egun normaltasun osoz erabili-tako zenbait adibide:

aldiuneko potentzia = potencia instantánea

lurpeko kablea = cable subterráneo

zenbakizko kontrola = control numérico

Hala ere, adjektiboaren nominalizazioa edo graduatzaileraren baten tartekapena gertatzekotan, istilu galantak ekarriko dizkigu baliabide honek, nahiz eta teorian izenlagunak nominalizatzeko oztoporik ez egon, (gerri-ko, belarrondoko, bururako, etab.).

Adibide bat aipatzearren, demagun “campeonato mundial”. Aparte-ko istilurik gabe “munduko txapelketa” izan daiteke kasu honetarako

ordaina. Dena den, “mundial” adjektibo erreferentziala gaztelaniaz nominalizaturik dago jadanik, “en estos mundiales todos utilizan un 4-4-2” edo “Lineker ha sido el máximo goleador del mundial” tankerakoak entzun eta irakur daitezkeelarik.

Puntu honetara heldurik, gure eritziz, planteatu beharreko bi galdera daude:

a) Gaztelaniaz gertatu den nominalizazioa euskaraz ere burutu beharra al dago derrigor? Hau da, gaztelaniaz “mundial” nominalizaturik agertuko den kasu guztietan, guk “munduko txapelketa” erabili ala nominalizaziora joko dugu?

b) Nominalizaziora jotzekotan, nola? “Munduko”-ari eutsiko diogu ala mailegatu egingo dugu adjektibo erreferentziala, “mundial” alegia?

Agian, ohitura-kontua da. Gaztelaniaz ere “mundial” izen gisa erabiltzean, ba dakigu beronen azken erreferentzia “campeonato” dela eta ez, adibidez, “libro”. Euskaraz ere gramatika-mailan ez legoke aparteko oztoporik “munduko” erabili ahal izateko. Arazoa, “munduko”-ari erreferentzia jakina ematea da, hots, “munduko” esatean edo idaztean “munduko txapelketa” ulertzea.

Eta atal honi amaiera emateko, esan dezagun, ezen oso kokagune erabilia ez bada ere, izenlaguna izenaren ostean ere jar dezakegula, A + B (x) ko egitura onargarria gerta daitekeelarik.

Bestalde, euskararako lexikogenesia aritu eta aritzen diren zenbait hizkuntzalarik “ko” eta “zko” direlakoei kategoria eratorlea eman dietela dakigun arren, guk geuk, argiagoa delakoan, nahiago izan dugu izenlaguna deritzon baliabide honetara ekartzea.

3. Dun elementuaren bidezko hedapena

Dundunak konposatuak ala eratorriak direneko eztabaidan sartu gabe, mota guztietako eritziaik bait daude, gure aburuz, baliabide hau lagungarri gerta dakiguke zenbait kasutan.

Zer esanik ere, dun elementua erabili ahal izateko, adjektibo erreferentzialak zerbaiten edutezko erreferentzia isladatu beharko du.

Demagun, esaterako, “superficie granular”. Metalurgian erabiltzen den “grano” hitzerako euskal ordaina “ale” baldin bada, ez legoke aparteko oztoporik “aledun gainazala” eratzeke orduan, “superficie granular = aleak dituen gainazala” den neurrian. Era berean, “rueda dentada” eta “pieza defectuosa”, “hortzun gurpila” eta “akastun pieza” sintagmen bidez eman daitezke, “hortzak dituen gurpila” eta “akatsak dituen pieza” bait ditugu.

Hala eta guztiz ere, egia esan, ez dugu uste adjektibo erreferentzialen kasurako oso baliabide emankorra denik, nahiz eta gaztelaniatiko “A de B” eta “A con B” izen-zintagmen ordainak sortzean mekanismo garrantzitsua den. Dena dela, gutxitarako bada ere, erreferentzial batzutarako erabilgarria izan daitekeelakoan aipatu nahi izan dugu.

Egitura honek, halaber, osagaien alderantzikapena onartzen du, “B dun A” eta “ABdun” modukoak zuzenak direlarik.

Nominalizazioa eta graduatzaileak direla eta, kasu honetan ere zenbait istilu egon daitezke, izenlagunari dagokion kasurako iradokitakoen antzerakoak, nahiz eta dundunak nominalizatzeko oztopo teorikorik ez dagoen (zaldun, errudun, arduradun, etab.). Hala ere, dundunek konfigurazio plurikategoriale agertzen dutenez, “dirudunak boterea dauka”, “agurre dirudun batekin ezkondu zen” eta “dirudun etorri zen Ameriketatik” kasu, arazo hauek leunagoak bide dira izenlagunari dagozkionak baino.

4. Konposizioa

Konposizioa ere izan daiteke “izena + adjektibo erreferentziala” moduko sintagmen ordainetarako baliabidea, eta konposizioaren barnean menpetasunezko izen-konposizioa edo tatpurusa deritzona hain zuzen.

Konposizio-motak berak dioskunez, mekanismo honetaz baliatu ahal izateko, izenak erabili beharko ditugu, gaztelaniaz datorkigun Ab* multzoa, euskaraz, B-A eran eman beharrean gaude, B, b* adjektibo erreferentzialari dagokion izena delarik.

Beraz, gaur egun entzun eta irakur ditzakegun “nazional arazoa” eta “ekonomiko azterketa” ez dugu uste batere zuzenak direnik. Zalantzatan egon gaitzeko “nazio-arazoa” ala “arazo nazionala” eta “ekonomi azterketa” ala “azterketa ekonomikoa” eratzeko orduan, baina azkeneko lauak zuzenak diren bitartean, hizkuntzaren fisonomiari buruzko eztabaidak alde batera utzirik, lehen biak okerrak dira gure eritziz. Erreferentzialak izanik ere, adjektiboak dira “nazional” eta “ekonomiko”, eta, beraz, izenaren eskuinean kokatu beharrekoak.

Dituen mugak dituela, etekin handiko baliabidea dugu. Hona hemen adibide batzu:

espectro luminoso = argi-espektroa
 poder calorífico = bero-ahalmena
 capa electrónica = elektrogeruza
 semana cultural = kultur astea
 movimiento ondulatorio = uhin-higidura
 tensión superficial = gainazal-indarra

campo gravitacional = grabitazio-eremua
 nivel energético = energi maila
 análisis factorial = faktore-analisisa
 conductividad residual = hondar-eroankortasuna

Hala ere, eta aipaturiko adibideetarako eman ditugun euskal ordainak eman litezkeen bakarrak ez badira ere, ez dugu adjektiborako soluziorik aurkitu, izen-sintagma osorakoa baizik, beronek jarriko dizkigun mugak ia gaindiezinak direlarik.

“Factorial” hitza nominalizaturik dago gaztelaniaz, “el factorial de un número” modukoak arruntak direlarik. Hortaz, arestian aipaturiko adibidean, “faktore-analisisa” onargarria bada ere, nominalizazioan beste era batez jokatu beharko dugu, “faktorial” hitza mailegatzea ezinbestekoa zaigula.

Gauza bera esan daiteke “ocular” hitzari buruz. “Orbita ocular” “begi-orbita” izan daitekeen arren, “mikroskopioaren okularea” “okularea” izango da, ganorazko soluzio hoberik asmatzeko gai ez bagara.

Halaber, graduatzaileekiko istiluak larriak dira. “Música rockera” delakorako ordaina ematean “rock-musika” egin badezakegu ere, “música muy rockera” modukoaren kasuan erabilitezina gertatuko zaigu konposizioa, gaztelaniaz, graduatzaileak adjektiboa graduatzen bait du, berau, euskaraz, konposizioaz baliatuz ezinezkoa delarik; lehenik, konposatuaren mugatzailearen eta mugakizunaren arteko edozein motatako tartekapenik egiterik ez dagoelako, eta bigarrenik, graduatzailea konposatuaren aurrean kokatzekotan, azken finean mugakizuna graduatuko genuleelako, konposatuaren gunea mugakizuna bait da; eta graduatu beharreko adjektiboak mugatzailearekiko lotura dauka.

Honelatan, bada, soluzio hoberik asmatzeko gauza ez bagara, mailegutza jo beharko dugu, “rockero” hitza ere gureganatu beharrean izango garelarik.

Zenbait kasutan, segidan datozenak bezalako izen-sintagmak eraiki ditzakegu, hots:

hoja acorazonada = bihotz-formako hostoa
 secreción aliácea = baratxuri-usaineko jariakina
 líquido vinoso = ardo-koloreko likidua

Baina, zer esanik ez, erreferentzialak zein hitzi egiten dion erreferentzia ezagutzeaz gain, “aliáceo → ajo” esaterako, zertan egiten dion ezagutu beharko dugu, forman, usainean, kolorean etab.

Aipatutakoekin batera, “hoja muy acorazonada” eta “secreción fuertemente aliácea” ere aurki daitezke, berauetan mailegutza ez jotzekotan

zenbait parafrasi-saio burutu beharko ditugu ordain itxurosoak aurkitu arte.

Geure eskarmentuaz baliaturik, baliabide autoktonoen zerrenda hementxe amaitu dela esan dezakegu. Esan gabe doa, aipaturiko kasuetarako eragozpen nabariak dituen sintaxi librea beti eskueran daukagun mekanismoa da, berau, edonork ulertuko duenez, lerro hauetan aztertu eta sistematizatu ez dugun bestelako kontua delarik.

Dena den, normala denez, euskarak eskainitako baliabideak agortutakoan, mailegutza jo beharko dugu.

5. Mailegutza

Azkenerako utzi badugu ere, arrazoa ez da baliabide-zerrenda honetan azken tokian egotea, bigarren dibisioko mekanismo delakoan, baizik eta beste baliabide guztiak aztertu eta gero, mekanismo egokirik aurkitu ez badugu, mailegutza jo beharrean gaudela adieraztearren.

Jakin ba dakigu, “orgánico”, “normal”, “reactivo” eta “automático” adjektiboek zeintzu hitzi egiten dieten erreferentzia. Dena dela, “química orgánica”, “distribución normal”, “potencia reactiva” eta “control automático” euskaraz emateko orduan, “kimika organikoa”, “banaketa normala”, “potentzia erreaktiboa” eta “kontrol automatikoa” direlakoetatik aparte, ez dugu uste bestelako soluzioak ganorazkoak direnik. Hemen egingo ez ditugun arren, proba batzu egin daitezke “organo”, “norma”, “erreakzio” eta “automata” edo egon litezkeen beste ordainen batzuetatik abiaturik, mailegutza ez den baliabide autoktonoren bat erabiliz, “orgánico”, “normal”, “reactivo” eta “automático” direlakoan ganorazko ordainak aurkitu ahal izateko. Ez dugu uste inolako emaitza positibotara helduko garenik.

Kasu askotan, beraz, ezinbesteko mekanismoa izango da mailegutza, hizkuntzaren fisonomia galtzaile irtengo bada ere. Nolanahi ere, hizkuntzaren alde fisonomikoari dagokion garrantzia ukatu gabe, baliabide honek, abantailak ere ba dituela azpimarratu behar dugu: eroso izateaz gain, graduatzaile eta nominalizazioarekiko inolako buruko minik ez digu sortuko.

Eta azkenik, nahiz eta astunak izateko arriskuan eroriko garen, berriz ere errepikatuko dugu: “izena + adjektibo erreferentziala” sekuentziari eutsiko diogu, alderantzizko ordena, gure eritziz, gaitzetsi beharra dagoelarik.

Hortaz,

kimika organikoa (bai), organiko kimika (ez)
kontrol automatikoa (bai), automatiko kontrola (ez)
burruka sindikala (bai), sindikal burruka (ez)
hizkuntza nazionala (bai), nazional hizkuntza (ez)

ADJEKTIBO BERBERAKO SOLUZIO DESBERDINAK

Batzutan adjektibo erreferentzial berberaren aurrean, soluzio desberdinak hartu beharrean egongo gara nahi eta nahi ez.

Azter ditzagun, adibidez, “haz electrónico” eta “marcador electrónico”. Lehenengorako ordaina “elektroi-sorta” izan badaiteke ere, ez dugu uste bigarrenera “elektroi-markagailua” denik. Arrazoia, begi bistakoa denez, honako honetari datza: adjektibo biek daramaten erreferentzia desberdina dugu. “Haz elektroniko” delakoan dagoen elektroniko adjektiboak, elektroiari egiten dio erreferentzia, eta “marcador electronico”-an dagoenak elektronikari; beste modu batetara esanik “izena + adjektibo erreferentziala” sintagma bakoitzari dagokion oinarriko perpaus-eskema desberdina da:

elektroi-sorta: elektroiz osoturiko sorta

markagailu elektronikoa: osagai elektronikoz eraikitako markagailua

Beste horrenbeste esan dezakegu “estructura nuclear” eta “reactor nuclear” direlakoei buruz. Lehenengorako ordaina “nukleo-egitura” izan daitekeen arren (“egitura nuklearra” era zuzena da gure eritziz), bigarrenako soluzio bakarra “erreaktore nuklearra” bide dugu. Hortaz, erdaraz datozkigun “electrónico”, “nuclear” eta abarrek ez dute zertan “elektroi-” eta “nukleo-” derrigorrez izan behar beti.

Honek, ondokoa esatera garamatza: hizkuntzak eskaintzen dizkigun baliabide lexikogenesikoez gain, bestelako erreferentzia estralinguistikoak, hots, zientifikoak, teknikoak, kulturalak azken finean, beharko ditugu euskara ez den beste hizkuntza batez etorritakoei soluzio egokiak eman ahal izateko, edo hizkuntz termino hutsetan esatearren, oinarriko perpaus-eskemak agintzen du azalgaineko sintagma nola egituratu.

ADJEKTIBO ERREFERENTZIAL KONPLEXUAK

Izen honen bidez ondokook adierazi nahi ditugu, alegia: barnean erreferentzial bakuna edukirik ere, berauek baino konplexuagoak diren adjektibo erreferentzialak, aipaturiko konplexutasuna prefixazioz zein konposizioz lortua izan delarik. Erreferentzialen inguruko problematikak mota hauetakoak bildu behar dituela uste dugunez, hona hemen, denak ez badira ere, gaztelaniaz erabilitako ondoko hauek, hots:

Acalórico
ADaxial
AEROdinámico
ANaxial

ANTEdiluviano
ANTIdeflagrante
ANTROPométrico
APICOdental

AUTOCatalítico	ESFENOPetroso
AXIOMétrico	ESPIROgráfico
AXONOMétrico	ESTAFILOdérmico
BARICéntrico	ESTENOCárdico
BAROMétrico	ESTEREOfónico
BIBLIOgráfico	ETNOgráfico
Blestable	EXAfásico
BRAQUIfacial	EXAQUIStetraédrico
CACOfónico	EXcéntrico
CARTOgráfico	EXOenergético
CICLOterapéutico	EXTRAlingüístico
CIRCUMpolar	FENOtípico
CISalpino	FILOgenético
CITOGenético	FISICOQuímico/QUIMICOfísico
CITRAMontano	FITOgeográfico
CLAUSTROfóbico	FLUBIOMétrico
CLEIDOCraneal	FOTOgráfico
CLOROanémico	GEOtérnico
COLateral	GLOTOdidáctico
CONCéntrico	GONIOMétrico
CONTRAconceptivo	HELIOcéntrico
CORTICOTerapéutico	HIALOtécnico
COSMObiológico	HIDROTerapéutico
CRIPTOgráfico	HIGROMétrico
CRONOMétrico	HIPERgeométrico
CUADRIpolar	HIPOgástrico
DECAMétrico	HOLOgráfico
DECImétrico	HOMOgráfico
DENTOlabbial	ICNOgráfico
DESMontable	ICONOgráfico
DEUTEROpiramidal	ICOSItetraédrico
DIAcrítico	INFRAorbitario
DINAMOMétrico	INorgánico
DISfuncional	INTERactivo
DOLICOcefálico	INTRAmolecular
ECONOMétrico	Irresoluble
EGOCéntrico	ISOCromático
ELECTROacústico	KILOmétrico
ENDOCéntrico	LEPTOsomático
ENTREmezclable	LUMINOtécnico
EPIcéntrico	MACROcósmico
EQUImolecular	MAGNETOdinámico
ERITROfóbico	MAXILOdental
ERGOterapéutico	MECANOgráfico

MEGAcíclico	POSTindustrial
MELOdramático	PNEUMOGástrico
METAlingüístico	PREnatal
MICROeconómico	PRETERNatural
MILImétrico	PROposicional
MIRIAMétrico	PROTOhistórico
MNEMOtécnico	PSEUDOcientífico
MONOatómico	PSICOanalítico
MOTOpropulsable	RADIOterapéutico
MULTIpolar	REabsorbible
MUSCULOcutáneo	RENOgonadalPERIcárdico
NARCOterapéutico	RETROrreflejante
NEOtropical	SEMIcilíndrico
NOMOgráfico	SEROterapéutico
NO nuclear	SINCROdiferencial
OLIGOtérmico	SINFásico
OROgráfico	SOCIOeconómico
ORTOnormal	SUBatómico
PARApolicial	SUPERestructural
PALEOgráfico	SUPRADialectal
PENTAfásico	TALATERapéutico
PERclórico	TAQUImétrico
PERImétrico	TELEmagmático
PETROgráfico	TERMOiónico
PIEZOmétrico	TETRAfásico
PIROtécnico	TRANSalpino
PLANImétrico	TRIdimensional
PLENIpotenciario	TRONCOcónico
PLUBIOmétrico	ULTRASónico
PLURIceular	UNIdireccional
POLIfásico	

Konplexu hitza erabili dugu eta ez parasintetiko, beronen definizioa-ri dagokionean, hizkuntzalari guztien aburuak batera ez datoz eta. Hona hemen zenbait eritzi:

MOLINER, M.^a

Parasíntesis: Manera de formarse las palabras en la que intervienen simultánea pero no sucesivamente la composición y la derivación, p. ej. “desalmado”, en la que simultáneamente se ha adjuntado a “alma” el prefijo “des-” y la terminación “-ado”, pues no existen las palabras “desalma” ni “almado”.

LAZARO CARRETER, F.

Parasíntesis: Procedimiento de formación de palabras que participa de la composición y la derivación. La parasíntesis funde ambos procedimientos y forma derivados y compuestos a la vez; como “picapedrero”, de picar + piedra + el sufijo -ero; “endulzar”, de en + dulce + ar. Los parasintéticos no deben confundirse con los derivados de voces compuestas. Así, “antepechado” es derivado de “antepecho”, compuesto de ante + pecho; pero “desalmado” es parasintético porque no tiene nuestra lengua los vocablos “desalma” ni “almado”.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA

Parasíntesis: Formación de vocablos en los que interviene la composición y la derivación: encañonar.

DUBOIS, J.

Parasintética: Una palabra parasintética está formada por la adición combinada de un sufijo y un prefijo; por ejemplo “alunizar”, formada por el prefijo “a-” y el sufijo “-izar”, mientras que “aluna” y “lunizar” no están documentadas.

URRUTIA CARDENAS, H.

Lexia parasintética: Morfema lexicogenésico prefijo + morfema base + morfema lexicogenésico sufijo.

ONIEVA MORALES, J. L.

Parasíntesis: Procedimiento de formación de palabras en el que se dan de manera solidaria la derivación y la composición, sin que la palabra central que no es sufijo ni prefijo participe más de la una que de la otra. Así, se forman mediante parasíntesis:

- picapedrero (picar + piedra + sufijo -ero)
- desalmado (prefijo des- + alma + sufijo -ado)
- radiotelegrafista (radio + telégrafo + sufijo -ista)

Antza denez, eritzi batzuren arauera, prefixazioa konposizioaren azpimultzoa da. Dena den, arazo eztabaidagarri hau alde batetara utzirik,

“radiotelegrafista” parasintetikoa bada (kontutan har dezagun, bai “radio-telégrafo” zein “telegrafista” hitzek existentzia dutela) aurkezturiko zerrendakoak ere parasintetikoak dira. Aitzitik, beste eritzi batzuren arauera, ez dira parasintetikoak, zeren aurkeztu dugun zerrendako adjektibo guztiei maiuskulak adierazi diren elementuak kendurik, geratuko direnek ere existentzia bait dute.

Bestalde, jakin ba dakigu, adjektibo erreferentzial konplexu hauen iturriak desberdinak direla. Hona hemen adierazi nahi duguna:

- acalórico, a- + calórico da, eta ez acalor + -ico
- postindustrial, post- + industrial da, eta ez postindustria + -al
- sincrodiferencial, sincro- + diferencial, eta ez sincrodiferencia + -al
- transalpino, trans- + alpino da, eta ez transalpe + -ino
- inorgánico, in- + orgánico da, eta ez inórgano + -ico
aitzitik
- cronométrico, cronómetro + ico da, eta ez crono + métrico
- bibliográfico, bibliografía + ico da, eta ez biblio + gráfico
- perímetro, perímetro + ico da, eta ez peri + métrico
- baricéntrico, baricentro + ico da, eta ez bari + céntrico

Hau horrela delarik ere, zilegi bekigu esatea, erreferentzial konplexu hauek aurkeztean izan dugun helburu bakarra haxe izan dela: alde guztietatik datozkigularik, berauetarako soluzioak ere aurkitu beharko ditugula azpimarratzea.

Egia esan, erreferentzial konplexu hauen inguruko kontua ez dugu oraindik sistematizatu, baina, esan dezagun, ezen, zenbait kasutan, berretorpena, konposizioa (tatpurusa eta bahuvrñhi-ren bat), postposizioa eta bestelako hedabide sintagmatikoak erabiliz soluzio autoktonoak aurki daitezkeen arren, hala nola:

- kaloriarik gabeko olio
- uholde aurreko animalia
- eztandaren aurkako elementua
- zirkuitu biegonkorra
- zilindro ardazkidea
- mekanismo desmuntagarria
- irudi erdizirkularra
- fase bakarreko sistema/sistema fasebakarra
- fase bitako sistema
- hiru fasetako sistema

- fase anitzetako sistema
- oreka ezegonkorra
- erreakzio ez-nuklearra
- molekularteko lotura
- ekuazio ebatzezina
- historiaurreko zantzua
- potentzia birzurgagarria
- arrazonamendu sasizientifikoa
- egitura azpiatomikoa
- kono-enbor erako irudia
- etnografi azterketa
- mikroekonomi egoera
- superegitura-baldintza etab.,

gehienetan, adjektiboa mailegatu beharrean izanen garena. Gainera, honako hau ere kontutan hartzekoa da: batzutan, adjektiboari legokiokeen izenik ez dago; “superestructural”, “bibliográfico” “prehistórico” eta “cacofónico”-arekin batera, “superestructura”, “bibliografía”, “prehistoria” eta “cacofonía” dauden arren, kasurako, “magnetotérmico”, “helio-céntrico”, “postindustrial” eta “adaxial” adjektiboei legokiokeen izenik ez dago guk dakigula. Kasu hauetan, dauden aukerak murriztu egingo zaizkigu, izenaren beharra duten mekanismoak blokeaturik daudelarik. Zer esanik ez, adjektiboa mailegatu egin beharko dugu.

Zeren, adibidez,
 superegitura-baldintza
 bibliografi berrikustapena
 historiaurreko zantzua
 kakofoni fenomeno etab.

eman ditzakegun arren, ez bait dugu uste “etengailu magnetotermikoa” “eredu heliozentrikoa”, “egoera postindustrial” eta “posizio adaxiala” direlakorik ezean, parafrasirik gabeko bestelako ordainik dagoenik.

SOLUZIO UNIFORMERIK EZA

Lerro hauetan zehar ikusi ahal izan dugunez, adjektibo erreferentzia-letarako soluzio uniformerik ez dago, gure ustez behintzat, kasuan kasuko erabakiak hartu beharko ditugularik.

Are gehiago oraindik. Erdaraz datozkigun “izena + adjektibo erreferentziala” sekuentzia sintagmatiko berbererako, euskaraz, zuzenak diren soluzio batzu egon daitezke. Demagun, esaterako, “poder destructivo”. Gure eritziz, “ahalmen errauslea”, “errausketa-ahalmena” eta “errausketarako ahalmena” zuzenak direlarik, aukeratu egin beharko dugu, gerora zein geratuko den, hots, zein lexikalizatuko den, denborak eta erabilpen-maiztasunak esango digutela. Hau da, zenbatekoa den ez dakigun denboratarte baten buruan, beharbada, forma bakarra baino ez dugu erabiliko.

Hortaz, gure asmoa ez da “proceso industrial”, “política monetaria” etabarretarako soluzio bakarra ematea, dauden soluzioak azaltzea baizik. Aukera dagoelarik, faktore batzu, hala nola, hizkuntzaren fisionomia eta sortuko dugun hizkuntz erregistroaren adierazpen —eta zehaztasun— maila hartu beharko ditugu kontutan bat ala beste hautatzeko orduan, eta arestian esan dugunez, denbora eta erabileraren poderioz, inoiz, forma bat lexikalizatuko da.

Dena den, ez dezagun ahaz, ezen “naranjas valencianas” eta “fuerza gravitatoria” direlakoekin batera, “naranjas de Valencia” eta “fuerza de gravedad” ere egon ba daudela, gauza bera adierazten dutelarik. Aitzitik, “Atlético de Madrid” eta “Atlético madrileño”, guk dakigula, ez dira gauza bera.

Zer esanik ez, ereduren bati oratzekotan, askoz gertuago gaude ingelesetik gaztelania eta frantsesetik baino, ingelesak darabilen menpetasunezko izen-konposizioa eta euskarak darabilena oso antzekoak bait ditugu. Gaztelania eta frantsesa, aldiz, ez dira aipaturiko mekanismoaz baliatzen.

Edozein modutan, kontutan hartzekoa da oso, ezen, ingelesez,
 heat capacity
 atom bomb
 electron density
 vector field
 ground state
 surface tension
 space charge
 minority carrier
 elbow pipe
 crystal structure
 mass number
 quantum mechanics
 sound wave eta

wave theory direlakoekin batera,

celestial horizon

centrifugal force

crepuscular ray

focal distance

herbaceous dicotyledon

naval meteorology

nuclear power

linear velocity

lunar day eta

solar energy ere egon ba daudela. Beraz, ingelesak konposizio-ahalmen handia daukan arren, adjektibo erreferentzialak ere erabiltzen ditu.

Are gehiago,

atom shell

anode current

ion density

cathode ray

electron microscope eta

gravitation energy direlakoekin batera,

atomic model

anodic polarization

ionic charge

cathodic coating

electronic valve eta

gravitational attraction ere egon ba daude.

Gure ustez, euskaraz ez dago soluzio bakarra eskaintzerik, baina, nolanahi ere, aukeratuko dugunak zuzena izan behar du.

Esan gabe doa, lerro hauek idaztean izan dugun helburua ez da izan erreferentzialei buruzko azken hitza ematea, geure eskarmentutik ateratako zenbait burutazio baizik, edo beste hitz batzutan esanik, erreferentzialekiko hurbilketarako lehen saioa. Zabalik dago, beraz, eztabaidarako atea.

Azkenik, ezin ditzaket aipatzeke utz Mikel Zalbidek eta Miren Azkaretek egindako oharra eta iradokizunak; baliagarriak izan zaizkit oso.

BIBLIOGRAFIA

- COLLAZO, J. L.: *Diccionario Enciclopédico de Términos Técnicos*. Inglés-Español, Español-Inglés. Mc Graw-Hill. USA, 1981.
- DUBOIS y otros: *Diccionario de Lingüística*. 2.^a Edición. Alianza Editorial. Madrid, 1983.
- ENSUNZA, M.: *Unitate Lexikal Konplexuak*; in Euskara Gaurkotzeko Bideak. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen-Zerbitzua. Bilbo, 1987.
- HOLMES, S.: *Henderson. Diccionario de Términos Biológicos*. Alhambra. Madrid, 1984.
- LAPEDES, D. N.: *Diccionario de Términos Científicos y Técnicos*. Mc Graw-Hill/Boixareu. Barcelona, 1981.
- LAZARO CARRETER, F.: *Diccionario de Términos Filológicos*. 3.^a Edición. Gredos. Madrid, 1981.
- LEVI, J. N.: *The Syntax and Semantics of Complex Nominals*. Academic Press. New York, San Francisco, London, 1978.
- MARKUS, J.: *Diccionario de Electrónica y Técnica Nuclear*. Marcombo/Boixareu. Barcelona, 1978.
- MOLINER, María: *Diccionario de Uso del Español*. Gredos. Madrid, 1982.
- ONIEVA MORALES, J. L.: *Diccionario Básico de Terminología Gramatical*. Ed. Playor. Madrid, 1986.
- REAL ACADEMIA ESPAÑOLA.: *Diccionario de la Lengua Española*. Decimonovena edición. R.A.E. Madrid, 1970.
- RUIZ TORRES: *Diccionario de Términos Médicos*. 5.^a Edición. Alhambra. Madrid, 1986.
- SAGARNA, A.: "Elhuyar eta UZEI: Euskara laneko hizkuntza bihurtu nahian"; in *Senez*, 1.urtea 1.zbka. Donostia, 1984.
- SAGARNA, A.: *Lexiko-sorkuntza*. Argitaratu gabea.
- SARASOLA, I.: *Euskal Hiztegi Arauemailea*. Lehen Prestaera. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. Donostia, 1977.
- SARASOLA, I.: *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. Donostia, 1984.
- SUMAAS, S. A. (Suministros Aeronáuticos y Astronáuticos, S. A.): *Diccionario Técnico Aeronáutico*. Madrid, 1983.
- URRUTIA CARDENAS, H.: *Lengua y Discurso en la Creación Léxica*. Ed. Planeta/Universidad de Deusto. Madrid, 1978.
- UZEI: *Maileguzko Hitzak*. UZEI. Donostia, 1982.
- UZEI: *Fisika Hiztegia*. Ediciones Vascas, Elkar, S. A., Hordago. Donostia, 1979.
- UZEI: *Matematika Hiztegia*. Elkar, S. A. Donostia, 1982.
- UZEI: *Teknologia Mekaniko Hiztegia*. Elkar, S. A. Donostia, 1985.
- UZEI: *Biologia/2 Botanika Hiztegia*. Elkar, S. A. Donostia, 1986.

ZALBIDE, M.: *Lexiko-Sorkuntzarako .Bideak*. UZEI (Barne-Lanak). Argitaratu gabea, 1979.

ZALBIDE, M.: *Eratorpena*. UZEI (Barne-Lanak). Argitaratu gabea, 1979.

COMO GAZTELERAZKO JUNTAGAILUAREKIKO INTERFERENTZIAN SARTURIKO ATRIBUZIOAREN ESPARRUKO EGITURAK

*Igone Zabala Unzalu eta
Juan Carlos Odriozola Pereira*

1. SARRERA OROKORRA

Beste nonbait –Zabala et al (1989)– gaztelaren *como* juntagailua-
ren itzulpen edo pareko posibleen ikuspegi orokorra profilatzen saiatu
gara eta erdietsi ere, bi eremu sintaktiko garden erdietsi dugu, zeregin
interlinguistikoko hauetaz aritzerakoan: Batetik *como* juntagailu menpera-
tzaile modura erabiltzen denekoa, eta beraz **menperakuntzaren eremua**,
eta bestetik, askoz ere barreiatuagoa bide den **atribuzioaren eremua**.

Lan hau, bigarren eremu orokorrean suerta daitezkeen interferentzia
linguistikoak finkatu/konpondu nahirik, aurreko beste horren atzetik sor-
tu da.

“Atribuzio” delako kontzeptua erabiltzean, konsziente gara atribu-
zioari eta predikazio arruntari dagozkien eremuak finkatzeak berehala
ekartzen dituen arazoez, eta ikuspegi semantiko, morfosintaktiko edo
sintaktikoari jarraituz oso ondorio ezberdinak lortzen direla ere, badakigu.

Guk geuk, eztabaida horiek alde batera utziko ditugu, berorietan
murgilduko bagina artikulua honen helburua den gaira sekula ere helduko
ez baikinake. Horrela ba, atribuzioaren eremuari murriztapen gutxien
jarri dizkioten autoreei jarraituko gatzazkie, eta beraz, atributiboan artean
saillatzeko balio dezakeen edozein ezaugarri duten aditz guztiak hartuko
ditugu kontutan.

Baina, ezer baino lehenago, atribuzioaren kontzeptua modurik zaba-
lean jasotzeko dugun interesa azaldu behar dugu nonbait: Gaztelara-
ren *como* juntagailua nolabaiteko (konparaketa-) menperakuntza egitura-
tzeko erabiltzen ez deneko kasu guztiak eremu bakarraren baitan kokatzeko
bidea, zentzu (semantiko) zabaleko atribuzioarena dugu. Berez, euskal
sistema linguistikoa ditugun **absolutibo mugagabe/mugatu** eta **prolatibo**
direlako markak, bai eta seguraski ikusteko ditugun **IS_{abs.mugg.} + bezala**
/modu /gisa...+ adlat./ines... direlakoak, nola edo halako eredu atributi-
boetarikoa bati dagozkio.

Gramatikalariek, atribuzioa edo predikazio nominalaren ezaugarri berezienetarikoen artean, subjektu eta atributuaren arteko komunztadura eta batzutan “kopula” ezabatzeak aukera ezezik, sarri askotan perpaus atributiboetan gertatzen den atributua ezabatzeak ezintasuna azpimarratu dute. Horrela ba, hona hemen Hernanz & Brucart-ek (1987), ezaugarri hori ulerterazteko eskaini dizkiguten adibideetariko batzu:

- (1) a. *Los perros ladraron inquietos.*
b. *Los rros ladraron.*
- (2) a. *Las ovejas son mansas.*
b. **Las ovejas son.*

Behaketa horri dagokionez, Riegel (1985) hizkuntzalariaren lana aipatu dugu soilik, bertako sailkapena, gure lan honetarako ekarri dugularik oso baliogarri gertatu baitzaigu. Autore horrek, ezabaketa onartzen duten aditzak atribuzioaren esparrutik baztertu gabe, aditz atributiboaren artean bi talde dagoela kontsideratu du, alegia, aditz **atributibo ez-okasionalak** (atributuaren ezabaketa onartzen ez dutenak) eta aditz **atributibo okasio-nalak** (“atribututzat” har daitezkeen elementu horren ezabaketa onartzen dutenak).

Aditz atributibo okasional horiek (*occasionnellement attributifs* RIEGELEN terminologian), atributuaren ezabaketa onartzen dutenez, erlazio anaforiko baten bidez buruturiko desglose bat onartuko dute. Hona hemen, autore honen lanean aurki daitezkeen adibideetariko bat:

- (3) *Pierre est rentré ivre.*
(3a) *Pierre est rentré.*
(3b) *A ce moment-là il était ivre.*

2. EUSKAL BIBLIOGRAFIA

Knörr-ek (1979), seguraski arlo honen gaineko bereizkuntza zorrotzenetarikoa eginez, gure ondoko bi erromantzeen *como/comme* juntagailuek sarri askotan atributua txertatzeko erabilera espletiboa dutela azpimarratu du:

- (4) *Mi padre estuvo como gudari en Artxanda.*
(5) *Comme directeur il est efficace.*

Mota horretako egiturak euskaratzeko orduan, *bezala* edo antzeko juntagailuak (*gisa, legez, modura, erara, ...*) erabiltzean gure hizkuntzaren sena nolabait bortxatzen dugula salatu du autore honek.

Antzeko eritziak irakur daitezke beste autore askoren idazkietan —Lafitte (1944), Salaburu (1984), Euskaltzaindia (1985)—. Izan ere, atribu-

tua txertatzeko euskarak dituen baliabide jatorrak absolutibo mugagabea eta prolatiboa direla, eta halaber inguruko hizkuntzen eraginez Ø + *beza-la* / *modura* / *gisa(ra)* / *erara* direlako baliabideak jatorrizkoak baztertuz joan direla esan da behin eta berriro.

Dena dela, aurrerago joan nahi izan dugunean, prolatibo eta absolutibo mugagabearen erabilera-eremuak ere inola ere garbi ez daudela ikusi dugu berehala.

Prolatibo marka har dezakeen elementuaren izaera sintaktikoari dago-kionez, eritzia eman duten autoreak —Rebuschi (1982), Euskaltzaindia (1985)— bat etorri dira: Osagarri zuzenari esleituriko atributuari (predika-tu osagarriari) dagokio.

Modu horretara, subjektuari loturiko atributu bati prolatibo marka eranstekotan, ondorio ez-gramatikalak lortuko genituzke:

(6) **Morroitzat joan da kanpora* —Rebuschi (1982)—.

Dena dela, prolatiboa duten elementuen funtzioak halabeharrez osa-garri zuzenaren atributuarena izan behar duela esana badugu ere, alde-rantzizko baieztapena okerra litzateke. Izan ere, osagarri zuzenaren atri-butu guztiek ez dute prolatiboa onartzen, batzu (hala nola *bihurtu*, *bilakatu* eta *izendatu* aditzei dagozkienak) absolutibo mugagabean agertu ohi dire-larik —Euskaltzaindia (1985)—.

Osagarri zuzenaren predikatu osagarri honek marka bat edo bestea hartzen dueneko kasuak karakterizatu nahirik, Trask-en (1981) lanera jo behar izan dugu, bertan oso datu argigarria aurkitu dugularik. Aipaturiko autorearen eritziz, *-tzat* atzizkia beti “*essive suffix*” (atzizki **esiboa**) den bitartean, absolutibo mugagabea, batzutan, esiboa eta beste batzutan, **traslatiboa** izango da.

Bi termino hauen esangura finkatzeko asmotan, Dubois-en (1979) hiztegiara jo dugu ondoko definizioak lortu ditugularik: **Traslatiboa** proze-su konkretu baten ondoren lortzen den ezaugarri baten egoerari egokitu-rik, **esiboa** egoera kontingente bat, hau da, egoera hori bertara heltzeko segitu den bidea aipatu gabe adierazten duen kasua izango da. Adibidez:

- (7) a. *Mediku egin da* (traslatiboa).
- b. *Mediku da* (esiboa).
- c. *Mediku modura, ona da* (esiboa).

Guzti honetatik atera daitekeen ondorioa, hauxe da: Euskaraz, osa-garri zuzenaren “atributu” esiboa prolatiboan deklinaturik agertzen bide dira; gainerako atributu guztiak ordea (subjektuarena eta osagarri zuzena-ren atributu traslatiboak, absolutibo mugagabean deklinatzen dira.

Baina, arazoa ez da hain erraza, aurretik egindako kontsiderazioak onarturik ere, hiztun desberdinek prolatiboari interpretazio semantiko

desberdinak ematen baitizkiote. Horrela, Euskaltzaindiaren (1985) eritziz, (8) perpausean nolabaiteko anbiguitatea dagoke, bi modutara (8a eta 8b) uler daitekeelarik:

(8) *Erregetzat hartu ninduten gizon haiek.*

(8a) Errege izateko hartu ninduten (Errege egin ninduten).

(8b) Errege nintzela pentsatu zuten.

Dena dela, zenbait hiztunengan, hegoaldeko zenbait hiztunengan hain zuzen ere, ez da horrelako anbiguitaterik gertatzen. Hiztun horiek, prolatiboa, ordezkaketa ("substitution" Rebuschiren hitzetan) adierazteko soilik erabiltzen dute eta horrela, ez dute (9) delakoaren moduko perpausik onartzen —Rebuschi (1982)—:

(9) *Morroitzat bidali dut.*

Horrela ba, aipaturiko hiztunek (8) perpausari (8b) interpretazioa besterik emango ez lioketela pentsatu behar dugu.

Esan beharra dago Rebuschik "substitution" terminoa, Lafitteren (1944) zentzuan erabili duela, hau da, *prendre X pour Y* delako zentzuan.

Euskal gramatikaz aritu diren autoreei dagokienez, prolatiboaren erabilera-eremu semantiko horren inguruko argirik aurkitu ez dugula esateko beharrean gaude: Autore batzuk prolatiboa beti *por/pour* preposizioaren bidez itzultzen duten bitartean —Azkue (1925), Villasante (1978)...—, beste batzuk, zenbaitetan *por/pour* eta beste zenbaitetan, *comol/comme* juntagailuen bidez itzul daitezkeen adibideak eskaini dizkigute —Lafitte (1944), Alvarez (1978), Knörr (1979), Salaburu (1984)...—.

Adibide horietatik, batzutan azalpen espliziturik aurkitzen ez bada ere, ondoko ondoriora hel daiteke: Euskal gramatikalariek, orokorki —Lafitte (1944), Alvarez (1978), Knörr (1979), Salaburu (1984)...— prolatiboa gutxie-nez bi eremu semantiko desberdinetan erabili behar dela defenditu dute, alegia Lafittek (1944) "substitution" eta "attribution" izenen bidez aipatu dituenak. Hona hemen Lafittek emandako adibideen artean hautatu ditugun batzu:

(10) *Zozotzat hartu (=prendre pour un imbecile).* (substitution)

(11) *Utziko ditugu azitzat (=nous les laisserons pour semences).* (attribution)

(12) *Erregetzat hautatu (=choisir comme roi).* (attribution)

KNÖRRek, aipaturiko eremu semantiko horren ('substitution') erreferentzia egiteko, "okerreko identifikazioa" terminoa erabili du. Guk geuk, **ustezko identifikazioa** delako adierazpidea nahiago dugu, prolatiboaren bidez aditzera ematen den identifikazio hori, okerra nahiz zuzena izan baitaiteke gure ustez.

Edozein kasutan ere, prolatiboa daramaten (edo eraman beharko luketen) egituren artean, batzu, ondoko bi parafrasien artean lehenengoari egokituko genizkioke eta beste batzu bigarrenari:

- (i) *X, y dela pentsatu*. (ustezko identifikazioa)
- (ii) *X, y izateko...* (atribuzioa)

Sarrera bibliografiko hau bukatzeko, absolutibo mugagabearen inguruko ohar batzu, besterik ez dugu egingo.

Hasteko, esan dezagun euskaraz subjektuaren posizioan determinatzailerik gabeko izen sintagmarik ezin ager daitekeela —Goenaga (1980)—. Bestalde, gramatikalariei lanetatik isladatzen den eritziazen arauera, aitzinean absolutibo mugagabea atributu guztietarako kasua zen —Lafitte (1944), Alvarez (1978), Irigoien (1985)...—. Modu horretara, aurreko garaietan behintzat, absolutiboan deklinaturiko subjektua edo osagarri zuzena beraien atributuetatik bereiztea erraza zatekeen:

- (13) *Morroi* (atrib.) *gelditu da* (=lan hori egiteko gelditu da).
- (14) *Morroia* (subj.) *gelditu da* (=nor gelditu den).

Denboran zehar, baina, erabilera hori, murriztuz joan da eta zenbait euskalkitan oraindik ere bereizketa egiten bada ere, batez ere *izan* aditz atributibo tipikoaren atributuen kasuan, absolutibo mugatua agertzen da ia beti.

Dena dela, *egon* aditzari lotutako atributu mugagabea *izan* aditzari lotutakoa baino sarriago erabiltzen denez (bai bizkaieraz behintzat), zenbait autoreren artean, horrela estandarizatzearen aldeko joera nabaria ikus daitekeela aipatu du Trask-ek (1981).

Oinarrizko euskal gramatikak irakurtzean, beste atributu batzuren kasuan ere, ikus daiteke absolutibo mugagabearen erabilera promozionatzeko joera hori: Hasteko, *izan* eta *egon* ez diren aditzen atributuen kasuan edo atributu gisa agertzen den izena edo adjektiboa aurretik ezaguna ez den zerbaiten erreferentzia egiten duenean —Lafitte (1944), Alvarez (1978)—. Bestalde, lanbidea, kargua eta abarreko esangura semantikoak duten atributuen kasuan —Knörr (1979)—.

3. EZTABAIDA

3.1. Eskema orokorra

Aurreko bi sailetan aztertu dugunaren arauera, aurkituko ditugun egitura atributiboak ondoren laburtuko ditugun eskema desberdinetara egoki daitezkeela aurrean dezakegu:

-
- (1) $IS_{abs.1} + IS_{?1} + A_{kopula}$ (izan/egon).
Ikertzaile hori, ospetsua da.
- (2) $IS_{abs.1} + IS_{?1} + A_{atributibo\ ez-okasionala}$
Experimentua, baliogarri gertatu da.
- (3) $IS_{abs.1} + IS_{?1} + A_{atributibo\ okasionala}$
Ikertzaile hori, irakasle sartu da Unibertsitatean.
- (4) $IS_{erg.} + IS_{abs.1} + IS_{?1} + A_{atributibo\ ez-okasionala}$
Ikertzaile gehienek, experimentua, interesgarritzat hartu dute.
- (5) $IS_{erg.} + IS_{abs.1} + IS_{?1} + A_{atributibo\ okasionala}$
Ikertzaileek, hipotesi hau, oinarri(tzat/modura) erabili dute.
- (6) $IS_{abs.1} + IS_{?1} + IS_{abs.1} + A_{kopula}$
Ikertzaile hori, nobelagile modura ere, ezaguna da.
- (7) $IS_{erg.1} + IS_{?1} + IS_{abs..} + A_{trantsitiboa}$
Ikertzaile horrek, nobelagile modura ere, lan handia egin du.
- (8) $IS_{erg.1} + IS_{?1} + A_{atributibo\ ez-okasionala}$
Proiektu horrek, interesgarri dirudi.
- (9) $IS_{erg.} + IS_{dat.1} + IS_{?1} + A_{atributibo\ ez-okasionala}$
Ikertzaile gehienek, ideia honi, interesgarri deritzote.
-

I. Eskema

OHARRAK:

- a) Azpiindizeen bidez, atributua zein elementuri dagokion adierazi dugu.
- b) Atributuaren (kasu-)markak, ondorengo eztabaidan aztertuko ditugunez, oraingoz “?” ikurraz adierazi ditugu.

3.2. Absolutibo markadun subjektuari loturiko osagarriak.

Bibliografian zehar lortu ditugun datuen arauera, saia gaitzen lehen-dabiziz 31 sailean egitura atributiboetarako proposatu den eskema sintaktikoari esleia dakizkiokeen elementu morfologikoak aztertzen.

(1), (2), (3) eta (6) eskemetan, zenbait perpaus intrantsitiboren subjektuei dagozkien osagarri atributiboen aurrean gaude. Subjektu horiek, jakina, absolutibo mugatuan deklinatuta daude:

- (1) $IS_{abs.1} + IS_{?1} + A_{kopula}$ (izan/egon)
 (2) $IS_{abs.1} + IS_{?1} + A_{atrib. ez-okas}$

$$(3) IS_{abs.1} + IS_{?1} + A_{atrib.okas}$$

$$(6) IS_{abs.1} + IS_{?1} + IS_{abs.1} + A_{Kopula} / A_{atrib.ez-okas}$$

Lehenengo eskemari dagokionez, oinarritzko egitura atributiboaren aurrean gaudela esan behar dugu. Aurretik esana dugunez, euskararen aurreko egoera historikoetan aditz horiei loturiko atributua absolutibo mugagabeen agertzen bazen ere, gaur egun mugatua egiteko joera nabaria da.

Edozein kasutan ere, Trask-ek (1981) aditzera eman duenez, zenbait euskalkitan (zubereraz) mugatu eta mugagabearen arteko bereizketa semantikoa egiten da. Gure ustez, oso interesgarri gerta daiteke bereizketa hori idazkera tekniko/zientifikoan, zenbait kasutan desanbiguazioa ekar baitezake. Adibidez:

(15) *Molekula hori, hartzailea da.*

≠ (16) *Molekula hori, hartzaile da.*

Bi perpaus horien artean bereizketa semantiko nabaria ezar daiteke, lehenengoan nolabaiteko identifikazioaren aurrean gauden bitartean, bigarrenak atribuzio arrunta adieraziko duelarik. Hau da, (15) perpausa igorritakoan, esate baterako erreakzio batetan zenbait elementu hartzaile eta emalek parte hartzen dutela ezagun dugula, eta modu horretara, aipaturiko molekula hori, hartzaileztat identifikatu dugula pentsa daiteke. (16) Perpausaren bidez ordea, aipaturiko molekula (bakar) horren ezaugarrietariko bat hartzaile izatearena dela adierazi dugu.

Egon aditzari dagokionez, bibliografiaren arauera, mugagabeen deklinaturiko atributuak hartzeko joera normalizaturia dagoela pentsa daiteke, aditz horrek txertatzen dituen egoerak edo ezaugarriak *izan* aditzak txertatzen dituenak baino iragankorrak izan ohi baitira.

Amaitzeko, esan dezagun mota honetako perpausetan agertuko diren osagarriak beti esiboak izango direla: berez, termino honen jatorri etimologikoa, latinaren *esse* aditzean dago, izaera eta bilakaeraren arteko dialektika isladatzearen aukeratu delarik.

Bigarren eta hirugarren eskemei dagokienez, autore gehienek mota horretako egiturek onar ditzaketan aditzak, mugagabeen deklinaturiko atributua eskatzen dutenen artean bildu dituzte: *gertatu, bihurtu, bilakatu, egon, joan, gelditu, ...*

Egitura hauetan berez absolutiboan dauden bi IS dagoela kontutan hartzen badugu, subjektu- eta atributu-funtzioak bereizteko kasu-marken bereizketa ere egitea komenigarriena dela dirudi. Horrela, subjektu-funtzioa duen ISa mugatua azalduko den bitartean, atributu-funtzioa duena, mugagabe egingo dugu.

Edozein kasutan ere, aditzok bi taldetan banatzeko arrazoia, Riegel-en erizpidearen arauera bi jokaera desberdin duten aditzak existitzean datza, hirugarren eskemakoak atributibo okasionalak diren bitartean bigarren eskemakoak ez-okasionaltzat har baitaitezke.

Bestalde, bigarren eskemaren pean dauden aditzen artean, bestelako bereizketa bat egin daiteke Trask-en erizpideei jarraituz: Alde batetik osagarri esiboak hartzen dituztenak eta bestetik, osagarri traslatiboak eskatzen dituztenak.

- (17) *Molekula hori, hartzaile gertatu da erreakzioan.* (esiboa)
(berez molekula hori beste gauza batzuren artean hartzaile da, eta erreakzio honetan, bere izaeraren parte horri dagokion modura jokatu du).
- (18) *Molekula hori, hartzaile bihurtu da.* (traslatiboa)
(lehen hartzaile ez zena, geroago hartzaile bihurtu da).

Hirugarren eskeman txerta daitezkeen aditzen artean, zailago zaigu esibitateari dagokion bereizketarik egitea. Horrela ba, Trask-en tesitik harturiko (19) delako adibiaren aurrean, bi interpretaziorako lekua dagoela esan dezakegu:

- (19) *Ameriketara artzain joan zen.*

Hau da, adiera esiboa zein traslatiboa uler daiteke perpaus horretatik:

- (19a) Joan baino lehen jadanik artzain zena, Ameriketara bere artzain-kondizioan lan egitera joan zela. (esiboa)
- (19b) Aurretik inola ere artzaina ez zena, Ameriketara joandakoan artzaintzan lan egiten hasiko zela. (traslatiboa)

Azken posibilitate honetarako, aipatzekoa da *joan* aditzak duen okasional delako kondizioa, lehenengo posibilitatearena baino ilunagoa dela: Agian joaterakoan egin dela ulertuz gero, bestelako *joan* ez-okasional bat onartu behar genuke, beti ere *Ameriketara joan* sekuentziaren gramatikallitatea uko gabe.

Edozein kasutan ere, Trask-i jarraiturik, hala osagarri traslatiboek, nola esiboeak absolutibo mugagabearen marka onar dezakete, eta beraz, (2) eta (3) eskemen atributuatarako, absolutibo mugagabea erabil dezakegu inolako oztoporik gabe.

Sail honi bukaera emateko, azter dezagun (6) eskema. Zehazki begiraturaz gero, lehenengo eta bigarren eskemekin duen ezberdintasun bakarra subjektuari atributua ezezik beste osagarri atributibo bat ere gehitzean datzala ikusiko dugu. Adibidez: (20) *Molekula hori, oso efikaz da* perpausa igortzen dugunean, molekula bere aspektu guztietan efikaza dela adierazten dugu. Baina pentsa dezagun efikazia hori molekula-izaeraren aspek-

tu bati soilik esleitu nahi diogula; horretarako subjektuari beste osagarri bat gehitu beharko diogu. Arazoa, osagarri horri kasu-markaren bat lotzeko orduan sortuko da, zeren absolutibo mugagabe eginez gero atributua eta gehitu nahi dugun osagarri murriztaile berria planu berean geratuko bailirateke eta prolatiboa, osagarri zuzenaren osagarriei soilik lot dakie-keenez, kasu honetarako ezin erabil baitezakegu.

Modu honetara, beste marka baten beharraren aurrean gaude, eta gure ustez erromantzeen kalkoa balitz ere, Ø + *modura* / *erara* / *gisa* ... taldekoa izan daiteke marka hori.

(21) *Molekula hori, hartzaille gisa, oso efikaz da.*

Bestalde, mota honetako perpausetan, kopula-aditz tradizionalaz gain, *gertatu*, *jazo*, *agertu*, *suertatu*, *azaldu* eta antzekoen arlo semantikoko aditzak erabil daitezke gutxienez.

(22) *Molekula hori, (hartzaille gisa), oso efikaz gertatu da.*

Baliabide guzti horien artean, Ø + *bezala* zergatik sartu ez dugun galde dezake batek baino gehiagok. Hori azaltzeko, konparazioari buruz idatzi dugun artikulura jo behar dugu —Zabala et al. (1989)—.

Gogoratu Ø + *bezala* segmentua duten perpausen egitura sakonera-ko hipotesi batekiko konparaketa edo kookurrentzia proposa daitekeela. Modu honetara, (23) *Molekula hori, hartzaille bezala, oso efikaz gertatu da* perpausa igortzean, (23') *Molekula hori, hartzaille balitz bezala, oso efikaz da* uler daiteke.

Modura, *erara*, *gisara*, ...segmentuak ordea, ezin sar daitezke mota horretako egituren artean eta nolabaiteko konparaketaren baitan agertzen badira, aditza ezabatzean, genitibo-marka hartu beharko dute; beraz, absolutibo mugagabearen deklinaturiko elementu bati lotuta agertzen direnean, atribuzioaren esparruan gaudelakoa, segurutzat jo dezakegu, inolako anbiguitaterik sortuko ez delarik.

3.3. Ergatibo markadun subjektuari loturiko osagarriak

Aurrera gaitzean orain, subjektuaren atribuzioari esleli dakioken beste eskemara, hau da, ergatiboan deklinaturiko subjektuari lotzen zaion osagarriari dagokionera:

(5) $IS_{\text{erg1}} + IS_{?1} + IS_{\text{abs.}} + A_{\text{transitiboa}}$

Kasu honetan, subjektuaren osagarriaz arituko garenez, ez dugu prolatiboa erabiltzerik izango. Bestalde, ergatiboan deklinaturik dagoen subjektuak, ez du, halaber absolutibo mugagabearen deklinaturiko osagarri-

rik onartuko: (24) **Ikertzaile horrek, nobelagile (ere), lan handia egin du.* Horrela ba, aurreko kasuan bezala, (kanpo-) baliabide horietara jotzea, beste irtenbiderik ez dugu izango. Adibidez:

(24') *Ikertzaile horrek, nobelagile modura (ere), lan handia egin du.*

(8) eta (9) ereduak, azalpen berezia behar dute nonbait:

(25) *Proiektu horrek, interesgarri dirudi.*

(26) *Ikertzaile gehienek, ideia horri, interesgarri deritzote.*

Lehenengoan, maila sintaktikoan, $IS_{erg.}$ eta $IS_{abs.mugg.}$ kontsideratu behar dira, ergatiboa/absolutiboa delako ereduaren adizkiarekin batera. Maila semantikoan ordea, nabaria da absolutibo-markadun elementua osagarri zuzen logiko bati egokitu gabe atributu bati datxekiola. Berau, jakina, *irudi* aditzaren ezaugarri morfosintaktiko eta semantikoei dagokie, baina edonola izanik ere, osagarri modura har ditzakeen elementuen kategoriak direla eta, egitura (semantiko) atributiboa dugula esan behar dugu, nahiz eta egitura-mailan *Proiektu horrek interesgarri dirudi* eta *Proiektu horrek huts egin du* direlakoak elkarretik ezin bereiztu.

(9) ereduaren kasuan, $IS_{erg.}$ eta $IS_{dat.}$ eta $IS_{abs.mugg.}$ ditugu, ergatibo/datibo/absolutiboa ereduko adizki batekin batera, baina berriro ere, ohizko ez den maila semantiko eta sintaktikoaren arteko komunztadurarik eza dagoela esan behar da: Absolutibo-markaduna, nolabaiteko atributuari dagokio eta atribuzio horren subjektua, maila sintaktikoan datibo-marka hartu duen elementua da. Hemen ere, ez dago *Ikertzaile gehienek, ideia horri, interesgarri deritzote* eta *Ikertzaile gehienek, ideia horri, amore eman diote* direlakoan artean bereizketa sintaktikoa egiterik, *eritzi* aditzaren berezitasun (sintaktiko)ak direla kausa.

3.4. Osagarri zuzenari loturiko osagarriak

Amaitzeko geratu zaizkigun ereduak, objektu zuzenaren osagarriei dagozkienak alegia, bibliografian prolatiborako deskribatu diren kontes-tuekin bat etorri direla esan behar dugu. Baina azter ditzagun zehatzago:

(4) $IS_{erg.} + IS_{abs.} + IS_{?1} + A_{atrib.ez-okas.}$

(5) $IS_{erg.} + IS_{abs.} + IS_{?1} + A_{atrib.okas.}$

Trask-ek erabili dituen kontzeptuak aplikatuz eta bi eskema horiei dagokienez, hartuko duten osagarri esibo/traslatibo delakoaren arauera, posibilitate bina bereiz daiteke. Hona hemen (4) eredurako adibideak:

(27) *Ikertzaile gehienek, interesgarritzat hartu dute experimentua.* (esiboa)

(28) *Aurreko ikertzaileek, posible bihurtu dute experimentu honen buruketa.* (traslatiboa)

Bigarren posibilitate honetarako, osagarri traslatiboa izateagatik, berehala baztertuko dugu prolatiboaren erabilera (**Aurreko ikertzaileek posibletzat bihurtu dute experimentua*), absolutibo mugagabearena bibliografiaren arauera (bai eta gure konpetentzia linguistikoaren arauera ere) egokiena datekeelarik.

(5) eskemarako, bereizketa bera egin daiteke:

(29) *Ikertzaileek, hipotesi hau oinarritzat erabili dute.* (esiboa)

(30) *Ikertzaileek, sartu berria, proiektuaren zuzendari hautatu dute.* (traslatiboa)

Lehenengo adibideari dagokionez, bibliografiaren arauera behintzat, ez dago prolatiboa ez erabiltzeko arrazoirik, objektu zuzenari dagokion osagarria esiboa baita. Bigarren adibidean objektu zuzenaren osagarri traslatiboa dugunez, egokiago deritzogu absolutibo mugagabearen erabilerari.

Baina aurrera segitu baino lehenago, egin ditugun bereizketa guzti horiek kontutan harturik ere, ikus dezagun, oraindik zenbait arazo konpondu gabe utzi dugula, adibidez, Euskaltzaindiak (1985) bere gramatikan planteiatu dituenak. Arazo horiek, hiru dira:

Lehendabiziz, aditz konkretu batzuk prolatiboan zein absolutibo mugagabean deklinaturiko predikatu osagarriak onartzen dituztela:

(31) *Neskame hartu dute Inixi.*

(32) *Neskametzat hartu dute Inixi.*

Lehenengo arazo honi dagokionez, ikus dezagun itxuraz analisi bera onartzen duten perpausak izanik ere, Riegel-ek (1985) perpaus atributi-boetarako proposaturiko froga aplikaturik jokaera desberdina dutela, (31) perpausak nolabaiteko desglosea onartzen duen bitartean, besteak desglosarik onartzen ez duelarik:

(31') *Inixi hartu dute.*

(31'') *Inixi neskame izango da.*

Kasu honetan predikatu osagarria ezabaturik ere, perpaus gramatikalak lor ditzakegula, garbi dago (*Inixi hartu dute*).

(32) Perpausak ordea, ez luke predikatu osagarriaren elipsia onartuko, aditzaren esangura aldatu gabe behintzat. Perpausaren edukin semantikoaren parterik handiena predikatu osagarri horretan datzala esan dezakegu, aditza (atribuzioaren oinarritzko ereduaren) kopula izanik. Riegelen (1985) terminologia erabiliz, lehenengo perpausetan *hartu* aditza atributibo okasionala delarik bigarreanean atributibo ez-okasionala dela esan dezakegu.

Aurreko arazoa konpontzeko bidea berridazketa-erregelatan bilatu gabe subkategorizazio-erregelatan bilatu behar dugula pentsa daiteke.

Guzti hori kontutan hartuz, Nique-k (1974) bere liburuan burutu duen azterketaren antzera, *hartu* aditza bakarra izan gabe bi *hartu* aditz desberdin dagoela esan dezakegu, lehenengoak predikatu osagarria aukerakoa due bitartean, bigarrenak derrigorrez behar duelarik. Beraien subkategorizazioa, hurrengoa dateke:

- hartu*₁: + A, [+subj. animatua], [+O.Z.], [+pred. osag./ – pred. osag.]
*hartu*₂: + A, [+subj. animatua], [+O.Z.], [+pred. osag.]

Hartu aditzaren adierak zehatzago bereiztu nahirik, frantzesez perzeptzio bisuala adierazteko erabiltzen diren aditzei buruz Willens-k (1983) buruturiko azterketara joko dugu, berak erabili dituen ezaugarri semantikoak ezezik beste batzu ere erabiliko ditugularik.

Hasteko, bistan dagoen oposaketa bat aipatuko dugu, agentibitateari dagokiona hain zuzen ere (borontatezkoa/ez-borontatezkoa).

- (31) *Neskame hartu dute Inixi / Inixi hartu dute* (=kontratatu, hautatu).
 (32) *Neskametzat hartu dute Inixi* (=neskame zela pentsatu, ondorioztatu, interpretatu...).

Ezaugarri honi dagokionez, (31) perpausaren ezaugarri semantikoa dutenetan, *hartu*₁ aditza dutenetan hain zuzen, aditzak adieraziriko ekin-tzak subjektuaren borontatea edo aktibitatea behar du; *hartu*₂ aditzaren kasuan ordea, (32) perpausaren ezaugarri semantikoa dutenetan alegia, subjektuak ez du inolako aktibitatearik burutzen, eta nolabaiteko gertaera pasiboa dela esan dezakegu; beharbada ezin segurta daiteke bigarren mota honetako agentibitate-eza absolutua (eta hortxe dago *pentsatu* aditzak agentibitatea zein neurritan adieraz dezakeen galdetzeko posibilitatea), baina edonola izanik ere, (32) perpauserako (ustezko) agentibitatea (31)koa baino ahulagoa dela, ebidentea da.

Beste oposaketa bereizgarri bat, ondokoa izan daiteke: Erreala/kognitiboa. *Hartu* aditzak adieraz ditzakeen ekintza batzuk, nolabaiteko errealizazioa izango dute mundu errealean, beste batzuk gure irudimen edo gogoan soilik existituko direlarik. Modu honetara, *hartu*₁ (=kontratatu, hautatu) errealizazio erreala dutenen artean sailka dezakegun bitartean, *hartu*₂ aditza, kognitibo hutsa izango da.

Edozein kasutan ere, aipatu ditugun adieretatik at, erraza da beste batzu ere aurkitzea. Adibidez, ekintza errealean artean, fisikoak eta figuratuak bereiz daitezke:

- (33) *Liburua hartu dute* perpausean ekintza erreala izateaz gain gut-tiz fisikoa dela esan dezakegu eta *hartu*₃ (=eskuratu) aditz honen beste adiera bat dela proposa dezakegu.
 (31) *Neskame hartu dute Inixi* perpausean ordea, ekintza erreal baten aurrean bagaude ere, aditza zentzu figuratuagoan erabili dugula esan behar dugu (*hartu*₁).

- (34) *Mina hartu dute* perpausaren aurrean, subjektuak inolako agentibitatearik ez izanik, gertaera fisikoa baina figuratua dela ondoriozta dezakegu (*hartu*₄).

Azterketari jarraituz gero beste zenbait adiera aurkituko genukeelakoan gaude, baina gure helburutik urrundu nahi ez dugula eta, nahiko deritzogu *hartu* aditza bakarra izan gabe zenbait *hartu*, aditz desberdinen aurrean, edo behintzat zenbait adiera desberdin(ei dagozkien jokaera desberdin)en aurrean gaudela frogatua izateari, modu honetara Euskaltzaindiak (1985) kaleraturiko lehenengo arazoa konpondutzat eman baitezakegu. Izan ere, *hartu* aditza bakarra ez izanik, ez da harritzekoa mota desberdinetako predikatu osagarriak onartzea, oraingoz predikatu horien isladapen morfologikoan sartuko ez garelarik.

Aipaturiko adiera desberdinen ezaugarriak laburtzeko, hona hemen eskema bat.

	MAILA SEMANTIKOA			MAILA SINTAKTIKOA	
	Aktiboa	Erreala	Fisikoa	Os. zuz.	Pred. osagarria
<i>hartu</i> ₁	+	+	—	+	+/-
<i>hartu</i> ₂	—	—	—	+	+
<i>hartu</i> ₃	+	+	+	+	+/-
<i>hartu</i> ₄	—	—	+	+	—

II. Eskema

Euskaltzaindiak (1985) planteiatu duen bigarren arazoa, predikatu osagarriaren funtzioa duen berba beste baten bidez ordezkatzuz gero, zenbaitetan perpaus agramatikalak sortzen direlako datuan oinarriturik dago:

- (35) **Seme hartu dute Iñaki.*

- (36) *Semetzat hartu dute Iñaki.*

Pentsa dezagun (31) *Neskame hartu dute Inixi* eta (35) **Seme hartu dute Iñaki* perpausen artean dagoen ezberdintasun bakarra predikatu osagarria eraikitzeko hautatu den substantiboan datzala, esaldi bien beste elementu guztiei dagokienez, (funtzio bereko) hautaketa lexikal bera gauzatu delarik. Hori horrela izanik, bigarren perpausaren agramatikalitatea azalduko duten subkategorizazio kontestualerako erregelak bilatu beharoko ditugu Nique-k (1974) adierazitakoaren arauera.

Hasteko, pentsa dezagun *hartu*₁ aditzak nolabaiteko egoera-aldaketa (traslatibitatea) adierazten duela, eta modu horretara, lehenengo perpaus-

sari dagokionez, hartu baino lehen neskame ez zena hartu ondoren neskame izango dela pentsa dezakegu (gogoratu *Ameriketara artzain joan da*). Seme substantiboaren kasuan, beraren esangura semantikoa dela eta, ez dago egoera-aldaketetarako lekurik, jaiotzetik heriotzera arte guraso konkretuen seme-alabak gara eta hori aldaezina da bizitza osoan zehar, maila legetik kanpo behintzat: Posible litzateke “seme balitz bezala hartu” edo “berez seme dena semeei dagokien modura hartu” baina inola ere ez “seme hartu” zentzu hertsian.

Aurretik azaldua duguna erregelen bidez itxuratu ahal izateko beraz, beste marka bat gehitu behar diogu aurretik burutu dugun subkategorizazioari:

*hartu*₁ : + A, [+subj. anim.], [+O.Z.], [+pred. osag. (+trasl.)/-pred. osag.].

Modu honetara beraz, *seme* substantiboak, *hartu*₁ aditzari loturiko predikatu osagarria egitekotan, agramatikal bihurtuko zaigu perpausa, substantibo horrek adierazia duen kontzeptuak ez baitu egoera-aldaketarik onartzen.

- (36) Adibideari dagokionez ordea, ez dago agramatikalitaterik *hartu*₂ aditzak, atributiboa izanik, bere predikatu osagarriari eskatzen dion baldintza bakarra “ustezko” identifikazioa edo atribuzioa onartzearena baita; aditz honen subkategorizazioa beraz, ondoko litzateke:

*hartu*₂ : + A, [+subj. anim.], [+O.Z.], [+pred. osag. (+identifik./ +atribuzioa)].

Hirugarren arazoa, euskal bibliografiaren azterketa egin dugunean ere aipatu dugu: Euskaltzaindiaren (1985) gramatikaren egileek azaldu dutenaren arauera, zenbait esalditan gerta daitezkeen bikoiztasun edo anbiguitateei dagozkien: (8) *Erregetzat hartu ninduten gizon haiek esaldia*, haien ustez, hurrengo bi modutara uler baitaiteke: (8a) *Errege izateko hartu ninduten (errege egin ninduten)* (8b) *Errege nintzela pentsatu zuten*.

Trask-en erizpideak kontutan harturik, ez legoke (8a) interpretaziorako lekurik, beraren ustez ezin erabil baitaiteke prolatiboa osagarria translatiboa denean.

Puntu honi dagokionez, Alvarez-ek (1977) Pierre Topet Etchahun idazlearen lanari buruz egin duen azterketa aipa dezakegu. Berorretatik ondoriozta daitekeenez, autore klasiko honek, (8a) delako perpausaren antzeko kontestuetan, absolutibo mugagabea erabili du:

- (37) *Jakile haigü hartzen.*

- (38) *Ezari neskato etxen...*

Edozein kasutan ere, badago esibitatearen baldintza betetzeagatik onargarri litekeen beste interpretazio bat, alegia: (8c) *Berez, ni errege nintzen eta Errege-kondizio honetan hautatu ninduten*.

Guzti hau kontutan harturik, planteiatu zaigun arazoa, modu hone-tara interpreta daiteke:

Alde batetik, prolatiboan deklinaturiko predikatu osagarria azaldu duen *hartu* aditza, bi modutara uler daiteke, *hartu*₁ zein *hartu*₂ notazioen bidez adierazi ditugun edukin semantikoak esleiturik.

Bestalde, *hartu*₁ aditzak absolutibo mugagabeen zein prolatiboan deklinaturiko predikatu osagarriak onar ditzake, lehenengo kasuan esangura traslatiboa eta bigarreanean esiboa izanik.

Eta amaitzeko, *hartu*₂ aditzaz eraikitako perpausari, halabeharrezko zaion prolatibo-markadun predikatu osagarria ezabatzen badiogu, aditzaren esangura semantikoa aldatu egiten da, automatikoki *hartu*₁ bihurtzen delarik. Adibidez:

(8b) *Erregetzat hartu ninduten gizon haiek* (=Errege nintzela pentsatu zuten = *hartu*₂) perpausaren predikatu osagarria ezabatuz ==>

(8b'') *Hartu ninduten gizon haiek* edo hobe, edozein hiztunek igorriko lukeen bezala:

(8b'') *Gizon haiek, hartu ninduten* (hautatu = kontratatu = onartu = *hartu*₁).

Hona hemen posibilitate horien eskema bat:

	PRED. OSAGARRIA		ERREAL. MORF. POSIBLEAK	
<i>hartu</i> ₁	+/-	(traslatiboa) (esiboa)	Absolutibo mgg. Prolatiboa	(Ø) (-tza)
<i>hartu</i> ₂	+	(esiboa)	Prolatiboa	(-tza)

III. Eskema

Gure ustez, mota honetako anbiguiteak nekez onar daitezke idazkera zientifiko/teknikoan, batetik zerbait hautatzea edo eskuratzea eta bestetik modu batetara interpretatzea edo identifikatzea zeharo kontzeptu ezberdin gertatzen baitira.

Bestalde, gogora dezagun Rebuschi (1982) aipatu dugunean aditzera eman dugun oharra, hegoaldeko zenbait hiztunek prolatiboa soilik ordezkaketa adierazteko erabiltzen dutela, hau da *hartu*₂ aditzari lotutakoa

beste erabilerarik onartzen ez dutela. Beste modu batetara esanda, hiztun horiek, ez lukete inolako anbiguitaterik aurkituko (8) adibidean, beti (8b) interpretazioa emango bailiokete.

Guzti hori kontutan harturik, gure hizkuntza orain arte zeharo normalizatu gabe dagoela eta, anbiguitaterik txikiena ekartzen duten euskalkien usuarioari jarraituz, ondoko proposamena egingo dugu, zehaztasun-gradurik altuena behar duen hizkera tekniko/zientifikorako behintzat. (Edozein modutan, hizkuntza literarioan edertasuna lortzeko konnotazioak izan dezakeen garrantzia haintzakotzat harturik, hizkuntz maila horretaraino hedatzeko asmorik ez dugula adierazi nahi dugu ezer baino lehenago).

Proposamena: Prolatiboa, *hartu*₂ (= *(e)la pentsatu*) aditzari derrigorrez lotu behar zaion predikatu osagarriko utzi, *hartu* aditzaren beste adieretarako absolutibo mugagabea (osagarria translatiboa denean) edo Ø + *modura /gisara /erara* (osagarria esiboa denean) erabiliko direlarik.

Aurreko koadroa, beraz, honela geratuko da gure proposamenaren arauera:

	PRED. OSAGARRIA		ERREAL. MORF. POSIBLEAK	
<i>hartu</i> ₁	+/-	(traslatiboa) (esiboa)	Absolutibo mgg. Ø + <i>modural gisara erara</i>	Ø
<i>hartu</i> ₂	+	(esiboa)	Prolatiboa	(-tzat)

IV. Eskema

Modu honetara, ekidin egingo dugu anbiguitatea, edukin semantikoei errealizazio morfologiko bana, modu biunibokoan, esleituko diegularik:

- (8a) *Errege hartu ninduten gizon haiek.* (= Errege izateko hautatu ninduten = Errege bihurtu ninduten).
- (8b) *Erregetzat hartu ninduten gizon horiek.* (= Errege nintzela pentsatu zuten).
- (8c) *Errege modura hartu ninduten gizon haiek.* (= Ni Errege naiz eta nire Errege-kondizioan hartu edo hautatu ninduten).
- (8d) *Errege bezala hartu ninduten gizon haiek.* (= Ni Errege ez banaiz ere, Errege banintz bezala hartu ninduten gizon haiek).

Puntu honi bukaera emateko, hona hemen eztabaida horretatik lor daitezkeen ondorioak:

Azalean errealizazio foniko bakarra (*hartu*) badute ere, sakonean zenbait aditz desberdin dugu (edo behintzat aditz bakarraren zenbait adiera/joskera); adiera guzti horien artean gure azterketarako soilik predikatu osagarria onar dezaketenak eta horien artean, batez ere, idazkera zientifiko/teknikoan ager dakizkigukeenak interesatuko zaizkigu, hau da: *hartu*₁ eta *hartu*₂.

Bi aditzen arteko bereizketa egiteko, ondoko bi argudioak erabili ditugu:

Lehenengoa, semantiko hutsa da:

*hartu*₁ (= hautatu = kontratatu...) → [akt., erre., fig.].

*hartu*₂ (= dela pentsatu, interpretatu...) → [pas., kog., fig.].

Bigarren argudioa, formala dugu: *Hartu*₁ eta *hartu*₂ aditzek ez dute jokaera sintaktiko berbera; alde batetik, bata atributibo okasionala izanik, bestea, atributibo ez-okasionala da; bestalde, bata predikatu osagarri traslatibo zein esiboa onar dezakeen bitartean, besteak, soilik osagarri esiboa onartuko du.

Hori kontutan harturik, deskribatuak ditugun anbiguitateak ekiditeko, prolatiboa *hartu*₂ adierak ezinbestez behar duen predikatu osagarri esiborako soilik erabiliko dugu, ustezko identifikazioa edo atribuzioa adieraziko duelarik. *Hartu*₁ adiera/erabilerarako, osagarri traslatiboaren kasuan, absolutibo mugagabea erabiliko dugu eta osagarri esiboarenean, Ø + *modura /erara /gisara*.

Bestalde, Ø + *bezala* motako segmentuak, hipotesi batekiko konparaketa edo kookurrentzia adierazteko utziko ditugu, atribuzioaren esparrutik baztertuko ditugularik.

Prolatiboarekiko argumentazioa segitu nahirik, esan beharrekoa dugu Euskaltzaindiak (1985) kasu-marka hori eskatzen duen predikatu osagarria izan dezaketen aditzen zerrenda eskeini digula: *Hartu, jo, ukan, eduki, eman, eskaini...*

Azter ditzagun bada aditz horiek, *hartu* aditzak bezala adiera desberdinak dituztenentz ikusi ahal izateko.

V. eskeman, aditz guzti hauen ezaugarriak adierazten saiatu gara; dena dela, kasu batzutan ezaugarriok guztiz garden ez direla esateko beharra dugu, + eta - ikurrek zeharo ongi ezin adieraz ditzaketelarik. Hori dela eta, horietariko ikur bat erabiltzeak ez du modu kategorikoan adierazitako adiera horrek ezaugarri hori modu absolutuan izango duela, beste adierek baino markatuago izango duela baizik.

Hurrengo koadroari dagokionez, beharrezko deritzogu zenbait ohar egiteari:

Hasteko, esan dezagun aditzen adiera guztiak isladatzen saiatu ez garela, ez baitugu uste azterketa honetarako beharrezkoa denik.

Bestalde, *eduki* eta *ukan* aditzen arteko bereizketa egiteko Kintana (1971), Kintana (1984) eta Badiola (1986) hartu ditugu kontutan, gaur eguneko usadioaren nolabaiteko isladapen direlakoan. Autore hauen eritziz, *eduki* aditzak zerbait eskutan, barruan edo atxekirik norbere mende izatea adierazten du; *ukan* aditzak berriz, jabetasun orokorragoa adierazten du. Zentzu honetan, *eduki* fisikoago dateke, *ukan* baino, eta agian borontatearen ahalegin handiagoa ere, eskatuko duke.

Ustezko identifikazioa edo atribuzioaren zentzuan Kintanak (1971) gauza konkreturik aipatu ez badu ere, Axularren usadioari dagokionez behintzat, *eduki* aditza erabili dela ondoriozta daiteke bere lanetik bertatik: *Erregek haur aditu zuenean sendatutzat zedukan bere burua* (Ax.267.10).

Villasantek (1980), *eduki* aditzak ekintza jarraia eta mantendua adierazten duela eman du aditzera. Zentzu berean, Axularrek *reputar* edo *tener por* ideia *eduki* aditzaren bidez adierazten duela idatzi du, auzia, beraz, erabakita utzirik.

Kintanaren (1984) hiztegia kontsultaturik, aipaturiko adiera aurkitu dugu *eduki* aditzerako, baina inola ere ez *ukan* aditzaren kasuan: *Jakintutzat daukate. / *Jakintutzat dute.*

Modu honetara, *ukan* eta *eskeini* aditzek izan ezik, beste guztiek badute "2" azpiindizeaz etiketatu dugun adiera. Hau da, ekintza figuratu eta kognitiboari dagokiona eta *dela uste*, *dela interpretatu* edo *dela suposatu* direlako parafrasien bidez agerian utz daitekeen ustezko identifikazioa.

Aurreko puntuan proposatu dugun ereduaren arauera, beraz, *ukan* eta *eskeini* aditzek, ez bide dute prolatiboan deklinaturiko predikatu osagarriarik onartuko.

	EKINTZAREN EZAUGARRIAK			JOKAERA SINTAKTIKOA	
	Aktiboa	Errealak	Fisikoa	Osag. zuz.	Pred. osagarria
<i>jo</i> ₁ (kolpatu)	+	+	+	+	-
<i>jo</i> ₂ (-ela pentsatu)	-	-	-	+	+
<i>jo</i> ₃ (musika interpretatu)	+	+	+	+	-
<i>ukan</i> ₁ (jabe izan)	-	+	-	+	+/-
<i>eduki</i> ₁ (barruan edo ukipenean izan)	+	+	+	+	+/-
<i>eduki</i> ₂ (-ela uste)	-	-	-	+	+
<i>eman</i> ₁ (eskuraerazi)	+	+	+	+	+/-
<i>eman</i> ₂ (-ela kontsideratu)	+	-	-	+	+
<i>eman</i> ₃ (iruditu) (atributua)	-	-	-	-	-
<i>eskeini</i> ₁ (aurkeztu)	+	+	+	+	+/-
<i>eskeini</i> ₃	+	+	-	+	+/-

V. Eskema

Adiera kognitiboa duten guztiek adiera horri dagokionez atributibo ez-okasionalak izanik, derrigorrez behar dute prolatiboan deklinaturiko predikatu osagarria. Hala ere, posible da guzti horien artean zenbait bereizketa egitea:

Lehendabiziz, *jo* eta *hartu* pasiboak diren bitartean, *eman* eta *eduki* aktiboak dira, hau da, subjektuaren borontatea behar dute.

Bestalde, hau koadroan isladatu ez bada ere, *hartu*, *jo* eta *eman* aditzak perfektiboak diren bitartean, *eduki* aditza imperfektiboa da, edo beste modu batetara esanda, -tzat hartu/jo gertaera pasiboa suertatu ondo-

ren edo *-tzat eman* ekintza aktiboa burutu eta gero lortuko den ondorio iraunkorra, *-tzat eduki* izango da, kontrako ekintza edo gertaerarik jazozen ez bada behintzat.

Azken ondorio modura, beti ere gure helburua euskara zientifiko-/teknikorako desanbiguazioa lortzen saiatzea izanik, hurrengo esan deza-kegu: *hartu*, *jo*, *eduki* eta *eman* aditzek derrigorrez eskatzen dute prolatiboan deklinaturiko predikatu osagarria *hartu*₂, *jo*₂, *eduki*₂ eta *eman*₂ adierak aktualizatzeko orduan. Beste adierei dagokionez, anbiguitatea ekiditearren, prolatiboaren erabilera, baztertu egingo dugu: osagarri traslatiboa hartzekotan, absolutibo mugagabearen marka gehituko diogu (edo hobe esan, ez diogu inolako markarik gehituko) eta esiboa bada, Ø + *modura /erara /gisara* direlakoetariko bat hautatuko dugu.

Eztabaida hau amaitu baino lehen, azter ditzagun konpondu gabe utzi ditugun anbiguitate-kasuak, ondokoak alegia:

- (19) *Ameriketara artzain joan zen*, perpausak bi interpretazio posible duela adierazi dugu, hau da:
- (19a) Joan baino lehen jadanik artzain zena, Ameriketara bere artzain-kondizioan lan egitera joan zen. (esiboa)
- (19b) Aurretik inola ere artzain ez zena, Ameriketara joatean artzaintzan lan egiten hasiko zela. (traslatiboa)

Kasu honetan, subjektuaren atribuzioaz ari garelarik, ezinezkoa da prolatiboaren erabilera (**Ameriketara artzaintzat joan zen*). Beraz, desanbiguazioa lortu nahi badugu, osagarri esiborako dugun irtenbide bakarra, euskal gramatikalariek kalkotzat jo dutena da, hau da, Ø + *modura /erara /gisara*. Osagarri traslatiboaren kasuan, absolutibo mugagabea erabiliko dugu. Erabaki hori indartzearen, bereizketa hori Ø + *modura...* baliabideak erabili dituguneko beste kontestuekin bat etorri dela azpimarratu nahi dugu:

- (19a) *Ameriketara, artzain modura joan zen*. (esiboa)
- (19b) *Ameriketara, artzain joan zen*. (traslatiboa)
- (29) Delako adibideari dagokionez: (29) *Ikertzaileek, hipotesi hau oinarritzat erabili dute*.

Hasiera batetan aukeratu dugun aditza dela eta, interpretazio bakarra onartzen duen perpausa dugu; hala ere, kontestu berean beste aditz batzu erabiliz sortzen diren anbiguitate-kasuak ekiditeko (*ikertzaileek hipotesi hau oinarritzat hartu dute*) eta zenbait hiztunek kontestu honetan prolatiboaren erabilera onargarritzat jotzen ez dutela kontutan edukirik, *hartu*, aditzaren kasuan bezala, Ø + *modura / erara / gisa(ra)* direlako baliabideen erabilera proposatuko dugu:

- (29') *Ikertzaileek, hipotesi hau oinarri modura erabili dute*.

4. ONDORIOAK

Berrikustapen bibliografikoan eta eztabaidan zehar lortu ditugun datuak kontutan harturik, I.koadroaren eskemei errealizazio bana esleitzen diezaiekegu morfologi mailan. Horrela, atribuzioa txertatzeko erabil daitezkeen baliabide morfologikoetarako eremu sintaktiko eta semantiko konkretuak proposatuko ditugu:

1) Osagarri traslatibo guztiak, **absolutibo mugagabea** (Ø) agertuko dira (direkzionalitate logikoa horrela nabariago geratzen baita), subjektu zein objektuari lotzea edo aditz atributibo okasionala zein ez-okasionalari eransteak eraginik izango ez duelarik:

- (18) *Molekula hori, hartzaile bihurtu da* (intrantsitiboa + atributibo ez-okasionala).
- (19) *Ameriketara, artzain joan zen* (intrantsitiboa + atributibo okasionala).
- (28) *Aurreko ikertzaileek, posible bihurtu dute experimentu horren buruketa* (trantsitiboa + atributibo ez-okasionala).
- (30) *Ikertzaileek, sartu berria, proiektuaren zuzendari hautatu dute* (trantsitiboa + atributibo okasionala).

2) Kopula arrunten eta aditz atributibo ez-okasionalen subjektuei dagozkien osagarri esiboak ere, **absolutibo mugagabea** (Ø) idatziko dira, *izan* aditzaren atributua identifikazioa adierazteko erabiltzen deneko kasuan izan ezik, kasu honetan **absolutibo mugatua** erabiltzen delarik. Gertatu ere, *izan* eta *egon* kopula tradizioaletatik kanpoko beste kopula (ez-okasional)etan ere, komenigarria da absolutibo mugagabearen erabilera, subjektua eta atributua ondo bereizteko.

- (15) *Molekula hori, hartzailea da* (Kopula arrunta + identifikazioa).
- (16) *Molekula hori, hartzaile da* (Kopula arrunta + atribuzio arrunta).
- (17) *Molekula hori, hartzaile gertatu da erreakzioan* (intrantsitiboa + atributibo ez-okasionala).
- (25) *Proiektu horrek, interesgarri dirudi* (trantsitiboa + atributibo ez-okasionala).

3) *Eritzi* aditzaren kasuan, zeharkako osagarriari derrigorrez lotu behar zaion atributu baten aurrean gaude, aditz atributibo ez-okasionala da beraz, eta atributua **absolutibo mugagabea** (Ø) agertuko da beti.

- (26) *Ikertzaile gehienek, ideia horri, interesgarri deritzote* (trantsitiboa + atributibo ez-okasionala).

4) Aditz atributibo ez-okasionalen osagarri zuzenei esleituko zaizkien osagarriek, **prolatiboa**(-tzar) hartuko dute beti. Ikuspegi semantikotik, ustezko identifikazioa edo ezaugarri baten ustezko atribuzioa adieraziko dute.

(27) *Ikertzaile gehienek, interesgarritzat hartu dute experimentua* (transitiboa + atributibo ez-okasionala + ustezko atribuzioa).

5) Aditz atributibo okasionalen osagarri esiboek Ø + **modura /erara /gisara** marketariko bat hartuko dute:

(19a) *Ameriketara, artzain modura joan zen* (berez aurretik bazen artzain, eta Amerikara artzain-kondizoan joan zen) (intrantsitiboa + atributibo okasionala).

(29') *Ikertzaileek, hipotesi hau oinarri modura erabili dute* (transitiboa + atributibo okasionala).

6) Bestalde, subjektu edo osagarri zuzenari buruz predikatuko dugu-na beronen izaeraren parte bati soilik murriztu nahi zaionean, Ø + **modura /erara /gisara** marketariko bati loturiko osagarriak erabiliko ditugu:

(21) *Molekula hori, hartzaile gisa, oso efikaz da* (kopula arrunta + atribuzio arrunta + subjektuaren murriztapena).

(22) *Molekula hori, hartzaile gisa, oso efikaz gertatu da* (intrantsitiboa + atributiboez-okasionala + subjektuaren murrizt.).

(24') *Ikertzaile horrek, nobelagile modura ere, lan handia egin du* (transitiboa + subjektuaren murriztapena).

Hona hemen, goiko ondorioetan emandako zenbait datu laburturik duen eskema:

			Kopula	A. atrib. ez-okas	A. atrib. okas.
A D I T Z I N T R A N T S.	A T R I B U T U A	Esiboak	<u>-a(k)</u> Ø izan, egon	Ø gertatu, suertatu,...	Ø + modura... joan, sartu,...
		Traslatiboak		Ø bihurtu, egin,...	Ø joan, sartu,...
	Gainerako osagarri esiboak		Ø + modura izan, egon	Ø + modura... gertatu, suertatu, bihurtu, egin,...	
A D I T Z T R A N S.	Subj. os.	Esiboak		Ø iruditu, eman	Ø + modura... ...(edozein)
	O.Z. os.	Esiboak		hartu, jo, -zat hartu, jo, eduki, eman, kontsideratu	Ø + modura... erabili, hartu,...
		Traslatiboak		Ø bihurtu, egin,...	Ø hautatu, izendatu,...
	Z.O. os.	Esiboak		Ø eritzi,...	Ø + modura... ...(edozein)

VI. eskema

BIBLIOGRAFIA

- ACADEMIA DE LA LENGUA ESPAÑOLA (1983): *Esbozo de una gramática de la lengua española*. Espasa Calpe. Madrid.
- ALVAREZ, J. L. (1977): L'emploi de l'indefini en souletin. *Fontes linguae vasconum studia et documenta*. 1977, IX, N. 25.
- ALVAREZ, J. L. (1978): *Euskal Gramatika*. Ediciones vascas. Donostia.
- AZKARATE, M. (1988): *Aditz-elkarteak*. LEF-batzordearen jardunaldiak. Gernika. 1988.
- AZKUE, R. M.^a (1925): *Morfología vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo (1969).
- BADIOLA, R. et al. (1986): *Euskararako Hiztegia*. Adorez 2. Bilbo.
- DUBOIS, J. (1979): *Diccionario de lingüística*. Alianza diccionarios. Madrid 1983. (Jatorrizko titulua: *Dictionnaire de linguistique*. Librairie Larousse. Paris. 1973.)

- EUSKALTZAINDIA, (1985): *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I*. Iruñea.
- GILI GAYA, S. (1961): *Curso superior de sintaxis española*. Vox. Barcelona. 1979.
- GOENAGA, P. (1980): *Gramatika bideetan*. Erein. Donostia.
- HERNANZ, M. LI. & BRUCART, J. (1987): *La sintaxis*. Ed. Crítica. Barcelona.
- IRIGOIEN, A. (1985): Euskarazko izen sintagma mugatzailerik gabekoez. **Euskera**, XXX (1) (1985).
- KINTANA, X. (1971): Ukan eta Eduki aditzen esangura berezia Axularren usuarioan. *Fontes linguae vasconum studia eta documenta*. 1971, 8.
- KINTANA, X. (1984): *Hiztegia 2000*. Elkar. Bilbo. 1980.
- KNÖRR, E. (1979): Bezala gaizki erabiltzeaz. **Euskera**, XXV. 1980-2. Bilbo.
- LAFITTE, P. (1944): *Grammaire basque. (Navarro Labourdin littéraire)*. Elkar, Donostia. 1979.
- LAFON, R. (1980): *Le système du verbe basque au XVI^{me} siècle*. Elkar. Donostia.
- LYONS, J. (1968): *Introducción en la lingüística teórica*. Teide, Barcelona. 1981.
- LYONS, J. (1981): *Introducción al lenguaje y a la linguística*. Teide, Madrid. 1984.
- NIQUE, Ch. (1974): *Introducción a la gramática generativa*. Cátedra. Madrid. 1885 (1. ed.: Librairie Armand Colin. 1974).
- ONIEVA, J. L. (1986): *Diccionario básico de terminología gramatical*. Playor, Madrid.
- POTTIER, B. (1974): *Linguística general*. Gredos, Madrid.
- REBUSCHI, G. (1982): *Structure de l'énoncé en basque*. Univ. de Paris. VII (tesia).
- RIEGEL, M. (1985): *L'adjectif attribut*. Presses Universitaires de France. Paris. 1985.
- SALABURU, P.; KINTANA, K. (1984): *Euskara hobean hobe*. E.H.U.aren argitarapen zerbitzua. Bilbo. 1984.
- TRASK, R. L. (1981): *Synchronic and Diachronic studies in the grammar of basque*. The University of London (tesia).
- VILLASANTE, L. (1978): *Estudios de sintaxis vasca*. Ed. Fr. Aranzazu. Oñati.
- VILLASANTE, L. (1979): *Sintaxis de la oración compuesta*. Ed. Fr. Aranzazu. Oñati.
- VILLASANTE, L. (1980): *Sintaxis de la oración simple*. Ed. Fr. Aranzazu. Oñati.
- WELTE, W. (1974): *Linguística moderna. Terminología y bibliografía*. Gredos, Madrid. 1985.
- WILLENS, D. (1983): *Regarder, voir. Les verbes de perception visuelle et la complementation verbal. Roman gaudenensia*. 20. 147-158.
- ZABALA, I.; ODRIÓZOLA, J. C. (1989): Gazteleraizko *como* juntagailu polisemikoak euskararen baitan izan ditzakeen ordezkoen problematika: 1.—Subordinazioaren esparrua. **Euskera**, XXXIV, 1989.

SOBRE EL REMA DEL VASCO

1989-VI-1

Yu. Vl. Zytsar', Ts. G. Menabde

RESUMEN

En pos de otros autores, particularmente R. de Rijk, se investiga la posición anteverbal como la principal remática en el vasco, con precisiones concretas resultantes, y se compara la división remal TRV con la sintáctica SOV, interpretando la fórmula-bloque StOrV a base del objeto universal siguiente, que se pretende al propio tiempo de introducir.

“En cualquier lengua donde hay estructura sintáctica con el complemento=objeto (de tipo SVO o SOV etc.) éste es como regla el rema y esta propia estructura interviene como la más frecuente y principal entre otras remales determinando también su dominancia sintáctica y relevancia tipológica”.

* * *

1. Preferimos el término de uso universal “el rema”, al que le corresponde en la lingüística soviética de hoy el “predicado actual” (aktualniy predikat) (1) que hemos empleado nosotros mismos (2-3), cfr. en la lingüística francesa el término “actuel” que designa toda transición desde el sistema de cualquier idioma al discurso en él (4). En la lingüísti-

(1) Por ejemplo, N. Š. CHILAŠVILI. Vzaimodeystvie aktualnogo chleneniya i sin taksicheskoy struktury vyskazyvaniya v russkom i gruzinskom yazykaj, AKD, Tbilisi, 1985.

(2) YU. VL. ZYTSAR', N. S. CHAYKINA. O sposobaj vydeleniya aktualnogo predikata. Voprosy programirovannogo obucheniya, metodiki prepodavaniya inostrannyj yazykov y teorii yazyka. Kuybyšev, 1969, s. 103-107.

(3) YU. VL. ZYTSAR', Ts. G. MENABDE. Ob aktualnom chlenenii baskskogo prostogo predloženiya. Soobšeniya AN GSSR, 1988, N3, s. 645-648.

(4) Véase bajo “actuel” etc. *Dictionnaire de linguistique*, par J. Dubois col. Larousse P., 1973. El “predicado lógico” (bajo “prédicat”) no es aquí sino un correlato opuesto al “sujeto lógico”, cfr. /5-6/.

ca anglo-americana, a juzgar por el diccionario de los términos lingüísticos de O. S. Akhmanova, los términos "actual division" y "actual predicate" designan lo mismo que sus correlatos con la palabra "aktualniy" en la lingüística soviética.

La posición del rema en la oración simple vasca es casi siempre inmediatamente anteverbal. Y esto no es ningún secreto (si no hablamos de lo implícito o velado por la profusión y discrepancia terminológica) para todo el pragmatismo didáctico, así como todo el campo tradicional de las descripciones gramaticales del vasco, incluso la literatura correspondiente de nuestros días, cfr.: "pour les éléments nominaux de la phrase basque"... "la position privilégiée, qui est celle immédiatement antérieure au verbe, sert d'habitude à des fins de mise en relief: anaiak ezagutu du arreba "c'est le frère qui a reconnu (sa) seur" (7).

Cfr. más: "El sintagma (palabra o grupo) clave de la respuesta viene inmediatamente antes del verbo... 1) Nor da hau? Hau Antton da./ Antton da hau; 2) Zer da hori? Hori etxea da./Etxea da hori" (8), es decir TRV/RVT, donde la primera letra designa tópico o tema, la segunda rema y la tercera verbo.

Cfr. más: "En la frase hay un elemento clave que debe colocarse inmediatamente antes del verbo tanto en la pregunta, como en la respuesta, si ésta es afirmativa. El elemento clave en una pregunta puede ser un interrogativo (nor, zer, zein...) o un sintagma cualquiera (neska "muchacha", mutila "muchacho", handia "grande", neska hau "esta muchacha", mutil txiki hori "este pequeño muchacho" etc.). En la respuesta el elemento clave es la palabra o sintagma que corresponde a tal pregunta y deberá, por tanto, ir delante del verbo" (8, p. 31).

Sobre el mismo principio posicional está basado todo el material de los métodos vascos, como por ejemplo: P. Altuna. *Euskera, hire laguna* (varias ediciones) que modernamente nos ha servido en la URSS un servicio decisivo para la enseñanza del vasco, y cuyo comienzo mismo es ya una demostración del principio en cuestión:

(5) El término "predicado lógico" en el sentido del "rema" (una vez más) se empleaba todavía en, por ejemplo: A. SMOLYEVSKI. Sur la mise en relief du prédicat logique en français moderne. *Revue roumaine de Linguistique*, t. XIV, 1969, n2, pp. 137-141.

(6) A. A. SMOLYEVSKIY. Intonatsia frantsuzskoy provestvovatelnoy frazy. AKD, M., 1962.

(7) L. MICHELENA. La langue basque. *Être basque*. Toulouse, 1983, p. 251.

(8) J. LETAMENDIA. *Bakarka*. Euskera a distancia. Gasteiz, 1985, p. 28. La traducción de los últimos ejemplos: 1) ¿Quién es éste? Este es Antonio; 2) ¿Qué es esto? Eso es la casa.

Hau *zer* da? // *Zer* da hau?
¿*Qué* es esto?

Hau *behatza* da. // *Behatza* da hau.
Esto es *el dedo*.

Behatza zer (zein) da? // *Zer (zein) da behatza?*
¿*Que (cuál)* es el dedo?

(En el sentido de: ¿*Cuál de estas cosas* es el dedo?)

Behatza hau da. // *Hau* da *behatza*.
El dedo es *esto*,

donde el rema está siempre subrayado y las oraciones a la derecha del doble paréntesis//muestran que, aunque el tema o tópico pueden cambiar su posición, el rema con estos cambios guarda siempre su posición anteverbal (sin depender de ser afirmativo o interrogativo), con lo que ésta última resulta principal para el rema. Valiéndonos siempre de los mismos signos: TRV/RVT donde el segundo tipo RVT es algo menos importante, pues tiene un sentido estilístico algo especializado.

2. Después de estas constataciones pasemos, ya ahora, a algunas precisiones.

a) J. A. Letamendia en la página 28 de su citada obra (8) tiene toda la razón al decir que el principio en cuestión es “fundamental”, pero después añade: “se refiere exclusivamente a las oraciones afirmativas”, con lo que puede uno pensar en la oposición correspondiente tanto para oraciones negativas, como interrogativas, pero esto último ya no sería correcto, pues al principio en cuestión le obedecen tanto las oraciones afirmativas, como interrogativas (a pesar de todas las complicaciones en este caso, mostradas por de Rijk en un trabajo de que trataremos en adelante): ya lo hemos visto por los ejemplos citados.

b) “Si la respuesta es negativa, el elemento negado va mejor después del verbo. El resto de los elementos puede ir tanto antes, como después” (8, 31): *mendi hura Jaizkibel* da “Aquel monte es *Jaizkibel*”. *Jaizkibel ez da mendi handia* “*Jaizkibel* no es *monte grande*” (8,32).

Con ello, sin embargo, no se excluye de modo ninguno la variante *Jaizkibel mendi handia ez da*, con lo que el principio en cuestión no se excluye en escala considerable hasta para las oraciones negativas: T-VR pero también TR-V, donde el signo - muestra la negación.

c) Nuestra siguiente precisión se refiere al ejemplo ya citado de L. Michelena: *anaiak ezagutu du arreba* “es el hermano quien ha reconocido (su) hermana” (7). Como vemos por la traducción española de este ejemplo todo lo original del caso consiste aquí en la remalización

del sujeto o subyekt (anaiak caso ergativo) en vez del complemento o obyekt (arriba, caso inersivo), porque en la mayoría aplastante de las oraciones de cualquier lengua se remaliza precisamente el complemento u obyekt. [El tipo dominante de la oración en cualquier lengua es, pues, el de complemento=obyekt remalizado, en nuestro caso: *Nik harri bat ekartzen dut/harri bat ekartzen dut nik*. “Yo traigo una piedra”, TRV/RVT. Esto es lo que justifica la superapreciación del complemento u obyekt todavía por Tesnière y esto no debe de ser nada desconocido en toda la lingüística moderna sin depender de sus ramas o direcciones].

Pero ¿qué, pues, qué medios se emplean en el vasco para remalizar así al sujeto=subyekt en vez del complemento=obyekt? Como vemos por el mismo ejemplo de Michelena, el sujeto=subyekt se pone para ello en lugar del complemento=obyekt en la posición anteverbal y al propio complemento=obyekt, desalojado de esta posición, se lo envía a ponerse detrás del verbo (como si se hubiera tratado de una negación del complemento u obyekt, véase arriba sobre la negación). La posición anteverbal queda aquí también remalizante, la de rema, focus (un término más) y el propio principio de anteposición preverbal aguanta con ello en este caso (de remalizar al sujeto=subyekt) de nuevo.

d) Por fin podemos preguntarnos: ¿cómo se remaliza en el vasco el propio verbo? Para verlo basta ya que comparemos dos preguntas:

1. *Zer ekartzen duzu?*
¿Qué traes?
2. *Makila hori eramaten al duzu?*
¿Ese palo lo llevas tú?

La respuesta a ambas, a lo que sabemos, será casi la misma:

1. *Makila hori ekartzen dut.*
2. (Ez) *Makila hori ekartzen dut.*

Y ello muestra que la remalización del verbo en particular consiste en el vasco en su conservación en la posición final. Aunque es muy posible que en la segunda respuesta la entonación sea también algo distinta y sirva también de modo complementario a la remalización del verbo. Lo último, por cierto, debe cambiar las cosas en una medida insignificante. Y todas estas cosas, al propio tiempo son muy comprensibles ya a priori, porque para la remalización del verbo en el vasco no puede servir la posición anteverbal: no hay, ni puede haber otro verbo ante el cual poner el verbo en remalización: no hay, ni puede haber en ninguna lengua dos verbos=dos predicados en una sola oración. Y el que la entonación debe emplearse aquí también como medio complementario para que no se confundan algunas variedades muy parecidas de

remalización, esto se ve, ya por ejemplo, en la existencia de dos tipos más de oración omónimos en el sentido remal: *ni nator* "soy yo quien vengo" y *ni nator* simplemente "yo vengo". Es evidente que para diferenciar estos dos tipos se debe casi obligatoriamente acudir a diferencias de entonación, lo que, por desgracia, no es demostrable, ni verificable en nuestras condiciones, es decir fuera de la propia zona del vasco, no in situ.

e) Entre los medios complementarios de la remalización ligados o no con la entonación y seguramente sí con la posición anteverbal, existe en el vasco también el procedimiento siguiente: "Exceptionnellement, un mot peut être mis en relief par l'inversion du bloc verbal: Aitak du aurdiki "C'est le père qui l'a jeté". Aitak untzia du aurdiki "C'est le vase que le père a jeté". Ici le relief est très accusé, même violent, et pour la traduire le français "c'est que" est obligatoire" (9).

Como vemos, el mismo procedimiento consiste aquí en cambiar el orden habitual aurdiki du "echado lo-ha" para él du aurdiki "lo-ha echado", lo que tiene lugar en la proximidad inmediata de la posición anteverbal y sirve para remalizar tanto al sujeto=subyekt, como al complemento=obyekt es decir todo lo que está en la posición anteverbal. R. de Rijk muestra lo anticuado ya de este procedimiento en la escala de todo el idioma vasco, de todos sus dialectos.

f) Dos ejemplos más van a mostrar la eficacia del mismo principio de anteposición preverbal para los miembros de la oración simple vasca otros que el S y O (en ambos ejemplos subrayamos el R):

Zakurra mahaipean dago.

El perro está *bajo la mesa*.

Gabaz etorri dira.

Han venido *de noche*.

Más sobre otros medios análogos, véase (11, pp. 40-43).

3. Aunque a TRV/RTV puede corresponderle entre las estructuras sintácticas la SVO (con sujeto remalizado: *anaiak ezagutu du arreba*) y otras, pero en vigor de la remalización dominante del complemento=obyekt como cosa universal (véase lo dicho arriba) el correlato sintáctico principal de TRV/RVT es SOV/OVS (S- sujeto=subyekt, O- complemento=obyekt, V- verbo) ya conocido en la literatura especial como algo fundamental para el vasco y como base para su introducción clasificativa

(9) P. LAFITTE. *Grammaire basque. Navarro-labourdin littéraire*. Bayonne, 1944, § 117,5 (de §§ 112-120).

de este idioma en un grupo tipológico de las lenguas caracterizado precisamente por SOV (J. Greenberg). La estructura SOV/OVS del vasco es fundamental no solamente por ser dominante cuantitativamente, sino también como básica en el sentido derivativo.

La fórmula de bloque para la correlación en cuestión puede ser StOrV/OrVSt, mientras que, por ejemplo, para RVT del vasco con S remalizado el bloque correspondiente puede ser formulado como SrVOt inversivamente.

La primera de estas fórmulas-bloques es mucho más demostrativa y "mostrativa" de lo que se podría pensar. Muestra no solamente que en su estructura sintáctica el vasco es una lengua SOV y al propio tiempo TRV por su rematismo y que nosotros calificamos esta lengua como SOV por su estructura sintáctica fundamental: nos muestra, además, que esta propia fórmula SOV es fundamental en particular por ser remalizado en las lenguas en general el O y que así lo es en el vasco y que esto participa en hacer al último una lengua SOV.

El vasco es tal lengua (StOrV) también por ser casi siempre en otras estructuras una lengua del rema anteverbal (incluso en el caso de SrVOt).

El signo de interrogación en el título del artículo de Rijk (en la nota 10) es por eso inútil.

4. Este trabajo /IO/, a pesar de los años que cuenta y la aparición de los trabajos posteriores sobre el tema (cfr./II/ y posibles otros) sigue siendo el más importante, y de él, a propósito, no discrepamos casi en nada en cuanto a la posición del rema o focus en el vasco, aunque en alguna parte todavía está por comparar con nuestra aproximación (approach) lo que planeamos para uno de nuestros trabajos siguientes.

Pasemos a algunas citaciones de este trabajo (p. 343): "The first to discuss the order of constituents in the sentence were R. M. de Azkue *Euskal Izkindea. Gramática Vasca*. Bilbao, 1891, §§ 773-789 and independently M. de Lecuona. *La Métrica Vasca*. Vitoria, 1918. The epoch-making studies of S. de Altube contain the most detailed treatment of the question: (su) De sintaxis euskérica, 1920 and *Erderismos*. 1929. The

(10) R. P. RIJK. Is basque an SOV language? FLV N3 (1969), pp. 319-369.

(11) F. DONZEAUD. The Expression of Focus in Basque. ASU VI (1972), pp. 35-45. Probablemente hay una parte importante sobre el tema en la conocida moderna gramática vasca de Emparantza/Txillardegi, pero no nos es accesible. En cuanto al término "focus" que está hoy tan en boga sobre todo en la lingüística americana, no vemos su diferencia de principio del "rema": es sólo más pintoresco y tiende a designar selectivamente la posición remal, no al propio rema.

point is also discussed in Zamarripa. *Gramática Vasca*, p. 15-17; Umandi. *Gramática Vasca*. 3, 28.

These authors invariably point out the following fact: in order to construct a Basque sentence properly you have to know what is "el elemento inquirido" or "la palabra dominante". Cfr. Umandi. *Gramática Vasca*, pp. 25-26: "Regla: "Elemento inquirido": La palabra o palabras que expresan la idea principal de la frase (aquellos por lo que explicita o implícitamente se pregunta) van colocadas inmediatamente delante del verbo".

Y de Rijk añade a ello:

"This is extremely interesting. There is nothing similar in the Romance languages, nor are there any grounds of logic or universal grammar on which to expect anything like this to be the case. This observation represents a genuine insight of Basque grammarians into the workings of their language".

Adhiriéndonos a todo ello notemos, sin embargo, que lo de "universal grammar" aquí parece algo inesperado, pues el propio autor nos cuenta en otro lugar sobre una decena de lenguas, incluso el vasco, en las que Greenberg ha establecido la construcción sintáctica SOV. Pero aquí estamos ya ante los problemas de pura teórica que ya hemos prometido considerar en un otro trabajo.

Autores: Profesor Yu. Vl. Zytsar'. URSS 380086 Tbilisi, prosp. Važa Pšavela VII, dom 5 A, kv.31.

Ts. G. Menabde. URSS. 380060. Tbilisi. Prosp. Važa Pšavela, dom 4, kv. 24.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

**EUSKALTZAINDIAREN
BATZAR-AGIRIAK**

1989-I-27

Donostian, Foru Diputazioko jauregian, 1989ko urtarrilaren 27an egin da goizeko hamar t'erdietan euskaltzain osoen hileroko batzarrea. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. San Martin buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, P. Salaburu, I. Sarasola, L. Villasanté eta P. Zabaleta euskaltzainak, J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea bertan dagoelarik.

J. Haritschelhar euskaltzainburu berriak eman dio batzarreari hasiera.

Azken batzar-agiria onartu da.

GURUTZE HARRIEN HIZTEGIA

Azken batzarrean erabaki zenez, J. M. Lekuona, F. Ondarra eta J. San Martin euskaltzainek gurutze harrien hiztegi laburraren proposamen zehaztua aurkeztu dute. Banan-banan eztabaidatu ondoren hitz guziak, gehienak ontzat eman dira. Dozena erdi bat esamesen inguruan sortutako zalantzei erantzuteko beste epe bat luzatu da. Proposamenak zuzendaritzara bidaliko dira. Zerrendan agertu ez bada ere, "lauburu" izen euskalduna gehitzeko eskaria ontzat eman du batzarreak.

BARNE JARDUNALDIAK

Kargu berritzeekin batera bi urtetik behin egin ohi diren Barne Jardunaldien zehaztasunak aipatu dira gero. Otsailaren 23, 24 eta 25ean egitekoak dira, hilaren azken osteguna, ostirala eta larunbatean. Lehen arratsaldean egin daiteke López de Guereñu ikerle arabarrari egin gogo den omenaldia. Ostirala bere osotasunean Barne Jardunaldientzat izan daiteke. Larunbat goiza, erabakirik hartu behar balitz edo gairen baten jarraipenerako, oraikoz beste loturarik gabe uzten da. Eskuarterko gaiak ere orduan eman daitezke.

Tokiari dagokionez, omenaldia kontutan harturik, Arabako Barria barnetegia ikusten da egokiena. Ez dirudi arazorik legokeenik.

Gaiak. Gai mugatu batzu helburutzat hartzeak ondore onak izan dituela gororarazi du idazkariak. Nola nahi ere, aurrez aipaturiko puntu batzu badaude batzuren asmoan. Jagon Sailaren helburua eta mugak zehaztea aipatu izan da noizbait. Zer izan den, zertan dagoen eta izan behar lukeen, alegia. Hori dela eta, J. San Martin Jagon sailburu ohiari txostena eskatu dio euskaltzainburuak. Bere esperientzia gerta daiteke abiapuntu oso ona.

Ekonomia. J. A. Arana diruzain berriak, bere aldetik, gai honetaz txosten bat ekarriko duela esan du.

Bada besterik ere. Azken aldi honetan behin eta berriaz azaldu izan da batzarreetara ez datozen euskaltzainen egoera, adinaren arazoa, hauteskundeetara ahala igortzea eta horrelako beste zenbait kezka. Ikusi behar dena zera da, hain epe laburrean eta han izango den denbora mugatuan horiek oro behar bezala eztabaidatzeko astirik balegokeen.

Norberak oharrak igortzeko aste baten epea ezarri da, gero zuzendaritzak egitaraua zehaztu eta zabal dezan.

ESKU ARTEKOAK

J. Haritschelhar euskaltzainburuak batzorde idazkariei urteko lanen berri berehala eman behar dutela adieraziko diela, esan du. Memoria egiteko behar-beharrezkoa da.

Lizarran 1990eko irailean egitekoak diren Onomastika III. Jardunaldien iragarkia banatu du batzorde idazkari den J. L. Lizundiak. Txostengileek datorren ekainaren 30erako bidali behar dituzte lanaren izenburua eta laburpena.

Nafarroako Gobernuak Euskal Eremuko herri izenen zerrenda eta berorien ofizialtasuneko legea aurkeztu dituela, aditzera eman du Nafarroako ordezkariak. Altsasu eta Bera izenei, Alsasua eta Vera de Bidasoa gehitu dizkie.

Eta besterik gabe amaitu da euskaltzain osoen goizeko batzarrea.

2. BATZARREA

Donostian, Hiriko Udaletxean, 1989.eko urtarrilaren 27an, egin du Euskaltzaindiak hileroko batzarrea. Arratsaldeko 4 t'erdietan bildu dira, goizeko batzar agirian agertzen diren euskaltzainez gain, E. Knörr eta urgazle hauek: E. Agirretxe, L. Akesolo, J. M. Aranalde, X. Aranburu, J. A. Arkotxa, P. Arregi, M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, J. Etxaide, J. Garmendia Larrañaga, P. Goenaga, J. M. Iriondo, X. Kintana, D. Landart, J. M. Larrarte, M.^a P. Lasarte, J. A. Loidi, X. Mendiguren, J. A. Mujika, J. Oleaga eta J. J. Zearreta.

Ibon Sarasolaren sarrera hitzaldia ospatzen denez, batzar ireki erakoa da eta Euskaltzainburu eta Idazkariak gain, hurrengo hauek ere eseri dira mahaipuruan, alegia: Xabier Albistur, Donostiako alkatea; Imanol Murua, Gipuzkoako diputatu nagusia eta M.^a Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia.

Xabier Albistur alkate jaunak, hiriaren izenean, ongi-etorria egiten du, egokiera horretaz baliatuz Euskaltzaindiaren erabakiekiko atxikimendua aitortzeko eta euskaltzain berriari, beronen jaioterriaren izenean, zorionik beroenak eskaintzeko.

Jarraian, J. Haritschelhar Euskaltzainburuak hitzaldiño labur bat egiten du. Euskaltzain berri bakoitzak sarrera mintzaldia bere herriko udaletxean egiteko ohitura azpimarratuz, Ibon Sarasolak Mitxelenaren jarraipena egiten duela, *Orotariko Euskal Hiztegia* lanik garrantzitsuen duelarik.

Euskaltzainburuaren hitzen ondoren, euskaltzain bi joan dira Ibon Sarasola euskaltzainaren bila, hain zuzen, Juan M. Lekuona eta Luis Villasante jaunak.

Ibon Sarasola Errazkin euskaltzain berria sartzen da aretoan eta sarrera hitzaldiari lotzen da, alegia “euskal hitzez” izeneko gaiari. Ohi bezala, bere aurreko euskaltzain zendua, Koldo Mitxelena gogoratuz hasten da.

Hitzaldiaren punturik nagusienak hurrengook azpimarra daitezke, alegia: “euskaldun askok ez dutela askotan beren artean euskaraz egiten. Euskaldunon arteko erizpideen falta. Batasunak egungo euskara batzea du helburutzat. Euskara bizia da gure eguneroko adigaien artean nahasiena eta nahasgarriena. Euskara bizia Ipar eta Hegoaldeko euskaldunak gehienok erabiltzen ditugun hitz eta joskeren multzoa” dela bere ustez. Geroxeago “gaizki eraturiko hitzez, erabile-raren irizpidez, erdal hitzetaz” aritu da Sarasola. Amaitzean zera adierazi du, hots: “euskararen egoera nabarmenki aldatu da azken urteotan, eskuan ditugun baliabide eta tresnen aldetik. Orain arte ezer gutxi erabili ditugula bide horiek –eskola eta komunikabideak– euskara txukuntzeko”.

Endrike Knörr euskaltzainak ematen dio erantzuna, Ibon Sarasolaren bizitza, eta, batez ere, lanez, xehetasun ugari emanik. Ez bakarrik filologo maila, baizik eta idazle alderdia ere goraiatu dio sartu berriari erantzunleak.

Eta azkenik, denak zutik, J. Haritschelharrek izendapen agiria eskuratuz eta Erakundearen domina ezarriz, zoriondu du euskaltzain berria, ondoren, gauza bera egiten dutelarik mahai ingurukoek.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

1989-II-24/25

Lazkaon, HABEko "Maizpide" euskaltegian, 1989ko otsailaren 24 eta 25ean, VI. Barne Jardunaldiak egin ditu Euskaltzaindiak. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. San Martin buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante euskaltzainak. Ostiraleko batzarreetan A. Zavala ere egon da, hala nola J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea, denetan.

Dagozkien batzordeetako idazkari eta arduradun hauek deitu dira: J. A. Adu-riz, Miren Azkarate, R. Badiola, Patxi Goenaga, Andoni Sagarna, X. Videgain, Mikel Zalbide, J. J. Zearreta, urgazleak, eta G. Aurrekoetxea, Dialektologia batzor-deko arduraduna.

X. Diarce euskaltzainak ezin etorria adierazi du.

Urtarrileko batzar-agiria onartu da.

I. BATZORDEEN BERRIZTAPENA

a) **Jagon Saila.** Lazkaoko Barne Jardunei hasiera euskaltzainburuak eman die Arautegian aipatzen diren helburuak aztertuz, goizeko 9 t'erdietan, otsailaren 24ean.

J. San Martin, Jagon sailburuak, karguan egon den urte hauetako ekintza nagusiak eta gertatutako aldaketen azalpena egin du gero. 1979ko lehen jardunal-dietatik euskararen normalizapen bidean emandako urratsak aipatu ditu. Euskal-tzaindiaren babespean ziren AEK, Euskararen Gaitasun Agiriak, Bertsolarien txapelketak eta Itzutzaileen Eskola. Dagozkien eskuetan utziak dira orain. Euska-raren legezko eskubideak zaintzeko agintariei igorritako adierazpenak aipatu ditu gero.

Etorkizunari begira, herrialde bakoitzean euskararen egoera desberdina da, eta tokian tokiko arazoak sortzen dira hiru mugaz eta hiru jokabide politikoz banatutako Euskal Herrian. Hori dela eta, ordezkaritzen arduradunekin osotu beharra ikusten du Jagon Saila, eta Arabako ordezkarria proposatu du Sailburu.

Elkarrizketa luzearen ondore nagusiak hauek izan dira: Herri egoera normal-dutako batean agintariei dogokie zuzenean hizkuntza zaintzeko ardura. Baina, ofizialki onartutako legeak ere ez dira beti betetzen, bete nahi direlarik ez da euskara jatorra erabiltzen eta gure hizkuntzaren ahuleziak beste bultzada batzuren beharra badu. Euskararen Aholku Batzordean baditu Eusko Jaurlaritzak zenbait euskaltzain eginkizun hori betetzen laguntzeko. Hala ere, aho batez aitortu da Jagon Sailaren beharra Euskaltzaindiaren barnean.

Jagon Saila, beraz, pertsonetan sartu gabe, kargu hauek osotuko dute: Arabako ordezkaria buru, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroako ordezkariak, diruzainak eta idazkariordeak.

b) **Egitura Saila.** Atsedenaldi baten ondorean, hamaika t'erdietan hasi da bigarren saioa. Barne egituren batzordeek egin dituzte beren azalpenak eta berriz-tatu dira karguak.

Diruzaintza. J. A. Arana eginkizun honetan berria denez, J. J. Zearretak burutu du gehien bat aurrekontu arauen txostena eta diruzainak irakurri du. Aldaketan sartuak direla, dio, eta ekonomia osoa ordenagailuetan sartzeak lana emango duela. Aurre-asmoen azalpena Erakunde nagusien ildotik omen doa, gero kontu ematerakoan adostasun batera iristeko.

1989ko aurrekontuak. Urte honetarako begiz jota dauden diru kopuru ofizialak laster izenpetzekoa den hitzarmenaren baitan daude. Gure ekonomia arloan urrats garrantzitsu baten atarian gaude geroari begira. Gastu atal guztien arazke-pena egin du, kasu bakoitzeko kezka eta lorpen arrazoituen berri emanez.

Onartu da aurrekontuen txostena eta egileei zorionak ematea erabaki da.

Eztabaida sortu du sinposio eta kongresutara joan ohi direnen gastu ordainketak. Izan ere, zehaztu beharra dagoen arazotxo da, maizegi gertatu ez arren. Hori dela eta, elkarrizketa baikorra sortu da batzarrean. Laburtuz, Euskal Herrian bertan ala bere inguruan eratutako batzarreek ez dute arazo haundirik sortzen. Atzerriko joan-etorriek, aldiz, erizpide batzuren oinarriak finkatzea eskatzen dute. Bakoitzaren heziketa mailan edo interesagatik hitzartutako irteerak, adibidez, norberak ordaintzekoak dira. Euskaltzaindiari ere, eta bereziki berari, komenigarri zaizkionetan ponentzia edo txosten akademikoak aurkeztuko dira eta ehunetik ehuna ordainduko da, beste laguntzarik ez duten gastuetan. Xahupenen txartel originalak ekarri beharko dira, beharrezkotzat jotzen baitira agintariei kontuak ematerakoan.

Aurrekontuetan egon gabe urtean zehar egin behar izaten diren ordainketen arazoa aipatu da gero. Prozedura finkatzeko garaian, ehun mila peztaraino (100.000) ordain dezaketela ekonomia arduradunek, erabaki da. Zuzendaritzak, bestalde, milioi erdira bitarteko gastuak (500.000) erabaki ditzake.

Diruzaintzako batzordea honela gelditu da: Diruzaina buru, ekonomia eragile-a eta Zuzendaritza bera.

Azkue Biblioteka. A. Irigoyen bibliotekariak ezetza eman dio karguan jarraitzeko egin zaion eskariari. P. Salaburu izendatua izan da kargu horretarako. Batzordea, beraz, aldaketa bakarrarekin gelditu da. P. Salaburu bibliotekari, J. A. Arana arduradun eta lehengo batzordekideek orain arte bezala jarraituko dute.

Argitarapen batzordea. Karguen arabera, Zuzendaritza, Iker sailburua, Jagon sailburua eta bibliotekaria dira berezko partaide. P. Altuna eta P. Charritton batzarrearen izendapenaz. Euskaltzainburua da batzordeburu eta R. Badiola eragilea, idazkari.

c) **Iker Saila.** Martxoaren 24ean, arratsaldeko 3 t'erdietan hasi du Euskaltzaindiak Barne Jardunaldi hauetan Iker Saileko batzordeen azalpen eta kargu berritzatzeko batzarrea.

L. Villasante izendatu da aho batez Iker sailburu.

Dialektologia. F. Ondarra izendatu da Dialektologia batzordeburu.

Bi azpibatzerde izango ditu denbora berean: Atlasgintzakoa eta Euskalki Ikerlan Arruntena. *Atlasgintzako* arduradun J. Haritschelhar eta idazkari G. Aurrekoetxea izango dira. Batzordekide, Ch. Videgain, A. M. Etxaide eta J. M. Etxebarria. Era berean, zerrendan agertuko dira, K. Segurola, I. Etxebeste eta I. Atutxa, orain arte lankide direnak.

Euskalki Ikerlan Arrunten arduradun Tx. Peillen izango da, eta idazkari Ch. Videgain. Bigarren azpibatzerde honetako kide, I. Gaminde, A. Irigoyen, R. M. Pagola eta K. Rotaetxe izendatu dira.

Hiztegitintza. I. Sarasola batzordeburu.

Hiru azpibatzerde izango ditu hemendik aurrera: OEH eta, orain arte Jagon Sailean kokaturiko LEF eta EEBS batzordeak.

Orotariko Euskal Hiztegia. I. Sarasola arduradun eta I. Segurola idazkari. Lankide taldea orain arteko bera.

Lexikologi Erizpideak Finkatzeko azpibatzerdea, M. Azkarate arduradun, eta J. A. Aduriz idazkari. P. Altuna, J. K. Odriozola, M. Enzunza, P. Goenaga, J. J. Irazola, J. M. Larrarte, L. M. Mujika, L. Otaegi, B. Oyhartzabal, P. Uribarri, T. Uribeetxebarria, P. Urkizu, A. Sagarna eta M. Zalbide.

Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa. Azpibatzerdearen arduradun A. Urrutia, idazkari A. Sagarna. Batzordekide, J. A. Aduriz, C. Harlouxet, J. Iturbe, J. M. Larrarte, M. Lasa, E. Oregi, L. Otaegi eta I. Sarasola.

Gramatika. Batzorde honen azalpenean zenbait izen aipatu da, baina dagoen moduan ongi ari denez bere eginbeharretan, aldaketarik gabe uztea erabaki da. Beraz, orain arteko lantalde berak jarraituko du, P. Altuna buru dela, P. Salaburu arduradun eta P. Goenaga idazkari.

Onomastika. E. Knörr buru, A. Irigoyen arduradun eta J. L. Lizundia idazkari. Batzordekideak, R. Cierbide, J. L. Davant, J. A. González Salazar, A. Iñigo, J. M. Jimeno Jurio, J. B. Orpustan, J. San Martín, P. Salaberri eta J. M. Satrustegi.

Literatura. Batzorde honek birmoldaketa sakona behar duela ikusi da. Alde batetik, orain arte Jagon Sailean egondako bi batzordeak, euron gogoia ontzat emanez, Iker Sailera aldatzen dira. Eta beste aldetik, batzarrean agertutako eritziak jasoz, sortzaileen arloko presentzia falta da eta kritika egiten dutenen hutsunea ere nabarmena da. Euskal literatura lantzen dutenen batzorde bat sortzea begi onez ikusten da.

J. M. Lekuona izango da Literatura batzordearen buru. Hiru azpibatzerde izango ditu:

Literatura klasikoa, F. Krutwig arduradun dela eta J. Lavin idazkari. Batzordekideak, M. Erzilla, J. A. Etxebarría, J. L. Goikoetxea, A. Irigoyen, G. Ansola, M. Agirreazkuenaga eta J. J. Pujana.

Herri Literatura. A. Zavala izango da arduraduna eta P. Esnal idazkaria. Lehengoari jarraituz, J. M. Etxezarreta, J. M. Aranalde, A. Aranburu, A. Irigoyen, J. M. Iriondo, M. Itçaina, E. Larre, J. M. Lekuona eta A. Muniategi, batzordekideak.

Gaurko Literatura. J. M. Lekuona arduradun dela, proposamen bat aurkeztuko du apirilera, datorren urteko aurrekontuetan sartu ahal izateko.

II. EGITURA ETA IBILPIDEZKO GAIAK

Seiak aldera, batzordeen berriztapeneko ekintzak amaitu ondoren, Euskaltzaindiaren barne egiturazko arazoa aipatu da. J. L. Lizundiak Lekarozen IV. Barne Jardunaldietan aurkeztu eta, astirik ezean, aztertu gabe gelditutako "Barne Eredu eta Zerbitzuen ibilpideaz" izeneko txostena irakurri du. Funtsean, Egoitza, Biblioteka, eta Ordezkaritzen ibilpideaz Erregela Berezi batzu egitea proposatzen du. Aurre-asmo horren zirriborroa ere banatu du batzartuen artean. Proposamena ontzat eman da.

Gaia bideratzen joateko legegizonen batzordeño bat izendatu da. Euskaltzainburuaren ardura, J. A. Arana, J. L. Lizundia, P. Zabaleta, A. Muniategi eta A. Urrutia ahaleginduko dira proposamena Euskaltzaindiarentzat prestatzen.

Martxoak 25. Larunbata

Goizeko 9 t'erdietan, egitura eta barne ibilpidezko arazoekin hasi da batzarrea. Bezerako azken bilkuraren amaieran, E. Knörrek hamar punduko eskaria irakurri zuen P. Salaburu eta bien izenean.

Euskaltzainburuaren aginduz idazkariordeak beste izkribu labur bat aurkeztu zuen gaiak Arautegiari, Barne Erregelei ala batzar erabakiei dagozkien ikusteko. Eztabaida han sortu bazen ere, goiz honetan eman zaio denborarik gehiena.

Lehen pundua Jagon Sailari dagokio eta Barne Jardunotan zehazturik dago erantzuna. Argitalpenen kontua Erregela Bereziaren sartzen da eta iaz bertan gehitu zen eranskin bat. Hirugarren atala euskaltzainen hautapenez, botuaz eta iraupenez da bereziki, eta hor sortu dira kontraesan nagusiak. Gauza asko badela hor, esan du J. Haritschelharek, eta oso maila desberdinetakoak. Euskalkien kargu kopurua, adibidez, beste garai baterako utzi daitekeela, noiz eta nola tratatu behar den erabakiz.

Adinduen kargua utzi beharrak izan ditu erantzun ugariak. Arautegia aldatzea paper kontua omen da, Madrilgoak aldatu omen zuen adinaren epea ezarri eta Euskaltzaindiko Arautegiak ez duela esaten kargua betirako denik, diote berek.

Arautegia aldatzearen arriskua azpimarratu da behin eta berriz. Erdal Akademiak adinekoei buruz berea noizbait aldatu bazuen ere, ez du inoiz bete. Adineko gizon ospetsuak hartzen ditu barnean. L. Villasantek gogorarazi du, behin kendu zitzaiola kargua euskaltzain oso bati eta ez dela berriz gertatu. Eta urgazle oso ezagun batek izendapena arbuaiatu zuelarik, bizi guziriako zela erantzun zitzaion. Gerra ondoren, behar gorriari buru emateko, 12tik 18ra gehitu zen euskaltzainen kopurua. Orain 24 gara, gehiegi batzuren ustez.

Erabakiren bat hartzea eskatu du P. Salaburuk, batzordeñoren batek arazoa azter dezan proposatuz. Gai horretaz aritu behar ote garen ala ez bozkatzea lehenik, nahi du P. Altunak.

Adineko euskaltzainen gora-beherak (3. puntuak) oraikoz baztertzea, beste gai batzu ukitzeko, proposatu du J. Haritschelharek. Protokolo arazoaz (4. pn.), eta barne ibilpideez (7. pn.), ekaineko batzarrerako txosten bat eskatu dio J. L. Lizundia idazkariordeari.

Gai horren aurretik, behar da, eskarietako bi azken proposamenak azter daitezke: euskara batuaren normatiba. Zertan garen eta zer egin daitekeen hurrengo urte biotan. Gramatika puntuak: Hartu behar diren erabakiak, EGLU dela eta, jasoriko gutuna. (9. pn.). Hala nola, Euskal hitzak zein direlako auzia (10. pn.). Gai hauek aztertzen hasteko batzordeño bat aipatu du euskaltzainburuak, P. Altuna, P. Goenaga, P. Salaburu, I. Sarasola eta beste zenabit barne direla. Datoren maiatzeko batzarrera txostena ekartzea eskatu die.

Euskalkien arabera zenbat euskaltzain izenda, eta zenbat lurraldeen loturarik gabe (3.1) urtariletik aurrera ikusiko da eta Zuzendaritzak ekarriko du proposamena. Utz dezagun orain adinduen eta atzerriratuen eztabaida, esan du J. Haritschelharek.

Aparkatu bai, baina ahaztu ez, erantzun zaio alde batetik. Aparkatu hitzak esan nahi du, urtariletik aurrera ez berriro horretaz hastea, entzun da beste aldetik.

Eta horretan galditu da gaurkoz egitura eta ibilpidezko gaien eztabaida.

III. ESKUARTEKOAK

Jarraian, dei berezian iragarri diren eskuarteko zenbait gai ikusi dira.

Donostiako Udaletxean I. Sarasolak emandako Sarrera hitzaldira Barcelona-ko Unibertsitatetik Errektorearen izenean etorritako R. Plá Arxé jaunari eskerrak ematea erabaki da.

Errenteriako Udalak herriko pertsonaiei buruz antolatu duen idazlanen sari-keta epaimahairako J. M. Lekuona izendatu da.

X. Azurmendiren gutun bat jaso da, Orixe-ren "Opera omnia" oraintxe argitaratzekotan direla eta, Uitzin Euskaltzaindiaren batzarrean irakurritako txostenak argitaratzeko baimena eskatzen. Euskaltzaindiko txostenak *Euskera*-n argitaratzen direnez, lan horien separatak berehala egin eta iturrien aipamenarekin bilduma horretan sartzeko baimena ematen zaie.

J. C. Odrizolak “Izen ez-propiodun elkarketaz” bidalitako lanaren berri eman da.

Datorren Irailean Donostian egitekoa den “Hizkuntz minorizatuen III. Soziologi Kongresuaren” berri eman da gutun baten bidez.

Eta J. M. Barandiaran euskaltzainari bere jaiot-ehunurteburuaren aurrean Euskaltzaindiaren domina ematera joateko ordua iritsi denez, amaitutzat eman dira Lazkaon VI. Barne Jardunaldiok.

* * *

Atauna joan dira gero euskaltzainak eta beste zenbait lagun, on Joxe Migel Barandiaran euskaltzainkidearen inguruan omenezko ekitaldi labur eta bero bat burutzeko.

J. Haritschelhar euskaltzainburuak txosten bat irakurri du lehenik omendua-
ren merezimenduak, eta euskararen arloan egindako lanak azpimarratuz bereziki.

Esker onezko hitzalditxo batekin erantzun dio gero Ataungo antropologiari ospetsuak Euskaltzaindia “Sara” etxean ikustea beretzat ohore handia dela esanez.

Euskaltzaindiaren zilarrezko domina eman dio J. Haritschelhar jaunak ehunurtekari egiten zaion ospakizunaren ezaugarri.

Amaieran, J. M. Satrustegi idazkariak azken argitalpenaren eskaintza egin dio, hots, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, J. M. Jimeno Jurío Onomastika batzordekideak egina.

Eguerdiko hamabietan egin da, jautsi ahalako euriekin, omenaldi hau, eta bazkal aurreko ahamenak eta ardoa eskaini dizkie J. M. Barandiaran jaunak batzartuei.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

1989-III-31

Lapurdiko Bidarten, 1989ko martxoaren 31an egin du Euskaltzaindiak osoen hileroko bilkura. "Bidartea" ostatuan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin eta L. Villasante, euskaltzainak, J. L. Lizundia idazkariordea; R. Badiola Argitarapen eragilea eta J. J. Zearreta, zegozkien gaietan.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, F. Krutwig, A. Labayen, P. Salaburu eta I. Sarasolak, ezin etorria adierazi dute.

Otsaileko batzar-agiria onartu da.

IZENDAPENAK/KARGU HAUTAKETA

Arratsaldeko laurak laurden gutxiagotan hasi da batzarrea. J. San Martin Ararteko izendatua izan denez, beste karguak utzi behar izan ditu eta euskaltzaindiko buruorde berria hautatzeko bozketak egin dira. Lehen itzulian hamabi euskaltzain osok hartu dute parte zuzenean eta sei ahalmen jaso dira. P. Salaburuk, E. Knörri eman dio ahalmena, J. Hiriart-Urrutyk, J. Haritschelharri, A. Labayenek, J. San Martini, X. Diharcek eta, azken orduan atera behar izan duen P. Charrittonen, E. Larreren esku utzi dute euren txartela. 18 hautatzaile, beraz, 13 botu behar direlarik gehiengo nagusia lortzeko.

Lehen itzulian 11 txartel izan ditu J. M. Lekuonak, A. Irigoyenek 5, E. Knörrek bat, eta zuri beste bat.

Bigarren txandari hasiera ematean sartu da batzargelan J. M. Lekuona. Hemeretzi hautesle badira, beraz, oraikoan eta gehiengo soila aski da izendapenerako. Haste-hastetik J. Haritschelhar jaunak J. M. Lekuonaren izena emana du hautagaitzat eta A. Irigoyenek bere burua proposatu du. Garbi esan da, noski, edozein euskaltzain oso berez dela hautagai. Bigarren aldian ere 11 botu izan ditu J. M. Lekuonak, A. Irigoyenek 6, P. Altunak 1, eta zuri bat. Besterik gabe, J. M. Lekuona atera da Euskaltzaindiko buruorde.

Barne izendapenak. Batzarrean izan da beste izendapenik ere. Egitura arruntaren barnean sortutako hutsuneak bete dira jarraian. J. M. Lekuona izango da Euskaltzaindiaren ordezkari Gipuzkoan, J. San Martinek utzitako karguan.

E. Knörr izendatu da HABE erakunderako ordezkari.

Eusko Ikaskuntzari dagokionez, euskaltzainburua eta idazkaria dira haren Batzorde Iraunkorreko partaide. J. Haritschelhar izango da, beraz, Euskaltzaindiko ordezkari berria, J. M. Satrustegik bertan jarraitzen duelarik.

Bestelako izendapenak. Eusko Jaurlaritzatik Kultura eta Turismo Saileko Euskara-Arazoetarako Zuzendaritzak ordezkari bat eskatzen du Euskal Letren Merezimenduzko sariaren epaimahairako. P. Altuna izendatu da eta ordezkoa J. M. Lekuona.

Madrilgo Kultura Ministeritzatik bi ordezkari eskatzen dituzte itzulpenen sariketaren batzorde hautatzailerako, eta hirugarren bat epaimahairako. F. Krutwig eta X. Kintana izango dira batzordekide, eta E. Knörr epaimahaikoa.

Haur nahiz gazteekilako Literatura sorketa sarirako epaimahaikide bat izendatzea eskatu du Madrilgo Kultura Ministeritza horrek berak. Pakita Arregiren izena onartu da.

Bizkaiko Garraio Partzuergoko Lehendakaritatzatik euskararekin zerikusia duen lanpostu aukera baterako epaimahaikidea eskatzen dute. A. Irigoyen izendatua izan da eta ordezkoi P. Uribarren.

Orozkoko Udalak liburuzain-euskarazko-itzultzaile lanposturako iragarria duen deialdiaren ondoren egingo den azterketarako ordezkari R. Badiola izendatu da.

CAMPION-BROUSSAIN, S. A.

Diruzaintza arduratu denez, azken aldi honetan, Campion-Broussain, S. A. elkartearen birmoldaketaz, J. A. Arana diruzainak aurkeztu du azterketaren iritzi tekniko eta legezko aholkua. Laburñuz, puntu nagusi hauek azpimarra daitezke: Akzio guzrien erosketa proposatzen du. Administralgo kontseilua izendatu behar da eta, azkenik, Notariarekin baieztatuko dira erabaki hauek.

Euskaltzaindiak aho batez onartu du akzio guztien berreskuratzea, bera izango delarik aurrerantzean nagusi bakarra. Baimena ematen zaio arduradunari salerosketa Notariaren aurrean baieztatzeko.

Campion-Broussain, S. A. elkartearen kontseilua izendatu da gero:

Burua, euskaltzainburu eta Hizkuntz Atlas batzordeburu den J. Haritschelhar.

Idazkaria, Euskaltzaindiko idazkariordea den J. L. Lizundia.

Ekonomia zaintzale, J. A. Arana diruzaina.

Kontabilitate teknikari, J. J. Zearreta Euskaltzaindiko Ekonomi eragilea.

Bazkideak: I. Sarasola OEH-ren arduradun euskaltzaina, P. Zabaleta legegizon euskaltzaina eta A. Muniategi legegizon urgazlea.

Kontseilu berria legeztatu bezain laster egin beza lehen bilkura orokorra eta berezia ibilaldi berriaren abiapuntutzat.

NAFARROAKO HERRI IZENDEGIA

Nafarroako Gobernuaren eskariz egindako Herri Izendegiaren azken atala aurkeztu du E. Knörr Onomastika batzordeko buruak. Eremu erdalduneko sei zerrenda dira, orohar, gaurkoak. Zenbait izenen arazoa aipatu da. Adibidez Urantzia, Los Arcos-en pareko hitza, baztertzearen alde agertu da batzordea. Azken erabakia hartu aurretik bertakoen iritzia jasotzea eskatu du idazkariak.

Iruñean Postako arduradunek Herri izenen zerrenda osoa eskatu dutela datorren urteko gidaliburuan sartzeko, aditzera eman du Nafarroako ordezkariak. Onartu gabe dagoela esan zaielarik, behin-behineko zerrenda izango bada ere, langileen argibidetzat behar-beharrezkoa dutela erantzun dute. Beste urteko argitalpenean zuzendu ezinik ez dagoela.

Izendegi honi buruzko oharrak ekartzeko epea irekirik gelditu da datorren hilabeteko batzarrea bitartean.

GURUTZE HARRIEN HIZTEGIA

Harri marradunen gurutze izenei buruz egindako azken oharrak aurkeztu ditu R. Badiolak dagokion batzordeñoaren izenean. Banan-banan ikusi ondoren zalantzan utzitako hitzak, onarturik gelditu da zerrenda osoa.

PROTOKOLOA ARAUTZEA

Lazkaoko Barne Jardunaldien ildotik, protokolo eta jende aurreko agerpenen arazoak arautzeari buruz, aurre asmoen txosten bat aurkeztu du idazkariordeak. Era honetako gauzen arduradun J. L. Lizundia bera izendatzea onartu da. Hila-bete bateko epea dago banatu den izkribuari oharrak egin ahal izateko.

Euskaltzain hitza. Barne Jardunaldi berorien gaiekin jarraituz, akademilari aipamenak sortzen duen nahasketa azaldu da. Araudiko 3. artikulua hartu da oinarritzat, eta *euskaltzain* nahiz *euskaltzaindikoa* soil soilik egindako aipamena euskaltzain osoei bakarrik dagokiela, esan da. Baina ez da inolako erabakirik hartu, datorren batzarrerako utzi delarik arazoa.

Izen erabilpenarekin batera, hileroko batzar-agiriaren zabalkundea aipatu da. Gerra aurrean ez zen nehoi bidaltzen. Gero euskaltzain oso eta urgazle guztiei banatzen zitzairen. Azken aldi honetan murrizten joan da hartzaileen kopurua eta erabakiren bat hartu beharra ikusten da.

Lehen hilabetean banatzen den agiria ofizialki onartu gabe egon ohi da, eta euskaltzain osoei bakarrik dagokienez onartzea ala ezestea, ez du iduri beste inoren eskura heldu behar lukeenik. Edo, agian, batzarrean partaide izateaz bestalde bertan aipu diren lankideei ere bidaltzen ahal zaie.

Onartutakoan, iritziak ez datoz hain ados. Osoen goizeko batzar-agiria barne eztabaiden lekuko zehatza denez, badirudi zabalkunderako baino funtzio garrantzitsuagoa duela oinarritzko erabilpenari begira.

Arratsaldeko batzarrean egiten da, noski, goizekoen aipamena eta bertan irakurtzen dira txostenak. Batzuren ustez, han dagoenak entzun du esandakoa, eta ez badator "utz mutur huts". Beste batzu, aldiz, esku zabalaren alde agertu dira; loturak mantentzearen alde, alegia. Loturaren beharrik senditzen ez dutenak ez badira, edo aspaldi eten zutenak agian. Hor datza, noski arazoaren kakoa.

Zehaztasun gehiagorik gabe bukatu da eztabaida.

ESKUARTEKOAK

J. M. Leizaola euskaltzain ohorezkoaren hil-berria eman du euskaltzainburuak, datorren hileko batzarrean egingo duelarik J. San Martinek bere merezimenduen aipamena.

Martxoaren 20an Nafarroako Gobernuako buruarekin egon zen., Zuzendaritza J. San Martin ezik, kargua utzia zuenez ordurako. G. Urralbururekin egon aurretik, A. Colin Lehendakartzako kontseilariak hartu zituen bere bulegoan. Elkarriketa baikorrak izan ziren bienak. Euskara arloan Euskaltzaindiarekin kontatuz lan egiteko xedea agertu zuten eta Hitzarmenaren atzerapenak ere ez duela Euskaltzaindiarekin zerikusirik, azpimarratu zuen A. Colinek. Laster izenpetuko dutela aditzera eman zuen bestalde.

Aita Jorge Riezuko euskaltzain ohorezkoa ikusten izen dela, esan du J. M. Satrustegik. Asko poztu zen eta Euskaltzaindiko ekintzen berri jakin mina agertu zuen. Otsailean izanak zirela F. Ondarra, P. Arregi eta hirurak, esan du J. San Martinek.

A. Sagarnak bere doktoradutza lortu du Barcelonako Unibertsitatean eta zorionak eman dizkio euskaltzainburuak. Eskertzen zaio, bestalde, tesiaren kopia bat "Azkue Biblioteka"-ra bidaltzea.

J. Haritschelharek aditzera eman du, Tx. Peillenen biharko sarrera ospakizunaren hasieran hor izango dela Baionako mera eta kontseilari nagusia den Grenet jauna. Horren aitzinetik hartuko du bere bulegoan Zuzendaritza eta mintzatuko gara Euskaltzaindiaz.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

2. BATZARREA

Baionako Udaletxean, 1989.eko apirilaren leian, egin du Euskaltzaindiak, Txomin Peillenen sarrera dela eta, batzar irekia. Goizeko 10etan bildu dira, mahaipuruan: Henri Grenet, Baionako auzapeza; J. Haritschelhar, euskaltzainburua; J. M. Lekuona, Buru-ordea; J. M. Satrustegi, idazkaria; J. A. Arana Martija, diruzaina; A. Irigoyen eta Tx. Peillen. Aretoko ezarlekuetan: P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, E. Knörr, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta L. Villasante, euskaltzainak; J. Allières, euskaltzain ohorezkoa; X. Arbelbide, M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, R. Camblong, J. B. Dirassar, J. Etxaide, J. A. Etxebarria, P. Etxeberria, P. Etxehandi, R. Idiart, D. Landart, J. M. Larrarte, M.^a P. Lasarte, J. L. Lizundia, B. Oihartzabal, A. Sagarna, X. Videgain eta J. J. Zearreta, urgazleak. Jende andana bat ere aurkitzen da.

Ongi etorria emanez, hasten du bere agurra Henri Grenet, Baionako auzapez jaunak, eskerrak ematen erantzuten diolarik J. Haritschelhar, euskaltzainburuak.

Ondoren, alde egiten du auzapez jaunak eta bere ordeaz, mahaipuruan jartzen da Argitxu Noblia, zinegotzia. Berriz, hitza hartzen du J. Haritschelhar-ek eta bilkura honen garrantzia azpimarratu, Baionako Hiriko Etxean, lehendabizikoz biltzen baita Euskaltzaindia. Jesus M. Leizaola euskaltzain ohorezkoaren hil berria ere ematen du eta Juan San Martini eskaintzen dizkio goresmenak Ararteko izendatu berri duelako Eusko Legebiltzarrak.

J. M. Satrustegi idazkariak, Arautegiaren 36. artikulua eta Barne Erregelen 45.a irakurtzen ditu segidan, zeinetan zehazten bait dira sarrera hitzaldiko prozedurak.

Jarraian, bi euskaltzain joaten dira Txomin Peillenen bila, hain zuzen, J. M. Lekuona eta P. Charritton jaunak.

Txomin Peillen Karrikaburu euskaltzain berria sartzen da aretoan eta sarrera hitzaldiari lotzen zaio, alegia "Euskal idazleen giroa duela berrogei bat urte" izeneko gaiari. Ohi bezala, bere aurreko euskaltzain zendua, Piarres Larzabal gogoratuz hasten da.

Hitzaldiaren punturik nagusienak hurrengook azpimarra daitezke, alegia: euskal idazlearen giroa duela berrogei bat urte azalduz egiten du Txomin Peillenek bere mintzaldia. Eta batez ere bi idazle azpimarratu ditu honetarako, hots: Andima Ibiñagabeitia eta Jon Mirande, berari euskara irakatsi ziona.

Jarraian, Parisen, 1947tik 57ra bitartean J. Mirandek, Andimak, Zaitegik eta berak egin zuten literatura aztertzen du, euskal literaturak ere Europarako bidea duela berrogei urte hartu zuela frogaturik.

Ondoren, Parisen jaio, bizi eta hil zen Jon Mirande, zuberotarren semea goraiatzan du, Sabino Aranaren "Euzkadi eta euzkotarren aberriari 'euskara da euzkotarren hizkuntza'" irakasten bait zion Jon Mirandek.

Txominek ere, berari frantsesez hitz egiten dien euskaldunez arrenkura azaldu du, denei euskaraz mintzatzeko dei eginik.

Azkenik, irakaskuntzan, liburugintzan, komunikabideetan eta abarretan euskarak egin duen aurrerakada aitortuz bukatzen du euskaltzain berriak bere berbaldia.

A. Irigoyen euskaltzainak ematen dio erantzuna, Txomin Peillenen bizitza, eta, batez ere, lanez, xehetasun ugari emanik. Ez bakarrik filologo mailan, baizik eta idazle alderdia ere goraiatu dio sartu berriari erantzuleak.

Erantzunaren ondotik, denak zutik, J. Haritschelhar-ek izendapen agiria eskuratzu eta Erakundearen domina ezarri, zoriondu du euskaltzain berria, ondoren, gauza bera egiten dutelarik mahai ingurukoek.

Maite Idirinek Zuberoako eta Bizkaiko kantu bi opatzen dizkio euskaltzain berriari.

Azkenik, Baionako Hiriko Kontseiluak eskainita aperitifa hartzen dute bildutako guztiek.

1989-IV-28

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazio jauregian egin du Euskaltzaindiak 1989ko apirilaren 28an, goizeko 10 t'erdietan, euskaltzain osoen hileroko batzarrea. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola, L. Villasante, euskaltzainak, eta J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

J. San Martin jaunak ezin etorria edierazi du.

Martxoko agiriak onartu dira.

NAFARROAKO HERRI IZENDEGIA

Legez Eremu Erdalduna deitzen den Nafarroako Herri Izendegiaren sei zerrendak birrestea da egungo lehen gaia. Onomastika batzordeak aurreko hilean egin zuen bere aurkezpena eta egun amaitzen da oharrak ekartzeko epea.

J. M. Satrustegik *Urantzia*-ri buruz jasotako agerpena egina zuen gutun baten bidez, eta A. Irigoyenek eman dio erantzuna. Idazkariak, bere aldetik, A. Irigoyenen izkribuari azalpenak egin dizkio, eta F. Ondarrak ere iturrien zehaztasunak azaldu ditu.

Oharrak aztertu ondoren, *Los Arcos*, *Urantzia*, izen biak onartu ditu batzarreak. Erabaki honen arabera, *Cinco Villas de los Arcos*, *Urantziako Bostiriak* izuliko da. Armañanzas eskualde horren barruan legoke.

Bigarren zuzenketa *Ezporogi* hitzari dagokio, ez Ezprogi hasieran zegoen bezala.

Azkenekotz, *Urraulgoiti*, *Urraulbeiti*, *Ameskoagoien* eta *Ameskoabarren*, hitz elkartutzat eman ditu Euskaltzaindiak eta horrela idatziko dira.

Onomastika batzordeak Iruñean egingo duen batzarrean ikusiko du azken zerrenda zuzendua eta, besterik gabe, Nafarroako Gobernuari aurkeztuko zaio. Honek ikusiko du gero lanari eman nahi zaion aipamena, Nafarroako Boletinean argitaratzeaz bestalde.

PROTOKOLOAZ

Aurreko batzarrean J. L. Lizundiak aurkeztutako protokolo arauen txostena ikusi da. Arautegiaren 19. eta Barne Erregelaren 13. artikuluetan oinarritzen da lana. Alde batetik, Euskaltzaindiko bilkura berezien ordena aipatzen da, eta bestetik, agintari edo beste erakunde ofizialetako ordezkarien kasua, bai mahaipuruan eta bai beste jarlekuetan.

Agintariak daudeneko atalean, honako bereizkuntza hauek egiten dira: 1 Euskaltzaindiaren egoitzan. 2 Diputazio, Udaletxe eta beste egoitza ofizialetan. 3 Unibertsitate eta antzeko zientzi erakundeetan. 4 Beste eremu batzutako agintarien kasuan.

Erizpide hauek ontzat eman dira eta agiriaren eranskin bezala, hitzez hitz argitaratuko dira.

AKADEMI DEITURAK

Arautegiaren 3. artikulua kontuan izanik, Euskaltzaindiko pertsonen maila desberdinetako aipamenak zehaztu dira. *Euskaltzain* eta *euskaltzainkide* hitzak besterik gabe erabiltzea, euskaltzain osoei soil-soilik dagokie, besteek urgazle ala ohorezko gradua adierazi behar dutelarik. Kargu eta ardura edo ordezkaritza jarri behar da Euskaltzaindiarekin nolabaiteko lotura duten aipamenetan. Akademikotasunaren aipamena gaizki darabilkienari gutun baten bidez adieraziko dio bere hutsa idazkariordeak.

Batzar-agiriarekin batera, hitzez-hitz argitaratuko da erabaki hau.

LITERATURA BATZORDEA

J. M. Lekuona Literatura batzordeburuak Lazkaon eskatu zitzaion txostena aurkeztu du. Literatur Kritika eta Ikerketa azpibatzerdearen beharra eta ezaugarriak adierazi ditu. Literatur kritikaren eskasia aipatu du, besteak beste. Erdal literaturatik harturiko metodoak erabili ohi dira askotan, gutxiegia landurik daude literatur joerak eta garai bereko kultur mugimenduekin duten lotura, esan du.

Behin-behineko lantaldea aurkeztu du, bizpahiru izen gehiago eman direlarik batzarrean.

Hasteko ongi dagoela, eta eskerrak eman dizkio euskaltzainburuak.

ESKUARTEKO GAIAK

Juan Antonio Ubillosen II. mendeurrenkari Billabonan egitekoak diren maiatzeko Jardunaldiak buruz mintzatu da J. L. Lizundia, idazkariordea. Gestioak azaldu ondoren, Ubillosen liburua faksimilean Itxaropena argialetxeak aterako duela maiatzaren 20rako, aditzera eman du.

Txurruka kaleko ordezkaritza hustu beharra dagoenez, Gipuzkoako Diputazioako agintariekin edukitako harremanen berri eman da. Pare bat toki ikusi dira, baina OEH-ren arazoa ere konpondu behar da lehen-bait-lehen, lantaldeak maiztaren erdialderako utzi behar baitu orain duen barnea. J. M. Lekuonak dioenez, egoera onean agertzen omen dira agintariak arazoari irteera aurkitzeko prest.

Campion-Broussain, S. A. elkarteak egin dituela legezko bilkurak, aditzera eman du J. A. Arana Martija diruzainak, eta agiriak irakurri ditu.

J. A. Arana Martija eta J. J. Zearreta Madrilen izan dira eta egindako gestioen artean, Hezkuntza Ministeritzako diru laguntzen justifikanteak aurkeztu zituzten. Bilboko egoitzako altzairuen ordainketa errazteko, bizpahiru urteko diru laguntzak batean ematea lort daitekeela uste dute. Horretarako egoitzaren planoak bidali behar dira.

Informatizazioa dela eta, Estatuko informatika katean sartzea eta euskararen arazoetarako hemengo lau pertsonako ekipoa lortzea ere posible dela, esan dute.

Faksimilen argitaratzeko hiru bat milioiren diru laguntza urtero eskura daitekeela Kultur Ministeritzatik, aipatu da gero.

Espasa-Calpek Azkueren *Euskaleñaren Yakintza* dagoen dagoenean birargitaratuko duela, jakinarazi du. 2000 ale aterako ditu, mila beretzat eta beste mila Euskaltzaindiarentzat. Honek BBVren dirulaguntzarekin gutxituko du bere kostua, eta dagozkion egile eskubideak izango ditu. Liburua ekainaren azken alderako edo uztailaren hasieran plazara daiteke.

Telefax tresnak ordezkaritza bakoitzean eta euskaltzainburuaren nahiz idazkariaren etxeetan ezartzea onartu da.

1989ko aurrekontuak datorren hilean aurkeztuko dituela, aditzera eman du diruzainak.

Bertsolarien artxiboa egiteko dirulaguntzaren bat badagoela B.O.eko iragarpetan, esan du P. Salaburuk. Euskaltzaindiak behar luke bertsolaritzako artxibo eta fonoteka bat eta A. Zavala izango da gai gehiena daukan pertsona.

Herri Irratiko kazetari ezagun batek bere solaskideekin ikastolei buruz esan berri dituen aldrebeskeriak, aipatu dira gero. Jagon Sailari dagokion gaia da eta zerbait egin behar lukeela Euskaltzaindiak, esan da.

J. M. Satrustegi Nafarroako *Euskalerria Irrati*atik jasotako eskaria aipatu du. Nafarroako Gobernuak banatuko dituen frekuentzien lizentzia lortzeko, euskara hutsez ahozko komunikabideen behar gorrian dagoela euskalduna edo antzeko zerbait esango duen agiria nahi dute Euskaltzaindiagandik. Onartu da gutun hori egitea.

“Academia de la Llingua Asturiana”-k antolatutako *X Dia de las Lletres Asturianas*-erako gomita jaso dela, aditzera eman da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

2. BATZARREA

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1989.eko apirilaren 28an egin du Euskaltzaindiak hileroko arratsaldeko batzarre arrunta. Arratsaldeko 4retan bildu dira: J. Haritschelhar, J. M. Satrustegi, J. A. Arana Martija, P. Altuna, P. Charri-ton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu eta L. Villasante, euskaltzain osoak; J. M. Aranalde, X. Arbelbide, P. Arregi, R. Badiola, J. Etxaide, J. G. Etxebarria, J. M. Etxebarria, P. Etxeberria, J. Garmendia Larrañaga, J. L. Lizundia, J. M. Iriondo, M.^a P. Lasarte, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

Lehendabizi, J. Haritschelhar euskaltzainburuak, E. R. Jeffrey Waite Zelandia Berriko Maori hizkuntz akademikidea agurtzen du euskaraz eta frantsesez. Jaun hau Euskal Herrira etorri da, Jaurilaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza, Unibertsitate, Euskaltzaindia eta beste erakunde batzuetan euskararen berri jakiteko eta harremanak hasteko asmoz.

Jesus M.^a Leizaola euskaltzain ohorezko zendu berriaren hilberri txostena, J. San Martin euskaltzainak prestaturikoa —bera Sibilian baita— beraren aginduz, irakurtzen du J. L. Lizundia Idazkariordeak. Haren bizitzako xehetasun ugari ematen ditu, batez ere, euskal literaturari buruz egin zituen ikerketa, liburu eta lanez.

Goizeko bilkuraren berri

J. M. Satrustegi idazkariak egiten du goizeko euskaltzainen bilkuran tratatutako gaien azalpena. Laburbildurik, hauek dira:

1. Onomastika Batzordeak aztertu eta prestaturiko Nafarroako Herri Izendegiko “eremu erdaldunaren” sei zerrenden onarpena; 2. Protokolo eta akademia deiturak erabiltzeaz arautzea; 3. J. M. Lekuona, Literatura Batzordeburuak, gaurko literatura edo literatura kritikoa azpibatzerdea hedatzeko proposamena; 4. Maiatzean, Billabonan, Juan Antonio Ubillosen II. mendeurrena dela eta, egingo diren bilkura eta I. Herri Literatura Jardunaldiari buruzko egitaraua; 5. “Academia de la Llingua Asturiana”k antolatutako X DIA DE LAS LLETRES ASTURIANESerako gonbidapena; 6. Azken orduko beste zenbait gai.

Wentworth Webster-en “Basque Legends” izeneko txostena irakurtzen du J. A. Arana Martija euskaltzain jaunak. Euskal kondairak, ahoz-ahoz bilduak, ingelesez argitara eman zituen Webster-ek, Mme. Bellevue eta Vinson-en laguntza izan zuelarik euskaratik itzultzeko. Bilduma hau orain gaztelaniaz argitaratuko da. Batzuren batzu euskaraz ere argitaratu zituzten A. Irigaray eta X. Videgain jaunek *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian. Guzti honen berri ematen du txostengileak.

Euskal Herria Oihenart-en, atsoitiz eta errefracuetan izeneko txostena irakurtzen du J. Haritschelhar Euskaltzainburuak. Egileak seiehundik gora bildu zituen eta hauetarik berrogei baten azterketa eta iruzkina egiten du, hiru adierazpen azpimarratzen dituelarik txostengileak, hots: euskal toki izenen bitartekoa, lehena; deitura edo izenezkoa, bigarrenik; euskaldun giroa azaltzen duena, azkenengoz.

Jarraian, elkarrizketa interesgarria sortzen da zenbait euskaltzain oso eta urgazlek parte hartzen dutelarik.

Eta honekin amaitutzat ematen da batzarrea.

1989-V-25

Irurako Laskibar Hotelean, 1989ko maiatzaren 25ean, arratsaldeko 6etan egin da euskaltzain osoen hileroko batzarrea. Bertan egon dira: J. Haritschelhar burua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, I. Sarasola, L. Villasante, P. Zabaleta, eta A. Zavala, euskaltzainak. J. L. Lizundia idazkariordea, eta zegozkien gaietan, J. J. Zearreta Ekonomi eragilea, G. Aurrekoetxea eta X. Videgain, Dialektologi batzordekideak.

P. Salaburu eta J. San Martin jaunek ezin etorria adierazi dute.

Apirileko batzar-agiria onartu da.

1989KO AURREKONTUA

J. A. Arana Martija diruzainak, 1989ko urterako aurrekontua azaldu du. Ordenagailuz egindako lehen zerrenda denez, orain arte kontuak eramateko modua aldatu behar izen dela, esan du. Jaurlaritza eta Diputazioetako ardatz nagusiari jarraituz geure beharrei egokitutako egitura du. Aurrekontu honetan bateraturik agertzen dira orain arte bi ataletan zeuden *aurrekontu arrunta* eta *programen aurrekontua*. Bat izango da, beraz, Euskaltzaindiaren aurrekontua. Bigarren atal batean sartzen da Campion-Broussain, S. A. elkartearena.

Hiru hilabetetik Euskaltzaindiari kontuak ematea erabaki bazen ere bere egunean, erakunde publikoei lau hilabetetik eman behar zaizkienez, Euskaltzaindiari ere denbora berean kondu errendatzea onartu da.

Iparraldeko diru laguntzarik-eza aipatu du P. Charrittonek, eskaria egina bazen ere. Agintariekiko harremanek jarraituko dute.

Ekaineko batzarrean jasoko dira aurrekontauri egindako oharra.

EUSKARAREN FONOTEKA

Ahozko euskararen fonoteka beharraz txosten bat irakurri du G. Aurrekoe-txeak. Dialektologia batzordeak baditu oraingoz 1.300 zinta, eta lana bukatu

orduko 2.750etik 2.900era izango omen dira. Lehendik jasotakoak ere badaude eta norberak dituenekin altxor ederra dabil eskuartean. Denak bateratu eta fonoteka on bat egitea da proposamena. Arazo teknikoak aipatu ditu, alde batetik, eta era askotako galderak egin ditu bere aldetik.

Besteak beste, Bilboko egoitzan barne berezi bat egingo dela, esan zaio. Horretarako, Parisko eredia aipatu da eta ikustera joango dira arduradunak Plaza Barriko arkitektoen batekin.

Dialektologiako batzordeak dituen zinten originalak Euskaltzaindiak jasoko ditu, egileak kopia erabiliko duelarik bere lanean. Bigarren kopiaren bat egitea komeni da beste lan batzutarako nahi dutenentzat.

Bideoteka aipatu da gero, baina gerorako utzi da ikusgailuen solasa.

IZENDAPENAK

Madrilgo Kultura Ministeritzatik “Premio Nacional de las Letras Españolas” delakoaren epaimahairako ordezkaria izendatzea eskatu dute. A. Irigoyen joango da.

Madrilgo Ministeritza beretik, 1989ko literatura sorketarako laguntzen epaimahaikidea eskatzen dute. J. Kortazar izendatu da, edo A. Lertxundi haren ordeko.

Bizkaiko Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolako zuzendariordeak, bertan egingo dituzten bizkaierazko gaitasun azterketen epaimahairako Euskaltzaindiko ordezkaria eskatu du. Aurreko urteetan bezala, J. L. Goikoetxea izendatu da.

ADMINISTRAZIO HIZTEGIA

Amurrioko Udaletik Euskara Zerbitzuko arduradunaren gutun bat jaso da, bertako Udalerrian dauden bederatzi herriskien “Junta Administrativa” deitutakoaren euskal izen ordaina nola den galdetuz. Eztabaidatu ondoren, “Junta Administrativa” *Administrazio Batzordea*, eta “Junta de Concejo” *Kontzeju Batzordea* esatea erabaki da oraikoz. *Kudeatze* eta *kudeabide* hitzak ere aipatu dira. Nola nahi dela, euskal erroko hitzen bat erabiltzen hastea administrazio hitzaren ordeztu, proposatuko zaie Eusko Legebiltzarrari, Arabako Batzar Nagusiei eta, bere garaian, Nafarroako Parlamentuari.

Era berean, “Lugar de Bambio” euskaraz *Baranbioko Herria* esatea proposatuko zaie bertako agintariei.

ESKUARTEKOAK

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusitik jasotako gutun baten berri eman da. Ekainaren 8 eta 9an egingo diren lanegunetan Administrazio-

eremuko terminologian azken urteotan egindako bidea aztertzea eta elkarren arteko iritziak jorratzea izango dela helburua, aditzera ematen du, egitarauaren zehaztasunak azalduz.

Donostiako ordezkari-tza Hernani kalera aldatzeko gestioak bide onetik doazela, aditzera eman du J. M. Lekuona arduradunak. OEHren egoitza Prim kaleko barne batean geldituko dela itxaroten dute.

Eusko Irratiko zuzendari orokorra den J. M. Iriondoren gutuna irakurri da euskara zaintzeko eman diren zenbait urratsen berri azalduz. Duela hilabete batzu, bost langile kontratatu zituen EITBk eguneroko erabilera desberdinetan euskara begiratu eta zaintzeko, gero bateratze lana A. Aranburuk eta berak egiten dutelarik. Denbora berean, oharrak zuzendu eta gomendioak egin aurretik Euskaltzaindiko zenbait pertsonaren aholku eta babesaz baliatzen direla, aditzera ematen du.

Iparraldeko norbait ere egon behar lukeela taldean, esan du I. Sarasolak.

Eskerrak emanez erantzutea erabaki da.

J. A. Aranak, Iruñeko Ciganda-Ferrer sendia zenaren bildumatik erositako liburu sorta baliotsuaren berri eman du, "Azkue Biblioteka"-n ez zeuden hainbat Nafarroako liburu lortu baita.

J. A. Ubillos zenaren II.mendeurrena ospatuz, Herri Literatura I. Jardunaldiak egingo ditu Euskaltzaindiak bihar eta etzi, maiatzak 26-27, Billabonan, eta batzarre irekia gero bertako Udaletxean.

Zuzendaritza A. Labaien euskaltzaina ikusten izan da Tolosako bere etxean, L. Villasante eta X. Diharce ere joan zaizkiolarik. Pozik ikusi da eta asko eskertu du bisita.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

J. A. UBILLOSEN II. MENDEURRENAREN OSPAKIZUNEZKO BILKURA IREKIA

BATZAR-AGIRIA

Billabonako Kultur Etxean, 1989.eko maiatzaren 27an, arratsaldeko 6etan, egin du Euskaltzaindiak hileroko batzarrea. Mahaipuruan: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; Eduardo Laborde, Billabonako alkatea; M.^a Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia eta Jose Luis Telleria, Gipuzkoako Kultura Saileko foru diputatua. Horiez gain, J. M. Lekuona, buruordea; J. A. Arana Martija, diruzaina; P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, Tx. Peillen, L. Villasante, eta A. Zavala, euskaltzainak; X. Aranburu, M. Atxaga, R. Badiola, P. Etxeberria, J. Garmendia Larrañaga, J. L. Lizundia, A. Muniategi eta J. J. Zearreta, urgazleak. Batzar irekia denez, billabonatar eta euskaltzale andana bat, Jardunaldietako txostengile zenbait ere tartean direlarik.

Eduardo Laborde Herriko alkateak bere agurra egiten du, berarentzat eta billabonatarrentzat, Euskaltzaindiak herriko seme ospetsu bat ohoretzea, pozgarria dela adieraziz.

Jarraian, J. Haritschelhar euskaltzainburuak hitzaldiñoa egiten du, berak aspal-didanik Billabonako herriarekin izan dituen harremanak azpimarratuz. Ondoren, bereziki, Euskaltzaindiaren zenbait lan aipatzen ditu, batez ere, argitalpenak, zeinetan, Lekukoak eta faksimil sortetakoek duten garrantzia nabarmenduz. Beraren ustez, Akademiak behar du argitarapen hauetarako laguntza eta horren kontzientzia duten herri agintariei eskerrak bihurtzen dizkie.

A. Karmelo Iturria jaunak: “J. A. Ubillosen bizitzaz” ematen du lehen hitzaldia. J. A. Ubillosen xehetasun ugari emanez, Galatasko baserri etxeari, Ubillostarrak, orduko herritar eta agintari, Ubillosek Alcalá de Henaresko Unibertsitatean egindako ikasketak, filosofiari buruz argitaratu zituen hiru liburuak, frantziskotarren ordena barruan izan zituen karguak eta abar. Dokumentazio eta xehetasun ugari laburtzen ditu, geroago argitaletuko direnak.

Bigarren hitzaldia, A. L. Villasante euskaltzainak ematen du. “Ubillosen *Christau doctriñ berri-ecarlea* liburu horren berezitasun batzuez oharrak”, izeneko hain zuzen. Txostena hiru zatitan banatu du, alegia: 1. Aita Ubillosen liburu orokorki, 2. adibidetegia eta 3. ondorioak. Ubillosek erlatiboazko perpausak zuzen eta ortodoxoki antolatzen irakatsi nahi du. Zeinismoarentzat ez du zerikaturik bat ere utzi. Eta guztionetatik txostengileak ondorio hau ateratzen du, seguru asko, orain baino euskara amankomun batetik hurbilago zegoela gipuzkera. Adibidez,

bizkaierak gaur ere ongi bereizten dituen “baino”, “baina”... eta giputzek egun nahastatzen dituztenak.

P. Altuna euskaltzainak, bere aldetik, “Zergatik edizio kritikoa” titulupeko txostenean agirian jarri ditu euskal liburu zaharrak hitzaurrez eta oharrez horniturik argitaratzeak irakurle arruntarentzat berekin dituen alde onak. Bai eta ere frogatu du Ubillosek ezagutzen zituela Larramendiren hiztegia ez ezik, Axularrren, Ziburuko J. Etxeberriren eta Lavieuxvilleren liburuak. Laburkiro aipatu ditu Ubillosen gipuzkeraren zenbait berezitasun.

Azkenik, J. Haritschelhar euskaltzainburuak, hiru egun hauetan Billabonan izan diren ekintzen berri emanez, alegia, euskaltzainen hileroko bilkuraz, Herri Literaturari buruzko I. Jardunaldiez eta batzarre ireki honetaz, J. A. Ubillosen II. mendeurrenaren egitarauai emaiara ematen die.

1989-VI-23

Gasteizko Udaletxean egin da arratsaldeko 3 t'erdietan euskaltzain osoen hileroko batzarrea, 1989ko ekainaren 23an. Etorri direnak: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, Tx. Peillen, J. San Martin eta L. Villasante, euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Larre, F. Ondarra eta P. Salaburu jaunek ezin etorria adierazi dute.

EHU-REKIKO HITZARMENA

Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindiaren artean izenpetu nahi den hitzarmena aurkeztu du Euskaltzainburuak. Zuzendaritzak Amasan EHuko errektorearekin eta idazkari orokorrarekin egindako bilera aipatu du lehenik. Beranduago sinatu nahi bazen ere, azken orduko arazoengatik ekainaren 27ra aurreratu behar izan da eguna, eta batzarre honetan ikusi nahi da hitzarmenaren zirriborroa.

Testua irakurri da lehenik, gero artikulua guztiak punduz-pundu aztertu eta eztabaidatuz. Bost urterako balioa izango du akordioak erakunde bien adostasunarekin luza daitekeelarik. Aho batez onartu da testua eta dagokion unean ofizialki sinatzeko eskubidea eman zaio J. Haritschelhar euskaltzainburuari.

Unibertsitate pribatuekin ere noiznahi egin daitekeela hori bera, azpimarratu du euskaltzainburuak.

ONOMASTIKA BATZORDEA

Nafarroan toponimia ttipia biltzen ari den Eusko Ikaskuntzako ordezkarien bisita ukan duela, aditzera eman du euskaltzainburuak. Onomastika batzordean ikusi da zertan den arazoa, eta 1988ko uztailaren 30ean Oiartzunen izendaturiko

jarraipen batzordeak dioenez, hasierako lanaren zati bana bidali bazioten ere bakoitzari, ez lan osoa inori, azken une honetan Nafarroako Gobernuari bidali omen dioten zerrendarik ez dute ikusi.

Jarraipen batzordearen lana ez da, noski, banan-banan hitz guztien aztertzeari, eskatzen zaion iritzi tekniko edo diktamena ematea baizik.

Euskaltzaindiko Onomastika batzordeburuak dei eginik, lehenbaitlehen bilduko da jarraipen batzorde osoa eta garbi mugatuko dira bakoitzaren erantzunkizunak, bilketa nahiz bildutakoen sailkapena lantaldearen eginkizuna delarik. Gobernuaren erabilpenerako hitz zerrenden aurkeztea, aldiz, Euskaltzaindiari dagokio Euskararen Legearen arabera, eta ofizialtasuna agintarien erabakiak ematen du.

Era honetan onartu da Onomastika batzordearen proposamena eta horrela jakineraziko zaie Eusko Ikaskuntzako arduradunei.

BESTE BATZORDEAK

Gramatika batzordea. Hiztegegintzako ordenagailuetan jasotako altxorraz baliatzea delarik aspaldiko helburua, mintzatu dira M. Karmen Garmendiarekin eta EJJIE-koekin. Hitzaren ordeztasun osoa eman dezakeen sistemara alda daiteke EJJIE-k duen informazioa eta ados daude horrela egiteko. Une honetan hori da Gramatika batzordearen berri nagusia.

Dialektologia. Orain arte bildutako materialeak ordenagailuetan sartu behar direla, esan da. Frantziako CNRS-ekin hitzarmena bidean omen dago, eta testuen erabilpen teknikorako hasieran Strasburgora joatea pentsatu bazen ere, hemen bertan egiteko biderik ba omen dago. Programek berezitasun guztiekin prestatzea beste eragozpenik ez dute ikusten.

Hiztegegintza. Orotariko Euskal Hiztegiaren lantokia Donostian Ronda kaletik Marina kalera aldatu behar izan da, eta Campion-Broussainen izenean sinatu da hitzarmena.

Literatura. Konta-poesiaz Billabonan egin berri diren Jardunaldietako kronika edo oroit-agiria banatu da batzartuen artean.

Diruzaintza. Hiru hilabeteroko kontu errendatzerik ez dagoela gaur, esan du J. A. Arana Martijak. Maiatzaren azken aldean ordezkartza eta zenbait batzordetako arduradunei orri batzu bidali zitzaizkien ordenagailuen beharretarako sarrerairteerak sailkatzeko moduarekin. Gehienek ez dute erantzun eta eragozpenik sort daitekeenez, ekainaren 28an arduradunekin bilera bat egitekoak dira Bilbon.

KANPO IZENDAPENAK

Trapagako Udalaren gutun batean, bertan itzultzaile lanpostua betetzeko egin nahi den lehiaketarako Euskaltzaindiaren ordezkari bat eskatzen da. R. Badiola joango da eta honen ezinean P. Uribarren.

ESKUARTEKOAK

J. A. Arana Martijak euskaltzain sarrera hitzaldia datorren uztailean egingo duenez, Udaletxeko aretoa txikia dela ikusita Gernikako Juntetxean egiteko baimena eskatu dio, arrazoituz, Anton Aurre jaunari. Euskaltzaindiaren izenean ere idazkariak eskari bera egin du. Pertsonalki beste gestioaren bat egiteko gelditu da A. Irigoyen.

“Instituto Vasco de la Mujer” euskaraz adierazteko proposamen labur desberdinak dakartzan izkribua hartu da erakunde horretatik, Euskaltzaindiari aholku eskatuz. Lehendik “Emakumearen Euskal Erakundea” esan ohi denez, aldaketarik gabe dagoen-dagoenean uztea gomendatuko zaio.

Lau Hazienda foraletako errenta zergen aitorpena testu bateratuarekin egin nahi delarik, eurek egindako itzulpenak igorri dituzte uztailaren zazpia baino lehen Euskaltzaindiak gain-begiratua eman diezaien. J. A. Arana, A. Muniategi, P. Uribarren eta A. Urrutia arduratuko dira.

Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiaren bidez Telefonikako fakturen testu itzulpena hartu da oneritzia emateko. R. Badiolak ikusi eta egin ditzala oharrak.

J. San Martin, Ararteko jaunak, gutun bat aurkeztu du bere karguaren euskarazko izena aldatu egin nahi dela Nafarroan, aditzera emanez. Politikarien arazoa dela erantzun zaio. Euskaltzaindiak Angoston onartu eta Eusko Jaurlaritzak ofizialki daukana “Ararteko” hitza da.

Arrasateko Udalak Jokin Zaitegiren X. heriotze urteburuan zenbait ekintza antolatu nahi ditu eta laguntza eskatzen du. Joan den asteko bileran Argitalpen batzordeak *Platon VI* liburukia Euskaltzaindiaren kontura argitaratzea erabaki zuen eta horrela onartu da.

A. Irigoyen jaunak azken orduan aditzera eman duenez, bertsolaritzako artxibategia burutzeko iragarri zen beka ez da inori eman. Orain arte iker eta zabalkunde lana egin dutenekin zerbait egin behar litzateke.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

2. BATZARREA

Gasteizko Udaletxean, 1989.eko ekainaren 23an, arratsaldeko 6etan, bildu dira: J. Haritschelhar buru, J. M.^a Lekuona buruorde, J. A. Arana Martija diruzaina, A. Irigoyen, F. Krutwig, Tx. Peillen, J. San Martín eta L. Villasante, euskaltzainak; J. Bilbao eta G. Lz. de Gereñu, ohorezkoak; P. Goenaga, J. L. Lizundia, P. Martín Latorre, M. M. Ruiz Urrestarazu eta J. J. Zearreta, urgazleak. Idazkariaren ordezkari, J. L. Lizundia Idazkariordeak, idazkari lana egiten duelarik.

Mahaipuruan: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; José Ángel Cuerda, Gasteizko alkatea; E. Knörr, Onomastika batzordeburua eta G. Lz. de Gereñu.

Beste zenbait ordezkariaren artean, José Ramón Pecina, Arabako Kultura Saileko foru diputatua; eta Juan J. Ibarretxe, Arabako Batzar Nagusien lehendakaria. Euskaltzale andana bat eta G. Lz. de Gereñuren familiakoak ere arretan aurkitzen dira.

Lehendabizi, José Ángel Cuerda alkate jaunak, bere ongi etorria eta agurra egiten du, G. Lz. de Gereñuren ohorez hitz samur batzu esanez.

Jarraian, J. Haritschelhar euskaltzainburua mintzatzen da, G. Lz. de Gereñuren lanak goraituz eta merezi duen omena eginez. Bestalde, Euskaltzaindiaren Argitalpenen balioa eta gaizkoan, aurkezten den Arabako toki-izenen bilduma oparoa azpimarratzen ditu.

Segidan, J. L. Lizundia batzorde idazkariak ostegun eta ostiraleko lau bilkuren berri ematen du. Ostegun goizean, Onomastika Batzordearena, zeinetan Euskal Herriko mendien bostgarren zerrendaren azterketa burutzea azpimarragarria delarik. Ostegun arratsaldean, Jagon Sailaren batzorde berriaren bilera. Ostiral goiz honetan, Zuzendaritza eta azpibatzaileak, arduradun eta idazkariak, 1990erako lan programa prestatu dute. Eta azkenik, bukatu berri den euskaltzain hileroko bilkuraren gai nagusiak aipatzen ditu: 1. Euskal Herriko Unibertsitate eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmena aztertu eta onartu da. 2. Dagokien batzordeen azalpena: Onomastika, Gramatika eta Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. 3. Kanporako izendapenetan, Trapagarango Udalak eskaturik, euskararako itzultzailearen epaimahairako ordezkaria. 4. Uztaileko bilkuren egitaraua. J. A. Arana Martijaren sarrerako hitzaldiko batzarre nagusia. 5. Eskuarteko eta azken ordukoen artean lau Euskal Foru Ogasunetako Errentaren Aitorpenaren euskal testuaren gainbegiratzea.



E. Knörr batzordeburuak hurrengo “Onomasticon Vasconiae” bildumako G. Lz. de Gereñuren *Toponimia alavesa seguido de mortuorios o despoblados. Pueblos alaveses* liburukiaren aurkezpena egiten du. Onomastika batzorde eremuko argitalpen sorta honen plangintza orain urte gutxi egin zen unean, egile honek sakabanaturik zituen toponimia lan guzti hauek ale batean biltzea pentsatu zuela adierazi du, hasieratik Gasteizko Udalak babes osoa eskaini zuelarik. Bilduma honek informazio oso aberats, zehatz eta fidagarria ematen du, ongi arakatu eta eraturik langintza baten bidez. “Hemendik aurrera euskara mendi, haran eta sorotetan bakarrik ez, gizakien ezpainetan izango dira eta lehen esan dudan bezala, hizkuntzalariek ez ezik, baita kondairagileek ere erabiliko dute liburu hau”, esanez amaitzen du bere txostena E. Knörr euskaltzainak.


Gerardo Lz. de Gereñu, euskaltzain ohorezkoaren esker oneko hitz birekin, batzarre ireki honi amaiera ematen zaio.

MARRAZKI LANDUEN IZENAK (*)

EUSKARA	CATALÀ	FRANÇAIS			DEUTSCH	ESPAÑOL
01. grekoa	grega	BRANCHES D'ÉPAISSEUR CONSTANTE		01 Grecque	griechisches K.	griega
02. sardedun gurutze(-a)	fesa			02 Bifurquée Bifide	mit gabelförmig geteilt Balken	bifida bifurcada
03. lumadun-gurutze(-a)	pennada			03 Empennée	befiedertes	emplumada
04. gezidun gurutze(-a)	fletxada			04 Fléchée	mit dachartigen Balkenenden	sagitada
05. hanka	patent			05 Patée	Tatzenkreuz	patada
06. hanka(-dun) gurutze(-a)	potençada			06 Potencée	galgenförmiges	potenzada
07. birgurutzatu(-a); bergurutzatu(-a)	recruada			07 Recroisetée	Wiederkreuz	cruzada de nuevo
08. bola(-dun) gurutze(-a)	pomegada			08 Pommetée		adornada de poma
09. hiru hosto(-dun) gurutze(-a)	trebolada trilobada			09 Tréflée	Kleeblattkreuz	trilobulada
10. perla(-dun) gurutze(-a)	perlejada			10 Perlée	mit Perlen	adornada con perlas
11. aingura	ancorada			11 Ancrée	mit Ankern	anclada
12. lore(-dun) gurutze(-a)	floronada			12 Fleurie	mit Blumen	
13. kako(-dun) gurutze(-a)	corbada			13 Cercelée		

OHARRA: Gurutze harrien hiztegiño hau Donostian, 1989-I-27an eta Bidarten (Lapurdin), 1989-III-31n onartu dute euskaltzainek.

EUSKARA	CATALÀ	FRANÇAIS		DEUTSCH	ESPAÑOL
14. zabalkara	eixamplada	BRANCHES D'ÉPAISSEUR VARIABLE		14 Evasée	spitzwinkliges ensanchada
15. Maltako(-a)	de Malta			15 Evasée bifurquée de Malte	maltesisches de Malta
16. hamabi perlako giltzatu(-a)	claviculada de dotze perles			16 Cléchée à douze perles	cruz de brazos abiertos con doce perlas
17. besamutur konkabo(-dun)	eixamplada de vores concaves			17 Evasée à bords concaves	mit konkav Rand brazos cóncavos
18. besamutur konkexo(-dun)	eixamplada de vores convexes			18 Evasée à bords convexes	mit konvex Rand brazos convexos
19. erronbo guruzkera	Motiu cruciforme en losange			19 Motif cruciforme en losage	kreuzförmige Raute Vierpass
20. lakio guruzkera	Motiu cruciforme en llaçada			20 Motif cruciforme en boucle	
21. Nasenbesetzt; sudur(-dun)	Nazenbesetzt			21 Nazenbesetzt	Nasenbesetzt
22. kimatu; kima(-dun) gurutze(-a)	Esbrancada			22 Ecotés	Lebensbaumkreuz

23. orlari lotu laubeso(-dun); lau beso orlari lotu(-ak)	Els quatre braços units à l'orla	 23 Quatre branches liées à la bordure	vier Balken nahtlos in die Randung übergehend
24. orlari lotugabe laubeso(-dun); lau beso orlari lotugabe(-ak)	Els quatre braços exempts (abcisos)	 24 Quatre branches alésées	eingezogen Balkenenden
25. besoak moiutik dituen(-a)	Motiu central d'on sorgeixen els braços	 25 Moyeu-central d'où partent les branches	
26. gurutze barren huts(-a)	Creu gravada, acanalada, enfonsada o calada	 26 Croix évidée	ausgehöltes Kreuz

	CREU SIMÈTRICA EN RELACIÓ A UN CENTRE			Croix symétrique par rapport à un centre	PUNKT SYMETRIS- CHES KREUZ	CRUZ SIMÈTRICA CON RELACIÓ A UN CENTRO
	Disposició normal					
27. ohizko eran			27 Disposition normale	Croix symétrique par rapport à un centre	Skt Andreas Kreuz	Cruz de San Andrés o de Borgoña
28. San Andresen(-a)	Creu inclinada o de Sant Andreu		28 Croix inclinée			
	CREU SIMÈTRICA EN RELACIÓ A A UN EIX			Croix symétrique par rapport à un axe ne correspondant à aucun de ces dessins prennent le numéro 29)	ACHSEN SYME- TRISCHES KREUZ	CRUZ SIMÈTRICA CON RELACIÓ A UN EJE
	Creu fixada					
29. gurutze simetrikoak ardatzaren arabera				Croix symétrique par rapport à un axe ne correspondant à aucun de ces dessins prennent le numéro 29)	Vortragekreuz Stab-Scheibenkreuz	cruz con el palo de abajo terminado en punta Cruz procesional
30. gurutze finkatu(-a)	Creu astada		30 Croix fichée			
31. gurutze hagadun(-a)			31 Croix hampée ou hastée	Croix symétrique par rapport à un axe ne correspondant à aucun de ces dessins prennent le numéro 29)	lateinisches Kreuz	cruz latina, sencilla, de Jerusalem Cruz patriarcal o de Caravaca
32. Tau erako(-a)	Creu en Tau o de San Antoni		32 Croix en Tau ou de Saint Antoine			
33. latino(-a)	Creu llatina		33 Croix latine	Croix symétrique par rapport à un axe ne correspondant à aucun de ces dessins prennent le numéro 29)		
34. bi gurutzeko(-a); bi zeharreko gurutze(-a)	Creu patriarcal o de Lorena		34 Croix à double traverse			
			35 Branche verticale seule	Croix symétrique par rapport à un axe ne correspondant à aucun de ces dessins prennent le numéro 29)		
35. Zuta bakarrik orlari lotu(-a)	Solament el braç vertical sorgeix de l'orla		36 lasant de la bordure			
36. kalbarioko(-a)	Calvari		36 Calvaire			Calvario

(les croix symétriques)

APAINGARRIAK	DECORACIO	DECORATION	VERZIERUNG	DECORACIÓN
37. gurpil gurutze(-a)	Angles buidats	 37 Croix-roue	Radkreuz	
38. eraztun gurutze(-a)		Cantons ajourés 38 Croix-anneau 	(durchgebrorene) Ringkreuz	
39. kantoietan apaindu(-a)	Creu cantonada	 39 Crois cantonnée		Cuarteles

BESTE ZENBAIT APAINGARRI	AURES MOTIVOS DECORATIVUS	MOTIFS DECORATIFS AUTRES QUE LA CROIX		MOTIVOS DECO- RATIVOS OTROS QUE CRUZ
40. ontzurre(-a)		 40 Besant	Goldpfennig	Besante
41. giza irudi(-a)	Motiu humà	Motif humain 41		Figura humana
42. landare irudi(-a)	Motiu vegetal	Motif végétal 42		Decoración floral
43. animal irudi(-a)	Motiu animal	Motif animal 43		Decoración animal
44. tresna irudi(-a)	Útil	Outil 44	Handwerkszeichen	Instrumento
45. arma irudi(-a)	Arma	Arme 45	Waffe	arma

46. sei hostoko arrosa	Sexifolia		46 Rosace à six branches	Rosette mit sechs Blätter	Flor (roseta) de seis pétalos
47. bost puntako izarra	Estrella pentagonal o Pentalfa		47 Etoile à cinq branches		Estrella de cinco puntas, Pentalfa
48. sei puntako izarra	Estrella hexagonal		48 Etoile à six branches		Estrella de David. Sello de Salomón
49. beste zenbait irudi	Motius diversos	Motifs divers	49		Otros motivos

IDATZIAK	INSCRIPCIONS	INSCRIPTIONS	INSCHRIFTEN	INSCRIPCIONES
50. zutarriak data bat dakar; oroitarri datadun(-a)	l'estela porta una data	La stèle porte une date 50		
51. zutarriak izen bat dakar; oroitarri izendun(-a)	...un nom	La stèle porte un nom 51	Datum eine Name	fecha nombre
52. zutarri idatzi(-a)	Diverses	Inscriptions diverses 52		
53. zutarri berriidatzi(-a)	Ins. afegides a l'empron de nou l'estela	Inscriptions visiblement rajoutées en réemplod 53		

ORLAK	ORLES			RÄNDER	ORLAS	
54. orlarik gabeko disko(-a)	Disc sensa orla	BORDURES	54 Disque sans bordure		Scheibe ohne Rand	Disco sin orla
55. orla biribil bakun(-a)	Orla circular simple		55 Bordure circulaire simple		Unrandung	Orla circular sincilla, ribete
56. orla anizdun(-a); orla anitz(-duna)	Cercles multiples		56 Cercles multiples			Círculos múltiples
57. orla biribil burutedun(-a)	Cercles formant passa-pas		57 Cercles formant bourrelet			cenefa
58. orla hortz(-duna)	Forma radiant Orla en dent de serra		58 Forme rayonnée			orla dentada Dientes de lobo
59. beste zenbait apaingarri	Ornaments diversos		59 Ornaments divers			Adornos diversos

LANDUERA	FAICO	FAÇON		BEARBEITUNG	LABRA
60. ganbeldu(-a)	En rebaixat	Motif réalisé en champiévé	60	Flach relief	Fondo rebajado, bajorelieve
61. barren huts(-a)	en concau	Motif obtenu en creux	61	Tiefgeschnitt Ritztechnik	Hendido Incisión
62. ildotu(-a)	per incisiò	Motif obtenu par incision	62		
63. nahas-mahasian	Realització mixta	Réalisation mixte	63		
64. eslaitu(-a)		En biseau	64	Kerbschnitt	Bisel
65. jaldi handiko(-a); (bajo relieve : jalgi tipiko(-a))		Haut relief	65		Altorelieve
KANTOIA	SECCIO				CANTO
70. biselatu(-a)	Aixamfranada	TRANCHE	 70 Chanfreinée		Abiselado
71. molduratu(-a)	Motilurada		 71 Mouluré		Moldurado
72. kanalatu(-a)	Acanalada		 72 Cannelée		Acanalado
73. bulardun(-a)	Amb bordò		 73 Avec pommelte		Con, perilla, semiestera
74. kantoi edertu(-a)			 74 Tranche décorée		Cantodecorado

80. oroitarri(-a)	Estela amb espatles		80 Stèle avec épaules	Stele mit Schultern	Estela con hombros
81. zutarri hiruhostodun(-a)	Estela trebolada		81 Stèle tréflée		Estela trebolada
82. diskoz kanporainoko beso(-ak) (-dun)	Braços desbordant el disc		82 Branches débordant du disque		Brazos desbordante del disco
	PERFILS ESPECIALS	PROFILS SPECIAUX		BESONDERE PROFLEN	PERFILES ESPECIALES

OINA	PEDUNCLE	PIED	SCHAFT	PIE VASTAGO
90. zuzen(-a) eta estu(-a)	De costats parallels	 90 Pied droit étroit $l < d$	Verziert	Derecho y estrecho
91. mirubuztan(-a)	En cua d'oreneta	 91 En queue d'aronde		Cola de golondrina, na, divergente
92. hautsi(-a)	Desaparegut trenat	 92 Disparu cassé		Desaparecido mutilado
93. edertu-a	Decorat	 93 Décoré		Decorado
94. sorbalda zabal(-a) edo zabaleko(-a)	Ample	 94 Pied droit Large $l > d$		Pie de anchos hombros
95. zorroztu(-a)	Mès estret de base	 95 Amind en pieu		Adelgazado, en estaca
96. eslaitu(-a)	Aixanfranbt	 96 Chanfreint		Abiselado

PROKOLO ETA ANTZEKO ARAZOAK ARAUTZEAZ (*)

I. b) Batzar protokoloaz

13. bis artikulua. Arautegiaren 19. artikulua garatuz, bilkura berezi agerikoak protokolo propio batekin arautuko dira.

13. ter art. Mahaipuruan, agintari edo beste erakunde ordezkariak ez balego, Barne Erregela hauen 1. artikuluan esana beteko da. Horrez gain, mahaian berean lekua egonik, parte hartu behar duten hizlariak, mahaipuruen alboan lehentasunezko jarleku bat jartzen ez zaienean.

13 quater art.

1. Agintari edo beste erakunde ofizialen ordezkariak mahaipuruan direnean, Euskaltzainburua eta Idazkaria eseriko dira, Euskaltzainburua, agintari nagusiaren eskuinean eta Idazkaria, alde berean, gainontzeko ordezkarien ondoren.

2. Euskaltzain osoek lehentasunezko jarleku ilada bat izango dute, ordena honetan: Euskaltzainburu-ordea, Diruzaina, Euskaltzainburu ohiak, eta hauek antzinasun ordenaz; gainontzeko euskaltzain osoak, hauek ordena batean jartzekotan, antzinasunaren ordenean; eta tokirik izanez gero euskaltzain ohorezkoak, era berean eta azkenik, euskaltzain urgazleak.

13. quinquies art. Agintari edo beste erakunde ofizialekiko protokoloa honela izango da:

1. Euskaltzaindiaren Egoitzan bilkura egiten denean, Estatu Burua, Euskal Autonomi Erkidegoko Lehendakaria, Bizkaiko Diputatu Nagusia eta Hizkuntz Politikarako Burua. Mahaipuruen alboan, eskuinean, Euskaltzainburua.

2. Diputazio Jauregi, Udaletxe edo beste egoitza ofizial batetan bilkura izanik, tokian tokiko protokoloa edo ohiturak gordeko dira, dago-

(*) 1989.eko Apirilaren 28ko batzarrean onartua Euskaltzaindiaren Barne-Erregelen gehigarri legea.

kion eremuko gobernu, diputazio-edo udaleko kargudun nagusiaren alboan Euskaltzainburua izanik.

3. Unibertsitate edo antzerako zientzi erakunde baten egoitzan izanez gero, tokiko ohiturak gorderik, bertako Errektore edo kideko akademi arduradunaren alaboan izango da Euskaltzainburua.

4. Beste eremu batetako agintariek lehentasunezko jarleku bat izango dute eta jarraian, tokirik izanez gero, zientzi edo kultur erakundeetakoek.

* * *

AKADEMI DEITURAK ERABILTZEAZ

45 bis artikulua. Arautegiaren 3. artikulua kontuan izanik, Euskaltzaindia osotzen duten kideentzat honela aipatu beharko da beren akademikotasuna, hiru hizkuntzetan:

- 1.1. *euskaltzain oso/académico de número/académicien titulaire.*
- 1.2. *euskaltzain urgazle/académico correspondiente/membre correspondant de l'Académie.*
- 1.3. *euskaltzain ohorezko/académico de honor/membre d'honneur de l'Académie.*
2. euskaltzain/académico/académicien hutsean euskaltzain osoek baizik ezin erabil dezakete, ez eta bestek euskaltzain osoentzat baizik.
3. Euskaltzaindiaren kargu, ordezkaritza edo ardura, akademikotasunaren atzetik jarri behar denean, eta beti ere, zehazki izendatuz.

Komunikabideetan norberaren erizpen partikularrak izan gabe erakundearen nolabaiteko lotura dutenean, kargu, ordezkaritza edo ardura zehatza jarri beharra dago.

BERRIAK

**EUSKALTZAINDIKO ZUZENDARITZA
BERRIAREN KARGU-HARTZEA**

Bilbo, 1989-I-19

Jose Maria Satrustegi Zubeldiak,
Euskaltzaindiko Idazkari jaunak,
honako hau egiaztatzen du:

Akademi Erakunde honek, joan den abenduaren hogeitamarrean, Gipuzkoa-ko Foru Diputazioan egindako bere bilkura berezian, aldiro egin behar duen karguen hautatzea burutu zuela, Arautegiaren 28, 29, 30, 31 eta 32. eta Barne Erregelen 48 eta 49. artikuluen arabera.

Zegozkien bozketak egin ondoren, jarraiko Zuzendaritza atera zen, hots:

- Euskaltzainburua: Jean Haritschelhar Duhalde.
- Buruordea: Juan San Martin Ortiz de Zarate.
- Idazkaria: Jose Maria Satrustegi Zubeldia.
- Diruzaina: Jose Antonio Arana Martija.

Eta horrela argi gera dadin, Bilbon ematen dut mila bederatziehun eta larogitabederatzigarreneko urtarilaren hemeretzian.

*J. M. Satrustegi
Idazkaria*

BILBON, KARGU-ALDATZEAK ZIRELA ETA, ESANDAKO HITZAK

Urtarrilak 19, 1989

EUSKALTZAINBURU ZAHARRAREN HITZAK

Fr. Luis Villasante

Jaun-Andreak:

Gaurko ospaketa hau egitean, ia noraezko edo derrigorrezko gertatzen da honen aurrekoari begiak itzultzea, esan nahi dut, orain dela 18 urte egin zenari. Mauleko alkatearen aitzinean izan zen hura, Zuberoako hiriburuan, 1970eko Urriaren 25ean, Sallaberry-ren *Chants populaires du pays basque* liburuaren men-deurrena ospatzearekin batean.

On Manuel Lekuona euskaltzainburu zaharrak esan zituen lehenik bere hitzak eta gero nik egin nuen kargu hartzeko neure hitzalditxo. Gaurkoan ere antzera dira gauzak, baina alderantziz; neri adio esatea eta kargudun berriari tokia uztea dagokit. Azken batean pertsonak paseko egaztiak bezala gara, baina instituzioa, erakundea gelditzen da.

Eta aldarte honetan jarria naizenez, zer esango dut? Denei eskerrak eman, horixe. Eskerrak euskaltzainei, noski, eta gure bulegoetako langileei, beren lanki-detasuna gabe ez bainuen ezer egin ahal izango. Eta eskerrak, baita ere, ongile eta herri-agintariei, beti eman diguten laguntzagatik.

Zinez uste dut 18 urte honetan zerbait egin dela, Euskaltzaindiak zenbait urrats eman dituela, alegia, bere sorrera-egunean leporatu zitzaizkion xede, egin-bide eta helburuetara hurbildu nahian.

Ba ote dago esanbeharririk? Ni karguan sartu nintzenean, zeharo bestelakoa zen egoera. Gaur arras aldatu dira gauzak. Gaur laguntza eta eskuarte gehiago ditu Euskaltzaindiak, euskal gauzetan jantzia den jendea ugaritu egin da, etab.

Baina mundu honetan beti gertatzen den bezala, orduan istilu eta katramila batzuk baldin baziren, egoera berriak ere bereak ekarri dizkigu. Mauleko neure hitzalditxo ber-irakurri nahi izan dut. Bertan behin eta berriz ari naiz esaten Euskaltzaindiak bere lana egiteko ez duela hileroko batzarrea besterik eta horri behar diogula ahalik eta probetxu gehiena atera. Eta egia, hala ziren gauzak orduan.

Gero, berriz, baina aski goiz, batzordeak sortu ziren eta garapen handia hartu dute. Horiei esker, lanik franko egin ahal izan da eta beste lan batzuk

bidetan dira. Gramatika, Hiztegia, Onomastika, Atlasa, Lexikologi Erizpideak finkatzeko batzordea, etab. Ez noa xehetasunetan sartzera.

Ez da dudarik era berri honek aurrerapen handiak ekarri dituela berekin, baina baita istilu berriak ere: sakabanatze eta barreiatze-arriskua, bakoitza bere bidetik ibiltzeko arriskua batez ere. Menturaz beharko da gogoratu batzordeen autonomiak ez duela independentzia esan nahi. Erakundearen batasuna zaintzea behar-beharrezkoa dugu, eta agian batasun hori nik ez dut zaindu behar zen beste.

Gainerakoan, ez dut neure ondokoaren aurkeztapena egin beharrik. Oso ezaguna duzue eta dugu denok. Bere alde du erakunde honen barne-ezagutza sakon baten eta esperientzia luzearen jabe izatea eta batzordeetan lan egin izana. Euskararen katedra ukana du anitz urtez Bordeleko Unibertsitatean. Beronen ikerketei esker, argi osotan jarria dugu egun Topet Etxahunen bizitza eta literatur obra, eta baita Larralde-Bordaxurirena ere, Moulier-Oxobirena, etab. Baionako *Bulletin du Musée Basque* delakoaren Zuzendari da. Buletin horretan zenbaki aparta eskaini dio Lafitte zenari eta lehenago René Lafon jaunari (biak euskaltzain argi eta prestuak izanak). Plaza-gizon eta hiztun ederra da, gainera. Beraz, orotariko dohainez jantzia dugu euskaltzainburu berria. Ziur naiz Euskaltzaindia artez kidatuko duela, ezker-eskubiko saihebidetarik hura begiratzuz.

Bukatzeko, Jainkoari eskatzen diot gure euskaltzainburu berriaren asmo, gogo, kezka eta ardurak emankor bihur ditzala. Zorionak ematen dizkiot kargu berriagatik. Guztioi eskatzen dizuet ez diezaigula geure lankidetasuna gupidets.

Eta, beste gabe, zeuri, Jean Haritschelhar adiskide horri, pasatzen dizut bai kargua eta bai hitza ere.



EUSKALTZAINDIKO KARGU-ALDATZEAK

Bilbo, 1989-I-19

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburu Berria

Duela hemezortzi urte, Don Manuel Lekuona eta Aita Luis Villasante-ren arteko kargu aldatzea Ziberoan egin zen, Mauleko udaletxean, orduan Euskaltzaindiak ospatzen zuela J.D.J. Sallaberry-k agertutako *Chants populaires du Pays Basque* liburuaren mendeurrena.

Aurten, hemezortzi urteren buruan, Aita Villasante-k kargua utzirik, aurkitzen gara Bizkaiko Foru Diputazioaren jauregi honetan, ekialdetik mendebalera joanik, Euskal Herriko muga batetik bertzeraino.

Zertako ote? Ez du ahanzten Euskaltzaindiak Egoitza Nagusia Bilbon daukala; ez dezake ahanztz ere bi bizkaitarrek Elgezabal'tar Kosmek eta Landaburu'tar Pelik idatzi ziotela Bizkaiko Diputazioari gutun famatu hura 1918-ko Urtarrilaren 25ean irakurtu zena. Gero Hegoaldeko lau diputazioek Oñatiko Kongresuan bildurik sortu zuten, hain zuzen, 1918-ko Irailaren 5ean Euskaltzaindia, euskaltzale guztiek amesten zuten Institutua. Aspaldian airean zen ideia gorpuztu zen orduan, duela orain hirurogoi eta hamar urte Bizkaiko Diputazioari esker, hemen bertan eman zirela lehendabiziko urratsak. Nola ez oroitaraz egintza hura, gaur, biltzar ospetsu honetan Euskal Herriko agintari agurgarrien aintzinean.

Nere eskerrik beroenak eskaintzen dizkiot lehenik Jose Antonio Ardantza, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari. Hemen izanez Kargu Aldatze honetan, erakusten duzu Eusko Jaurlaritzak Euskaltzaindiari dion atxikimendua.

Eskerrak ere Bizkaiko Foru Diputazioaren Diputatu Nagusia den Pradera Jaunari. Zure agurrezko hitzak pozgarriak izan dira Euskaltzain denentzat. Aurretik nahi zaitut eskertu gure Plaza Barriko egoitzaren erosteko eta gero berritatzeko ezarri, ezartzen eta ezarriko duzen diruarengatik. Bururatuko direlarik lanak, egoitza eder eta ospetsu bat ukanen du Bilbon Euskaltzaindiak, izanen baitira orduan bildurik etxe berean orain sakabanaturik dauden gure zerbitzuak.

Eskerrak ere Nafarroako Gobernuari, Arabako eta Gipuzkoako Foru Diputazioeri ekartzen diguzuen diru laguntzaréngatik. Zueri esker bizi da Euskaltzaindia, azkartu da, bertze giro batean sartu da. Erakusten duzue, bai Eusko Jaurlaritzak, bai Nafarroako Gobernuak eta bai Komunitate Autonomoko hiru diputazioek euskararen kezka baitaukazuela eta ezagutzen duzuela Euskaltzaindiak egiten duen lanaren premia.

Egia erran, osoki aldatu da Euskal Herria. Duela hemezortzi urte, Franco-ren garaian, ahal zuena egiten zuen Euskaltzaindiak. Zaintzen zuen euskara eta garai hartan bultzatu zuen egintza gogoangarriena izan zen Arantzazuko Kongresu famatu hura. Han hartu ziren xedeak eta erabakiak garrantzi handikoak izan ziren. Heien obratzeko Euskaltzaindiak Aita Villasante izendatu zuen Euskaltzainburu. Erakutsiko dudana bezala ez da alferrik egon.

Bere Mauleko mintzaldian hauxe zioen Aita Villasante-k:

“Horregatik ez da gaizki egongo zer geran eta zertarako geran (gure xedeak eta helburuak alegia) gogoratzea. Helburuak beti garbi eta argi izatea: hori baita lehen.

“Euskara zaindu eta lantzeko: Euskaltzaindia horra zertarako den. Hau da hunen eginkizun bakarra. Ez du beste politikarik. Euskarà da beraren politika eta bandera. Euskararen ona, euskararen iraupena eta osasuna eragin, euskara gaur eguneko egikizunetarako tresna zalui eta egoki bihurtzea. Hartarako behar diren bideak bilatu eta arauak eman. Hain zuzen ere, bere egiteko nagusi hori beteko baldin badu, ahal dela, alderdikierietarik hastandu eta bere lan bereziari zeharo lotua egon behar du. Eta bi erresumen muga gainetik euskaldun guztien artean, mugaz hango eta hemengoen artean, lokarri bat izan behar du. Eta ahal bada, eta ahal ditekeen neurrian guztiontzat literario hizkuntza bat muntatzen bermatueta entseiatu”.

Berehala hasi zinen lanean proposatuz behar zirela batzordeak sortu gai berezi batzuren eramaiteko, ordezkariak ezarri hiri nagusi guztietan. Sorturikako lehenbiziko batzordea aditzarena izan zen, aditz batasuna nola egin ahal izango zen estudiatzeko. Denok badakizue bururatu dituela Euskaltzaindiak orduko asmoak.

1978-an, Arantzazuko Kongresutik hamar urteren buruan, Bergaran bildu zuen Euskaltzaindiak Kongresu bat, frango eztabaidatsua egia erran, ikusteko nola hartuak eta on hartuak izan ziren Arantzazun proposatu ziren arauak. SIADCO-k eginikako azterketari esker ikusi zen, argi eta garbi, bateratzeko bide onean sartu zela Euskaltzaindia eta erabaki finkoak hartu ziren ortografiaren batasunaren lortzeko.

Geroxago deklinabidea eta erakusleak aztertu ziren eta haiei buruz beharrezko erabakiak hartu. Literatur hizkuntza baten lehenbiziko urratsak eman ziren: ortografia, deklinabidea, erakusleak, aditza. Zer bidea batasunari buruz hamar bat urtetan!

1979-ko Arrasateko Kongresuaren ondotik sortu zen Gramatika batzordea. Hasi bazen lanean hasi zen. Bi liburuki agertu ditu eta joskeran sartua da orain, ez delarik lan errexa, dakigularik edozein hizkuntzatan joskera dela gutienik landua. Hirugarren liburukia kaleratuko delarik hobeki ikusiko da zer urrats beharko diren eman batasunerako bidean, ez baitira nola nahika hartu behar erabakiak, zuhurki jokatu behar baita hizkuntzarekin.

Gramatika batzordearen ekarpena interes haundikoa da. Alabaina irakurtzen balin baditugu zein diren Euskaltzaindiaren helburu nagusiak ikus daiteke lehen lehena dela:

“a) Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea”.

Bigarrena delarik:

“b) Hizkuntza honen langintzarako argibideak eta arauak ematea”.

Hona beraz nola Euskaltzaindiak betetzen duen bere helburu nagusia.

Hiztegigintzako batzordea ez dago alferrik. Hiru azpi batzorde ari dira lanean. Lehen *Orotariko Euskal Hiztegi*az arduratzen da. Eragin haundiko obra izanez eta gaurko tresneria berria baliatuz, ordenagailuen ahalasuna alegia, kaleratu du lehen liburukia, inprentan dagoela bigarrena erran didate, prest dago hirugarrena eta laugarrenaren apailatzen ari da Ibon Sarasola-ren ardurapean, Koldo Mitxele-na zenak emanikako xedeak eta helburuak segituz. Paregabeko altxorra datza *Orotariko Euskal Hiztegi* horretan, euskal idazleentzat baliagarri datekeena eta literatur hizkuntza baten mami zoragarria.

“Lexiko erizpideen finkapena” deritzan azpi batzordeak hiztegi eta gramati-karen arteko ikerketetan segitzen du bere lana. Jardunaldiz jardunaldi biltzen eta eztabaidatzen ditu lankideen txostenak, hitz elkarketena bururatuxea daukala, aurtan bururatutzat emango dena eta kar berarekin sartuko da hitz eratorrien arloan.

Tituluak berak salatzen du zer den “Egungo Euskararen bilketa lan sistema-tikoa” deritzan azpi batzordea. Horrek ere baliatzen ditu gaur eguneko tresna berriak, ordenagailu eta informatika. Ikus daiteke, argi eta garbi, ez dela Euskal-tzaindia Institutuzio atzeratu bat, aitzitik bere mendean bizi dela, oraiko aurrerape-nk ongi erabiliz.

Hiztegigintza batzordeak betetzen du Euskaltzaindiaren hirugarren helburua:

“c) Hiztegia biltzea”.

Bilketa horrek eramaiten gaitu, dudarik gabe, euskara baturako bidean eta hiztegi-larien hala nola gramatikariaren azterketek laguntzen dute Euskaltzaindia laugarren helburuaren betetzen, diolarik laugarren helburu horrek:

“d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea”.

Nere mintzaldi honen gehiegi ez luzatzeko gaingiroki aipatuko ditut bertze batzordeak: Dialektologiarena Hizkuntz Atlasaz aduratzen da. Hau ere obra haun-di luze xamarra! 145 herritan egiten dira inkestak eta herri bakoitzean 2.600 galderen erantzunak biltzen dira magnetofonean eta gero transkribatzen alfabeto fonetikoan. Inkesta horietarik jalgiko dira mapak, hauen bitartez jakinen baita zientifikoki nola banatzen diren gure euskalkiak. Euskalkiei buruz sekulan egina izan ez den azterketa baliosa izanen da. Eman ditudan zenbakiek salatzen dute azterketa honen garrantzia.

Onomastika batzordea maiz biltzen da, lanak egiten dituela bai Komunitate Autonomoan, bai Nafarroan. Bi gorberrnuen laguntzari esker aintzina doa kar haundirekin, ikerketa sakonetan sartuz, paper zaharrak aztertuz, inkestak eginez.

Literaturak, izan dadien literatura idatzia edo ahozkoa, baztertu gabe herri literatura, bere tokia dauka Euskaltzaindian. Akademia baten helburuetarik bat da literaturaren zaintzea eta sustatzea. Ez dio helburu horri uko eginez.

Zer gehiago? Aski da Euskaltzaindiaren argitalpenen katalogoa irakurtzea konturatzeko azken hamar urte hauetan zenbat eta zenbat liburu agertu dituen, bai Iker sailean, bai Jagon sailean, izan dituen Euskararen lekukoak, izan dituen hiztegikoak, gramatikakoak, onomastikakoak eta abar... Nork erran dezake —eta batzuetan batzuk hala derasate— ez duela lan haundirik egiten Euskaltzaindiak. Egia erran, badira elkor edo sor direnak entzungor izan nahiz, itsu direnak itsuarena eginez. Begode beren elkorkerian eta itsukerian eta gu, goazen aintzina!

Nahi ukan ditut Euskaltzaindiaren egintzak eta eginkizunak aipatu. Egintzak hor daude. Bere parte nasaia har dezala Aita Villasante-k haren manupean sortu baita politika berria, fruitu onak emanak dituenak jadanik, batzordeak sortuz eta bultzatuz, Euskaltzaindiari erakutsiz zer ziren helburu nagusiak. Nork uka dezake ez dela muntatu literatur hizkuntza batu bat ortografian eta gramatika sail batzuetan, hala nola deklinabidean, erakusleetan, aditzean. Zer aurrerapena hamar urtez!

Nork uka dezake ez dela sartu Euskaltzaindia azterketa sakonetan: hiztegitzan, gramatikan, euskalkietan? Zer aintzinamendua azken hamar urte hauetan!

Aita Villasante, hemezortzi urtez gidatu duzun Euskaltzaindia bide onetik doa. Aski umila zara erantzuteko ez dela hori, bakarrik, zure obra, Euskaltzaindiarena dela. Baina nork asmatu du bide hori, nork eman dio Euskaltzaindiari bere helburuen betetzeko kontzientzia ez balin bada Euskaltzainburuak?

Erantzun diezakedazu ere ez zuela Euskaltzaindiak hainbeste lan eginen ez balu behar duen dirulaguntza lortu agintariengandik. Egia da eta horretan zurekin nago. Hortakotz, gaur, kargu aldaketa honetan gurekin baitaude Euskal Herriko agintariak, gobernukoak nola diputazioekoak, nahi dizkiet Euskaltzaindiaren ize-nean eskerrik beroenak bihurtu. Duela hilabete bat Gasteiz-ko unibertsitatean erraiten nuena gogotik errepikatuko dut gaur:

“Dohatsu, Euskaltzaindiari eta Unibertsitatei behar den dirua eskaintzen dion herria! Dohatsu, bere hizkuntza bereziaren alde, euskara maitearen alde jokatzan den herria bere agintarien bitartez!”

Aita Villasante, utzi duzu kargua. Euskaltzainek izendatu naute. Ohoretzat hartzen dut Euskaltzainburuaren kargua. Badakit ez dela ohorezkoa bakarrik eta karguak karga dakarrela. Barkatuko didazue, jaunak eta andereak, sinbolotzat hartzen balin badut izendapen hori Iparraldekoa naizelakotz eta hirur hogoi eta hamar urte hauetan lehen aldikotz Iparraldeko bat izanez. Ederki erakutsi dute euskaltzainek euskara mintzo den eremu guztietan baduela zer ikusirik eta ez duela diferentziarik egiten iparraldekoen eta hegoaldekoen artean kargu nagusirako.

Zuhaurk, Aita Villasante, 1970ean, Maulen, hartu zinuelarik kargua, Euskaltzaindiaz zinon:

“Eta bi erresumen mugen gainetik, euskaldun guztien artean, mugaz hango eta hemengoan artean, lokarri bat izan behar du”.

Urratu duen bidetik ibili da Euskaltzaindia. Lanak hasiak dira, behar dira bururatu. Badakit zer kar eta kemenekin bermatzen diren euskaltzainak, euskaltzain urgazleak, batzorde kideak, bai eta ere egoitzako eta ordezkarietako langi-

leak. Haiei nere goresmenak, nere eskerrak. Elgarrekin, elgar bilduz eta sustatuz, euskarak behar dituen argibideak eta arauak, emeki emeki, emanen ditugu, euskararen eta Euskal Herriaren onerako.

“Ekin eta jarrai” da Euskaltzaindiaren lema, beraz euskaltzainena, nola ez Euskaltzainburuarena.

Eskerrik asko!

EUSKALTZAINDIKO ZUZENDARITZAREN KARGUEN ALDAKETA

Bilbo, 1989-I-19

Jose Antonio Ardanza

Lehendakaria

Jaun-andreok:

Oraintsu urtebete bildu ginen etxe honetan bertan, Euskaltzaindiak deituta, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lehen liburukiaren aurkezpena egin zenean.

Orduan esaten nizuen herri baten ibilera luzean suertatzen direla, noizean behin, gazi-gozoko mugarriak, eta honako hauxe ere banion: zenbat eta urrunagotik begiratu orduan eta nabarmenago agertu izan ohi direla mugarri horiek.

Gaur bildu gaituen gertaera honek badu, jaun-andreok, honelako zantzurik.

Izan ere 1918garren urtean erabaki zuten lau Foru Aldundiek Euskararen Akademia, Euskaltzaindia, sortu eta babestea eta ordutik hona benetan garai eta egoerarik zailenetan barrena egin du bere bidea, baina 99arrik galdu gabe. Ez zen erraza garaian garaiko egoerak berekin zekartzan kezka eta arazoei erantzutea, Aita Villasantek aipatu berri duen *euskaltzainditasunaren* mugan.

Guzti hori, ordea, gizarte egoera zena zelako, beti ere orekari eutsiz eta, hartarako ordua iritsi zenean, bereak ez zituen ardura eta zamak utziz.

Beraz, jaun-andreok, gaur eta hemen, pozik eman behar dugu aditzera euskal gizartearen erakunde artean Euskaltzaindiari zor zaion, tokatzen zaion, bere-berea duen barrutia aitortzen diogula eta gainera larre ezeta izaten saia dadila eskatzen diogula.

Euskaltzaindia bidea egiten ikusi dugu, urratsez urrats, lautada eta aldatz —haiek hauek baino ugariago— urtez urte.

1970garrenetik hona gidari apal, zuhur eta saiataua izan duen Aita Luis Villasanteri bene-benetako esker ona adierazi nahi diot bere agintealdiak euskarari ekarri dizkion onura guztiengatik. Diktaduraren azken ostiko gogorretan, zigorrari eta arriskuari muzin egin gabe, euskarari gizarteratzeko bideak zabaltzen saiatu zelako. Apala esan dut izendatua izan zinen garai zail eta mingots hartan gainera etorri zitzaizun zama eskerga onartzen jakin zenuelako. Euskararen istiluetan, eramapen eta kontu haundiz jokatu duzulako eta euskaltzaleen haserre

baretzen saiatu zarelako. Zuhurra diot Manuel Lekuona Euskaltzainburu argi eta jakintsuarengandik jasotako zuzia eta ondarea gordetzen eta indartzen jakin duzulako. Hark hasitako bideari jarraituz, euskara komunikabideetarako, irakaskuntzarako eta administrazioarako molda dadin argibide eta erizpide zentzuzkoak eskaintzen saiatu zarelako. Euskaltzaindiari berari, inongo zurrunbiloak irentsi gabe eutsi diozulako. Euskara alderdikeria eta taldekerietatik babestuz, guztiona izan dadin ahalegindu zarelako. Eta hor dugu, euskarak iraun dezan, testamentu gisa *Euskararen auziaz* utzi diguzun liburua.

Eta saiatua. Zure liburu multzo handia da lekuko. Auzi-mauzietan katramilatu gabe zeure lanari jarraitu diozu, erlijio gaiak, euskara, euskal literatura eta abar euskaraz lantzen, eta Euskaltzainburuaren eginkizunak betetzen.

Jean Haritschelhar anaia ipartar horri zorionak. Zorionak lankide izan dituzun euskaltzain lagunek aho batez hautatu zaituztelako. Egia esan, aukera ona egin duzutela uste dut. Osasuna eta denbora dituen euskaltzale jakintsua hautatu bait duzue. Euskaltzaindia Euskal Herri osoko erakundea dela erakutsi duzue, gainera, Iparraldeko bat buru izendatu duzuenean. Euskara Elkarrekin politikoa hone-tatik kanpora ere bizi dela gogoraziko digu Euskaltzainburu berriak, eta Euskal Herria Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa baino zerbait zabalagoa dela. Eta euskara dugula, han eta hemen bizi garen euskaldunok, gure mintzaira eta senide-lokarria. Jadanik irakaskuntzan, alkatetzan, kulturgintzan, hitz batean herrigintzan, egina duzun ibilbide demokratikotik jasotako esperientziaz horniturik, baduzu zeri heldu eta ekin, zer sakondu eta sendotu Euskaltzaindian, Euskal Herri osoaren onetan.

Bukatzeko, jaun-andreok, orain baino lehenago egindako aitorpena berritu nahi dut: Herri Aginteez aurrerantzean ere Euskaltzaindia babestuko dute, euskal gizartearen egituraketan euskara geroz eta lokarri, ardatz, sendagoa egiten ahaleginduz.

JOSE MIGEL BARANDIARANI
OMENALDIA

Ataun, 1989-II-25

JOXE MIGEL BARANDIARAN JAUNARI EUSKALTZAINDIAK OMENALDIA

Ataun, 1989-II-25

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburua

Joxe Migel Barandiaran euskaltzain kide agurgarria.

Joan den Abenduaren 31an sartu zara ehungarren urtean. Mende oso bat abantzu mundu honetan bizi zarela, bere gora beherekin, bere aldakuntzekin, erreinu errepublika eta bertze. Ehun urteren historia iragan duzu eta ez zen nola nahikoa. Bizi luze bat beraz, baina ez nagia eginez. Pentsa daiteke beti gogoan zinituela Axularrek nagia eginikako erasiak:

“Zoaz nagia, xinhaurriagana eta kontsidera itzazu haren bideak eta bidexkak, joan-etorriak eta itzul-inguruak nekeak eta trabailuak, eta ikasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat eta bethiere bizi, ibili eta gobernatu”.

Bai, zure bizi guztian xinaurriaren pare ibili eta gobernatu zara. Ez ote da xinaurri lan ikertze lana, bereziki harpe, leize, mairu baratzetan ibiltzen zinelarik gure arbasoen historiaren bila. Xinaurri lana, lurra emeki emeki miatzen zinuclarik aurrehistoriako euskaldunen herexak aurkituz, segituz, ezagutuz. Ez zen oztoporik zuretzat. Sartzen zinen oraindik ezagutuak ez ziren leizetan lurpeko ilunbea zilatzen zinucl orduko gizonek eginikako marrazkiak aurkituz, istudiatuz, salbatuz. Euskal Herriko lehen gizona zer zen eta nor zen badakigu orain zuri esker. Erranen didazu, eta arrazoinekin, ez dakigula zehazki nor zen baina eman diguzu sekulan nehork eman ez zuen lehenbiziko itxura, egiazko hurbiltze zientifiko bat.

Xinaurri lana ere ibili zarelarik herriz herri gure Euskal Herri guztian, jende zaharrekin mintzatuz, aurretik ondo asmatutako behar ziren galdeak eginez, haien ahoetarik bilduz lehengo ipuin, alegia, historia eta erranak. Bai *Eusko folklore*-an, bai *Ikuskan* agertu dituzu xeheki inkesta horiek ahozkatzen ziren bezala, euskalkiak begiratzuz eta zainduz. Haiei esker eusko mitologia zaharra eman diguzu ezagutzerat ez guri, Euskaldunei bakarrik, baina mundu guztiari.

Egia erran, mundu guztiak ezagutzen zaitu, mundu guztiak badaki nor zaren, jakintsunen munduak goraki aitortzen duela jakintsun haundi zarela. Ez ditut hemen aipatuko zein erresumatan egin dituzun mintzaldiak, zein kongresu zientifikotan ibili zaren. Euskal Herriaren lekukotasuna agertu duzu atzerrietan eta denbora berean Euskal Herriaren omena hedatu.

Baina zer izanen zen zure lana ez balinbazinitu dizipuluak sortu? Xinaurriaren pare geroari buruz jokatu zara. Hala nola xinaurriak bildua duen bihia “hozidurak janez gero, lurraren humidurak eta hezetasunak, gainerakoa ustel eztiaron, atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatzera”, hala-ber egin duzu zure ikasleekin kanporatuz zure jakituria eta esperientzia, bertzeen gogoak moldatuz, haziz, mamituz. Xinaurri lana erakaslearena, baina lan ederra, premiatsua.

Apaiz zara eta erakasle. Ikertzaile ere bai ez baita erakasle onik ikertzaile ez denik. Bide urratzaile han, Gasteizko Seminario nagusian, moldatzen zinituelarik apaiz gai gazteak erakatsiz zer zen Euskal Herriaren aurrehistoria eta historia, etnologia, soziologia. Gai irriskorrak 1920 eta 1936 arte horretan, Don Manuel Lekuonak erakasten zaielarik euskal literatura. Gehienek orduan ikasi zuketzen beren sort herriaren aberastasuna ez baitzen holakorik erakasten gobernuko eskoletan ez Frantzian eta ez Espainian. Herriaren kontzientzia, hots, hitz batez abertzaletasuna, euskal kulturaren erakaskuntza horretan oinarritzen zen eta zuk, Don Jose Migel Barandiaran, parte haundi bat hartu zenuen. Euskaldun jendea zure dizipulua izan da.

Gero hasi zen 1936.eko gerla ikaragarria, Euskadi sakabanatua, zauritua, ilunpean sartua. Erbesterako bidea hartu zenuen orduan, Baionan, Miarritzen eta gero Saran bizi zinela. Uste dut ongi etorri on bat ukan zinuela Iparraldean kasu horietan Iparraldea baita euskaldunen aterbea. Saran iragan duzu dotzena bat urte. Sara, herri ederra, osoki euskalduna, Sara, Iparralde eta Hegoaldeko lokarria aspaldidanik, Axular idazle paregabekoa dela lekuko Urdazubitarra sortzez eta Sarako erretore, Etxeberri aldiz saratarra sortzez eta Beran, Hondarribian eta azkenik Azkoitian mediku.

Saran ez zara alferrik egon. Han segitu dituzu azterketak han ezagutu dituzu Iparraldeko gazte batzu eta zuri esker sortu dira ikertzaile gazteak. Hor dira lekuko 40 edo 50 urteren buruan “Lauburu” deitzen den elkartearen kideak, denek, aho batez aitortzen dutela zer zorretan dauden zurekin. Euska Herri osoko erakasle eta maisu izan zara, hango eta hemengo ikertzaileen erakasle nagusia eta egiazko lokarria.

Saran bizi izan zara. “Saran” gara, Lapurdiko itxura duen etxe hau “Sara” deitu baituzu Sarako oroitzapen goxoa gogoan hobeki atxikitzeko. Jakin ezazu, guk, Iparraldekook pozik gaudela ikusiz holako atxikimendua lekukotasuna.

Abenduaren 31 batean jaio zinen, urte zaharra bururatzen zela, urte berri bat sortzen zela. Laurogei eta hemeretzi aldiz ikusi duzu urte berriaren hastapena. Ehungarren urtea zabilta. Jainkoak eman diezazula berte urte berri batzuren ikusteko zoriona. Hauxe da eskatzen dioguna bihotzaren erditik.

JOXE MIGEL BARANDIARAN JAUNARI EUSKALTZAINDIAK OMENALDIA

Ataun, 1989-II-25

J. M. Barandiaran

Esker mila. Esker mila. Danoi eman behar dizkizuet eskerrak egiten dizkidazuten gauza honez eta esaten dizkidazuten hitz ederrengatik. Eta egia esan bai bizi izan naiz han eta hemen. Eta gertatzen zait haxe: gosaldu han, Saran; bazkaldu Saratxoki izena zuen etxe batean, Donostian; eta afaldu, Sara izena duen Ataungo etxe hontan.

* * *

Orduan Sararekin badut hartueman haundia. Ez hitzekin eta izenakin bakarrik, baita gauzakin gertatzea. Batez ere hango lagunekin eta hemengoekin, baino hangoak ere bai. Han hain ondo hartuak izan ginen beti, han Saran, ez zezakeen inola ere ahaztu gauza hori. Eta horregatik eman genion etxe honi, ezta nere etxea, nere iloba hemen nerekin bizi denarena da, horrena da etxea eta jarri zion "Sara" etxea, Sara herriari eta herrikoei batez ere zor haundia genielako. Horregatik. Orduan, ba, ez da hitza bakarrik, hitzak zer esan nahi duen ere jakin behar da, eta guretzat esan nahi du hori dana. Zeinen ongi hartuak izan ginen hango Saran eta horregatik bere, ba, ezin genezakeen ahaztu, bere harrera, egiten ziguten harrera eta hango ezagunak, hango bizikerak eta, batez ere, hango lagunak. Ba, ez da hori bakarrik, gainera berak ere, gurekin izan dute, ba, esker ona, nonbait, zerbait egin gendun, ez ginen gaizki ibili nonbait; zergatik nire izeneko harri bat jarri zuten, han Saran; da hori eskertu beharrean nago benetan, benetan. Han Axularren harri bat bada, lehendik jarria eta Axularren harriaren ondoan jarri dute beste bat nere izenekoa. Orduan, eskertu beharrean nago ongi hori. Ni ia Axularren pare bezala han harrian jarri naute, ez naiz bardina baino... ez da nola, egingo det neure burua, Axularren mailakoa! Ez, ez. Axular beste bat zen, da asko balio zuen gizakia. Gauza handiak egin zituen. Ni, han asko ibilia naiz eta ondo hartua izan nintzan eta behar nituen eskertu eta behar ditut eskertu hango lagunak, lagun haundiak, Sarakoak, Baionakoak, Miarrizkoak eta danak. Toki askotan ibilia naiz. Toki askotan. Ibili beharra izan nuen, gainera da, ni nintzelarikan delegadu bat nintzen, Frantziako, han bada, prehistoriari buruz elkarte bat, Frantzian, eta ni nintzen elkarte honen delegadu bat hor, Laburdin eta inguru hortan. Horregatik, Laburdin ibili beharra izan nuen. Toki askotan, mendi askotan, herri askotan. Jakina, bialtzen nituen horko ikaskuntza guztiak eginda, horko ikerketen ondorioak, bialtzen nituen Paris aldera, hango Ministerio

de Cultura edo haruntza. Han ibili nintzen lanean. Oso eskertu beharrean naiz hango lagun guztiei, herri guzietan ongi hartua. Herri askotan ibili nintzen, baina denetan ongi hartua, ongi hartua. Eta langundu. Ba zuten ekintza, ahalegina egiten zuten. Asko eskertu beharrean naiz ni alderdi hura. Asko.

* * *

Eta orain zer esango det? Hementxe zaudete sail bat nik eskertu behar dedana, zuek ere. Mila esker eta ongi etorriak eta hementxe naukazute egin ahal dedana egiteko prest. Eta eskerrak zuei.

* * *

(Jean Haritschelharrek, Euskaltzainburuak, Euskaltzaindiko domina eman ondoren, zera adierazi du, hots:)

Mila esker. Hau da oroigarri haundia. Haundia. Eta eskerrak zuei. Beno. Eztakit nik honenbeste merezi nuen.

* * *

(Jarraian, J. M.^a Satrustegik, Euskaltzaindiko Idazkariak, *Onomasticon Vasconiae 3: Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, eskaintzean zera adierazi du, alegia.)

Toponimiak asko erakusten digu. Gure lurraldia erakusten digu. Eta gure lurraldia behar dugu ikasi. Lurraldiari zor diogu izugarri. Holako gauzak maite ditut asko. Neroni ere lurean ibilia naiz asko, toponimia egin behar izan dut zerbait, ez gehiegi. Baina zerbait bai, eta hori maite izan dut beti. Ezta aski hemen bizi izatea batekin eta bestearekin. Haien lurra guk ere darabilagu, ingurua. Kontuz ibili behar dugu. Gurekin ba du zeregina, izan du zeregina eta beti iraungo du bere egintza horrek beti iraungo du, beti ibili da gure inguru. Mila esker. Esker mila denoi. Mila esker. Ez nuen sekula ametsik egingo, egia esan. Ametsik egin gabe etorri zat. Esker mila. Mila esker. Hemendik aurrera ba litzake ametsetan ere egitea. Esker mila.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN II. ALEAREN AURKEZPENA

J. L. Lizundia

Idazkariordea

Gipuzkoako Foru Diputazioaren areto nagusian, 1989.eko Martxoaren 16an, eguerdiko 12etan, bildu dira, mahaipuruan: Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu Nagusia; M.^a Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia; Alberto Ansola, Arabako Diputatu Nagusi-ordea; Tomás Uribe-etxebarria, Bizkaiko Kultur Diputatua; J. Haritschelhar, Euskaltzainburua; J. M. Satrustegi, Idazkaria; J. A. Arana Martija, Diruzaina eta I. Sarasola, euskaltzaina eta *Orotariko Euskal Hiztegiaren* arduraduna.

Bertan dira, baita ere, José Ramón Peciña, Arabako Kultur Diputatua; José Luis Telleria, Gipuzkoako Kultur Diputatua; P. Altuna, A. Irigoien, J. M. Lekuona, J. San Martín eta L. Villasante, euskaltzainak; J. L. Lizundia, Idazkariordea; J. J. Zearreta, Ekonomi Eragilea; P. Arregi, M. Atxaga, M. Azkarate, G. Barandiaran, M.^a P. Lasarte eta A. Sagarna, urgazleak; Josu Legina eta Xabier Goxeaskoetxea, Mensajero eta Desclée Argitaldiaren Ordezkariek; Jesús Campo, EJJeko Zuzendaria. Egunkari, aldizkari eta irratietako kazetariak ere bertan daude.



J. Haritschelhar Euskaltzainburuak egiten du sarrera hitzaldiñoa, azpimarratuz O.E.H.ren bigarren zenbaki honen agertzearen garrantzia eta eskerrak emanez, bai Eusko Jaurlaritza; bai Nafar Gobernu; bai Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazio; bai Argitaldari bietako, Legina eta Goxeaskoetxea jaunei; bai EJI Eko Ordezariari, ahanzi gabe, noski, hiztegigintzan lanean diharduten lankideei.

Jarraian, I. Sarasolak egiten du O.E.H.ren bigarren liburukiaren aurkezpena. Hara hor banatutako laburpena: “Gaur aurkezten den *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren bigarren liburuki honek. A letraren —hiztegiko letrarik luzeenaren— zati garrantzitsuena bukatuak uzten du. Jakina denez, liburuki hau Koldo Mitxelena irakasle eta maisuaren eguneroko parte-hartze eta elkar-lanik gabe prestatua izan da argitaratzeko. Horregatik ahalegin berezi bat egin behar izan du hiztegiko lantaldeak hark prestatutako material guztiak, bere gogo eta irizpideei ahal bezain hertsiki lotuak argitaratzen. Bigarren liburu honen hitzaurrea gehituz eta osaturik dator, hiztegiaren egitura, ezaugarri eta erabilerrari buruzko argibide gehiago dakartzalarik. Horrezaz gainera, “Irakurle euskaldunari” izeneko aurkezpen bat ere badu bigarren liburuki honek, bertako irakurlearen beharrezko eta interesetan bereziki pentsatuz egina. Era berean oraindainokoa erabili gabeko hiztegi zahar eta berriak gehituz osatu eta eguneratu da bibliografiari dagokion atala. Bestalde, eta aurrera begira, hirugarren liburukia, B letraren zati garrantzizko bat barnean duela, aurtengo urtearen barruan bukatuak izatea espero da”.

Imanol Muruak, Gipuzkoako Foru Diputazioaren izenean, ongi etorria ematen du. Euskaltzainburuak emandako eskerrak berak bihurtzen dizkiola, zeren eta Euskal Administrazioako erakundeak behartuak bai daude, zorra bai daukate, euskararekiko erakundeei eta kasu honetan, Euskaltzaindiari, egiten duten lanagatik eskertuz, aurkezpen honi amaiera ematen dio.

LATSIBI
ELABERRIAREN AURKEZPENA

Bilbo, 1989-V-16

LATSIBI ELABERRIAREN AURKEZPENA

Bilbao, 1989-V-16

Mirari Alberdi

Euskaltzaindiak eta Labayru Ikastegiak argitaratu berri duten *Latsibi* nobelaren azalean bertan ageri denez, nobela hau kaleratu ahal izateko egin beharreko prestakuntza-lana izan da nagusiki nik egin dudana. Lan nagusia, jakina, eta benetan meritua duena, Resurrección Maria Azkuek berak egina da, berak idatzi bait zuen eleberria, berak egin irakurleari testua ulertzen laguntzeko oharrak, berak gertu utzi liburuan zehar agertu beharreko irudiak, e. a., e. a. Obra hau osatuko zuten atal guztiak, beraz, prest utzi zituen Azkuek (batzuk makinaz idatzita, besteak eskuz) eta gure lana, besteak beste, obra hau inprimategira bidali ahal izateko txukundu, ordenatu eta ilun zeuden gauzak argi jartzea izan da, hau da, Azkuek makinaz idatzirik utzi zigun bertsioan berak eskuz egindako zuzenketak eta aldaketak argi jarri, makinaz idazterakoan kopiatu gabe gelditu ziren zatiak eta Azkuek eskuz kopiatu zituenak transkribatu, ortografia gaurkotu, eta era horretako beste zenbait gauza.

Latsibi eleberriaren balioari dagokionez, euskal literatura murritzean leku garrantzitsua izango duen obra dela uste dut, ez agian balio literario apartekorik duelako (denok dakigu ez dagoela euskal literatura maila literarioan beste hizkuntza normalizatu indartsuetan idatzi den literaturarekin gonparatzerik), baina bai euskal literaturak dituen muga guztien barruan bere garaiko eleberrien artean mardulena delako, eta baita euskal literatura osoko mardulenetakoa ere, Azkuek euskal lexikoaren garbitasunaz zuen kezka eta kezka horri erantzuteko erabiltzen zituen bideak bertan argi ageri direlako eta garai bateko hizkuntzari buruzko pentsamoldea eta Azkueren garaian bizi izan zuten giroa isladatzen dituelako. Aipagarria iruditzen zait baita ere, bere originaltasunagatik, *Latsibi*ren gaia edo kontakizuna: sakoneko esannahia eta interpretazioa alde batera utzirik (hori Kar-mele Olanok aztertu du liburuaaren sarreraren datorren "R. M. Azkue eta bere obraz zertxobait" lanean), nobelan zehar kontaktzen zaiguna, bi hitzetan esanda, hauteskunde batzuren aurreko egunetan eta garaile izateko ahaleginetan ideologia ezberdinetak bi talderen artean gertatzen diren eztabaidak eta burrukak dira.

Ez dut uste hauteskunde giroa euskal literaturan maiz erabili izan denik eta alde horretatik *Latsibi* originala dela esan liteke.

Azkenik, bukatzeko, Azkuek *Latsibi* eleberria noiz idatzi zuen jakiteko asmoz egindako azterketa aipatu nahi nuke; Euskaltzaindiaren "Azkue Biblioteka"-ko bibliotekari-orde den Jose Antonio-Martijaren laguntzaz begiratu eta aztertu nituen

puntu hau argitzeko lagungarri izan zitezkeen dokumentuak, hala nola, Azkueren *Euskalerriaren Yakintzaren* eskuizkribua, 1930 inguruan idazten ari zena eta *Latsibiren* aipamena egiten duena “escribí hace ya muchos años una novela intitulada *Latsibi*” esanez, Azkuek bere bizitzan zehar garai ezberdinetan idatzitako gutunak (beste batzuren artean gipuzkerazko bertsioa prestatu zuen Gerard Baehr-i idatzitakoak eta haregandik jasotako erantzunak), etab. Guzti honetatik lortu genituen erreferentzietan oinarrituz, *Latsibi* XX. mendeko bigarren hamarkadan idatzi zen ustea atera genuen eta beste erreferentzia edo datu zehatzagorik aurkitzen ez dugun bitartean nobela garai horretakoa dela pentsa genezake.

Esker bereziak eman nahi dizkiot Labayru Ikastegiko Adolfo Arejitari bera izan zelako lan hau egiteko aukera eskaini zidana.

LATSIBI-REN AURKEZPENA

Bilbo, 1989-V-16

Aita Luis Villasante, Euskaltzainburu ohiari zegokion *Latsibiren* aurkezpen hau egitea, bera izan baitzen argitarapenaren arduradun nagusia eta liburuari hitzaurrea jarri ziona. Baina tamalez —eta tamalez diot, nik baino hobeto burutuko zuelako—neroni dagokit eginkizun hau bete behar izatea. Dena den, hor dugu liburuan bertan Aita Villasantek egindako hitzaurrea, nola-baiteko aurkezpen gisakoa, Azkueren liburu honetaz bere eritzia jakiteko hainakoa. Elaberriak ematen digun garaiko giro soziala, ingurunea, lexiko herrikoi aberatsa, egilearen bahetik pasatua hain zuzen, euskal hitz berrien arazoa, hitz-konposatuen kezka, eta abar luze bat aditzera ematen zaigu bertan.

Karmele Olanok eta Mirari Alberdik eginiko hitzaurreetan ere hainbat gauza jakingarri ematen zaizkigu eta ez da hemen halakorik errepikatu beharrik, beraien lumaz ni orain janztea ez litzake egokia eta.

Baina badituzt han hemenkako irazkin batzu egiteko aukera *Latsibi* elaberriari dagozkionak, eta orain esaten ez badira esan gabe geratuko liratekenak.

Ez dakigu, esate baterako, noiz idatzi zuen Azkuek elaberri hau eta, behar bada, ez dugu jakingo Azkueren gutundegia ondo arakatu arte. Mende honen bigarren hamarraldiaren azken urteetan edo eta hirugarren hamarraldiaren lehenetan idatzi zuela dirudi, baina ez dugu data ziurrik. *Morfologia* delako liburu mardulean (*Euskera* 1923, Uztaila-Iraila) diosku Gerhard Baehr urgazlea *Latsibi* gipuzkerara itzultzen hasia zela. Lehen idazketa baten itzulpena ote zen hau? Gero, 1926 eta 1927 urteetako Euskaltzaindiaren bileretan aipatzen da berriz *Latsibi* elaberria: “Azkue jaunak irakurri du oraintsu berak idatzi duen irakurgaia, *Latsibi* izenekoa” (1926.2.19) eta “Azkuek berriz (irakurri du) oraintxe idatzi duen bere irakurgai *Latsibi*. Berak ez daukala elestari izateko gogorik eta, edozei-ñi eskeñiko lioke argitaratzea” (1927.1.28). “Oraintxe” horrek zer esan nahi du? Bigarren idazketa baten zatiak irakurri zituela aipatu bileretan? Baehr jaunak itzulitako originala ote zen Olabideren bidez Loiolako Artxibategira joan zena? Bigarren idazketa ote da Euskaltzaindiaren Artxibategian dagoena? Bigarren hau izango zen segurazki 1928an Alemaniara eraman zuena. Urte horren Abuztuaren 7an Hamburgora abiatu zen itsasuntziz Azkue jauna eta koadernotxu batetan zerrendatu zituen eraman behar zituenak, tartean *Ortzuri*, *Urlo*, *Cancionero Vasco*, *Afijos* eta *Latsibi*. Hil beteko bidaia zenez gero, zertarako beharko zituen Alemanian ordurako prestatuturik zeuden lanak? *Ortzuri* operaren testuak jadanik argitara-

tuak zeuzkan (Paris, 1911) eta hau zen eraman zuen liburua, izen bereko elaberria, hau ere oraindik argitaratugabea, 1936an idatzi zuen eta. *Urlo* opera 1914 tik kantatu eta piano laguntzarekin Alemanian inprimatua zegoen. *Cancionero Vasco* delakoa ere sei urte lehenago kaleratua zen. *Afijos* izeneko *Morfologia* dela dirudi eta hau ere argitaratua zen. *Latsibi*, oster, argitaragabe aurkitzen zen. Argitaldariren bati aurkezteko eraman ote zuen? Ez dakigu, eta galderaz beterik dago arazo hau. Esan dezakegun gauza bakarra da ordurarte Azkuek zeukan alea eskuizkribuzkoa zela. Gero, *Euskaleriaren Yakintza* inprimatzeko prestatu ondoren, *Latsibi* argitaratzeko beta ere izan zuela dirudi. Eskuizkribua Clemente Atxa laguntzaileak makinaratu omen zion eta 1942/1943 urteen bukaera eta hasieran makinaratutako alea zuzentzen hasi zen. Hara zer idazten dion 1943.eko Urtarrilaren 19an Etxaideri: "Eskuetan erabili dudana gerturidi eta nobela *Latsibi* izan da erantzun au onen luzaro isilik eduki duena". Ordurako irudi eta ilustrazioak prest zeuzkan 1935 eta 1936 urteetan lortu bait zituen Garmendia eta Tillac-enak. Azken honek 1936.eko Urtarrilaren 21ean idazten dio Azkueri *Latsibi* irako grabauak 40 pezetan kobratuko dizkiola, nahiz eta Parisen antzerakoak 50 pezetan saldu.

Gerhard Baehr aipatu dugu. Merezi du gipuzkerara *Latsibi* itzuli zuen jaun honek irazkintxo bat. Azkue Bibliotekako artxibategian dugun lehenetariko gutuna Azkueri Legazpitik idatzi ziona da, 1920.eko Uztailaren 13an, eta hurrengo urte bereko Irailaren 23koa. Bietan agertzen zaigu Baehr euskal idazle trebea. 1920/21 ikasturterako Göttingen-go unibertsitatara joana zen kimika estudioak burutzera. Euskaltzaindiak 1921.eko Otsailean Donostian egin zuen bileran "Legazpiko euskal aditzaiz Gerhard Baehr-ek eginiko lan polit bat A. Olabidek irakurri eban. Oron aburuz lan ori gure **Euskera** agerkarian argitaratzea erabagi zan eta jaun argitsu ori euskaltzain urgazle izentau". Hor dugu urgazle berria Olabiderekin harremanetan. Göttingen-era joan orduko egingo ote zuen Baehr-ek *Latsibi*-ren itzulpena eta emango ote zion Olabideri bizkaierazko lehen originala? 1922an Schuchardt-en *Baskische Studien* itzuli zuen gaztelaniara eta 1923an *Sarako euskera*. Urte horren udan Euskal Herrian egon zen Baehr eta *Erizkizundi Irukoitzaren* koadernoak biltzen lagundu zion Azkueri Gipuzkoan. 1926.eko Urtarrilaren 2an idazten dio Baehr-i Azkuek hildako Karmelo Etxegarai euskaltzainaren aulkia eskaintzen. Batzuren eritzietan Isaka Lopez Mendizabali tokatzen zitzaion aulki hori betetzea, baina denok dakigu, hiztegiaren istilua zelata, Azkue ez zela inondik ere honen aldekoa.

Azkue hil zen eta argitaratu gabe geratu zen *Latsibi*. Baina Euskaltzaindia gerra ostean eraberritu zenean, orduko euskaltzainek elaberri hau **Euskera** agerkarian zatika argitaratzea erabaki zuten 1953.eko Irailaren 25eko bileran. Baina hiru urte beranduago arte ez zen agerkari hori kaleratu eta erabakia asmo hutsetan geratu zen.

Gero, 1968an, Urre Eztaiak ospatzeko garaian, berriz sortu zen *Latsibi* argitaratzeko xedea. Urtarrileko 26an egin zen bileran Azkueren hiru lan argitaratzea erabaki zen: *Grankanton arrantzaleak*, *Ortzuri* eta *Latsibi*. Lehena, Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan zegoen, Dodgsonen hara eramana, eta argazkiz eginitako kopia bat eskuratua izan zen. Ez zen orduan argitaratu baina laster ikusiko dugu **Euskeran**, Euskal Katedrako mendeurren inguruan eginiko hitzaldiekin batera argitaratua, Katedra hori lortzeko aurkeztu bait zuen Azkuek Bizkaiko Diputazioan. *Ortzuri* elaberria, 1936an Lekeition idatzia, argitaratu gabe geratu

zen eta oraindik ere makinaratuta Euskaltzaindiaren artxibategian datza. *Latsibi* argitaratzeko eman ziren urratsak eraginkorrakoak izan ziren. Auñamendi, Mensajero eta Retana argitaldariai ibili ziren jokoan tartean. Azkenean, 1968.eko Apirilaren 26ko bileran "La Gran Enciclopedia"ri ematea erabai zen. Baina hara non egun haietan Olabiderena izandako alea Loiolan agertu zen eta Aita Plazido Mujikari esker eskuratzea lortu zuen Euskaltzaindiak. Euskara hutsean argitaratzea debekatuta zegoelako edo, Mikel Zarateri eman zioten Loiolako alea gaztelaniara itzul zezan. Urre Eztaietako urtea eta hurrengoa ere, 1969a hain zuzen, ezer egin gabe igaro ziren eta bertan behera geratu zen berriz arazo hau. Aita Mujikari itzuli zioten azkenean alea eta kito! Hogei urte beranduago, hemen daukagu *Latsibiren* argitarapena esku artean. Sasoia zen.

Anekdotatxo bat nerea amaitzeko. Azkueren oharren artean berak eskatzen zuen ilustrazio bat *Latsibi* baserria zen. Gogo hau betetzeko baserriaren bila ibili nintzen, eta azkenean, aurtengo Urtarrilaren 5ean lortu nuen Jatabeko baserri hau aurkitzea. Zaharkituta eta itxura gabekoa zenez argazki bat liburuaren azalean emateko, azkenean Goikok Azkuerentzat eginiko baserri baten irudia argitaratzea erabaki genuen. Baina hara bilaka nengilen tartean gertatutakoa. Bizpahiru tokitan galdetu nuen Jataben non zegoen *Latsibi* baserria. Etarte batetan, txakurra ahausika zegoelarik, aurreratu zitzaidan etxauna.


— *Latsibi* baserria non dagoen badakizu?

— Salgai dago ala?

erantzun zidan, gure baserritarren maltzurkeria hiru hitzetan azalduz. Ezetz erantzun nion, edo ez nekiela behintzat, nere asmoa beste bat zela.

Latsibi baserria ez dago salgai, gero jakin nuenez. Baina Azkueren *Latsibi* elaberria bai.

RESURRECCION MARIA AZKUE



PRESENTACION DE LA NOVELA *LATSIBI*

Esta novela, escrita por Resurrección M.^a de Azkue en dialecto vizcaíno en la segunda década de este siglo, fue después traducida al dialecto guipuzcoano por Gerard Baehr, hijo de alemanes nacido en Legazpia. Se publica ahora en vizcaíno según el original que obra en poder de Euskaltzaindia y no el que se conserva en el Archivo de Loyola, que perteneció al académico Raimundo Olabide.

Azkue intentó varias veces publicar esta novela, pero por falta de mecenazgo no lo pudo hacer. Tenía los materiales preparados y las ilustraciones ya hechas por Tillac, Garmendia, Garavilla, etc. Murió en 1951 sin ver impresa su novela.

Después Euskaltzaindia, iniciados sus trabajos académicos tras la guerra, intentó también hacerlo en 1953, sin conseguirlo, y más tarde, en 1968, con motivo de sus Bodas de Oro se propuso firmemente editar esta y otras dos obras de Azkue, su ópera *Ortzuri* y su primera obra en euskara, la que en 1888 presentó en el concurso abierto para la Cátedra de Euskara por la Diputación de Vizcaya, titulada *Grankanton arrantzaleak*. Tampoco en las Bodas de Oro consiguió la Academia publicar la novela de Azkue.

Por fin, en 1989, se consigue el objetivo tan anhelado en colaboración con el Instituto Labayru. Este la presenta en su colección *Sutondoan* y la Academia en su colección *Euskararen Lekukoak* (o Clásicos del Euskara) de la que esta publicación hace el número 15.

José Antonio Arana Martija
Académico
Bibliotecario

ONOMASTIKA

ONOMASTICON VASCONIAE 5
LIBURUAREN AURKEZPENA

Gasteiz, 1989-VI-23

EN LA PRESENTACION DE TOPONIMIA ALAVESA, SEGUIDO DE MORTUORIOS O DESPOBLADOS Y PUEBLOS ALAVESSES

Vitoria-Gasteiz, 23-VI-1989

Endrike Knörr


Onomastika Batzordeburua

Indudablemente este acto ha de resultar en parte un gran fastidio para Gerardo López de Guereñu, poco amigo de homenajes y trabajador en el silencio y la constancia. Pero nuestro hombre debe pensar que ésta es una reunión de familiares y amigos, en el momento de presentarse la recopilación de tres importantes obras. Lo único que pretendemos es testimoniar nuestra admiración, nuestro afecto y nuestra gratitud a este incansable investigador.

Hace ya algún tiempo que Euskaltzaindia pensó en unir en un tomo estos tres trabajos fundamentales de Onomástica de su académico de honor. Y es de justicia decir que desde el primer momento encontramos la más favorable de las acogidas en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Institución que también con toda justicia concedió a Gerardo López de Guereñu Galarra la Medalla de Oro de la Ciudad.

Sería volver sobre cosas conocidas hablar de la información aportada en este libro, información abundante, exacta y fiable. Se trata de unos trabajos bien tramados, cuya consulta se hace ahora más fácil, ya que antes se encontraba sólo en revistas, y en el caso de *Toponimia alavesa* en varios números diferentes del *Anuario de Eusko Folklore* que fundara aquí mismo el casi centenario José Miguel de Barandiarán. También sería ocioso mencionar el partido que a estos materiales se ha sacado y sin duda se sacará, y lo mismo cabe decir de otras obras de López de Guereñu, como *Voces alavesas*, editado por Euskaltzaindia en 1958 como número monográfico de la revista *Euskera*, que junto con el *Vocabulario* de Baraibar constituyen dos hitos en la lexicografía que llamaremos regional, a riesgo de que alguien se moleste; *Botánica popular alavesa*, o *Alava, solar de arte y de fe*, que en la jerga se ha venido llamando el *Guereñu*, como en paleografía española se dice el *Miralles*.

No descubro nada si digo que todos los trabajos de López de Guereñu revelan un amor intenso y una fidelidad sin límites a su tierra y sus gentes. Fruto de ese amor y esa fidelidad es la recogida cuidadosa, monacal, de nombres de lugar y de palabras, de costumbres y de canciones, de estudios históricos y artísticos.



Hay, no cabe duda, un aire de tristeza y nostalgia en toda esa obra, pues López de Guereñu es testigo y notario de la desaparición de muchos de los objetos de aquella recogida y aquel estudio. Mirad a vuestro alrededor: ayudando al paso del tiempo, la brutalidad humana (?) se ensaña con la naturaleza, nuestro paisaje rural y urbano se llena de ramplonería y fealdad. Buscaremos en vano el alma vasca en esos campos y ciudades, en el comportamiento colectivo (donde la vereda o *auzalan* agoniza), en el habla, las canciones y los juegos. Sociedad insensible, abúlica, ésta, que no reacciona, satisfecha con una interminable charlatanería.

* * *

Ohore eta zorion, etxean, denbora laburrean, atsekabe ugari izan dituzun horri. Ohorea, behiala Mitxelenak, ohorezko euskaltzain zure izendapenaren garaian esan zuen bezala, zerorrek ematen diozu Euskaltzaindiari. Bihoakizu zuri orain ohorea, gure zorion-agiantkatzearekin batera.

Zure lanak irakurritz edonor ohart daiteke euskaraz mintzo zela mendi eta zelaietan, Arabako parte handiengan. Azken mendeetan, gure axolagabekeria dela medio batez ere (zenbaitek besterik esan arren), izugarriro ostendu zaigu euskara arabarren ezpainetatik, eta izenak soilik gelditu, nahiz maiztxo aldatuak, mendi eta zelai horietan. Agian egun batez ezpain guztietara itzuliko da arbasoen hizkuntza. Beteko ahal da Donibane bezperaz dagidan hau!

LOS ARCOS NAFARROAKO HIRIAREN IZENA EUSKARAZ URANTZIA?

Bilbao, 1989-garreneko apirilaren 15-an

José María Satrustegi jauna
Urdiain

Adiskidea:

Hartu dut zurea *Los Arcos / Urantzia* dela-ta. Bertan Roman Felones-en eritzia zeure eskuz izkribaturik emaiten didazu. Lehenago izen horrezaz Iruñean tratatu zen, baina ni ez nintzen hori eztabaidatu zen batzarrean izan, eta ondorioz ez nuen eritzirik ere eman. Edozein modutan ere Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko udalen izendegia*-n, Bilbao 1979, "*Arcos (Los) / Losarkos = Urantzia*" ipinirik agertzen da. Nik neure aldetik printzipioz ez dut ezer euskarazkotzat emaiten diren ereduena kontra, batez ere bertako inoren borondate-sendimendurik horrela bortxatzen ez baldin bada. Baina hala ere historian zehar gauzak nola izan diren argitzea komeni litzateke, alderdi batera edo bestera makurturik erabakiren bat har baledi, —eta orain da, dirudienez, horretarako garaia—, zein eritzitan hartzen den zimendu ondo jakinik egin dadin. *Urantzia* izenak hartu duen jendearen arteko ezagupidean oinarritzen den borondatea besterik ez dela? Edo autoritate-argumenturen bat dagoela, nahiz eta *amicus Plato, sed magis amica veritas*? Edo dokumentazio zahar egokia dugula horrezaz? Edo beste arrazoiren baten hartzen dela zimentarri? Erran bedi zuzen eta behar den zehaztasunez zertan datzan, zeren uste baitut argi jakin behar dela zergatik egiten den, bai euskal munduan murgildurik gaudenen aldera begira eta bai besteren aldera begira.

Zeurean haren eritzia honela derautazu:

"1. Erromatarren gida-zerrendan *Curnonium* hiri euskalduntzat ematen dena *Los Arcos* izan omen daiteke. Tolomeoren gida liburuan dator izen hori. *Cornava* toki izena ba omen dago Bargota aldean, hala ere Los Arcos eta Lazagurria bitartean aukitzen den mendi tontorrak itxura gehiago dukeela aipamenaren arabera.

"2. Erromatarren aurreko aztarnak aurkitu dira, batez ere zeltarrenak, eta *báscones* izeneko tokiren bat ere badute herrian.

"3. *Urantzia* izena Aymeric Picauden *Codex Calixtinus* liburutik hartu omen zuen Altadill jaunak. Laugarren liburuaren III.kapituluan honela dio: *Urantia quae dicitur Arcos*.

"4. Herriko futbol taldeak *Urantzia* du izena. Herrian badago ostatu bat ere izen bera daramana. Ahotan dabil beti izen hori.

"Alderdi horretatik ez dago inolako eragozpenik, dio Felones jaunak, izena zerrendan sartzeko. Ez hori bakarrik, bertako biztanleek aho batez uste dute *Urantzia* dela euren herriaren aitzinako **euskal izena**.

"Gobernuko Sailburuaren eritzia Los Arcos-ko seme baten eritzia da denbora berean, eta garbi dago Euskaltzaindiak ezin duela *Urantzia* (*Urantzia?*) herri izena zerrendatik kendu. *Los Arcos* lehenik, eta *Urantzia* bigarren izen bezala."

Honaino zure hitzak aldatu ditut. Barkadazu oker leudekeenak zuzentzen ahalegintzen baldin banaiz ondorik:

Curnonium delakoarena alde batera utzirik, non ere kokaturik egon bailedi zuzenean ez baitu ez *Los Arcos* eta ez *Urantzia* formekin zer ikusirik, irakur dezagun *Codex Calixtinus* delakoak dioena:

Esku artean dut Jeanne Viellard-en *Le guide du pèlerin de Saint-Jacques de Compostele. Texte latin du XII^e siècle, édité et traduit en français d'après les manuscrits de Compostelle et de Ripoll*, cinquième édition, deuxième tirage, Paris 1984. Hartan agertzen dena hau besterik ez da:

"Capitulum III.—De nominibus villarum itineris Sancti Jacobi... inde Stella que pane bono et optimo vino et carne et piscibus fertilis est, cunctisque felicitatibus plena. **Inde est Arcus**, inde Grugnus, inde Villa Rubea, inde urbs Nagera, inde Sanctus Dominicus, inde..."

"Capitulum VI.—De fluminibus bonis et malis qui [in] itinere Sancti Jacobi habentur... Ad Stellam decurrit Aiega; ipsa est limpha dulcis, sana et optima. **Per villam que dicitur Arcus** decurrit aqua letifera, **et ultra Arcum ad primum hospitale, inter Arcum scilicet et hospitale idem**, decurrit aqua letifera jumentis et hominibus bibentibus eam. Ad villam que dicitur Turres, in terra scilicet Navarrorum, decurrit flumen letiferum jumentis et hominibus bibentibus illud. Inde..."

Alderdi batera utzirik autorea ibaietako uren beldur zela ez dut gidaren inongo partetan aurkitzen *Urantzia*-rik.

Liburu beraren "Apendices", II-garrenean, "Pèlerinage du seigneur de Caumont à Saint-Jacques de Compostelle" 1417-garren urtekoa ere biltzen da. Hor "De l'Estelle **als Arcos**, IIII lieues; **Dels Arcos** al Grunh, V lieues", 134 orr., eta "Du Gronh **als Arcos**, V lieues; **Dels Arcos** a l'Estelle, V lieues" erraiten da frantses zaharrean, eta hiri-izenean artikulua plurala frantsestuturik agertzen da, normala baitzen adaptazioa egitea transparentzia osoko hitza zenez gero, —eta oraindik ere hala da—, eta euskaldunek ere *Arkueta* erabiltzen zuketean hizpideak eraginik euskaraz izen berbera aipatu beharrean aurkitzen baldin baziren, gogoan hartzen baldin badugu *arku* hitza gure artean zeharo euskarazko bihurturik agertzen dela, edozein herri euskaldunetan *arkupeak* aurkitzen baititugu, eta izan ere nor ez da umetan *arkupetan* jolasean ibili, edo nork ez du halako lekurik inoiz zapaldu?

F. Carreras Candi-ren gidaritzapeko *Geografía general del País Vasco* delakoan, "Provincia de Navarra", II, Barcelona [1911-1925 bitartean tomo guztiak],

615 orr., Julio Altadill-en eskutik helduriko tomoan, *Los Arcos* hiriari dagokion kapituluari, ordea, labur labur eta beste expikaziorik gabe erraiten da: "Su nombre antiguo, **Urantia**". Eta ez da inolako iturririk emaiten. Eta liburu beraren aurkibidean, 946 orr.: "Losarcos.— Nombres anteriores: Arcum, Arquos (*Guía de peregrinos*, de *Código Calixtino*); **Urantia** (vasco), anotado en la página 615 [gorago izkribatu den berbera, baina hemen '(vasco)' gaineratzen dio; emaiten duen graphia, ordea, izena jatorriz zein ere hizkuntzatan eraikirik bailitz, oraingo erdal ahoskatzeari dagokio, besterik erraiten ez denez gero]".

Geographia hori agertu baino zenbait denbora geroago Julio Altadill-ek berak "De re geographico-historica. Vías y vestigios romanos en Navarra", *Homenaje a D. Carmelo de Echegaray*, San Sebastián, 1928, argitaratu zuen, eta bosgarren kapitulu "De Logroño a Estella" deritzanean, 537 orr. eta hurrengoak, *Codex Calixtinus* aipatzen du seigarren kapitulutik zati bat bertara aldaturik eta ez dio ezer gorago kopiatu dugunetik desberdin denik, orthographiazko punturen bat edo beste salbu. Eta "Los Arcos" delakoaz hau dio: "Por su situación se aproxima mucho a la de la población romana denominada *Kurnonium* por Tolomeo en su *Geografía ibérica*; pero determinadas circunstancias concurrentes en el paraje denominado *Oya de Cornaba*, distante de Los Arcos 5 kms. autorizan a suponer estuviera situada dicha población en ese paraje precisamente, el cual ostenta vestigios de vetustas edificaciones y donde se registran hallazgos de monedas y lápidas con distintas inscripciones; sin embargo, la corta distancia señalada, nos tolera que indistintamente empleemos uno u otro nombre".

Hemen, ordea, *Urantia*-z ez dio ezer, eta gainera aldi horretan autoreak ez zuen inolako oztoporik ipintzen *Los Arcos* hiriaren izen ezaguna *Urantia* ez den beste izen batekin txandaka ledin. Baldin izen zaharra omen den *Urantia*-ren izaitea baieztatzeko behar den moduko iturririk ezagutzen bazuen zergatik ez du aipatzen? Hitz zaharra baldin bada non batu zuen aipaturiko geographian emaita-ko? Baldin inon agertzen balitz *Los Arcos* hiriari ote dagokio benetan? Inork horrezaz ezer baleki eskertzeko litzateke nonbait argituko balu. Egia erraiteko zer aurkitu ere Altadill-en lan *BCMN* delakoan datozenak batez ere arakatzeko gogoia izanarren ez dut oraindik haiek begien mendean hartzeko hauturik izan.

José Yanguas y Miranda, *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, tomo II, Pamplona 1964, 106 orr. eta hurrengoak, delakoan *Los Arcos* hiriaz hitz egiten da, eta bertako Foru 1175-garren urtean Santxo errege nafar Jakintsuak emanikoa argitaratzen da, eta ez da *Urantia*-z deus erraiten. Aipatzen direnak dira: "in illo meo castro de **Losarcos**", eta "Et illi qui de **Santo Sole** vel de **Torres** aut de **Armañanzas**, vel de **Eregortes** et de **Villanova** ibi venerint populare, tales habeant hereditates patrimonii sui, quales illas quales in **Losarcos** comparaverint".

Aipatu den Forua eman zedin baino lehen, 1087-garren urtean, izkribatzen da *Los Archos* Leireko dokumentazioan Ricardo Ciérvide-k bildurikoaren arauera, ikus "Índice completo de topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leire (II)", *FLV*, n.º 25 (1977), 125 orr.

Luis de Eleizalde † "Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas (conclusión)", *BRSVAP* (1964), 120 orr., delakoan ez da *Urantia*-rik agertzen dagokion ordea alphabetikoan. Biltzen den bakarra "*Urantzu*, caserio de Irún (Gip.)" da, gure artean maiz entzuten dena.

Goian Felones-enganik bildurikoetan aipatzen den *Báscones* toki-izena herrian existitzen baldin bada datu erranguratsua litzateke, zeren halako toponymoak Erdi Aroan normalki Euskal Herritik kanpo euskaldun ez ziren lekuetan sortu izan baitziren alderdi bakoitzeko erdaldunen artera kanpotik euskaldun multzo bat heltzerakoan. *Báscones* erdaldunek zeritzaten, noski, latinez *uascones* baitzen gentilizioa. Euskaldunek bere arteko jendeari, ordea, ez zeritzaten horrela. Ezaguna denez *Báscones* erako toponymoak Burgos-en, Asturietan, eta abar, agertzen dira.

Edozein modutan ere 1350-garren urteko Estellerriko "Libro del monedaje" delakoan ikus daitekeenez bazen hirian "Quinnon del castro" bezalatsu "Quinnon de Roytegui" ere, "el Mercado" delakoaz gainera, eta argi dago *Roytegui* euskal formaziokoa dela, cfr. Juan Carrasco Pérez, *La población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona 1973, 331-333 orr. Beraz, han inoiz euskaldunak ere bazirela ezin uka daiteke. Uneren baten erroitegiarren artean? Agian.

Ez zen, noski, Prudentzio poeta kristau kalagurritarraren garaian horrela, zeren laugarren mendean latinez baitio: *Nos Vasco Hiberus diuidit / binis remotos Alpibus / trans cottianorum iuga / trans et Pyrenas ninguidos*, 'Ebro baskoiak bereizten gaitu [Erroma-tik], bi Alpeak daudela gailur kotioen atzean eta baita Pirineo elurrez beteen atzean ere', *Peristephanon*, 2, 537-540, eta: *Bruta quondam uasconum gentilitas*, 'baskoien noizbaiteko jentiltasun burugabekoa', *Peristephanon*, 1, 94.

Ikusten denez garai horretan Ebro ibaia baskoitzat hartzen zen Kalagurritik begiraturik. Baina gogora ekartzen baldin badugu ezen Kalagurri latinezko autore fama handikoak izan zirela alde batetik, eta geroago inguruan iparralderantz ere zer agertzen den toponymiar dagokiola bestetik, pentsatzeko da haren eraginean zegoen eremua franko goiz eta sendo erromanizatu zela.

Badirudi bisigotoen garaian baskoiak eremuz urriturik zeudela haiekin izan zituzten burruka-guduketarik ageri denez. Esteban Garibai mondragoarrak horrez dio: "Los Vascones Nauarros, conjuntos a los Pireneos, no contentos de las guerras passadas començaron a molestar y robar la España Tarragonesa de las riberas de Ebro, a cuya resistencia saliéndolo el Rey Suinthilla los apaziguo, y en punicion de su audacia y daños les compeliò en este año, que ya era de seys cientos y veynte y dos a fabricar en las tierras de sus fronteras vna ciudad llamada Olit, que agora es villa del reyno de Nauarra, cabeça de vna de las cinco merindades en que està diuidida en nuestros dias el reyno de Nauarra. Esta villa de Olite en la lengua Cantabra, que era la mesma que estos Vascones habluauan, es aun oy dia llamada **Erriuerri**, que significa **tierra nueva**, como lo era esta por ellos edificada, aunque otros corrompiendo el nombre dizen Arriberri, que significa piedra nueva", *Compendio Historial*, Barcelona 1628 [lehenengo edizioa: Ambers 1571], I tom., XXX kapitulua, 285 orr.

Hau ontzat hartzen da Hitoriaz arduratzen direnen artean. A. Barbero eta M. Vigil-ek, *Sobre los orígenes sociales de la reconquista*, Barcelona 1974, 59 orr., Isidoro Sibilia-koa aipatzen dute, *Hist. Goth.*, ES, VI, 503 orr.: "La llegada del rey [Suintilla, 621-garren urtean] les llenó de terror, de tal manera que como si reconocieran los derechos debidos, deponiendo las armas, con gesto suplicante se le sometieron enseguida, dieron rehenes y construyeron la ciudad de los godos Olite a sus expensas y con su trabajo, prometiendo someterse a su reino y autoridad y cumplir lo que les fuera mandado".

Euskararen mugarik agerienak ez zeuden Garibai-ren garaian, eta seguru asko lehenago ere ez, Olite-tik urrun, *Erriberri* hitzak berez arazo horrekin zer ikusia baitu, eta joan den mendean Luis Luziano Bonaparte-k eginiko mapetan guti urriturik agertzen dira. *Los Arcos* alderditik hegoalderago, ostera, *Lazagurria* dago, aipaturiko *Euskal Herriko Udalen izendegia*-n euskaldunen artean erabiltzeko *Lizagorria* forma gomendatzen dela, 1330-garren urteko Estellerriko fogera-zioan *Liçagorria* dokumentatzen baita, ikus Juan Carrasco Pérez, *La población de Navarra en el siglo XIV*, 276 orr. Azken kasu honetan ezin dudarik egin daiteke euskaldunek jatorrizko euskal forma emanik sorturikoa dela, bigarren elementu den *-gurria* adjetibo artikuluduna duela, *-gorria* formaren aldagarri zaharra, gero [e]Liza- lehenengo partea zerbait aldaturik toponymoak erdarazko ahoskatzez iraun badu ere.

Besterik gabe agurtzen zaitut,

Alfonso Irigoien

ERASKINA

Aita Frantzisko Ondarra-k ere Donostian Euskaltzaindiak apirilaren 28-an egin zuen batzarrera argibidea ekarri zuen, eta izan ere *Urantia*-ren iturria ez da Aymeric Picaud-i leporatzen zaion Santiago Konpostelako erromesen gida, *Historia Turpini* delakoaren phantasiaz beteriko textua baizen, (1), han baitio: *Urantia qui dicitur Arcus*, ikus *Liber Sancti Jacobi Codex Calixtinus, I Texto* (Transcripción de Walter Muir Whitehill), Santiago de Compostela 1944, IV, III, 304 orr.

(1) "Crónica del arbobispo Turpín o Pseudo-Turpín, que narra la entrada de Carlomagno en España con una serie de hazañas legendarias, la derrota de Roncesvalles y muerte de Roldán, y otros varios hechos", cfr. *Liber Sancti Jacobi Codex Calixtinus* (Traducción por los Profrs. A. Moralejo, C. Torres y J. Feo, dirigida, prologada y anotada por el primero), Santiago de Compostela 1951, VII orr.

Aymeric Picaud-i ez zaio leporatzen V-garren liburua baizen, "que fue sustituido por el IIII al ser arrancada la Historia de Turpín", *op. cit.*, 1 nota, 495 orr.

Buchner-ek Reinaldo de Dassel-i leporatzen dio *Historia Turpini* delakoaren autoretza, cfr. Luis Vázquez de Parga, José M.^a Lacarra, Juan Uría Riu, *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela*, (Consejo Superior de Investigaciones Científicas) Madrid 1949, (edición facsímil, Asturias 1981), I, 176, 505, orr. "Probablemente utilizarían también los peregrinos —diote autore berek beste alde baten— un camino que va más a la derecha para entrar en Igúzquiza, cuya iglesia se dedicaba en 1179, para seguir a Villamayor al pie de Monjardín. Monjardín era un castillo asentado sobre una roca de muy difícil acceso que dominaba toda la región. Jugó papel importante en la Reconquista —fue tomado por Sancho Garcés I a principios del siglo X— y posteriormente en las luchas de francos y navarros. La importancia que para los pobladores francos del camino de Santiago tenía la ocupación de Monjardín explica que su recuerdo pasara a la 'Crónica de Turpín', donde, desfigurada la historia, aparece Carlomagno expulsando de Monjardín a Furro, príncipe de los navarros. El camino sigue por una llanura con ligeros accidentes hasta Los Arcos, que la 'Crónica de Turpín', ignoramos con qué fundamento, llama también *Urantia* (*Urantia que dicitur Arcus*)", II, 146 orr.

Jose M.^a Satrustegi-k horren itzulpena eman zuen, ikus *Liber Sancti Jacobi Codex Calixtinus* (Traducción por los Profrs. A. Moralejo, C. Torres y J. Feo, dirigida, prologada y anotada por el primero), Santiago de Compostela 1951, 411 orr.

Ondarra-k, gainera, antzekoa den *Urranci* ere biltzen du, *Legarda*-rekin batera, hamarrenak direla-ta Abartzuza eta bere Irantzuko monasterioari atxikirik. Textuan ez da egiten, alabaina, *Los Arcos* delakoaren inolako aipamenik: “In Aezquiê villa quae dicitur Abarçuça integra cum Ecclesia sua, et suo monasterio, quod dicitur Yranço cū suis decimis in *Vrranci*, et in *Legarda*, vel omnibus, quae pertinent ad eū”, cfr. P. Sandoval, *Catálogo de los obispos que ha tenido la Santa Iglesia de Pamplona*, Pamplona 1614, 30 orr. Hori berori agertzen da P. Joseph de Moret-en *Annales del Reyno de Navarra* delakoan, tomo I, Pamplona 1766, libro XII, cap. IV, 618 orr., autoreak gaztelaniara itzultzen baitu Sandoval-en latinezko-tik Era-ko 1065-garren urtea aipatzen duen textua, hau da, Era kristauko 1027-garrena. Sandoval-enak, ordea, Era-ko 1045-garrena darama, hau da, Era kristauko 1007, eta zer agertzen baita hura besterik ez da hemen emaiten, kritikarik gabe: “En Aezcoyen el lugar de Abarzuza enteramente con su Iglesia, y su Monasterio, que se dice de Iranzu, con sus decimas en *Urranzi*, y en *Legarda*, y quanto le pertenece”, eta tomo II, libro XIV, cap. IV, § 64, 104 orrialdean berriz aipatzen da beste kontextu baten: “Lunes a primero de junio [de 1075] se hallaba el Rey en Naxera. Y en ella dió franqueza a los Moradores de *Urranci* a honor de Santa Maria de Pamplona, y de su Obispo don Belasio.” Bigarren honetarik ikusten denez Moret-ek ere XVIII-garren mendean ez du *Urranci* hori *Los Arcos*-ekin parekatzen, azken honezaz halakorik aipatu gabe beste leku batzutan mintzatzen baita, eta ez dugu batere arrazoirik aurkitzen bat direla uste izaiteko, bai, ordea, kontrako eritziairen alde agertzeko, emaiten zaigun informazioaren arauera. Zein lekutan zeuden, ordea, *Urrantzi* eta *Legarda* direlakook? Irantzuko dokumentazio zaharrik eskuratu ahal balitz hark argituko luke agian, bestelakorik aurki ez bagenez. Irantzuko paperak 1813-garren urtean erre ziren, alabaina, Lizarra-ko San Frantzisko komentuan, hara eramán baitziren, dokumentu batzu salbatu baziren ere. José María Jimeno Jurio-k “El libro rubro de Iranzu” argitaratu zuen Madrilera *Archivo Histórico Nacional*-ean gordetzen den izkribuaz baliaturik, PV, 120-121 (1970), 221-269 orr., gerra aurrean José M.^a Lacarra-k *RIEV*-en bilduriko oharren parean osoa, baina bertan ez dut bila gabiltzanaren lorratzik aurkitu.

Juan Carrasco-ren *La Pob. de Nav. en el s. XIV* delakoan *Urranz* eta *Urança* herri edo herrisen artean ageri ez badira ere pertsona izenei atxikirik aurkitzen dira nongoak diren erraiteko: *Garcia d'Urranz / Xemen Periz d'Urranz* (1366 urtea, PN-XIV, F. Sang., 493 orr.) *Ayuar*-en, *Franca d'Urança* (1330 urtea, PN-XIV, F. Est., 248 orr., *Falces*-en, *Lope d'Urança* (1330 urtea, PN-XIV, F. Est., 288 orr.), *Oteyça*-n. Nolanahi dela begiratu egin beharko litzateke ondo irakurririk dauden. Bada, ordea, *Garcia Vrranci* ere (1366, PN-XIV, F. Pamp.-Mont., 558 orr.), en *Senossiaín*, *Val d'Oylo*, azkenengo bokal eta guzti. Gogoan hartu behar da, beste alde batetik, zerrenda horietan *Los Arcos* forma normalki agertzen dela hango jatorria adierazteko: *La muyller de Martin de los Arcos* (1330 urtea, PN-XIV, F. Est., 280 orr.) *Arroniz*-en, *la muijer de Johan de los Arquos* (1350 orr., PN-XIV, L. mon. Est., 310 orr.), *Larraga*-n. Zuzen irakurriak izanez gero berdinak ote dira *Urranz* eta *Urança*, eta baotedute loturarik *Urranci*-rekin, eta zein ote zen kokalekua?

Edozein modutan ere Ondarra-k dio: “Bestalde, *Legarda* hori Mendabia aldean zegoen herri bat izan liteke, eta Urantzia ta Mendabia elkarren ondoan

daude”, eta José María Lacarra-k argitara emaniko *Colección diplomática de Irache*, I, Zaragoza 1965, dok. 105, 127 orr. eta hurr., aipatzen du 1120-garreneko dokumentua agerian ipinirik: “Inter *Mendauiam* et Uilla Mesquina ad *Legardam*”, eta “super uiam que tendit de Uilla Mesquina ad *Legardam*”. Izan ere *Legarda* hori berori, beste *Legarda* batzu eta baita *Legardeta* plural bihurtua ere existitzen baitira, aipatzen da 1802-garren urtean Madrilén argitaraturiko *Diccionario geográfico-histórico de España* delakoan: “[gr[anja] del 3.º part. de la mer. y ob. de Pamplona, r. de Navarra, en los términos meridionales de Mendavia, y á medio quarto de esta villa: en lo antiguo fué villa, en el día solo tiene una casa junto á la iglesia que es muy antigua, y en ella se venera una imagen de nuestra Señora: está regida por un prior benedictino del monasterio de Irache á quien pertenecian sus tierras, y el prior exerce la cura de almas en sus comensales y en los de Imas, distante media legua. La jurisdiccion civil es del alcalde de Mendavia”. Ikusten denez *Legarda* hori Iratxe-ren jabetzapekoa zen gure garaitsurarte, eta ez da Irantzu-rik ezertako aipatzen.

Iratxe-ko dokumentu berean ageri dela dio *Cornoino* ere, eta hala da izan ere: “usque ad Lopazcheta et ad terminum de *Cornoino*”. Beranduago, gainera, 1222-garren urte inguruan, bilduma berean *Lope Fortuniones de Cornonno* eta *Sancho Fortuniones de Cornonno* ere agertzen dira (dok. 325). Oso hegoaldekoa izanik ere *Lopazketa* toponymoa formazioaren aldedik euskaldunek sorturikoa da, *Lopaz-* anthroponymoari *-(k)eta* plurala itsatsi baitzitzaion, txistukariaren ondorik *-k*-dun aldagarria agertzen dela. Beste horrenbeste erran liteke *Legarda-z*, oinarrian *legar* euskal hitza baitu, *Legarra*, *Legarreta* eta halakoetan bezala.

Halaber Ondarra-k P. Germán de Pamplona, O.F.M.Cap.-ren lana aipatzen du, “Los límites de la Vasconia hispano-romana y sus variaciones en la época imperial”, *Problemas de la Prehistoria y de la Etnología vascas* (IV Symposium de Prehistoria Peninsular bajo la dirección del Dr. D. Juan Maluquer de Motes), Pamplona 1966, 218 orr., bertan hitz egiten baita *Curnonium* delakoaz, eta ikerketa honetarako zeharkakoa baizen ez bada ere hemen biltzen dugu: “la ciudad de Curnonium, vascona según Ptolomeo, (II, 6, 66), identificada y localizada por mí en la medieval *Cornoino*, cuyos términos confinaban con los septentrionales de la villa de Mendavia, situada en la orilla izquierda del Ebro y dentro del ‘Vasconum Ager’. El Becerro de Hirache nos ofrece una memoria documental del año 1120 titulada de ‘conueniencia de Mendavia y Villamezquina’. En ella se trata del pleito sobre términos entre Mendavia y Villamezquina, hoy despoblado, al Oeste del Ega inferior, ambas con sus términos situados a uno y otro lado de la ‘*Via qua itur ad Stellam*’ por Lizagurria (hoy Lazagurria) y Los Arcos. En él se nombra la población de Cornoino, confinando sus términos meridionales con los septentrionales de Mendavia y Villamezquina. Es perfectamente identificable con Curnonium, ciudad vascona según Ptolomeo. Y está situada según el documento de Hirache muy al Oeste del curso inferior del Ega. No hay base alguna para identificar Curnonium con la Hoya de Cornaba a 5 kilómetros de Los Arcos y en su término, como lo hace el P. Moret”.

Hala ta guztiz ere Leire-ko dokumentazioan, ikus Angel J. Martín Duque, *Documentación medieval de Leire* (siglos IX-XII), Pamplona 1983, *ipsam uillam que dicitur Cornonia de Illos Arcos* irakurtzen da 1113 urterako, dok. 253, eta nota baten erraiten da B dokumentuak *Cornoia* duela, eta C-n datorrena ezin irakurritzakoa dela. Ciérvide-renean *uilla que dicitur Cornoia de illos Arcos* dator, *FLV*,

25 (1977), 135 orr. Martín Duque-ren edizioan ere irakur daiteke 1087 urterako, dok. 123, goragoko aipuko *et illas terras de Los Archos totas*. Aipatu beharra dago, beste alde batetik, mende bi geroago, 1330-garren urteko dataz, emakume bat *la Cormoyna* deitzen dela *Açagra*-n (PN-XIV, F. Est., 257 orr.).

Bilbao, 1989-garreneko maiatzaren 6-an.

Alfonso Irigoien

LOS ARCOS-EN EUSKAL IZENA URANTZIA OTE?

1989-IX-6/9
Frantzisko Ondarra
Lekaroz

Jose Maria Satrustegui J.k 1989. urteko Apirilaren 5.ean idatzitako gutun bat hartu nuen zenbait egun geroago. Román Felones J.k bere herriaren euskal izenari buruzko zenbait gauza jakingarriren berri eman ziola-ta, horiek guri azaltzen zizkigun eskutitz horretan. Aipatzen ziren bertan *Curnonium*, *Cornava*, *Urantzia*, etab.

Argigarri gerta zitekeelako, bidali nuen nere aldetik orrialde bat euskaltzain guztien artean banatua izan zedin. Hemen ikusiko duzuen da, pixka bat zabaldurik aipamenak eta testu inguruak.

1. URANCIA

“Burgas, Nageras, Kalagurria, Urancia que dicitur Arcus, Stella...”. hau irakurtzen dugu hemen: *Liber Sancti Jacobi. Codex Calixtinus. I*, Texto, Transcripción de Walter Muir Whitehill. Santiago de Compostela, MCMXLIV, Liber IV, Capitulum III, página 304.

2. URRANCI

“Abarçuça integra cum Ecclesia sua, et suo monasterio, quod dicitur Yranço cu(m) suis decimis in Vrranci, et in Legarda”.

Ik. Prudencio de Sandoval-en *Catálogo de los Obispos que ha tenido la Santa Iglesia de Pamplona...* En Pamplona, por Nicolás de Assiayn, Impressor del Reyno de Nauarra. Año M.DC.XIII., 30. or.

3. URRANZI

“Abarzuza enteramente con su Iglesia, y su Monasterio, que se dice de Iranzu, con sus décimas en Urranzi, y en Legarda”.

Ik. P. Joseph de Moret-en *Annales del Reyno de Navarra compuestos por el...*, Tomo I. En Pamplona: En la Imprenta de Pascual Ibáñez, Impressor, y Mercader de Libros. Año MDCC.LXVI. Cf. XII liburua, IV burua, II paragrafoa, 17 zenbakia eta 618 or.

N.B. Sandovalen *Urranci* eta Moreten *Urranzi* agiri batean daude, Sandovalek agiri hori latinez dakarrelarik eta gaztelaniaz Moretek. Bestalde, agiri hori c. 1031. urtekoa da, Goñi Gaztambidek dioenez.

Ik. José Goñi Gaztambide. *Historia de los Obispos de Pamplona. I, Siglos IV-XIII*. Pamplona, 1979, 176. or.

Legarda hori —agiri horretan dagoen “in Vrranci, et in *Legarda*” pasartekoa— *Mendabia* aldean zegoen herri bat izan liteke, eta *Urantzia* eta *Mendabia* elkarren ondoan daude.

Ik. José María Lacarra. *Colección Diplomática de Irache. Volumen I (958-1222)*. Zaragoza, 1965, 127 h. or.

“Inter *Mendauiam* et Uillam Mesquinam habuerunt iudicium...”, eta “super uiam que tendit de Uilla Mesquina ad *Legardam*”.

Agiri hori 1120. urtekoa da, eta bertan azaltzen da *Cornoino* ere: “usque Lopazcheta et ad terminum de *Cornoino*”.

4. CURNONIUM

Oraintxe aldatu dugun pasartean ikusten dugu *Cornoino/Curnonium* hemen zegoela. Honi buruz,

Ik. P. Germán de Pamplona. *Los límites de la Vasconia hispano-romana y sus variaciones en la época imperial*. Problemas de la prehistoria y de la etnología vascas. IV Symposium de Prehistoria Peninsular bajo la dirección del Dr. D. Juan Maluquer de Motes. Pamplona, MCMLXVI. Cf. 218 h. or.k.

HILBERRIAK

JESUS MARIA LEIZAOLA SANCHEZ

(1896-1989)

Jesus M.^a Leizaola lehendakari ohia eta euskaltzain ohorezkoa Donostian jaio zen 1896ko Irailaren 7an. Lekarotzen estudiatu zuen batxilergoa. Gasteizen konbalidatzeko. 18 urte bete zituen Deretxo lizentziatura egin zuen Valladolid-eko Unibertsitatean eta oposizioz sartu zen Gipuzkoako Diputazioan Letradu nagusi. Handik Bilboko Udalera eta berriz Gipuzkoako Diputaziora itzuli. 1917an Diputazioak autonomia eskariz egin zuen mezuaren partaide izan zen. Ordurako Eusko Alderdiko bazkidea zen eta 1922an Eusko Ikaskuntzak Gernikan eratu zuen Batzar Nagusietan presondegiratu Euskal Herriaren batasuna eskatzearren. Baina, handik laster kaleraturik, 1925ean, Ekonomia Kontzertuak berrietzeko idazkiaren partaideen arteko aurkitzen dugu, eta lau urte geroago Eibarren ELA-STV-ko Batzarrean ordezkari. Garai hartan *Euzkadi*-ren administrazio buru. Errepublikaren etorreran Gorteetako Diputatu izendatu zuten, 1931-1933 legislaturan, Estatutuaren alde jokatu.

1936ko Uztailaren 18an militarrek jaiki zirenean Gipuzkoaren defentsarako antolatu zen batzordeko, PNV/EAJ-ren izenean. Urte bereko urriaren 7an Eusko Jaurlaritzako lehendakari orde hautatu zuten, Justizia eta Kulturako karterarekin, beronen agintaritzapean Euskal Herriko Unibertsitatea sortuz, horren ondorioz Basurtoko Ospitalean Medizina Fakultatea jarritz. 1936an, Bizkaia erortzean, Unibertsitatea eta Labe-Andiak salbatzeko eratu zen defentsaren buru izatera iritsi zen. Gerra bukatu arte Jaurlaritzaren egoitzan iraun zuen Barcelonan. Gero, Paris-en, 1941ean nazien aurkako erresistentziaren laguntzaile sartu zen, bereziki De Gaulle-ren FFI-rekin, eta Gestapo-koek atxilotu zuten, baina libratua izan zen. 1944aren azkenaldera Euskal Gudarostiak antolatzeko deia egin zuen eta hortik Bordele liberatzeko partaidetza. Berari zor zitzaion Bloque Nacional Vascon prestakuntza, Baionako paktua sinatzera helduko zena.

1946an erbesteko Eusko Jaurlaritza antolatzen partaide, J.A. Agirre zenaren gabinete hura Adenauer, Schumann eta De Gasperi-rekin Europako etorkizunari buruzko plangintzetan parte hartzeko. 1960an Jose Antonio Agirre lehendakaria hiltzean, haren burugotzaz jabetu zen Donibane Lohizunen zin eginez eta Paris eta Baionako Beyrisse egoitzetatik 1979ra bitartean bete zuen lehendakaritza, Gernikako Estatutua onartu arte. Hori da, laburki, politika gizonaren ibilbidea.

Baina, guri hemen, egia esan, euskaraz eta euskararen alde egin zituen lanak adieraztea komeni zaigu, zeren horiegatik irabazi bai zuen euskaltzain ohoretza.

Esan beharrik ez dugu maila horretako gizonak bere bizitza guztian izan zuela euskararen alderako kezka eta guztiok oroituko zarete, etorri berri, nola bisitatu gintuen Urkixo Bibliotekan goizeko bilkuran geundelarik.

1921. urtean “Yakintzarako gaitasunak” izenburuz, Donostian Euskal-Esnaleak antolaturik eman zuen hitzaldia, handik hiru urtetara argitaratu zen *Itzaldiak* zeritzan hirugarren sailean. Eta berak idatzia da *Enclopedia Hispano-Americana Espasa*-ren XXIII. tomoan datorren “Literatura Vasca” kapitulua.

Zenbait lan argitaratu zituen, batzutan Norbait izenordearen pean, euskaraz eta erdaraz, besteak beste, honako aldizkarietan: *Yakintza*, *Gure Herria*, *Iberia*, *Euzko-Gogoa*, *Euzko-Enda*, *Euzko Deya*, *Gaiak* eta *Muga*-n. Eta euskal literaturari buruz sei liburu aipagarri Buenos Aires-ko Ekin Argitaldarian, honako izenburuz: *Estudios sobre la poesía vasca*, 1951; *La crónica en la poesía popular vasca*, 1961; *1808-1914 en la poesía popular vasca y otros estudios*, 1965; *Los romances vascos (Uskal khantoriak) y sus relaciones con reliquias literarias de la prehistoria*, 1969; *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca*, 1974; eta, *El refranero vasco antiguo y la poesía euskérica*, 1978.



Horrez gainera, "Euzkadi barreneko euskaldunei" [manifestua] 1961ean Parisen eta "Urteurrena. En el aniversario" [J. A. Agirreren heriotze urteburuan] 1961ean Baionan. "Oyartzuarren oyartzuna" *Lekuona'tar Manuel jaunaren ome-nezko* II. tomoan, 1977an.

Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen 1984ko Azaroaren 30ean. Eta 1987ko Maitzaren 29an, Euskaltzaindiak Toribio Etxebarria zenaren mendeurrena ospatzean, Eibarko Udaletxean, T. Etxebarriaren oroitzapenezko hitzaldia eskaini zigun. Tamalgarria hitzaldi hura **Euskera**-n bildu eza. Gainera, Toribiok Bibliatik Eibarko euskarara itzuli zuen *Daniel-en liburua*-ren kopia bat eskaini zion, oraindik argitaragabea eta Jesus Maria Leizaolak gure "Azkue Biblioteka"-rako erregalatu zigun.

Leizaolak, legeei buruz, beste lan asko idatzi zituen eta guztien adibide zehatza ikus Jon Bilbao-ren *Eusko Bibliographia* lanetan, V. tomoko 32.orrialdean, X.eko 71-72 eta bigarren aldiko II.aren 749-750.orrialdeetan.

Gure herriagatik hainbeste egin duen gizon zintzoa 1989ko Martxoaren 16an zendu zen Donostian. G.B.

Juan San Martin

EUGÈNE GOYHENECHÉ

Uztaritzen jaio zen 1915.eko Ekainaren 15ean. Aita medikua zuen, ezagutua Uztaritzen eta Uztaritzeko inguruetan. Berrogoi urtez, lehen gerla haundiaren bukaeratik, 1919-tik eta 1960 arte Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari orokorra izanik, bere eginbidea bete zuen kantonamendua eta Euskal Herriaren alde. Eugène Goyheneche-k ezagutu zuen beraz, etxean eta familian zer zen egunero-ko politika, zer zen ere herriaren alde jokatzea.

Uztaritzeko eskolan ibili zen lehenik eta gero zazpi urtez segitu zituen bigarren mailako istudioak Saint Louis de Gonzague deritzan Baionako ikastetxean. Dударik gabe bazakikeen ikastetxe berean egona zela Sabino Arana Goiri berrogoi eta hamar bat urte lehenago. Bururatzen zituelarik batxillergoko istudioak, 1932-an ezagutu zituen orduko abertzaleak, Antonio Labayen, Ixaka Lopez Mendizabal, Aitzol, Agirre, Irujo, Landaburu eta abar, gehienak PNVko politikariak.

Urte berean, joan zen Pariserat, Sorbonako Unibertsitatean segitzen zituela goi-mailako istudioak, historia zela bereziki harentzat gai nagusia. “Ecole des Chartes” delako ikastegi nagusian sartu zen oposizioak irabazirik eta karrera burutzera zoan hasi zelarik 1939-an bigarren gerla haundia. Ez zen alferrik egon Parisen Espainiako gerla denboran, bilduz ikasleak Euskaldunen eta Euskotarren alde, harremanetan sartuz erbestean ziren Euskaldunekin, hala nola Rafael Pica-vea-rekin. Beraren kezka nagusia izan zen garai hartan Euskadirekin zituen lokarrien sendotzea, salatuz Gernikan egin zen abrekaria frantses intelektualen aintzinean. Ikusi zituen orduan, Verdier Pariseko kardinala, François Mauriac idazlea, Georges Bernanos idazlea, Jacques Maritain filosofoa, 1^o “*Aube*” egunkarian idazten zuten kasetalariak, “*La Jeune République*” alderdiko zuzendariak, denek, aho batez, salatzen zutela Euskaldunen kontra egin zen jukutria. Ordu haietan sortu zen Parisen *Ligue internationale des Amis des Basques* deitutako elkarte aipatu ditudan jende horiekin, Eugène Goyheneche zela diruzain-ordea.

Nahiz ez den Uztaritzeko Seminario ttipiko ikasle izan, nola ez zuen ezagutuko Piarres Lafitte apezka? Honek sortu zuen 1934-an *Aintzina* hilabetekaria eta honen inguruan bildu ziren orduko ikasle gazteak. Itzali zelarik hilabetekaria bi urteren buruan, Eugène Goyheneche-k segitu zuen Euskal Herrian Parisen hasi zuen lana, xede berarekin, euskaldun gazteen biltzea erakutsiz zer zen Euskal Herria, piztuz haien bihotzean abertzaletasunaren pindarrak. Bertze gazte batzu-

rekin sortu zuen 1943-ko Apirilaren 27-an *Euskaldun gazteen batasuna*. Bazkoko oporrak ziren eta gazteak, bereziki ikasle gazteak, bildu ziren Uztaritzen. Dantza taldeen federakuntza izan zen ez baitzen, orduan, bertzerik egin Alemanak zirelakotz nagusi. Oraindik oroit naiz egun hartaz, hain zuzen ere ezagutu nituelakotz bai Eugène Goyheneche, bai Mixel Labéguerie, Philippe Oyhanburu, Jean Hillau, Piarres Charritton, bakoitzak geroztik bere bidea urratu duela, bere ahalen arabera.

Gerla biharamuneko egunak egun latzak izan ziren Eugène Goyheneche-entzat. Auzitan ezarri zuten, Alemanekin harremanetan sartu zelakotz, baina denek bazakiten ez zuela deus gaizkirik egin. “Cour de Justice” delako baten aintzinean deiturik kondenatua izan zen, baina bi urteren buruan libratu zuten. Euskal Herritik urrundu zen eta Andaluzian bizi zelarik Trini bere emazte izan beharraren ezagutza egin zuen eta ezkondu zen.

Berriz etxeratu zelarik irakurtu zuen tesia “Ecole des Chartes” delakoan: *La vie économique et sociale dans la région bayonnaise du douzième au quinzième siècle*. Tesia horrekin agertzen da Eugène Goyheneche Erdi Aroko historialari fina eta jakintsua. Ez da sekulan publikatua izan, baina, dakidanez, Euskal Herriko Unibertsitateak publikatuko du laster.

Amnistiari esker sartuko da frantses administrazioan eta izendatzen dute Antilles-etako artxibategiaren buruzagi. Han egonen da zortzi urte (1952-1960) eta etortzen da berriz Bordeleko artxibategirat zuzendari-orde gisa (1960-61). Harremanetan sartuko da Bordeleko Unibertsitateko erakasleekin, Charles Higounet historilariarekin eta René Lafon euskalariarekin, haien zuzendaritza pean Iparraldeko onomastika aztertzen duela Erdi Aro garaian: *Onomastique et peuplement du Nord du Pays Basque (XIVe-XVe siècles)*. Tesia horren idazteko ikerketak egin zituen Londresen eta Iruñean erdi aroko dokumentu ez ezagunak baliatuz. Orotarat hamar mila baino gehiago leku izen eta jende izen presentatzen ditu sailkatzen dituela eskualde, herri eta parroketan. Haiei esker historilariak atera ditu ondorioak: nola jendeak lurrez jabetu ziren, nola segitu zituzten bide zaharrenak, aurre historiako eta Erromanoen garaiko bideak, nola eta noiz sortu ziren hiri berriak. Ez da dudarik bildu duela Eugène Goyheneche-k “corpus” haundi eta aberatsa, ordu artio ez ezagutua eta tesia horri esker, hobeki ezagutzen dela Iparraldeko historia Erdi Aroan. Damu da ez baita oraindik agertu holako lan bat. Pentsa daiteke Euskaltzaindiaren onomastika batzordea horretaz arduratuko dela altxor eder horren baliatzeko ahalmena ukan dezaten gaurko eta biharko historilariak eta onomastikalariek.

Tesia irakurtu eta, izendatu zuten Eugène Goyheneche Paueko Unibertsitate berrian. Euskal Herriko historia eta kulturaz arduratu da erakasle gisa 1967-tik eta 1981-artio. Hamalau urtez Paueko Unibertsitateko ikasleek segitu dituzte eman dituen klaseak. Denbora berean preparamen zuten *Le Pays Basque* deitzen den liburu aberatsa, 700 bat orrialde dauzkana. Liburu horretan, bere bizi guztian bildu zituen dokumentuak baliatuz, eskaintzen du Iparraldeko historia zehatza, orai artio agertu den bildumarik haundiena. Jadantik 1961-ean, Ikas batasunak galdegini, agertu zuen Iparraldeko historiari buruz liburuxka bat, ikasleentzat egina. Hastapen bat zen. Hemezortzi urteren buruan *Le Pays Basque* deitu liburuak (1979an agertua) bertzerik eskaintzen du. Norbaitek nahi balindadu zerbait jakin, behar du irakurtu liburu mamitsu hori. Ez dezake bertzerik egin hain

da aberatsa, xehetasunez betea, ikerlearentzat beharrezkoa, eskupean ukan behar duena nahi ala ez.



Ohore garaia etorri zitzaion Eugène Goyheneche-ri jadanik utzia zuelarik Unibertsitatea. Piarres Lafitte eta biak Euskal Herriko Unibertsitateak “doktor honoris causa” izendatu zituen 1982-an bi Uztariztar ohoratzen zituela egun berean, euskal gramatikalaria eta Euskal Herriko historilaria. Joan den urtearen Abenduaren 17-an Eusko Ikaskuntzat eskaintzen zion Manuel Lekuona saria bere obra guztiarentzat.

Egia erran, ez dira bakarrik kontutan hartu behar aipatu ditudan liburuak. Euskal Herriko aldizkarietan aurki daitezke haren artikulatuak, bereziki *Gure Herria* aldizkarian, honen zuzendarietarik izanik, *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* delakoan, ahortzi gabe *Bulletin du Musée Basque* deritzana. Azken aldizkari hau berpiztu nuelarik orain mende laurden bat Eugène Goyheneche-k txalotu ninduen baitzakien erakustoki batek, eta bereziki Euskal Erakustokia delarik, behar duela bere eginbidea bete herriaren onerako artikulatu zientifikoak eskainiz eta ez dit sekulan laguntza ukatu. Berrikitan agertu dudana *Hommage au Musée Basque* liburu mardulean parte hartu du, bere azken artikulatu eskaintzen zuela.

Zendu da nere adixkidea negu minean, 1989-ko Urtarrilaren goiz batez. Zazpi Euskal Herrietarik etorri da jendea ehorzketetarat, hain zen ezagutua orotan. Aipatu dut abertzale zintzoa, aipatu nahi ukan dut ere erakasle eta ikertzale jakintsua, Euskaltzaindiaren onomastika batzordearen kidea. Holako gizonak ez dira ahanzten. Goian bego.

Jean Haritschelhar

EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA

EGOITZA / SEDE

EGOITZAKO BULEGOAK / OFICINAS CENTRALES

1. EGOITZA/SEDE

Elkano, 5-1
48011 BILBO
Tf. 94-415 81 55; Fax. 94-415 81 44
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

2. “AZKUE BIBLIOTEKA”

Ribera, 6
48005 BILBO
Tf. 94-415 27 45
Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

3. GORDAILUA/ALMACEN

Carretera Bilbao-San Sebastián, s/n. Km. 4,5
Edificio Saga - 1.ª planta
48004 ETXEBARRI (Bizkaia)
Tf. 94-440 62 58
Arduraduna: Rosa M.ª Arza

ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES

ARABA/ALAVA

San Antonio, 41
01005 VITORIA/GASTEIZ
Tf. 945-23 36 48
Ordezkarria: Endrike Knörr

GIPUZKOA/GUIPUZCOA

Hernani, 15-Behetxea
20004 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN
Tf. 943-42 80 50
Ordezkarria: Juan Mari Lekuona

NAFARROA/NAVARRA

Conde Oliveto, 2-2
31002 IRUÑEA/PAMPLONA
Tf. 948-22 34 71
Ordezkarria: Jose M. Satrustegi

IPARRALDEA/PAYS BASQUE NORD

15 rue Port Neuf
64100 BAIONA
Tf. 07/33-59 25 64 26
Ordezkarria: Pierre Charritton

EUSKALTZAINBURUGOA / CARGOS ACADEMICOS Y EJECUTIVOS

Euskaltzainburua/Presidente: Jean Haritschelhar

Buru-ordea/Vicepresidente: Juan Mari Lekuona

Idazkaria/Secretario: Jose M. Satrustegi

Diruzaina/Tesorero: Jose Antonio Arana Martija

Iker Sailburua/Presidente Sección *Investigación*: Luis Villasante

Jagon Sailburua/Presidente Sección *Tutelar*: Endrike Knörr

Bibliotekaria/Bibliotecario: Pello Salaburu

Idazkari-ordea/Vicesecretario: Jose Luis Lizundia

Bibliotekari-ordea/Vicebibliotecario: Jose Antonio Arana Martija

Ekonomi Eragilea/Gestor Económico: Juan Jose Zearreta

Argitarapenen Eragilea/Ejecutivo de Publicaciones: Ricardo Badiola Uriarte

BATZORDEEN ORGANIGRAMA (*) ORGANIGRAMA DE LAS COMISIONES

IKER Sailekoak

Iker Sailburua: Luis Villasante

I. HIZTEGIGINTZA

Buru: Ibon Sarasola

1.1. Orotariko Euskal Hiztegia azpibatzordea

Buru-orde/Arduradun: Ibon Sarasola

Idazkari: Iñaki Segurola

Kideak: Hiztegiintza lantaldekoak

1.2. Lexikologi Erizpidean Finkapenerako azpibatzordea

Buru-orde/Arduradun: Miren Azkarate

Idazkari: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Patxi Altuna

Juan Carlos Odriozola

Andoni Sagarna

Martzel Ensunza

Patxi Goenaga

Jose M.^a Irazola

Jose M.^a Larrarte

Luis M.^a Mujika

Lourdes Otaegi

Beñat Oihartzabal

Ibon Sarasola

Patxi Uribarren

Tomas Uribeetxebarria

Patri Urkizu

Mikel Zalbide

(*) Lazkaon, 1989-II-24ean onarturikoa.

1.3. Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematisazazordea

Buru-orde/Arduradun: Andres Urrutia

Idazkari: Andoni Sagarna

Kideak: Jose Antonio Aduriz

Claude Harlouxet

Jazinto Iturbe

Jose M.^a Larrarte

Mikel Lasa

Eneko Oregi

Lourdes Otaegi

Ibon Sarasola

II. GRAMATIKA

Buru: Patxi Altuna

Buru-orde: Pello Salaburu

Idazkari: Patxi Goenaga

Idazkari-orde: M.^a Pilar Lasarte

Kideak: Lino Akesolo

Miren Azkarate

Pierre Charritton

Andolin Eguskitza

Jean Haritschelhar

Alan King

Jose M.^a Larrarte

Jose Antonio Mujika

Beñat Oihartzabal

Karmele Rotaetxe

III. DIALEKTOLOGIA

Buru: Francisco Ondarra

3.1. Atlasgintza azpibatzordea

Buru-orde/Arduradun: Jean Haritschelhar

Idazkari: Gotzon Aurrekoetxea

Kideak: Ana M.^a Etxaide

Jose M.^a Etxebarria

Xarles Videgain

3.2. Euskalkien Ikerketa Arruntak azpibatzordea

Buru-orde/Arduradun: Txomin Peillen

Idazkari: Xarles Videgain

Kideak: Iñaki Gaminde

Alfonso Irigoyen

Rosa Miren Pagola

Karmele Rotaetxe

IV. ONOMASTIKA

Buru: Endrike Knörr
 Buru-orde: Alfonso Irigoyen
 Idazkari: Jose Luis Lizundia
 Kideak: Ricardo Cierbide
 Jose Antonio Gonzalez Salazar
 Andres Iñigo
 Jose M.^a Jimeno Jurio
 Jean Baptiste Orpustan
 Patxi Salaberri
 Juan San Martin
 Jose M. Satrustegi

V. LITERATURA

Buru: Juan M.^a Lekuona

5.1. Literatura Klasikoa azpibatzerdea

Buru-orde/Arduradun: Federiko Krutwig
 Idazkari: Jesus Lavin
 Kideak: Mikel Agirreazkuenaga
 Gurutx Ansola
 Adolfo Arejita
 Manu Erzilla
 Juan Angel Etxebarria
 Juan Luis Goikoetxea
 Alfonso Irigoyen
 Juan Jose Pujana

5.2. Herri Literatura azpibatzerdea

Buru-orde/Arduradun: Antonio Zavala
 Idazkari: Pello Esnal
 Kideak: Jose M.^a Aranalde
 Antton Aranburu
 Jesus M.^a Etxezarreta
 Alfonso Irigoyen
 Jose M.^a Iriondo
 Mixel Itzaina
 Emile Larre
 Juan M.^a Lekuona
 Abel Muniategi

5.3. Gaurko Literatura azpibatzerdea

Arduradun: Juan M.^a Lekuona
 Idazkari: izendatzekotan
 Kideak: izendatzekotan

VI. JAGON Sailaren Batzordea

Jagon Sailburu eta Gasteizko Ordezkar: Endrike Knörr

Donostiako Ordezkar: Juan M.^a Lekuona

Iruñeko Ordezkar: Jose M. Satrustegi

Baionako Ordezkar: Pierre Charritton

Egoitzatik: Jose Antonio Arana, Diruzaina

Jose Luis Lizundia, Idazkari-ordea

EGITURAZKO Batzordeak**VII. “AZKUE BIBLIOTEKA”**

Buru: Pello Salaburu

Arduradun/Idazkari: Jose Antonio Arana

Ekonomi Eragilea: Juan Jose Zearreta

Kideak: Federico Barrenengoa

Jon Bilbao

Juan Angel Etxebarria

Juan Luis Goikoetxea

VIII. ARGITARAPENAK

Buru: Jean Haritschelhar

Eragile-Idazkari: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak: Juan M.^a Lekuona

Jose M. Satrustegi

Jose Antonio Arana Martija

Luis Villasante

Endrike Knörr

Pello Salaburu

Patxi Altuna

Pierre Charritton

IX. JURIDIKOA

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija

Abel Muniategi

Andres Urrutia

Patxi Zabaleta

X. DIRUZAINZA

Diruzaina: Jose Antonio Arana Martija

Ekonomi Eragilea: Juan Jose Zearreta

EUSKALTZAIN OSOAK / ACADEMICOS DE NUMERO

1. Patxi Altuna, E.U.T.G., Mundaiz, Apdo. 1359 Postakutxa, 20080 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-27 31 00.
2. Jose Antonio Arana Martija, Karmelo Etxegarai, 6, 48300 GERNIKA (Bizkaia), 94-415 27 45 (Bulegoa).
3. Jose Migel Barandiaran, "Sara", 20211 ATAUN (Gipuzkoa), 943-88 12 52.
4. Pierre Charritton, 3 impasse Port Neuf, 64100 BAYONNE (France), 59 59 81 27.
5. Jean Louis Davant, École d'Agriculture du Pays Basque, rue de l'Ursuya, 64240 HASPARREN (France), 59 29 60 20 (Eskola); 59 28 14 14 (Urrustoi).
6. Xabier Diharce, "Iratzeder", Abbaye Notre Dame de Belloc, 64670 URT (64240 Hasparren) (France), 59 29 65 55.
7. Eusebio Erkiaga, Rodríguez Arias, 31-4 ezk., 48011 BILBO, 94-444 22 33.
8. Jean Haritschelhar, "Elorrieta", 24 route de Lamigotte, 64600 ANGLET (France), 59 59 08 98 (Erakustokia); 59 03 85 06 (Etxea).
9. Jean Hiriart-Urruty, Vicaire Général, Evêche, 16 rue des Gouverneurs, 64100 BAYONNE (France), 59 59 16 88.
10. Alfonso Irigoyen, Trenbideko Etorbidea, 2-5 B, 48013 BILBAO, 94-4422770.
11. Endrike Knörr, Mateo Múgica, 8-2 C, 01009 VITORIA/GASTEIZ, 945-22 38 03 (Etxea); 23 36 48 (Ordezkaritza).
12. Federico Krutwig, Berastegi, 1-2.º izda, 48002 BILBO, 94-423 78 87.
13. Antonio M.^a Labayen, San Francisco, 35-pral., 20400 TOLOSA (Guipúzcoa), 943-65 10 82.
14. Emile Larre, Curé, Irissarry, 64780 OSSES (France), 59 37 60 67.
15. Juan Mari Lekuona, Seminario Diocesano, Paseo Heriz, 82, 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-21 39 11; 943-42 80 50 (Ordezkaritza).

16. Francisco Ondarra, Colegio de P.P. Capuchinos, 31795 LEKAROS (Baztan) (Nafarroa), 948-58 00 00.
17. Txomin Peillen, Ibarburu, Sainte Engrace, 64560 Licq-Atherey (France), 59 28 62 44; Faculté des Lettres de Pau, Avenue Poplawski, 64000 PAU (France), 59 92 32-41
18. Pello Salaburu, Sarriena, 153, 48940 LEIOA (Bizkaia), 94-464 21 24.
19. Juan San Martin, Bidasoa Ibiltokia, 4, 20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa), 943-64 14 35.
20. Ibon Sarasola, Paseo Duque de Mandas, 37-1, 20012 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-28 33 40.
21. Jose M. Satrustegi, 31810 URDIAIN (Nafarroa), 948-56 29 06 (Etxea); 948-22 34 71 (Ordezkaritza).
22. Luis Villasante, Arantzazuko Santutegia, 20560 OÑATI (Gipuzkoa), 943-78 09 51.
23. Patxi Zabaleta, Amaia, 2-C-1, 31002 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-26 71 39; 948-22 84 71 (bulegoa).
24. Antonio Zavala, P.P. Jesuitas, 31411 XABIER (Nafarroa), 948-88 40 00.

Oharra: — Frantziara deitzeko: 0733 eta gero zortzi zenbakiak.
— Frantziatik deitzeko: 1934 eta gero beste zenbakiak.

EUSKALTZAIN OHOREZKOAK / ACADEMICOS DE HONOR

1. Jacques Allières, 25 route d'Espagne, "L'Orangerie", 31300 TOULOUSE (France), 61 40 15 10.
2. Julio Caro Baroja, "Itzea", B.º Alzate, 31780 BERA (Nafarroa), 948-63 00 20; Alfonso XII, 50-7, 28014 MADRID, 91-230 68 51.
3. Jon Bilbao, "Osabene" Torrebarria, 5, 48990 GETXO (Bizkaia), 94-460 42 83.
4. Iñaki Eizmendi, "Basarri", Ntra. Sra. del Pilar, 10, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa), 943-84 15 37.
5. Justo Gárate, Mitre, 574-4.º A. Dpto. 1, 5500 MENDOZA (Argentina), 29 36 72.
6. Nils M. Holmer, Freninge 22:22, S-270 33 VOLLSTJÖ, SUECIA.
7. Jean Pierre Iratchet, Notre Dame de Buglose par DAX, 40 (France).
8. Bedita Larrakoetxea, Canónigos Regulares, Pío Mortara, 1, 20560 OÑATI (Gipuzkoa), 943-78 03 11.
9. Gerardo López de Gereñu, San Vicente de Paul, 8, 01001 VITORIA/GASTEIZ, 945-25 46 14.
10. André Martinet, 16 rue Pierre-Bonnard, 92260 Fontenay-aux-Roses (France).
11. Santiago Onaindia, PP. Carmelitas, Larrea, 48340 ZORNOTZA (Bizkaia), 94-673 00 88.
12. Jorge de Riezu, 31795 LEKAROS (Baztan) (Nafarroa), 948-58 00 00.
13. Terence Harrison Wilbur, Departament of Germanic Languages, University of California, 90024 LOS ANGELES (USA).
14. Pedro de Yrizar, Lagasca, 54, 28001 MADRID, 91-276 63 93.

EUSKALTZAIN URGAZLEAK ACADEMICOS CORRESPONDIENTES

- Jesús Acha, Avda. Sancho el Fuerte, 96, "Irrintzi", 31001 IRUÑEA/PAMPLO-
NA, 948-25 70 21.
- M.^a Dolores Agirre, Urbietta, 5-2, 20006 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN,
943-42 43 03.
- Eugenio Agirretxe, B.º Zamalbide, Eliza, 20100 ERRETERIA (Gipuzkoa),
943-51 04 42.
- Lino Akesolo, PP. Carmelitas, Carmelo, 10, 48004 BEGOÑA-BILBAO, 94-412 43 43.
- Gexan Alfaro, Librairie Zabal, 52 rue Panecau, 64100 BAYONNE (France),
59 59 43 90.
- Jose Luis Alvarez Enparanza "Txillardegui", Apdo. 125 Postakutxa, 20150 BILLA-
BONA (Gipuzkoa), 943-692187.
- Xabier Amuriza, Legarreibi, 1-2.º dcha., 48340 ZORNOTZA (Bizkaia), 94-673 21 42.
- Pierre Andiazabal, Grand Séminaire, Avenue Darrigrand, 64100 BAYONNE (Fran-
ce), 59 63 33 40.
- Marcelino Andrinua, Abadetxea, 48212 MAÑARIA (Bizkaia), 94-68 24 004.
- Juan Apezetxea, Avda. de Guipúzcoa, 5, "Villa Antonia", 31012 IRUÑEA/PAM-
PLONA, 948-11 21 31.
- Jose M. Aranalde, San Inazio Auzunea, 9-1. D. 20400 IBARRA (Gipuzkoa),
943-21 60 44.
- Xabier Aranburu, Miracruz, 28-A-4.º dcha., 20002 DONOSTIA/SAN SEBAS-
TIAN, 943/27 97 04.
- Xipri Arbelbide, 14 rue Salie, 64100 BAYONNE (France), 59 59 31 14.
- Adolfo Arejita, Labairu, 28 pral. ezk., 48010 BILBO, 94-432 72 51.
- Josu Arenaza Gran Vía, 82-2.º izqda., 48011 BILBO, 94-441 41 81.
- Jose Antonio Arkotxa, Sorgintxulo, 2-12 C, 20100 ERRETERIA (Gipuzkoa),
943-21 60 44.
- Begoña Arregi, Pío Baroja, 8-4 C, 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN,
943-21 62 06.
- Pakita Arregi, Matia. 58-3, 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-21 25 32.
- Mikel Atxaga, DEIA, Carlos I, 3-bajo, 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN,
943-46 24 88.

Miren Azkarate, Sancho el Sabio, 26-6 D, 20010 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN 943-46 75 85.

Jose M. Azpiroz, Dermitaleria, 3-1.º dcha., 31011 IRUÑEA/PAMPLONA.

Jose Azurmendi, Ategorrieta Hiribidea, 23-2, 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-27 73 46.

* * *

Ricardo Badiola Uriarte, Errotalde 17 J, 48990 Getxo (Bizkaia), 94-460 05 11 (Etxea); 94-415 81 55 (Bulegoa).

Gaizka Barandiaran, Col. San Ignacio, Apdo. 3059 Postakutxa, 20080 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, 943-28 95 00.

Federico de Barrenengoa, Plaza Plácido Careaga, 12-5 izqda., 48014 BILBO, 94-435 38 19.

Iñaki Barriola, "Isturín", Paseo Ayete, 20009 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-21 16 73.

Serafin Basauri, Txirio kale, 1-3, 20600 EIBAR (Gipuzkoa), 943-71 35 90.

Jose Basterretxea, Sangüesa, 13-1.º izqda., 31003 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-23 66 96.

Alessandro Baussani, Facoltà di Lettere e Filosofia, Università degli Studi di Roma, 000100 ROMA.

Isidro Baztarrika, PP., Benedictinos (Santuario), 01193 ESTIBALIZ (Araba), 945-21 11 49.

Iñaki Beobide, Narrica, 31-3, 20003 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-42 09 82.

Julene Berrojalbiz, Rodríguez Arias, 29-3. ezk. 48011 BILBO, 94-443 79 43.

Pedro Berrondo, Gral. Lersundi, 6 ent. izqda., 20007 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-46 18 57.

Antonio Berrueta, Pio XII, 16-6 B, 01004 VITORIA/GASTEIZ, 945-25 12 84.

Milagros Bidegain, Sancho-enea, 9, 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa).

Antonio Bilbao, Apdo. 28 Postakutxa, 48980 SANTURTZI (Bizkaia).

Felix Bilbao, PP. Franciscanos, 48393 FORUA (Bizkaia), 94-685 20 01.

* * *

Joseph Camino, Gran Séminaire, Avenue Darrigrand, 64100 BAYONNE (France), 59 63 33 40.

Junes Casenave-Harigile, Apez etxia, Presbytère, ALCAY, 64470 TARDETS-SORHOLUS (France), 59 28 54 66.

Jorge Cortés Izal, Monasterio Velate, 5-7, 31011 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-25 57 59.

Jean Pierre Curutchet, 64780 HELETTE (France), 59 37 61 04.

* * *

Pedro Diez de Ulzurrun, San Anton, 43, 31001 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-22 21 22.

Jean Baptiste Dirassar, Lotissement Arrantzaleak, CIBOURE, 64500 SAINT-JEAN-DE-LUZ (France), 59 26 05 95.

Pierre Duny Pêtre, Maison Héguitoa, 4 Chemin d'Olhonce, 64220 SAINT-JEAN-PIED-DE-PORT (France), 59 37 04 91.

* * *

- Kepa Enbeita, Auzo-lana, S. A., 01449 ABORNICANO (Urkabustaiz) (Araba), 945-43 00 32.
- Karmele Esnal, Zabaleta, 50-7 D, 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-28 09 15.
- Bernardo Estornes, Secundino Esnaola, 13-3.º izqda., 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
- Eñaut Etchamendy, Professeur Agronome, Saint-Palais, 64120 BEYRIE-SUR-JOYEUSE (France), 59 65 80 95.
- Jean Baptiste Etcharren, Chemin Kurutxamendi, 64220 SAINT-JEAN-PIED-DE-PORT (France), 59 37 31 99.
- P. Etchehandi, Abbaye Notre Dame de Belloc, 64670 URT (64240 Hasparren) (France), 59 29 65 55.
- Jacques Etcheverry, 2 Allées Bouflers, 64100 BAYONNE (France).
- Jean Baptiste Etcheverry, Aumonier, 64100 BAYONNE (France).
- Jose M. Etxaburu, Villa Ongi-Etorri, B.º Amute, 20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa), 943-64 30 02.
- Yon Etxaide, Paseo de Colón, 33-4.º izqda., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-27 78 18.
- Ana M.ª Etxaide, Trav. Bayon, 1-2 G, 31011 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-26 08 80.
- Juan Angel Etxebarria, Carlos Gangoiti, 5-1.º izqda., 48300 GERNIKA (Bizkaia), 94-685 49 52; 94-685 05 89 (eskola).
- Jose M. Etxebarria, E.U.T.G., Mundaiz, Postakutxa 1359, 20080 DONOSTIA-/SAN SEBASTIAN, 943-27 31 00; 943-65 30 09 (komentua).
- Peter Etxeberria, 491, Court 89501 Reno, Nevada (USA).
- Carmelo Etxenagusia, Monasterio del Refugio, Zabalbide, 104, 48006 BILBO, 94-411 99 99 (Apezpikutegia).
- Eustasio Etxezarreta, Urdaneta, 10, Apdo. 579 Postakutxa, 20006 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-46 53 26.

* * *

- Patrik Farell (Darragh), 41 Nutley Lane, DUBLIN (Irlanda), 69 26 41.
- Jaxinto Fernández Setien, Orkolaga, 12-3, 20120 HERNANI (Gipuzkoa).

* * *

- Bitoriano Gandiaga, PP. Franciscanos, Arantzazuko Santutegia, 20560 OÑATI (Gipuzkoa), 943-78 13 02.
- Marcelino Garde, Presbítero, 31448 RIPODAS (Nafarroa).
- José Garmendia, San Telmo, Apartado 84, 41080 SEVILLA.
- Juan Garmendia Larrañaga, Mayor, 1, 20400 TOLOSA (Gipuzkoa), 943-67 09 19.
- Salvador Garmendia, Mugika-enea, 20270 ANOETA (Gipuzkoa), 943-66 25 39.
- Xabier Gereño, Avda. del Ejército, 18-3.º dcha., 48014 BILBO, 94-435 52 63.
- Paul Gilsou, Abbé, Paroisse du Gros-Caillou, PARIS-7.
- Patxi Goenaga, Abendaño, 21-4 C, 01008 VITORIA/GASTEIZ, 945-24 67 71.
- Manex Goienetxe, Chikitoys, Route d'Aritzague, 64600 ANGLET (France), 59 42 39 33.

Juan Luis Goikoetxea Médico Municipal Pedro Cortés, 3-9 a, 48006 BILBO, 94-424 70 09 (Bilbo); 94-453 36 42 (Derio).

Bernard Goity, Evêche, rue des Gouverneurs, 64100 BAYONNE (France).

* * *

Marcelin Hegiaphal, Pastoralier Cheraute par, 64130 MAULEON (France), 59 28 17 86.

* * *

Mariano Iceta, 31700 ELIZONDO (Baztan) (Nafarroa), 948-58 07 55.

Roger Idiart, Curé de Sauguis-Saint Etienne, 64470 TARDETS-SORHOLUS (France), 59 28 51 65.

Arantza Idiazabal, Tolarieta, 6-1 esk., 20180 OIARTZUN (Gipuzkoa).

Joseba Intxausti, Avda. Ategorrieta, 23-2, 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-27 17 13.

Andrés Iñigo, Sangüesa, 1-3.º, 31003 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-24 74 74.

Jose Angel Irigaray, Aldamar, 9-1 dcha., 20003 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-42 64 89.

Jose Mari Iriondo, Nafarroa, 11, Eguzki-lore, 2-3 B, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa), 943-83 43 51.

Michel Itçaina, Secrétaire de Mairie, 64250 CAMBO (France), 59 29 72 55.

Fermin Ixurko, 31878 ALDAZ (Nafarroa), 948-50 42 82.

* * *

Jose M. Jimeno Jurío, Monasterio Usun, 4-2.º C, esk., 31011 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-26 05 72.

* * *

Ramuntxo Kanblong, Route des Pins, 64600 ANGLET (France), 59 03 83 69.

Jaime Kerexeta, Presbítero, San Roque, 24, 48230 ELORRIO (Bizkaia), 94-682 00 12.

Xabier Kintana, Euskal Herriko Unibertsitatea/U.P.V., Euskararako Gabinete Teknikoa, Apdo. 1397 Postakutxa, 48940 LEIOA (Bizkaia), 94-4648800-2080 Luzapena.

Jon Kortazar, Elorriaga, 8-3.º, 48100 MUNGIA (Bizkaia), 94-674 29 02.

* * *

Daniel Landart, Villa "Heleta", 64100 MOUGUERRE (France), 59 31 54 57.

Jose Mari Larrarte, Nieves Cano, 55, 01006 VITORIA/GASTEIZ, 945-23 24 70.

Mikel Lasa, San Vicente, 5-4. 20003 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-42 54 48.

Jose Manuel Lasarte, Presbítero, 31840 UHARTE-ARAKIL (Nafarroa), 948-47 40 08.

M.ª Pilar Lasarte, Portuene, 10-3 izqda., 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-21 50 15.

Imanol Laspiur, Aldatze, 3-2 izqda., 20600 EIBAR (Gipuzkoa), 943-71 32 88.

Gabriel Lertxundi, Abbaye Nôtre Dame de Belloc, 64670 URT (64240 Hasparren) (France), 59 29 65 55.

Anjel Lertxundi, Villa Teresita, s/n., 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa), 943-830591.
 Juan Antonio Letamendia, Gabriel Aresti torrea, 3, 20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa), 943-64 35 14.

Xabier Lete, Plaza San Juan, 20, 20130 URNIETA (Guipuzkoa), 943-55 18 49.
 Jose Luis Lizundia, Bruno Mauricio Zabala, 22-2 F, 48200 DURANGO (Bizkaia), 94-681 41 09/(Etxea); 94-415 81 55 (Bulegoa).

Jose Antonio Loidi, Farmacia, Paseo de Colón, 93, 20300 IRUN (Gipuzkoa), 943-61 26 78.

* * *

Peli Martin Latorre, M. Iradier, 9-4 izqda., 01006 VITORIA/GASTEIZ, 945-23 29 59.
 Xabier Mendiguren, Doctor Delgado, 8-4 C, 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-27 29 51.

Fernando Mendizabal, Camino Zarategi, 18-2 B, Intxaurren, 20015 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Marie Jeanne Minaberry, Journaliste, 64480 USTARITZ (France).

Justo Mocoora, PP. Escolapios, Alda. Recalde, 19, 48009 BILBO, 94-424 14 03.

Luis M. Mujika, Zabaleta, 49-4 dcha., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-283637.

Jose Antonio Mujika, Plaza del Cedro, 3-9 dcha., Bidebieta, 1, 20016 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-39 25 28.

Abel Muniategi, Bizkaiburu, 12-6 A, 48370 BERMEO, 94-416 40 22.

* * *

Jesus Oleaga, Elcano, 18, ent. dcha., 48008 BILBO, 94-4436957.

Ignacio Omaechevarria, Franciscanos, Paseo Zorrilla, 27, 47007 VALLADOLID, 983-23 30 26.

Josu Oregi, Paseo Urdangarin, 20570 BERGARA (Gipuzkoa), 943-76 15 61.

Karlos Otegi, Aresti, 3-2 D, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa), 943-83 46 92.

Beñat Oyhartzabal, Bordaberria, 1 rue de Hondritz de Haut, 64600 ANGLET (France), 59 52 10 47.

* * *

Pedro Pujana, Virgen de Begoña, 41, 48006 BILBO, 94-412 69 27.

* * *

José Antonio Retolaza, Orueta, 1-3, 48009 BILBO, 94-423 45 73.

Rudolf de Rijk, Newtonstraat, 69, II, 1098 HA, AMSTERDAM (Holanda), 20-93 56 50.

Karmele Rotaetxe, Plaza Bombero Echániz, 4-6 izqda., 48010 BILBO, 94-431 40 33.

Manuel M.^a Ruiz Urrestarazu, Adriano VI, 22-7 izqda. 01008 VITORIA/GASTEIZ.

* * *

Andoni Sagarna, Eguzki-etxea, Kale Zahar auzunea, 20170 USURBIL (Gipuzkoa), 943-36 53 73.

Ramon Saizarbitoria, Peña y Goñi, 1-6 dcha., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-28 79 90.

Pedro San Cristobal, Diputación General de Aragón. Dirección General de Acción Cultural, edf. picneatelli. P.º M. Agustín, s/n. 50004 ZARAGOZA, 976-43 95 00. Dip. ext. 2210.

Jose M. Sánchez Carrión, Udaletzeko plaza, 1-6, 31001 IRUÑEA/PAMPLONA. Palma).

Carlos Santamaria, Buen Pastor, 13, 20005 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-41 52 97.

* * *

Jose Ignacio Tellechea, Usandizaga, 27-5 izqda., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-28 00 62.

Francisco Tirapu, Plaza San José, 4, 31001 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-22 79 19.

Juan M. Torrealdai, Ategorrieta, 23-2, 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-27 17 13.

* * *

Martin Ugalde, Almirante Juan Allondo, Villa Carolina, A-4 dcha., 20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa), 943-64 15 05.

Patxi Uribarren, Carmelo de Begoña, 10, 48004 BILBO, 94-412 43 43.

Ignacio Urquijo, Munibe, 48270 MARKINA (Bizkaia), 94-686 60 31.

Arantza Urretavizcaya, Avda. Madrid, 8-9, A, 20011 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Tomas Uthurry, Professeur, Grand Séminaire, Avenue Jean Darrigrand, 64100 BAYONNE (France), 59 63 33 40.

* * *

Jose Mari Velez de Mendizabal, Naparroa Etorbidea, 9-3, 20500 ARRASATE (Gipuzkoa).

Charles Videgain, Solakia, 7, Avenue de Près, 64100 BAYONNE (France). 59 55 14 46.

* * *

Mikel Zalbide, Carlos I, 13-9 C, 20011 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-46 54 62

Gabriel Zapiain, Padre Larroca, 7, 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Anbrosi Zatarain, Zubieta, 40-2, 20007 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-42 12 36

Juan Jose Zearreta, Andrandi auzunea, 7-3, 48340 ZORNOTZA (Bizkaia) 94-673 15 20 (Etxea); 94-415 81 55 (Bulegoa).

Agustín Zubikarai, Sabin Arana, 4-4, 48700 ONDARROA (Bizkaia), 94-683 02 87

Jose Migel Zumalabe, Urbietta, 56-1, 20006 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN 943-45 95 97.

AURKIBIDEA 1989

AURKIBIDEA 1989

ALBERDI, Mirari: <i>Latsibi</i> elaberriaren aurkezpena	701-702
ALBISTUR MARIN, Xabier: Ibon Sarasola euskaltzain berriari bere omenaldian	401-402
ALTUNA, Patxi:	
– Orixek Jesusen Lagundian emandako urteak (1907-1923)	71-122
– Euskal filologiazkoak, nahas mahas	165-184
– Zergatik edizio kritikoa	533-538
AMEZAGA, Arantzazu: Reseña para un acto	287-290
AMEZAGA, Clark: Homenaje a mi padre Vicente Amézaga Aresti .	285-286
ARANA MARTIJA, Jose Antonio:	
– Wentworth Webster-en ' <i>Basque Legend's</i>	541-548
– <i>Latsibi</i> elaberriaren aurkezpena	699-700
ARANALDE, J. M.: <i>Euskaldunak</i> : Orix bere berri ematen, edo egi-lea protagonista	123-130
ARDANZA, Jose Antonio, Euskal Komunitate Autonomoko Lehendakaria: Euskaltzaindiko Zuzendaritzaren karguen aldaketa	689-690
BADIOLA URIARTE, Ricardo: Vicente Amezaga Arestiren omenez .	277-284
BARANDIARAN, Joxe Migel: Jose Migel Barandiaran jaunari Euskaltzaindiak omenaldia	695-696
EGIGUREN, Jesus: euskaltzain jaunok	379-382
ENSUNZA, Martxel: Erdal adjetibo erreferentzialetarako euskal ordainak	577-596
Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca:	
– Marrazki landuen izenak	661-672
– Protokolo eta antzeko arazoak arautzeaz	673-674
– Elduain	325-326
– Oiartzun	327-328

Euskaltzaindiaren Batzar - Agiriak:	
– 1988-VII, IX, X, XI eta XII	329-352
– 1989-I, II, III, IV, V eta VI	631-660
Euskaltzaindiaren aurkitegia:	
Egoitza/Sede	737
“Azkue Biblioteka”	737
Gordailua/Almacén	737
Ordezkaritzak/Delegaciones	739
Euskaltzainburugoa/Cargos Académicos y ejecutivos	741
Batzorde guztien organigrama/Organigrama de las Comisiones ...	746
Euskaltzain osoak/Académicos de número	747
Euskaltzain ohorezkoak/Académicos de honor	749
Euskaltzain urgazleak/Académicos correspondientes	751
GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan: <i>Euskal Lexiko Etnografikoa</i> -ren	
ikuspegi txiki-labur bat	157-162
GRENET, Henri: Txomin Peillen euskaltzain berria	429-431
HARITSCHELHAR, Jean:	
– Jean Haritschelhar-en harrerako erantzuna	53-58
– L. Dassance euskaltzain zenaren oroitzapenetan	361-364
– Ibon Sarasola Euskaltzaindian sartzea	403-404
– Jean Haritschelhar Euskaltzainburuaren ihardespena	433
– Euskaltzaindiko kargu-aldatzeak	683-688
– Joxe Migel Barandiaran jaunari Euskaltzaindiak omenaldia ...	693-694
– E. Goyheneche	731-734
IDIRIN, Maite: Txomin Peillenen sarrera egunean kantaldia	481-482
IÑARRA, Jon: Juan Mari Lekuona Euskaltzaindian sartzea	9-10
IRIGOIEN, Alfonso:	
– Ez ukatzailea euskal tradizioaren bidetik noiz ta nola	241-246
– Vasc. doñu, “aire, melodía”, y el rumano cirilógrafo	253-256
– II encuentro de los tres “Durangos” y otros homónimos en la toponimia	305-308
– Eusebio Erkiaga Lekeitioko seme ospetsu	355-356
– F. Krutwig Athenetan elkarte bateko kide osoa/F. Krutwig miembro titular en Atenas	357-360
– Txomin Peillen euskaltzain berriaren hitzaldiari	467-480
– Oihenart-en atotitz eta erretrauz nota tipia	563-566
– <i>Los Arcos</i> Nafarroako hiriarren izena euskaraz <i>urantzia</i> ?	713-722
ITURRIA, Karmelo: Juan A. Ubillosen II. mendeurrena	499-516
IXURKO, Fermín: Orixeren mendeurreneko predikua	151-153
KNÖRR, Endrike:	
– Jean Haritschelhar “Doctor honoris causa”	383-384
– E. Knörren harrerako erantzuna	421-426
– En la Presentación de <i>toponimia alavesa, seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses</i>	711-712

LABORDE, Eduardo: Juan A. Ubillosen II. mendeurrena	489-490
LEKUONA, Juan Mari:	
– Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz	17-44
– Manuel Lekuona, kurturlari euskalduna	45-52
– Izaera eta ofizio bereziko pertsonaien erretaula <i>euskaldunak</i> poeman	131-150
LEKUONA, Andoni: Anaiari bertsoak	59-62
LIZUNDIA, Jose Luis:	
– <i>Elduain</i> herri-izenari buruzko adierazpena	325-326
– <i>Oiartzun</i> herri-izenari buruzko adierazpena	327-328
– Protokolo eta antzeko arazoak arautzeaz	673-674
MALLEA, A.: Zumarraga Mexicoko Apezpikuaren gutuna Urti Aben- daiñori 1547n idatzia	311-320
MARTIRENA, Juan Cruz: Euskaltzainburu eta Euskaltzaindiko bazki- de agurgarriok	65-66
MENABDE, Ts. G.: Sobre el rema del vasco	621-628
MORVAN, Michel:	
– Basque <i>on</i> et latin <i>bonum</i>	247-252
– Note a propos de quelques points de typologie des liquides et vibrantes en Altaïque	569-572
MUJICA, Luis M. ^a : Orixe oroitzuz	153-154
MUNIAATEGI, Abel: euskara Konstituziotik	573-576
ODRIOZOLA, Juan Carlos:	
– Gazteleraren <i>como</i> juntagailu polisemikoak euskararen baitan izan ditzakeen ordezkoen problematika:	
1. Subordinazioaren esparrua	187-240
2. Atribuzioaren esparrua	597-620
ONDARRA, Frantzisko: <i>Los Arcos</i> -en euskal izena <i>Urantzia</i> ote? ..	723-724
PEILLEN, Txomin: Tx. <i>Euskaldun maiteok, agur!</i>	435-466
Real Academia de la Lengua Vasca (ikus Euskaltzaindia)	
SAN MARTIN, Juan:	
– Francisco de Ibarra, conquistador de Nueva Vizcaya y fundador de la ciudad de Durango, en México	299-304
– Jacinto Carrasquedo Olarra	387-388
– Jesus M. ^a Leizaola Sánchez	727-730
SARASOLA, Ibon: Euskal hitzez	405-420
SARRIA, Javier de: Vicente Amezaga Arestiri omenaldia	275-276
VILLASANTE, Luis:	
– Joan Mari Lekuonaren Euskaltzaindian sartzea	11-16
– “Orixe”-ren jaiotzako mendeurrenean	67-70

– Altunaren txostenari sarrera	163-164
– Encuentro de los tres Durangos con la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia	293-298
– Antonio Mallearen artikulua	309-310
– <i>Guero</i> -ren faksimilezko edizioa aurkeztean	365-374
– Eusko Legebiltzarrean	375-378
– Aita Ubillosen “christau doctriñ berri-ecarlea”. Liburu honen berezitasun batzuez oharrak	511-532
– Bilbon, Kargu-aldatzeak zirela eta, esandako hitzak	681-682
ZABALA, Igone: Gazteleraren <i>Como</i> juntagailu polisemikoak euskara- ren baitan izan ditzakeen ordezkoen problematika:	
1. Subordinazioaren esparrua	187-240
2. Atribuzioaren esparrua	597-620
ZYTSAR' Yy. VL.:	
– Quelques comparaisons Kharthvélo-basques du domaine du lexi- que de l'élevage	257-264
– Sobre el rema del vasco	621-628
ZUAZO, Koldo: Euskara batua, aintzindariak eta beste	265-272